

**XXI. MENDE
HASIERAKO
HIZKUNTZA
POLITIKAREN
OINARRIAK**

*Euskara,
XXI, mendeko
hizkuntza bizia
egunerokoa eta
noranahikoa*



euskara

BATZORDE-ATAL BEREZIKO KIDEEN

EKARPENAK

**EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA
CONSEJO ASESOR DEL EUSKERA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

XXI. MENDE HASIERAKO HIZKUNTZA POLITIKAREN OINARRIAK

BATZORDE-ATAL BEREZIKO KIDEEN EKARPENAK

*EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA
CONSEJO ASESOR DEL EUSKERA*



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2008

Lan honen bibliografia-erregistroa
Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:

<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

Argitaraldia:	I.a, 2008ko uztaila
Ale-kopurua:	1.500 ale
© txostenena:	Egile bakoitza
© argitaraldi honena:	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Internet:	www.euskadi.net/euskara21
Azala:	Ainhoa Arroyo
Diseinua eta maketazioa:	Junkal Motxaile
Inprimaketa:	Gráficas Santamaría, S.A. www.grificassantamaria.com
ISBN:	978-84-457-2781-2
Lege gordailua:	VI-334/08

AURKIBIDEA

HITZAURREA

Patxi Baztarrika Galparsoro, Hizkuntza Politikarako sailburuordea	II
-------------------------------------------------------------------	----

EKARPENAK

Kike Amonarriz	15
Joseba Arregi	41
Mikel Basabe	57
Ana de Castro	69
Miren Dobarán	75
Joseba Iñaki Etxezarreta	85
Itziar Idiazabal	99
Ankel Lertxundi	121
Jose Luis Lizundia	131
Koldo Martínez	149
Lucía Martínez	159
Ludger Mees	171
Xabier Mendiguren	189
Jasone Mendizabal	223
Mertxe Mugika	275
Tomas Uribeetxeberria	295
Ana Urkiza	315
Mikel Zalbide	335

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN BATZORDE OSOKO KIDEAK

1. Lehendakaria: Juan Jose Ibarretxe Markuartu jauna, Eusko Jaurlaritzako lehendakaria.
2. Lehendakariordea: Miren Azkarate Villar andrea, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua.
3. Patxi Baztarrika Galparsoro jauna, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea.
4. Joseba Erkizia Itoitz jauna, HABEko zuzendari nagusia.
5. Julian Beloki Gerra jauna, Eusko Irratia S.A.ko zuzendari-koordinatzailea, Euskal Irrati Telebistako zuzendari nagusiak aukeratua.
6. Joseba Alkalde Amutxategi jauna, Lehendakariordetzako idazkari nagusia, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak aukeratua.
7. Pedro Otxoa Bernales jauna, Hezkuntza sailburuordea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak aukeratua.
8. Jon Urrutia Mingo jauna, IVAPeko zuzendari nagusia.
9. Lorena López de la Calle andrea, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua, Arabako Foru Aldundiaren proposamenez izendatua.
10. Miren Dobaran Urrutia andrea, Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia, Bizkaiko Foru Aldundiaren proposamenez izendatua.
11. Estibaliz Alkorta Barragan andrea, Euskara zuzendari nagusia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren proposamenez izendatua.
12. Jokin Bildarratz Sorron jauna, EUDELeke elkarteburua, Euskal Udalen Elkarteko ordezkaria.
13. Andrés Urrutia Badiola jauna, euskaltzainburua, Euskaltzaindikoko ordezkaria.

Hizkuntza-normalizazioaren prozesuan eragina duten arloetako pertsona ezagunen artetik organo honen 2007ko urriaren 24ko Aginduaren bitartez izendatuak:

14. Dorleta Alberdi Aretxederreta andrea
15. Sagrario Aleman Astiz andrea
16. Kike Amonarriz Gorria jauna
17. Aurelia Arkotxa andrea
18. Inazio Arregi Gordo jauna
19. Joseba Arruti Lafuente jauna
20. Nerea Azurmendi Zabaleta andrea
21. Koldo Biguri Otxoa de Eribe jauna
22. Garbiñe Biurrun Mancisidor andrea
23. Allande Boutin jauna
24. Ana de Castro Rubalkaba andrea
25. Gotzon Egia Goienetxea jauna
26. Ana Eizagirre Garate andrea
27. Aingeru Epaltza Ruiz de Alda jauna
28. Lore Erriondo Korostola andrea
29. Malores Etxeberria Arrese andrea
30. J. Iñaki Etxezarreta Alberdi jauna
31. Estitxu Fernandez Maritxalar andrea
32. Iñaki Goirizelaia Ordorika jauna
33. Jokin Gorozika Bidaurrezaga jauna
34. Fernando Iraeta Kintela jauna
35. Jean Claud Iriart jauna
36. Odile Kruzeta Olañeta andrea
37. Miguel Lazpiur Lamariano jauna
38. Miren Elixabete Larrinaga Artetxe andrea
39. Anjel Lertxundi Esnal jauna
40. Koldo Martinez Urionabarrenetxea jauna
41. Ludger Mees jauna
42. Mertxe Mugika Balanzategi andrea

43. Imanol Murua Uria jauna
44. Eneko Oregi Gofii jauna
45. Rosa Miren Pagola Petrirena andrea
46. Carlos Ruiz Gonzalez jauna
47. Pello Salaburu Etxeberria jauna
48. Miriam Urkia Gonzalez andrea
49. Ana Urkiza Ibaibarriaga andrea
50. Jesus Uzkudun Illaramendi jauna

Eusko Legebiltzarrak proposaturik izendatuak:

51. Iciar Lamarain Cenitagoya andrea
52. Alberto Lopez Basaguren jauna
53. Garbiñe Mendizabal Mendizabal andrea
54. Txomin Peillen Karrikaburu jauna
55. Tomas Uribe-Etxebarria Maiztegi jauna

Euskararen Aholku Batzordearen idazkaria, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatua:

56. Erramun Osa Ibarloza jauna, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Koordinaziorako zuzendaria

**“XXI. MENDE HASIERAKO HIZKUNTZA POLITIKAREN
OINARRIAK” IZENeko BATZORDE-ATAL BEREZIA**

Patxi Baztarrika Galparsoro jauna, batzorde-ataleko lehendakaria

Erramun Osa Ibarloza jauna, idazkaria

Kike Amonarriz Gorria jauna

Aurelia Arkotxa andrea

Joseba Arregi Aranburu jauna

Mikel Basabe Kortabarria jauna

Koldo Biguri Otxoa de Eribe jauna

Garbiñe Biurrun Mancisidor andrea

Ana de Castro Rubalkaba andrea

Ana Eizagirre Garate andrea

Lore Erriondo Korostola andrea

Miren Dobarán Urrutia andrea

Gotzon Egia Goienetxea jauna

Malores Etxeberria Arrese andrea

Ramon Etxezarreta Aizpuru jauna

J. Iñaki Etxezarreta Alberdi jauna

Itziar Idiazabal Gorrotxategi andrea

Iciar Lamarain Cenitagoya andrea

Gorka Landaburu Illaramendi jauna

Miguel Lazpiur Lamariano jauna

Anjel Lertxundi Esnal jauna

Jose Luis Lizundia Askondo jauna

Alberto Lopez Basaguren jauna

Lucía Martínez Odriozola andrea

Koldo Martinez Urionabarrenetxea jauna
Jasone Mendizabal Altuna andrea
Garbiñe Mendizabal Mendizabal andrea
Xabier Mendiguren Bereziartu jauna
Ludger Mees jauna
Mertxe Mugika Balanzategi andrea
Pedro Ochoa Bernales jauna
Eneko Oregi Goñi jauna
Carlos Ruiz Gonzalez jauna
Pello Salaburu Etxeberria jauna
Tomás Uribe-Etxeberria Maiztegi jauna
Ana Urkiza Ibaibarriaga andrea
Andres Urrutia Badiola jauna
Jesus Uzkudun Ilaramendi jauna
Mikel Zalbide Elustondo jauna

BATZORDE-ATAL IRAUNKORRA

Oinarrizko Txostena prestatu duena

Aurelia Arkotxa andrea
Lore Erriondo Korostola andrea
Alberto Lopez Basaguren jauna
Eneko Oregi Goñi jauna
Pello Salaburu Etxeberria jauna

Erramun Osa Ibarloza jauna, idazkaria
Patxi Baztarrika Galparsoro jauna, batzorde-atalburua

HITZAURREA

Patxi Baztarrika

*Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea
eta "XXI. Mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak"
batzorde-atal bereziko batzorde iraunkorreko buru*

Euskararen Aholku Batzordearen Osokoak, 2007ko urriaren 25ean, eta Kultura sailburuaren proposamenez, aho batez erabaki zuen "XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak" izena duen batzorde-atala eratzea; horren altzora, 2008ko urtarrilaren 14an, Ebazpen bidez izendatu nituen batzorde-atal berezi horretako kideak.

Harrezkero, "XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak" batzorde-atalaren lana elikatzeko, abiarazteko eta gizarte eztabaidari ekin ahal izateko, talde batek jardun zuen batzorde-atal bereziaren apirilaren 29ko bilkuran aurkeztu zen Oinarrizko Txostena atontzen. Aipatu bilkuran, txosten hari buruz gogoeta egin zezaten eskatu zitzaien batzorde-ataleko kideei, nork bere usteekin, bere ikuspegiarekin, aberastu zezan gizarteari erabat irekita dagoen eztabaida saioa.

Izan ere, Euskara 21 izen laburrez ezagutzen dugun gogoeta saio honen sorburuko asmoen baitakoa da parte hartze irekia eta, gaiari dagokienez, zabala. Ezin bestela jokatu, euskararen normal-kuntza aurrera jarraitzeko ilusioa berpizteko xede nagusiz abiarazitako eztabaida eta gogoeta prozesua bultzatzerakoan.

Apirilaren 29ko eskaera haren emaitza da gaur esku artean duzun hau. Hurrengo orrialdeetan irakurri ahal izango dituzunak, beraz, Oinarrizko Txostenak batzorde-ataleko kideei eragin dizkien gogoetak dira. Askotarikoak, ezinbestez, eta gehienak –hala eskatu baitzitzaien–, Oinarrizko Txostenaren egituraren arabera.

Oinarrizko Txostenaren argitalpenaren hitzaurrean garbi utzi nahi izan baldin banuen aipatu txostenak ez zituela bere horretan agortzen txostengileek esateko zuten guztiak, hori bera errepikatu beharrean nago gaur ere, eta, akaso, arrazoi handiagoz oraingo honetan. Izan ere, enkargua ez zen batere erraza: luze hausnartzea eta labur idaztea, eta, hori guztia gutxi balitz, denbora laburrean.

Jarraian datozenak, beraz, destilazioz ondutako iritziak dira, gogoetaren mamiari heltzen diotenak, adarretako hostoetan habiarik egiten ez dutenak. Eta hori zen, hain zuzen, denon asmoa, Euskara 21 gogoeta honi ekiterakoan: mende berri honen hasierak eskatzen duen hizkuntza politikaren oinarriak zehazterakoan irudimen argiz eta seriotasunez jokatzea, zehaztasunez eta begirada garbiz aritzea, sakontasunez eta sotiltasunez jardutea.

Esan gabe doa, jakina, ikuspegi ugaritatik eginiko ekarpenak direla, eta, seguruenera, hainbat kontutan sintesi zailkoak ere gertatuko direla. Baina guzti-guztiek hartzen dute arnasa toki beretik: hizkuntz politika eraginkor eta eguneratu baten aldeko jarrera garbia ageri da orrialde guztietan. Bideak, erritmoak eta, neurri batean, jomugak ere izan daitezke ezberdinak txosten batetik bestera, eta hori da, hain zuzen, Euskara 21 gogoetaren baliorik sendoena: aniztasuna.

Denona eta denontzat baita, inorena eta inorentzat izango bada, euskara gurea.

Amaitzeko, nire eskerrik beroenak eman nahi dizkiet lerrootatik ekarpengile guztiei, eta bermatu nahi diet, era berean, errespetu eta arreta osoz aztertuko dituztela ekarpenok buru naizen batzorde-atalak eta haren batzorde iraunkorrak.

**“XXI. MENDE HASIERARAKO
HIZKUNTZA POLITIKAREN OINARRIAK”
BATZORDE-ATAL BEREZIKO KIDEEN
EKARPENAK**

“XXI. MENDE HASIERARAKO HIZKUNTZA POLITIKAREN OINARRIAK” TXOSTENARI EKARPENAK

Kike Amonarriz

1. SARRERA

1.1. Eztabaida egokia, une egokian

“Udaletxean lana euskaraz egitea lortzen baduzue, San Frantzisko elizako santuak lekuz aldatu eta zuen irudiak jarriko ditut” esan zigun 80ko hamarkadaren hasieran Estanislao Urruzola *Uxola* idazle eta euskaltzale tolosarrak helburu hori lorgarria zela eta horretan ahalegindu behar genuela sinistuta geunden gazteoi. Izan ere, frankismoa sufritu eta 60ko hamarkadatik aurrera euskara berreskuratzearen alde lanean ari ziren euskaltzale haiek ez baitzuten inondik ere uste euskarak gaur normal betetzen dituen eremu batzuetara sekula iritsiko zenik, ezta euskararen hotsak Euskal Herri osoaren luze-zabalean entzun ahal izango zirenik ere.

Aitzitik, 80ko hamarkadaren hasieran lorgarritzat jotzen zen helburu eta itxaropen bete gabe askok, ezkortasuna eta etsipena zabaldu dituzte hizkuntza normalizazioaren alde buru-belarri jardun duen askorengan. Adierazle ugariaren arabera normalizazio-prozesua moteldu egin da urte hauetan eta egoera honek kezka hori areago egin du.

Asko egin da; askoz ere gehiago egin zitekeen.

Datorren urtean 30 urte beteko dira Autonomia Estatutuak euskara hizkuntza ofizial gisa aldarrikatu zuenetik; bestalde, aurtengo 10 urte “Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia” onartu zela. Urte hauetan guztietan, euskal gizartearen egitura eta ezaugarriek

aldaketa sakonak izan dituzte, munduak bizi izandakoen ispilu. Eta horiekin batera, euskal hizkuntza komunitateak ere sakoneko aldaketak izan ditu: frankismoa ezagutu ez duen lehen belaunaldia gizarteratu da; elebakartasuna iragana da, belaunaldi gaztea elea-nitza izateko bidean da (premia eta behar sozio-ekonomiko berriek eraginda); euskararen ezagupena eta erabilera hedatu egin dira...

Akatsak akats eta hutsuneak hutsune, euskararena, hala ere, mundu mailako erreferentzia bilakatu da alor askotan hizkuntza gutxituen biziberritze-prozesuetarako: irakaskuntza arautuan, helduen euskalduntze-alfabetatzean, administrazioan, hedabideetan, teknologia berrietan, herritarren motibazio eta partehartzean...

Erreferentzialtasun horrek, gainera, balio berezia du euskararen kasuan. Besteak beste honako bi arrazoi hauek direla tarteko. Batetik, euskarak hurbileko hizkuntza nagusiekiko duen distantzia linguistikoa handia da; eta bestetik, biziberritze-prozesu honen hasierako egoera oso kaxkarra zen: hiztun gutxi, bai kopuruz, bai proportzioz; hedapen funtzional eta geografiko murrizta...

Ezinbestekoa da, beraz, urte hauetako ibilbidea aztertu eta ebaluatzeaz gain, hurrengo urteetarako norabide berriak markatzea. Eta hori zertarako? Txostenean aipatzen den bezala, hizkuntzen arteko bizikidetasuna bermatuko duen adostasun-politiko soziala, norbanakoen euskararekiko atxikimendua eta gizarte osoaren bultzada eta babesa sendotzeko, besteak beste. Baieztapen horrekin ados egon arren, txostenaren ondorengo ataletan modu argiagoan azaltzen den "euskararen hizkuntza normalizazioa"rekiko aipamen argiagoren bat faltan bota dut txostenaren sarrera honetan.

Txostenean ageri diren kontzeptu batzuk anbiguoegiak gertatu zaizkit (eta ez atal honetan bakarrik). Apika, horrek beharko luke eztabaida honen emaitzetako bat: kontzeptu eta eduki zehatzagoetan formulatzea adostasuna.¹

1 Abiapuntu egokia da horretarako lan hau: ZALBIDE, MIKEL (2002): "Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?" in *Ikastolen IX. Jardunaldi pedagogikoak*. Ikastolen Elkarte. Donostia

1.2. Euskal gizarteak sakoneko aldaketa bizi izan du urteotan

Garapen teknologikoen, Internetek, telefonian gertaturiko berrikuntzek eta digitalizazioak irauli egin dituzte gure bizimodua eta komunikatzeko moduak: pertsonen (batez ere gazteen) eta erakundeen arteko harreman-bideak aldatu egin dira denbora eta espazio mugak izugarri murriztuz. Kultur ekoizpenerako eta kontsumorako aukerak eta joerak ere guztiz eraldatu eta ugaltu dira.

Globalizazioak, harreman ekonomikoen mundializazioa, deslokazioa edo inmigrazio masiboa bezalako fenomenoak eragin ditu, eta gure gizarteko hizkuntzen arteko harreman eta gatazketan elementu berriak erantsi. Deslokazioaren ondorioz, aldaketa sakonak aurreikus daitezke kultur industrien produkzio eta banaketa sistemetan ere. Are gehiago hedabideen eta ikus-entzunezkoen sektorean. Guri dagokigunez, komunikazio talde handien kontzentrazioak eta komunikabide publikoen “nortasun” krisiak, eragin zuzena izan dezakete euskarazko produktuen konpetibitatean.

Egitura eta eredu sozialetan gertaturiko aldaketek eragin zuzena izan dute gizarte-harremanetan eta hizkuntzekiko jarrera nahiz erabileran: emakumearen presentzia sozialaren normalizazioa, familia-egituraren aldaketa, gizartearen zahartze-prozesua, balio-aldaketak, sinesmen erlijiosoen gain-behera edo mugikortasun eta leku-aldatze gero eta ohikoagoak.

Belaunaldi gazteak munduarekin duen harremana ere berria da. Ingelesaren ezagupena orokortzen ari da, eta beronen presentzia handitzen gure eguneroko bizimoduan (lanean, ikasketetan, musikan, Interneten...). Mundua etxean dugu gaur egun, eta, ondorioz, eraikitzen ari garen hizkuntza komunitatea eta herria gero eta mundukoagoak dira. Horren adibide, oraindik ere oso-oso gutxi izan arren, nagusiki euskaraz bizi diren eta ingelesez gaztelaniaz baino hobeto moldatzen diren gazteak (gaztelaniaz euskaraz baino hobeto moldatzen direnak beti izan baititugu).

Hizkuntzaren indarberritzea bestalde, testuinguru zabalago batean ari da garatzen, eta denok dakigu testuinguru hori ez dela guretzat egokiena: normalizazio sozio-politiko ezin gauzaturik, gatazka politikoa eta biolentzia indarrean, eta euskalgintza ere bete-betean ukitu duen Estatuaren jazarpen politikoa... Horrek guztiak, bistan da, zuzenki eta negatiboki eragiten du hizkuntzaren normalizazio-prozesuan.

1.3. Euskara, abaro eta arrago

Euskal Herria gero eta eleanitzagoa da. Etorकिन integrazio sozio-kulturalarekin batera, beraien hizkuntza, kultura eta balioen txertaketa eta kudeaketa erronka latzak izango dira etorkizunean. Politika berritzaileak, irudimentsuak eta herritarrentzat nahiz etorkinentzat erakargarriak jarri behar dira martxan, etorkinak euskarara eta gure hizkuntza komunitatera erakarri eta herritarrak etorkinengana hurbiltzeko². Gero eta iragan eta jatorri desberdin gehiago izango dituen gizarte honetako herritarrek, etorkizuneko proiektu partekatu baten partaide senti daitezen, euskarak jokatu behar duen papera eta izan dezakeen balioa birpentsatu egin behar dira.

Historian zehar euskararekin eta beste hizkuntzekin gertatu den bezala, hemen bizi diren kultura eta hizkuntza desberdinen arrago bihurtu behar du orain ere euskarak, mestizajerako gune eta kanpotik datozenentzat kultur abaro, euskal herritar berrien kultur dibertsitatea gure ondarean integratuz.

Hori lortuta, asko aurreratuko genuke: gurean bizi diren kultura desberdinen elkargune bihurtuko genuke euskara (orain arte funtzio hori bete izan duten gaztelania eta frantsesa bezala); eta, "euskal nortasuna" erdigunean kokatuko genuke, eta ez bigarren mailako nortasun periferikoen linboan, orain arte egon ohi den bezala.

2 ASKOREN ARTEAN (2008): *Inmigrazioa Euskal Herrian* in Jakin aldizkaria 165. Donostia

1.4. Euskal hizkuntza komunitatearen ardatz eta motor

Txostenaren eta eztabaida honen eragin-eremua EAERA mugatu arren, ezin dugu ahaztu, EAE dela eta izango dela (duen pisu demografiko eta ekonomikoarengatik, besteak beste) euskal hizkuntza komunitatearen ardatz eta motor.

Administrazio bakoitzari dagokio bere hizkuntza politika diseinatzea eta erabakitzea, eta lurralde bakoitzeko eragileek diseinatu behar dituzte beren hizkuntza estrategiak. Baina, era berean, logikoa eta beharrezkoa da lurralde desberdinen arteko harremanak finkatu, egituratu eta koordinatzea, hizkuntza politikaren alor eta maila guztietan.

Hizkuntza komunitate bat, funtsean, pertsona eta erakundeen arteko harreman-sare bat da. Hiztun elkarte trinkotu eta euskara estandarra finkatuko badira, ezinbestekoa da Euskal Herri osoko erakunde eta hiztunen arteko harreman-bideak sustatzea (sektoreen artean; administrazioen artean; herri, eskola eta elkarten arteko senidetzeak...). Horrekin batera, kontu arrunt eta ohikoa bihurtu behar genuke hedabideetan askotariko euskal ahotsak (profesionalenak nahiz gainerako parte-hartzaileenak) entzutearena.

Kultur kontsumoaz ari bagara, esate baterako, Iparraldeko edo Nafarroako kultur egitura, produktu eta eskaintza askoren bidegarritasuna, EAeko herritarren erantzukizuna ere bada, euskaldun gehienak bertan bizi garen, eta kontsumo eta laguntza ahalmen handiena bertan dugun neurrian. Muga administratibo-linguistikoek, euskarazko kultur kontsumoa ere banatu egiten baitute. Iparraldean ekoizturiko euskarazko produktuak hegoaldean hedatzeko zailtasunak ditu; gauza bera gertatzen da Nafarroakoekin beren mugetatik kanpo, eta, hein txikiago batean, baita Bizkaikoekin ere.

Azkenik, Estatu eta gainerako administrazioetako euskaldun guztiok hizkuntza eskubide eta aukera berberak izan ditzagun, euskararen onarpen soziala indartu eta euskararen lege-egoera hobetu

dadin, eskain daitekeen laguntza guztia eskaintzen jarraitu beharko litzateke EAEtik, errefusatze-jarrerak indartu besterik egiten ez duten “injerentziarik” gabe.

2. EUSKARA INDARBERRITZEKO HIZKUNTZA POLITIKAREN PARADOXAK. GAUR EGUNGO EGOERAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

2.1. Euskararen gizarte-bilakaera

Txostenak modu egokian zehazten ditu euskararen biziberritze-prozesuaren arrakasta bermatzeko nahitaezkoak diren faktoreak: lege-marko egokia, hizkuntza politika eraginkorra eta herritarren atxikimendua.

Beste formulazio batekin bazen ere, faktore berberak aipatu genituen Hizkuntza Kalitateari buruzko txostenean³ gutxieneko normalizazioaren “oinarrizko faktoreak eta baldintzak” zehaztu genituenean:

- Euskararen lege-babesa.
- Belaunaldi berrien euskararen ezagupena bermatzea.
- Hizkuntza normalizazioaren aldeko jarrera zibiko-politiko.

Euskararen egoeraren bilakaeraz hitz egitean, argi-ilunak aipatzen dira, oro har, jorratutako bidea arrakastatsua izan dela eta argiuneak nagusi izan direla nabarmenduz. Botila erdi-bete / erdi-hutsaren irudia ere maiz erabili izan da euskararen inguruko eztabaidetan.

Irudi horiek baino egokiagoa iruditzen zait, ordea, betetzen ari den botilarena. Izan ere, aurreratu dugunik ezin uka daitekeen

3 EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2004): *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*. Eusko Jaurlaritza – Kultura Saila. Gasteiz.

bezala, esan beharra dago ez zegoela aurreratzen hain zaila ere, desagerpenaren mugetara iritsiak baikinen!

Galdera egokia beraz, beste bat da, nire ustez: egindako aha-
leginak egin eta erabilitako baliabideak erabili ondoren, gizartearen
aldetik izan dugun adostasuna eta bultzada izan ondoren, aurrera-
tu genezakeen guztia aurreratu al dugu? Genituen aurreikuspenak
bete al dira? Zergatik dugu euskaltzale gehienok dezente gehiago
egin zitekeen irudipena, nahiz eta kontziente izan inon gutxitan lor-
tu dela hemengo bezalako aurrerapenik? Zertan egin dugu huts?
Zertan asmatu dugu?

Izan ere, euskarak sekulako urratsak eman ditu Corpusa-
ren estandarizazioan eta normalizazioan, hezkuntzan eta helduen
euskalduntzean, teknologia berrietarako egokitzapenean edo kultur
eta hedabideen eskaintzan. Aitzitik, kezka eragiten du jakiteak kale-
-erabileran aurrerapen nabarmenik ez dela gertatu, administrazioan
euskaraz lanean ari diren atalak edo erakundeak oso gutxi direla,
euskaratik oso urrun bizi den jende asko dagoela edo kultur kontsu-
moa ez dela ezagupenaren proportzioan handitzen ari.

Nolanahi ere, oraindik ere, bilakaera horren argi-ilunen berri
modu zehatzagoan emango diguten adierazle eta ikerketa gehiago
behar ditugu.

2.2. Abiapuntu legala

Puntu honetara iritsita, galdera hau plazaratzen du txostenak: “Ba al
da euskal gizartean herritar gehienek euskararen alde eman nahiko
luketen pausorik eta Euskararen Legeak edo gainerako lege-arauek
trabatzen dutelako bertan behera erortzen denik?”

Formulazio erretoriko samarra duen galdera honi zer eran-
tzun? Herritarren gehiengoaren eskaera jakinei buruz erantzun be-
harko bagenu, ezetz esan beharko genuke; baina gure baieztape-
nak doituz eta ñabartuz gero, ordea, erantzunak beste zentzu bat
hartuko luke eta baietz erantzun beharko genuke. Honako hiru mai-
la hauetan, bederen:

- Orokorrean. Estatuak eta bere administrazioak hizkuntza normalizazio-prozesutik kanpo kokatu dute beren burua lege-arazo handirik gabe (euskara Gorteetan edo Senatuan erabiltzeko debekua, estatuaren erakunde eta he-dabideak, armada, poliziak...). Eta esango nuke, esate baterako, herritar gehienek onartuko luketela hala nahi dutenek epaitegietan beren seme-alaba jaioberriak arazorik gabe inskribatu ahal izatea euskaraz.
- Eremu jakinetan. Ez dira gutxi euskara lehentasun osoz erabiltzea erabaki arren horretarako lege-arazoak izan dituzten erakundeak. Etiketajearen gaia ere hor dugu; kontsumitzaile euskaldunok, nekez aurkituko du kontsumorako gaien informazioa euskaraz...
- Aplikazio praktikoan. Euskararen Legearen aplikazio-maila oso apala izan da, eta hutsune asko izan ditu hainbat esparrutan. Huts egite gehienek, ordea, ez dute inolako ondoriorik izan. Hori dela eta, araubide honek egokitza-pen sakona eskatzen du, batez ere aplikazio praktikoari begira.

Galderari erantzunez beraz, erantsiko nuke gaur egun dugun lege-markoa betetzeaz gain, berau garatu, egokitu eta hobetu egin behar dela.

Sarri esan ohi da, arrazoiz, beste inon mintzatzen ez den hizkuntza dela euskara, Euskal Herriaren ezaugarri nagusi eta behinena. Ez dakit, ordea, esaten dugun hori behar bezala ulertzen dugun. Izan ere, esaldi horiek zera esan nahi baitute funtsean, nire ustez: euskara izan dela, eta dela, euskal kultur nortasun edo identitatearen oinarritzko elementua (bakarra ez izan arren).

J.A. Fishmanek⁴ zioen bezala "hizkuntzak identitate etnikoaren eraikuntzan eragiten du, baina identitate etnikoak ere baldintzatzen

4 FISHMAN, JOSHUA A. (ed.) (1999): *Handbook of Language & Ethnic Identity*. Oxford University Press. Oxford/New York

ditu jarrerak eta hizkuntza erabilpenak”. Eta bideratu nahi dugun Hizkuntza Politika kohesio-eragile izan dadin nahi dugunez, ezinbestekoa izango zaigu euskarari eta hizkuntzaren normalizazio-prozesuari ikuspegi integratzaile batetik heltzea. Euskararekiko atxikimendua, gogoia edo motibazioa sendotzeaz ari garenean eta “Euskal nortasuna indartzea” proposatzen dugunean, beraz, normalizazio-prozesuaren ikuspegi integratzaile eta prospektibotik ari gara, batez ere. Eraiki behar dugun zerbaitetaz, eta ez iraganetik berreskuratu behar dugun zerbaitetaz. Gizarte modernoetan, hizkuntza komunitatearen eraketak eta eraikuntzak gutxieneko partaidetza-kontzientzia eta talde-egitura eskatzen baititu.

Bestalde, ezin dugu ahaztu Espainiako Konstituzioaren arabera herritar guztiok dugula gaztelania jakiteko betebeharra. Egoera soziolinguistikoak erabat desberdinak izan arren, guztiz interesgarria izango da jakitea zein den Kataluniako Estatutu berriak markatzen duen katalana jakiteko betebeharraren inguruan Auzitegi Konstituzionalak ematen duen ebazpena, eta horren ondorio juridikoak zeintzuk diren. Inondik ere, gehiago hurbiltzen da berdintasunezko printzipioetara azken proposamen hau, gure hizkuntzen izena ere aipatzen ez duen Espainiako Konstituzioaren erredakzioa baino.

Globalizazioak eta iraultza teknologikoak ingelesa “lingua franca” bihurtu eta etxekotu izana, eta hizkuntza normalizazio-prozesuen aurkako jarrerak indartu izana, guztiz berria den tesuinguru batean kokatu dute hizkuntza normalizazioaren inguruko diskurtsoa. Ingelesa gero eta etxekoagoa eta geureagoa da. Ingelesa da edo izango da gure haur ia guztien bigarren edo hirugarren hizkuntza. Lan-mundura integratzen ari den belaunaldiak ingelesa ezinbestekotzat dauka. Eta esan genezake, praktikan, beste hizkuntza guztiak “minorizatu” egin dituela (gazte euskaldunentzat gaur egun frantsesaren edo katalanaren erabilgarritasun-maila antzekoa da). Ingelesa ondo menderatzen dutenak oraindik ere gutxiengoak izan arren, gizarte osoa ukitzen duen gaia da.

Ezin pentsa genezake beraz, egitura sozio-ekonomikoak irauli dituen ordenu berri honek eraginik izan ez duenik hizkuntze-kiko jarrera eta motibazioetan, edo kultur kontsumoetan eta hizkuntzen erabilera-praktika eta eremuetan.

Diskurtso, argudio eta ikuspegi “zaharrak” egokitu eta modernizatzea da hizkuntza politikaren eta euskalgintzaren premia gorrirenetako bat; iraganean finkaturiko joera esentzialistak baztertu eta etorkizunera begirako ikuspegi pragmatikoagoak lantzea. Jon Sarasuak zioen bezala hizkuntza komunitate beregain bat eraikitzea da erronka; munduari irekia, dinamikoa, autozentratua eta autoarautua; burujabea, hitz batean esanda.

Horregatik “elebitasuna erdiestea” baino egokiagoa irudituko litzaidake, puntu honetan ere, “eleaniztasuna” erdiestea aipatu izan balu txostenak.

Lluís V. Aracilek⁵ duela berrogei urte aipatzen zuen bezala, “elebitasun” hitza mito bihurtzeko arriskua dugu, eta errealitate soziolinguistikoa zehaztasun handiagoz deskribatzea ezinbestekoa iruditzen zait. Euskara egoera minoritario eta minorizatu batetik gator. Pertsonen eleantiztasuna guztiz aberasgarria den bezala, hiztun elkarte osoen elebiduntze prozesuak, asimilazio eta “elebakartze” prozesuen etapak izan ohi dira beti, orain arte behintzat. Europan elebakar mantendu diren edo elebidundu diren hizkuntza komunitateen historia begiratzea besterik ez dago.

Gurea bezalako egoera batean, “elebitasuna” helburutzat hartzea egokia izan daiteke, baldintza jakin batzuk betetzen diren neurrian: hizkuntza indarberritzeari begira aurrerapausoa suposatzen bada eta hizkuntza ofizialen ezagupena sozializatzea bermatzen bada, elkarbizitzarako oinarriak finkatzen badira eta adostasun sozialerako kontzeptu partekatu bihurtzen bada.

5 FALCÓN, XABIER (Arg) (1998): “Elebitasuna mitoa baillitzan” in *Lluís Aracilen idazlan hautatuak*. UEU. Bilbo (1966an ingelesez eta 1982an katalanez argitaraturiko artikuluaen euskarazko bertsioa)

Ondorioz, “elebitasuna”ren aldeko liderrek, koherentziagatik, ezin daitezke elebakarrak izan. Eta honek ondorio zuzenak izan beharko lituzke, lider politiko-sozialak aukeratzearen orduan. Entzun izan ditugu politikari elebakarren ahotik “Aquí algunos quieren impulsar el monolingüismo” bezalako esaldiak, beraiek elebakarrak direla jabetu gabe. Hizkuntza politikak euskara politikaren hizkuntza izatea ere ekarri behar du, Iñaki Arrutik formulatu duen gisan⁶.

Txostenean bertan, atal batzuetan elebitasuna hartzen da helburutzat; beste batzuetan, aldiz, eleaniztasuna. Gaur egungo egoeratik abiatuta, garbi dago elebitasuna hedatzeak oraingo belaunaldi gazteak eta hurrengo belaunaldiek bi hizkuntza ofizialak menderatzea esan nahi duela (*Txepetxen*⁷ teorian inflexio-puntura iristea litzateke hori). Euskarak eta gaztelaniak (eta frantsesak) dituzten bizi-indar etno-linguistiko guztiz desorekatuen ondorioz, ordea, hizkuntza minoritarioaren biziraupena segurtatzeak, funtzio eta esparru elebakarrak sortu, garatu eta babestea eskatzen du.

Euskal elebakarrak desagertu ziren, eta, haiekin batera, baita belaunez-belauneko transmisioa eta hizkuntzaren erreferentzia sinbolikoa bermatzen zuen gizataldea ere. Aurrerantzean, baldintza sozio-politiko, kultural edo ekonomikoen aldaketek, hizkuntza transmisioa etetea ekar dezakete eta beraz, hiztun elkartearen biziraupena arriskuan jartzea, gaur egun munduan zehar hizkuntza komunitate askori gertatzen zaion bezala.

Bestalde, bi hizkuntzak eskueran eta aukeran izanda, zer dela eta egingo dute hurrengo belaunaldiek euskaraz? Zergatik egin ahalegin erantsi hori? Zergatik mereziko die euskara eustea? Zergatik eta zertarako nahi dugu eta nahiko dute euskara?

Horrexegatik da guztiz garrantzitsua ahalik argien eta garbien zehaztea zer esan nahi dugun –eta zer ez dugun esan nahi–, “elebita-

6 ARRUTI, IÑAKI: “Hizkuntza-politika eta esne-behia” in www.gipuzkoaeuskara.net:80/albisteak/1193944571

7 SÁNCHEZ CARRIÓN, JOSE MARÍA (1987): *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del euskera y teoría social de las lenguas*. Donostia.

suna” aipatzen dugunean, batez ere populazio erdaldunarengan sor daitezkeen beldurrak uxatzeko eta hizkuntza normalizazio-prozesu baten gutxienekoak zeintzuk diren gizarteratu ahal izateko.

2.3. Euskararen aurrerakadaren ifrentzua

XX. mende amaierako eta XXI.aren hasierako Hizkuntza Politika egokitze aldera, orain arteko prozesua moteldu eta galgatu duten arrazoiak zeintzuk izan diren jakin beharko genuke, zulo berean berriro erori nahi ez badugu, behintzat. Honako hutsune eta lan-ildo hauek nabarmenduko nituzke, gehien ezagutu eta jorratu ditudan esparruei dagokienez:

◇ Motibazioa eta jarrerak:

- Euskara agenda politiko askotatik desagertu da, eta administrazio, alderdi politiko edo eragile sozio-ekonomikoetako arduradun askoren kezketatik oso urrun egon da. Horietako askok ez dute beren gain hartu hizkuntza normalizazio-prozesuaren lidergoa. Beste gai batzuetan ez bezala, inplikazio eskasa edo erabateko utzikeria ez dira salbuespena izan.
- Euskaraz bizitzeko hautua egin duenari, administrazioak hizkuntza segurtasuna bermatu behar dio, orain arte baino eraginkortasun handiagoz.
- Gizartearen gehiengoa euskararen eta hizkuntza normalizazioaren alde agertu bada ere, erabileraren eskakizun soziala ez da, oro har, oso zabala izan (gehienetan eskaera hori guztiz nekeza, desatsegina eta askotan, erantzunik gabea delako). Kontzientziazio kanpainak eta “Elebide” bezalako ekinbideak ezinbestekoak izango dira inertzia sozial horiek astintzeko.
- Erdaldunen multzo handi bat (baita gazteen artean ere) euskararekiko ezaxola bizi da; edo are okerrago dena,

aurkako jarreran. Ez dira gutxi euskara abertzaletasunarekin lotzen dutenak eta arrazoi horregatik euskararengandik urrundu direnak. Euskararen berreskuratze-mugimendua-
ren motorea abertzaletasuna izan bada ere, aurrerantzean, identifikazio hori gainditu eta euskararen irudia “zabaldu” egin beharko genuke denon ahalegin eta partaidetzarekin (“Kalaka” izan daiteke adibideetako bat).

- Hizkuntza normalizazioaren inguruko informazioa erdal-dunengana helarazteko bideak jorratu behar dira; batez ere, haur eta gazteengana eta gurasoengana.
- Memoria historikoa berreskuratzea garrantzitsua da egungo egoera linguistiko konplexuaren klabe nagusiak interpretatu ahal izateko. Ez gaude zero puntu batean. Euskara dagoen egoeran dago, historian zehar pairatutako bazterketa eta asimilazio politikengatik, beste faktore batzuen artean. Biktimismoan erori gabe, hizkuntzen historia soziala, euskararen jazarpena, inmigrazioaren historia linguistikoa, gaur egungo aniztasuna, etab. azaltzea guztiz onuragarria gerta daiteke, hizkuntzen arteko bizikidetasun berriaren oinarriak finkatzeko. Ekolinguismoa bezalako teoriak asko lagundu dezakete horretan.

◇ Hizkuntza kalitatea:

- Haur eta gazteek darabilten euskararen adierazkortasun mailan gabeziak eta erdarekiko mendekotasunak nabarmentzen dira.
- “Euskararen kalitatea” txostenean genioen bezala, euskararen irakaskuntza egokitasunaren parametroetan oinarritu beharko litzateke, eta ez zuzentasun hutsezkoetan. Horretarako, irakasleak prestatu egin beharko dira, ahozketasunaren lanketa curriculumean txertatu eta eba-luaketa sistemak egokitu, besteak beste.

- Euskarazko produktu batzuen kontsumorako oztopo nagusietako bat, darabilten hizkuntza eredua da. Askotan, erabilitako euskara bera da kontsumitzaile euskalduna euskal produktuetatik aldentzen duena.

◇ Irakaskuntza arautua:

- Berau amaitu ondoren, gazte guztiek ez dakite euskaraz ongi hitz egiten.
- Haur eta gazteen arteko erabilpen-maila hobetu bada ere, euskaraz dakitenetatik egiten dutenetara dagoen alde-a ere gero eta handiagoa da.
- Motibazioa lantzeaz gain, eta eskola orduz barruan bideratu beharreko aldaketa sakonez gain, euskararen presentzia eta erabilera bermatu egin behar dira ikasleen ingurune hurbilean eta aisialdian.
- Bestalde, ikastetxeetako hizkuntza normalizazio plangintzak hedatu eta sistematizatu beharko dira, eta udaletako plangintzekin koordinatu.

◇ Zerbitzuak eta produktuak:

- Produktuak edo zerbitzuak euskaraz eskuratzeko edozein euskaldunek egunero aurkitzen dituen zailtasunak eta ezintasunak handiak dira: zerbitzuetan, kontsumo produktuetan, hedabideetan edo administrazioan. Gizarte bizitzaren alor eta sektore batzuetan (publiko nahiz pribatuetan) euskarak duen presentzia ia anekdotikoa da oraindik.
- Esparru sozio-ekonomikoan euskarak duen sarbidea minimoa da: Lanbide Hezkuntzan bertan, lan-harremanetan, etiketajeetan... Euskara zerbitzu- eta lan-hizkuntza bezala erabiltzeko oztopo handiak daude.

- Internet euskarazko edukiz elikatu behar da, arreta berezia eskainiz eduki entziklopedikoei, ikasketa-prozesuaren osagarri diren edukiei eta aisialdikoei.
 - Euskararen sarbidea eta erabilgarritasuna bermatuko duen softwarea eta beharizan teknikoak eguneratzen eta garatzen jarraitu behar da.
 - Orokorrean, euskararen presentzia eta erabilera segurtatu (ahoz nahiz idatziz) eta euskararen balio instrumentala handitu behar dira.
- ◇ Kultura eta hedabideak:
- Euskarazko kultur eta hedabideen eskaintza mugatua da oraindik. Gabeziak ditugu produkzio, banaketa, sustapen nahiz kontsumoari dagokionez.
 - Euskararentzat merkatu berriak lortzeko estrategia eta produktu eta eskaintza berriak diseinatu behar dira.
 - Gainditu beharreko beste puntua, diru-laguntzekiko mendekotasunak eragin dituen dinamika ez kompetitiboena da.
- ◇ Administrazioa:
- Normalizazio-plangintzen hurrengo erronka, euskararen presentzia normalizatu eta bermatzeaz gain, erabilera sustatzea izango da. Alegia, euskara administrazio barruko lan-hizkuntza nagusia izan dadin lortzea (errealitate soziolinguistikoak horretarako baldintzak eskaintzen dituen neurrian).

3. XXI. MENDE HASIERAKO HIZKUNTZA POLITIKAREN ZIMENTARRIAK ETA ERRONKA

3.1. Xedeak: erabilera, eleaniztasuna, gizartearen kohesioa eta bizikidetzeta

Hiztunak ugaltzea dugu xede, hizkuntza noranahikoa izan dadin prestatzea eta erabilera ahalik eta gehien ugaltzea.

Azken urteotako leku publikoetako erabileraren datuek argi erakusten dute ordea, zailtasun handiak ditugula ezagupenean lortutako hobekuntza, erabileran isla dadin.

Euskara ohiko erabilera hizkuntza izango duten guztiak eta eskaintzak sustatzea da horretarako biderik egokiena. Pertsonak euskalduntzetik, guneak euskalduntzera igaro behar dugu, eta hizkuntza erabilerarako ditugun oztopo era guztietakoak identifikatu eta horiei aurre egin.

Euskararen biziraupena bermatzeko, euskarazko guneak eta harreman-sareak posible egingo dituzten baldintzak sortu eta indartu behar dira. Harreman-sare horiei esker lortu ahal izango da komunak izan daitezkeen erreferenteak sortzea, edozein hizkuntza komunitatek funtsezko duen "iruditeria" partekatu horren jabe egingo da. Euskarazko sorkuntzan edo hedabideetan gabiltzanok ederki asko dakigu estandarra finkatzeko erreferente komun horien lanke-ta eta sozializazioa funtsezkoa dela.

Baina hori guztia lortzeko, gure harreman sistema, gure mundu kontzeptuala eta gure diskurtsoak doitu, aberastu, berritu, fin-du eta elikatu egin behar ditugu, erreferentzia mundu tradizionala gaindituz eta abertzaletasunera mugatutako sistema erreferentziala zabalduz.

Erreferentzia-sistema hori gure tradizioetik bezainbat elikatu behar da beste kulturetako eta nazioarteko joera nagusietatik, baina, ikuspegi beregain batetik, beti ere. "Hizkera kolokiala"rekin gertatzen zaigun bezala, hemen ere bada saihestu beharreko arris-

ku bat: beti eta sistematikoki albo-erdara nagusietara jotzea. Bide horrek kultur menekotasuna besterik ez dakarkigu, satelizazioa eta Iparraldeko eta Hegoaldeko hiztunak elkarrengandik gehiago urruntzea. Asisko Urmenetak ohiko duen ironiaz honako izenburu hau eman zion bere hitzaldi bati, arrisku hau aintzat harturik: “Koloniala = kolokiala”.⁸

Hizkuntzarekin zerikusia duten beste auzi guztiekin gertatzen zaigun bezala, planteamendu hau malgutasun osoz landu behar da, satelizaziora daraman menekotasuna bezain arriskutsua izan daitekeelako gheztimora daraman garbizalekeria isolatzailea.

Bada, ordea, erreferente komunen eraikuntzan oztupo suertatzen zaigun beste elementu bat: euskararen kultur industriren kontzentrazioa Donostialdean. Euskarazko ekoizpenaren proportzio handi bat oso eremu geografiko txikian egiten da, eta egoera hau oztupo da gure hizkuntza komunitatearen aniztasuna eta dibertsitatea behar bezala islatuak izan daitezen eta hiztun askok bere burua pantailan islatua senti dezan. ETB1eko lan-taldeen osaketa aztertu besterik ez dago.

Aurrerapen teknologikoen ondorioz, kultur tradizionalaren erreproduzio mekanismoen krisia begi bistakoa da. Iraganak, tokian tokiko tradizioek eta kultur jarraipenak gizartearen trinkotzean duela hamarkada gutxi zuten pisua erabat murriztu dira. Beraz, aurreikus genezake erreferentzia eta kultur iruditeria tradizionalak krisi sakonagoa nozitu dezakeela mekanismo horiek eraberritzen ez badira. Adibide interesgarri asko sortu da ordea, norabide egokian Euskal Herrian: bertsolaritzan, musikan edo dantzan, esate baterako. Tradizioaren etengabeko berrirakurketarako eta teknologia berriekiko egokitzapen ahalmenak markatuko du iruditeri horren biziraupena, eta neurri batean baita euskararena berarena ere. Batzuk arriskua ikusten duten lekuan, aukerak ikusi beste erremediorik ez dugu, zorionez.

8 ASKOREN ARTEAN (2005): “Gazt_hizkera. Jardunaldien hitzaldiak eta ondorioak”. Urtxintxa eskola.

Hori lortu ezean, garbi dago zein den arriskua: euskara bigarren mailako hizkuntza apaingarri eta sinbolikoa bihurtzea, gaelikoari Irlandan gertatu zaion bezala.

3.2. Elebitasun asimetrikoa

Elebitasun simetrikoaren ezintasuna onarturik, elebitasun edo eleaniztasun asimetrikoaren ideia hartu nahi nuke hausnarketarako abiapuntutzat, oso erabilgarria gerta dakigukeela uste dudalako.

Adosteko moduko helburuak dira bi hizkuntza ofizialak ongi menderatuko dituzten herritarrez osaturiko eta herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuko dituen gizarte eleanitza erdiestea eta euskararen hizkuntza normalizazioa lortzea.

Elebitasun edo eleaniztasun asimetrikoan gaude eta nekerik gabe onar genezake etorkizunean ere hala egongo garela, toki, esparru eta egoeren arabera asimetria hizkuntza baten aldera ala bestera makurtuko delarik, egoera ekonomiko-politikoaren edo/eta hiztun eta herritarren ezagupenaren eta borondatearen arabera.

Ondorioz, *Txepetxen* teorian “trinkotze prozesu” gisa definitzen zena (hizkuntza komunitatea eta gune euskaldunak trinkotzea) beharko luke hurrengo urteetako hizkuntza normalizazio prozesuaren estrategia nagusietako bat. Errealitate soziolinguistiko asimetriko honetan, funtsezkoa izango da, zonalde eta udalerririk euskaldunenetan nagusiki euskaraz bizi eta funtzionatuko duten eremuak bermatzea eta berauek bilakatzea erabileraren hedapen-gune Euskal Herria osoari begira.

Abiapuntu hau aintzat harturik, adostasuna eta bizikidetzatza berma dezaketen estrategiak diseinatu daitezke: gizartearen borondatearen araberrako planteamenduak eginez, tokian tokiko errealitate desberdinak aintzat harturik, etorkinen errealitate anitza onartuz eta integratuz, ingelesaren hedadura eta garrantzi sozialari erantzuna emanaz eta gaztelania eta frantsesaren nagusitasun demografiko-ekonomikoari aurre eginez. Asimetrikotasun horren barruan, euskararen biziraupena eta belaunez-belauneko transmisioa

bermatzea litzateke minimoa eta hizkuntzaren normalizazioa, lortu nahiko genukeen helburua.

Prozesu honen amaieran, beraz, euskara Euskal Herriko erabilera-hizkuntza nagusia izatea lortu beharko genuke, hori baita gizarte-kohesioa, bizikidetzeta eta hizkuntzaren biziraupena hobekien bermatzen duen egoera soziolinguistikoa, nire ustez.

3.3. Hizkuntza politikaren oinarriak

Gizarte demokratiko batean, hizkuntza politikak bi baldintza ezinbesteko bete behar ditu: herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzea batetik, eta hizkuntza normalizaziorako bidean, herritar gehienek onespena izatea. Herritarren adostasunik gabe ez dago hizkuntza politika normalizatzailek aurrera ateratzerik. Izan ere, hizkuntza normalizazio prozesua, gizarte koheziarako, eta ez banaketarako, prozesu demokratiko gisa ulertzen dugun neurrian, euskararen aldeko jarrera landu eta elikatu egin behar da. Bernat Joan i Marí⁹ dioen bezala, hizkuntza jarrerak lantzea baliagarria eta lagungarria da hizkuntza ikasteko, egoera soziolinguistiko desberdinak ulertzeko eta bizikidetzarako. Erdaldun (eta gazte euskaldun) askoren artean sortu diren errefusatze jarreraren atzean dauden zergatiak aztertzea behar dira eta berauek gainditzeko estrategia berriak landu. Euskararen eskaintza ideologikoa zabaltzea ere lortu beharko litzateke ere.

Gizartea aurka eduki ezin daitekeen bezala, lidergoa alde edukitzea nahitaezkoa da. Arduradun politikoei hartu behar dute hizkuntza politikaren lidergoa, hizkuntzaren normalizaziorantz markatutako helburuak lortze aldera. Borondate sozial orokorraren gauzatze zehatza ez baitator askotan eskaera sozial konkretutik. Gure gizartean horren inguruko adibide asko dugu: erretzeko de-

9 JOAN I MARI, BERNAT ((2006): *Hizkuntza Jarrerak lantzen* in Ulibarri programa 15. Eusko Jaurilaritza – Hezkuntza Saila. Gasteiz.

bekua, abiadura-mugak, homosexualen eskubideak, berdintasun legea, emakumeen kuotak politikak...

“Erdaldunak euskaldunduko badira, euskal hizkuntza komunitatea, emigratzea merezi duen komunitate bat izan dadin lortu beharko duzue”. Halaxe esan zigun duela 24 urte Lluís Aracilek “Tolosan euskaraz” jardunaldietan, eta orduetik, nire jardueraren ipar izan da esaldi hori. Izan ere, hizkuntzaren aldeko motibazioak sendotu eta hizkuntza komunitatearentzat hiztun berriak lortu nahi baditugu, euskarazko eskaintza erakargarria izan dadin lortu beharko dugu: diskurtsoak, zerbitzuak, hedabideak, produktuak... Herritarrak euskal produkziara eta euskarazko kontsumo eta erabileretara hurbildu ezean, ezinezkoa izango zaigu hiztun berriak lortzea. Bestalde, praktika linguistikoa ahalik eta modurik naturalenean burutzeko joerak gizarteratu beharko lirateke, gain-karga militanterik gabe; hizkuntza asertibitatearen proposamenen bidetik. Bide honetan lagungarri izango zaizkigu emoziozko adimenaren inguruko metodologiak eta antzekoak, edo asertibitatea jorratzen duten TELP (Taller del espai lingüistic personal) moduko esperientziak.

Hizkuntza normalizazio proiektuekin ez dago erdibiderik: edo gizarte-integraziorako eta bizikidetasunerako proiektu bihurtzen dira edo porrotera kondenatuta daude; bide ez demokratikoetatik inposatzen ez badira behintzat. Horregatik, plangintza, araudi edo ikasketa-prozesuen hezurdurei, motibazioaren, produktu erakargarrien eta erabileraren giharra erantsi beharko diegu, hiztunak sortze eta trinkotze aldera.

Behin eta berriz errepikatzen ari garen bezala, euskarak aurrera egingo badu, ezinbestekoa izango zaigu adostasun berri batera heltzea. Baina iruditzen zait, bide horretan, norberaren posizioetatik denok mugitu beharko badugu ere, gehiago mugitu beharko dutela, orain arte, euskararen errealitatera hurbildu ez diren sektore sozio-politikoak. Alegia, ezin daitekeela elebakartasunetik euskara bultzatu.

Nolanahi ere, guk nahi ala nahi ez, bizikidetza sustatu arren, testuinguru askotan hizkuntzak elkarren kontrako ikusi eta ikusiko dira; eta hala gertatu eta hala gertatuko dira. Ezin dugu hausnarketa honetatik kanpo utzi, hizkuntza bakoitzak suposatzen duen merkatu-errealitatea eta merkatuen (hizkuntzen) arteko konpetentziak bera-rekin dakarren lehia eta borroka: telebista-audientziak, esate bate-rako, adibide bat aipatzearren.

Txostenean hemen beti bi hizkuntza izan direla aipatzen den arren, bi baino gehiago bizi izan direla beti zehaztu beharko litza-teke (nagusienak bi izan arren). Eta zehaztu ere zehaztu beharko genuke, hizkuntza komunitate horien arteko harremanak ez direla inoiz berdintasunean oinarriturikoak izan. Eta bat, gaztelania (eta frantsesa iparraldean) egoera askotan, inposatua izan dela, nahiz eta batzuetan herritar batzuen edo gehienek adostasunarekin izan.

Etorkizuneko eleaniztasunaren eraikuntzak, oso aintzat hartu behar du iragan hori, hala hizkuntzarik ahulena bultzatzeko orduan, nola sustapen horren baldintza errealak aintzat hartzeko garaian.

3.4.– Hizkuntza kalitatea

“Hizkuntza kalitatea”¹⁰ buruzko planteamenduak Euskararen Aholku Batzordeak onartutako txostenean zehaztuak ditugunez, ez gara gai honekin gehiegi luzatuko. Batetik esan, David Crystalek¹¹ nabarmentzen duen bezala, gaur egun, komunikatzeko aldi berean bi hizkuntza edo gehiago erabiltzen dutenen kopurua (kode-aldaketa), erabiltzen ez dutenena baino handiagoa dela.

Bestetik ordea, badakigu, euskarazko baliabideak baztertu eta erdarara sistematikoki joz gero, euskara degradatu egingo dela. Alegia, euskaldunok, eta bereziki, haur eta gazteek, gure premia komunikatiboak eta gabezia linguistikoak beti gaztelaniaren (edo frantsesaren) bidez estaltzen baditugu, ulermen arazoak sor dai-

10 Op. Cit.

11 CRYSTAL, DAVID (2007): *Hizkuntzaren iraultza*. Erein. Donostia.

tezke belaunaldien eta zonalde desberdinetako hiztunen artean, komunikazioa eteteraino. Horregatik, ezinbestekoa da estandarra finkatzea eta garatzea, hizkuntza beregaina, sortzailea eta hiztun elkarte osoarentzako erreferentziala izan dadin.

Baldintza hauetan, euskara zenbat eta gehiago erabili, hizkuntzaren kalitatea orduan eta hobea izango da, jakinik, euskara aldatu egingo dela, historian zehar, euskara bera eta hizkuntza guztiak aldatu diren bezala.

3.5. Irakaskuntzaren garrantzia

Hasteko, esan dezagun eskola ezinbestekoa dela baina ez dela nahikoa.

Asko dira derrigorrezko irakaskuntza amaitu ondoren euskararen ezagupen-maila nahikorik ez duten ikasleak. Gero eta gehiago dira jatorri erdalduneko haur eta gazte euskaldunak. Horietatik askok euskara, batez ere, eskolan darabil, eta bada eskolatik kanpo euskara erabiltzen ez duenik ere.

Hizkuntza politikaren helburu nagusia erabilera sustatzea izanik, egoera hori gainditu egin behar da: ikasleak motibatuz eta euskararen alderdi ludikoak indartuz, eskola orduz kanpoko euskarazko eskaintza bermatuz (helburua, haur bakoitzak gutxienez gustuko jarduera bat euskaraz garatzea izanik), guraso erdaldunak informatuz eta motibatuz¹²... Familia euskaldunen kasuan, transmisioan hutsunerik ez gertatzea lortu behar da, etxeko hizkuntzari prestigioa ematea, eta etxetik eta eskolatik kanpo ere haurraren ingurua euskalduntzea.

Arrakasta izan duten hizkuntza normalizazio prozesu gehienetan hala ere, ekonomiak eta faktore sozio-ekonomikoek garrantzi gehiago izan dute irakaskuntzak berak baino. Euskal Herrian gertatu den euskararen atzerakadak eta gaur egun ingelesak bizi duen

12 EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA (2004): *Ikastetxeetan euskararen erabilera indartzeko planak. EBPN udal-ereduekin uztartzea*. Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saila. Gasteiz.

hedadura-prozesuak ere oinarri ekonomikoak dituzte (eta irakaskuntza prozesu horien lagungarri da, eta ez alderantziz).

Lan-munduen euskalduntze progresiboa izango da hurrengo hamarkadetako hizkuntza politikaren ardatz garrantzitsuenetako bat. Irakaskuntzan ikasitako edo landutako euskarak baliagarritasunik ez badu lan-munduan, normalizazio prozesua kolapsatu egin daiteke, aurkako jarrerak indartuz.

3.6. Herritarren protagonismoa, herri-erakundeen aitzindaritza eta erakunde publikoen eta pribatuen jardunaren arteko osagarritasuna

Euskara eta euskal kultura ez daude agenda politikoaren lehentasunen artean. Diskurtsoetan, programa politikoetan eta deklarazio publikoetan entzun eta irakurtzen duguna ez dator bat egunero ikusten dugunarekin. Lehentasun hori lortu beharko luke eztabaida prozesu honek. Are gehiago, bai estatuan, baina baita Euskal Herrian, eredia ez eze, hizkuntza normalizazioaren zilegitasuna ere auzitan jartzen duten ahotsak ugaritzen ari diren honetan.

Hizkuntza normalizazio prozesuaren aitzindaritza herri-erakundeei dagokie. Bizitza sozialaren beste esparruetan gertatzen den bezala, aitzindaritza hori erakunde publikoen eta pribatuen arteko osagarritasunean eta adostasunean garatzea da, ordea, egokiena. Kontrako kasuan badakigu zer gertatzen den: aurrerapenak askoz txikiagoak dira eta maiz, ekinbideak galgatu egiten dira edo elkar ezabatu. Gizartearen eskaera eta presioa bidera dezakeen gizarte-mugimendurik gabe, administrazioak eta erakundeek inertzia burokratikoan erortzeko arriskua dute, historia garaikideak ederki asko erakutsi digun bezala. Besterik da, eskaerak eta presioa bideratzeko moduak, herritarrak berak uxatzea eta aldentzea euskartik. Herritarren onarpena ezinbestekoa da, aspektu honetan ere.

Bestalde, hizkuntza politikak gaur egun ez duen zentralitatea lortu beharko luke euskal politikan. Behin baino gehiagotan aipatu izan dugun bezala, hizkuntza politika gidatzen duten sailen kokape-

nak zentralagoa behar du, Lehendakari, Ahaldun nagusi, alkate edo zuzendarien ardura eremuetatik ahalik eta gertuena.

Izan ere, 30 urte hauetan euskara arriskuan egotetik bizirau-pena segurtatu samartua izatera pasa gara. Baina hori al da euskararentzat nahi duguna? Galdera hor dago eta batez ere, administrazioak eta eragile sozio-politiko-ekonomikoez erantzun behar dute: “Zein da herri honetan eta bere kultur proiektuan euskarak bete behar duen lekua?”

Administrazioari dagokionez, Malorex Etxeberriak honako hau proposatu zuen Larrunen¹³: administrazioa “elebitasunetik aldentzea eta euskarazko jarduna ez oztopatzearen diskurtsoa erabiltzen hastea”; gaztelania hutsezko produkzioari beldurra galtzea, baina era berean administrazio barruan eta beste administrazioekin euskara hutsezko harremanak sortzea. Bide hau ongi planifikatuz gero, egoera asimetriko honetatik mugitzen hasteko aukerak zabalduko lirateke; erdara ez litzateke ia lan-hizkuntza bakarra eta euskara ez litzateke mugatuko ez beti oso modu ulergarrian itzulitako hizkuntza hutsa izatera.

Euskararentzat erabilera-eremuak irabazteko planteamendu honen barruan, garrantzi estrategikoa dute euskara lan-hizkuntza nagusi edo bakar duten eta izan dezaketen udalek. Adostasun berrien planteamendu honek barne hartu beharko luke, urte hauetan guztietan UEMAk garatu duen lana eta eskaini duen esperientzia.

3.7. Kultur ekoizpena eta kontsumoa¹⁴

Nire ustez, euskarazko kultur kontsumoaren hedapena eta garapena 3 ardatz hauen inguruan burutu behar da:

13 ETXEBERRIA, MALOREX (2008): *Jokaleku berri baterako proposamenak Hernanitik*. Larrun pentsamendu-aldizkaria (114. alea) in ARGIA astekaria (2.108 zka.).

14 Ideia hauek, 2008ko urtarrilaren 23an, Martin Ugalde Kultur Parkean kultur kontsumoaz izaniko mahai-ingururako prestatu nuen “*Minutu erdiko 10 ideia euskal kulturaren kontsumoaz*” hitzaldirik hartu ditut, eztabaidarako interesgarriak direlakoan.

◇ **Derrigorrezkotasuna:**

Euskarazko kultur produkzioak lege-babesa behar du. Euskararen presentzia, eskaintza eta erabilera bermatu egin behar dira; baita kultur alorrean ere. Euskarazko kultur eskaintzaren zati bat beraz, orain bezala, ezinbestean derrigorrez egin beharko da, lege aginduz.

◇ **Eskuragarritasuna:**

Lege-babesak eta derrigorrezkotasunak, ordea, mugak dituzte eta izan behar dituzte. Horregatik, hil ala bizikoa izango da, euskarazko produktuak eskuragarri izatea; erdarazkoak edo ingelesezkoak eskuragarri baitaude merkatuan. Euskara eskura Interneten, zinemetan, hedabideetan, musikan, aisialdian... Etorkizuna gure bizitasun sozio-kulturalean jokatzen dugu. Kontzeptu hau inon aplika badaiteke, esparru hori Internet da. Lehen esan bezala, sarea euskarazko edukiz elikatu behar da eta horretarako estrategia egokiak diseinatu.

◇ **Erakargarritasuna:**

Gainera, produktu horiek erabiliak, kontsumituak edo/eta erosiak izango badira, gustukoak, erabilgarriak edo interesgarriak izan beharko dute. Kalitatea eta berezitasuna zaindu behar dira.

Hiztun berriak lortu behar ditugu eta euskarazko zerbitzu eta produktuen merkatua zabaldu, alegia, ikusle, irakurle eta entzule berriak lortu. Abangoardiako produktuak behar baditugu ere, alegia, iparra markatuko duten liburuak edo filmak... batez ere jendeak "masiboki" kontsumituko dituen produktuak behar ditugu. Marketing hausnarketa eta merkatu-ikerketak ezinbestekoak dira xede horretara heltzeko. Euskarazko produkzioaren sustapena ere lehentasun osoko kontua da. Ditugun bozgorailuak urriak dira eta nahikoa endogamikoak.

Mugak desagertzen ari diren heinean, bestalde, hizkuntza komunitatearen zentzu geografiko hertsia ere gainditzen ari da. Fenomeno honek bi alderdi ditu:

- Euskal hizkuntza komunitatea ez da lurralde batera mugatzen, ezta identitate bakarrera. Ezagutzen ditugu bere burua euskalduntzat dutenak, baina ez “vasco”tzat edo euskal herritartzat.
- Euskarazko sorkuntza munduan hedatzeko aukerak ugaltu egin zaizkigu. *Etxepare* Institutuak esparru zabala du, euskara bera ezagutarazten, ikasketa bultzatzen, edo gure kultur eskaintza eta itzulpenak nazioartean sustatzen. Sarearen bidez gainera, euskara hizkuntza *lokala* izatetik, *globala* izatera pasa da.

Eta amaitzeko, HPSk berariaz hedabideen inguruan eskatutako txostenean nioen bezala¹⁵, EITB eta gure eskaintza komunikatibo publikoa arautzen duten lege-oinarriak ere duela 20-25 urteko egoera soziolinguistikoaren zimenduetan eraiki ziren. Euskarazko medioen funtzio eta helburuen inguruko hausnarketa sakona egin beharra dago, esparru honetan ere inertziak astindu eta helburuen araberako estrategiak egokitzeko. Euskarazko kontsumo krisia ezin da aztertu hizkuntza normalizazio prozesuak euskal gizartean bizi duen moteltze egoeran kokatu gabe.

15 ASKOREN ARTEAN (2008): *Euskara hedabideetan*. Eusko Jaurlaritza – Kultura Saila. Gasteiz.

HIZKUNTZA POLITIKAREN OINARRIAK BERPENTSATUZ

Joseba Arregi

Ondorengo gogoetak Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Euskararen Aholku Batzordeak prestatutako eta "XXI. Mende Hasierarako Hizkuntza Politikaren Oinarriak" izenburua daraman txostenean datarrenaren haritik egindakoak dira.

Hizkuntza politikaren oinarriak berraztertzea da gogoeta hauen helburua. Hori da luzatu zaigun gonbitea. Metodologikoki guzia zalantzan jartzea abiapuntu duen kultura modernoaren baitan ari garenez gero, oinarriez gogoeta egiteak zera esan nahi du: esandakoaren esan gabeko oinarriez ere jardutea, esan gabe gelditu direnak azaleratzen saiatzea. Gurea den kulturaren hori egiten ez den heinean ideologiaren susmoa beti gertu dagoelako.

Horrek ez du esan nahi ideologia susmorik gabeko oinarri azterketarik lor daitekeenik. Bai, ordea, ahalegina egin behar dela, eta egindako ahaleginak berriro azterketa gai izan behar duela.

Zalantzarik ez dago Euskararen Aholku Batzordeak prestatu duen txostenak ahalegin handia duela argitan jartzen: oreka gordetze nahia berehala susmatzen da, ohikoak diren gehiegikeriak baztertzeko gogoia ere bai, sarritan beste hizkuntzarekiko faltan josten den errespetua ere bai, beste hiztunekiko, hau da, elebidun ez direnekiko.

Hala eta guziz ere, eta ez esandakoa eztabaidatzeko asmoz, baizik eta esandakoan egon daitezken kontraesanak eta esandakotik, ez asmoz, baina bai eraginez, erator daitezkeen ondorioak begi

bistan jartzeko asmoz zenbait gogoeta egitea komenigarri da, eta horretara datoz hurrengo lerroak.

Txostenean bertan behin baino gehiagotan esaten den moduan –batez ere gizarte demokratikoetan ohiko denari buruz ari denean, globalizazioa gogora dakarrenean eta abar– hizkuntza politikari dagozkion gogoetak gaurko mendebaleko modernitate berantiar giroan kokatzen dira. Argi agertzen da hori unibertsaltasun balioa eta komunitarismoaren eskakizunak, biak, aintzakotzat hartu nahi dituen txostenak: unibertsaltasun eskakizuna eta komunitarismoak astintzen dituen arazoak kultura modernoaren barne egituran itsatsita dauden kontuak baitira, ez hizkuntza politikaren arazoak zuzenean.

Aipaturiko modernitate berantiar horren ezaugarri nagusienetako bat da kontraesan guziak gaindi daitezkeenaren ustea: nahikoa da bata eta bestea, nahiz eta kontraesanekoak izan, elkarren ondoan jartzea, biak nahi direla aitortzea, norbait bien aldeko dela esatea kontraesan guziak gaindituak bailiran uste izatera iristeko. Jainkotxo moduan moldatutako subjektibotasun moderno berantiarri berezkoa zaio horrelako ahalguztidun ustea: dena konpon dezakeenaren agintearen eta eskumenaren jabe izatekoa alegia. Honela, aukerarik egin beharrik ez dago. Edo gaurko pentsalariren batek esango luken bezala (Foucault, Agamben), aukeraren ondoren datorren errealitatearen bortxa ekiditeko betiereko aukerakotasunari gogor eustea, beti askatasun betean bizi ahal izateko.

Ezaugarri horren baitan kokatzen da eskubide guziak une berean eta gizaki guzientzat aitortu daitezkeelako ustea, eskubideak amairik gabeko ondasun izango bailiran, elkarren arteko inolako kontrakotasunik gabekoak.

Ezaugarri honen islarik badago txostenean ikusiko dugun bezala, kontrakorik ere esaten bada ere: aipatzen da baten eskubideak bestearen betebeharrak lezarzkeela, baina guzia aztertuko dugun bizikidetzaren giroan, kontraesan eta kontrakotasun guziak gaindituak lituzken bizikidetzaren batean.

Bide honetatik esan beharra dago kontsentsua oso dela beharrezko hizkuntza politikari dagokienetan, baina behin baino gehiagotan aipatzen den demokraziaren izaera da gatazkatsua izatea, diferentzien kudeaketa, kontrakotasunen bideratzea, hori bai, oinarritzko adostasunetik abiatuta, zeinetan guzientzat baliozkoak diren joko arauak onartzen diren.

Deigarria da oinarritzko adostasun hori lortu ezin dugun gizartean, –lorturik egonez gero horrek hizkuntza politikaren inguruko kontraesan eta diferentziak kudeatzea ahalbideraturik legoke–, txostenak kontsentsu hitza horrenbeste azpimarratzea hizkuntza politikari dagokionetan. Agian beste oinarritzko adostasun faltaren adierazgarri besterik ez da, baina honek hizkuntza politikari berari ez dagokion zama ezartzea ere esan nahi du, inolako mesederik egiten ez dion zama. *Eta hizkuntza politika politika den heinean gure politika arloko ezaugarri eta egoeratik kanpo ezin kontsidera daiteke.*

Guzi honegatik ase gabe uzten nauen testuaren ezaugarrietako bat da arazoak, eskubideen arteko arazoak, ikuspuntu ezberdinen artekoak, ez bakarrik oinarri adostuetatik erakar daitezken politika konkretuei dagozkienak, ez gordinago planteatzea. Guzia dago hegelianismoaren zeruan kokaturik: kontraesan guziak gainditurik lituzken adostasun azkeneko batean, zeinetan erreala osoki arrazionala den, eta arrazionala osoki erreala.

Nahiz eta testuaren azken partean oso garbi ez bada ere planteaturik dagoen hiztunen eskubideen arteko gatazka posiblea, txostenaren azpi testuak pentsarazten duena kontrakoa da: ahalezkoa da hizkuntza politika bat elebidunen eta elebakarren hiztun eskubide guziak errespetatu ditzakeena, eta errespetatu behar dituen. Etengabeko kontsentsuaren eskea, eta hizkuntzen arteko bizikidetasunaren etengabeko azpimarratzea, gehi gizartearen kohesioari txostenak ematen dion garrantzia: aukera besterik izan ezin daiteken politikari ertz guziak kendu nahirik politikotasun guzia, hau da, aukerak egitea, eta aukerak eginaz arazoak sortzea, ukatzen dio.

Euskal gizartean, ordea, hiztunen eskubide guziak elebidunenak zein elebakarrekoenak, bermatu nahi baldin badira, kontutan izan behar da horrek ehuneko ehuna baino gehiago egiten duela. Bi gizarte beharko genituzke horretarako: guzia espainieraz egiten duen gizarte bat, eta guzia euskaraz egiten duen bat. (*Bide batez, espainiera bada guk gaztelania deitu izan diogun hizkuntzaren izen ofiziala, Estatuaren organo bat den Hizkuntza Politikarako Idazkaritzarena den txosten batek horrela deitu beharko liokeela iruditzen zait*). Honetatik ondorio nahiko larriak sor daitezke, beranduago aztertuko dudan moduan. Baina oso modernitate berantiarreko pentsaera da eskubideak, denak eta asko eta geroz eta gehiago, amaiezineko ondasun direla uste izatea, elkarren kontrakoak inoiz izan gabe, eta sekulan agortzen ez direnak. Pentsaera horretan kokatzen da estatuan hain ohiko bihurtu den eskubideak zabalitzearen, hedatzearen diskurtsoa. Baina Michael Walzer-en eskutik ikasi beharra legoke, eskubideak, batez ere giza eskubideak, unibertsalak izan nahi badute, gutxi izan behar dutela, bestela konkretuegiak bihurtzen direlako, eta konkretutasunak unibertsaltasuna arriskuan jarri bide duelako, eta eskubideak elkarren kontrako bihurtu.

Sarrera gisako gogoeta hauen ondorenean, nire iritziz txostenean aurki daiteken kontraesanetako bat azertu beharra dago. Bi paradigma diferente erabiltzen ditu txostenak, elkarren arteko harremana nolakoa ote den aztergai bihurtu gabe. Batetik eta, nire iritziz berriro, testuan nagusi dena, hizkuntzaren eskubideen paradigma. Hitztunen eskubideen paradigma berriz bestea. Txostenean aurki daitezken esaldi askoren, edo gehienen, subjektua euskara da. Hizkuntza da aktorea. Hizkuntza da kontutan hartzen dena. Hizkuntzaren egoera, hizkuntzaren izaera, hizkuntzaren iragana eta bere etorkizuna dira gogoan hartzen direnak.

Eta diskurtsoaren ari nagusia hizkuntza bera kontutan hartzetik lotzen da. Euskarak hau behar du, euskarak bestea behar du, euskarak merezi du etorkizunik, euskarak honelako edo halako egoera jasaten du, euskara normaldu egin behar da, euskararen

erabilera da axola duena, euskara dago ahulezia egoeran. Euskara da, beraz, neurririk handiengan, eskubideen subjektu.

Egia da hiztunen, euskal hiztunen eskubideak ere aipatzen direla. Baina hizkuntzaren eskubideen ondoan, eta bien artean gerta daitezken kontrakotasunak aztertu gabe. Hiztunen eskubideak, eta elebiduna den gizarte batean eskubide ezberdinen iturburu dira hiztunen eskubideak, eta hizkuntzaren eskubideak ez dira nahita ezean berdinak. Batez ere gurea bezalako elebiduna den gizarte batean hizkuntzen eskubideak hizkuntza baten, euskararen eskubideetara mugatzen direnean, beste hizkuntzaren eskubideak, espainieraz bakarrik dihardutenenak alegia, kontutan hartu ere egin beharrik ez daudelako, hizkuntza baten eskubideak bere *osasan demografikoarekin* loturik ikusten direnean.

Bide honetatik txostenak esaten duena zera da: euskararen egoera ahula dela –ahuldade horrek euskararen eskubideak oinarrizten dituelarik–, eta baita euskal hiztunen egoera ere ahuldezkoa dela, euskal hiztun batek ezin baitezake bere bizitza osoa hogeita lau ordutan eta gizarte esparru guzitan euskaraz bakarrik bizi. Eta suposatzen du, nahiz eta ez duen zuzenean esaten txostenak, espainol elebatar denak ez duela horrelako arazorik topatzen euskal gizartean.

Ahaztu egiten du txostenak, ordea, administrazioan –baina ez bakarrik– lanpostu asko, kalitatezkoak direnak eta beraz oso desiragarriak direnak, elebidunentzat erreserbatuak daudela. Arlo honetan elebatarrekoa da ahula gure gizartean, elebiduna, aldiz, abantailan aurkitzen dena.

Adibide horrek erakusten du bi paradigmatik elkarren kontra egon daitezkeela: egia da espainola ez dagoela arriskuan ezta euskal gizartetik guziz desagertuko balitz ere. Horrek, ordea, kontsolamendu gutxi eskaini diezaiolke espainolez elebatar den eusko hiritarrari zenbait lanpostutara iristeko unean, edota, beste adibide bat jartzearren, euskal telebistako lehen programak eskaintzen duen eskuz banakako txapelketako pilota partidu bat ematen duenean.

Esandakoaren ildotik aipatu beharra dago gure gizartean ematen den banaketa ez dela euskal hiztunen eta espainol hiztunen artekoa, elebidunen eta elebarkarrekoen artean ematen dena baino. Eta euskal hiztunak, denak oraingoz, dira elebidun, eta espainol hiztun gehienak dira elebarkar.

Banaketa horrela planteatzeak ba du ondorioz. Hizkuntza erabiltzeko unean elebarkarrekoarentzat beste hizkuntza ez ezagutzea ezintasuna da, elebidunarentzat aldiz aukera kontua, balorazio kontua. Hizkuntza batek, edozeinek, badu komunikazio balio bat, komunikatzeko tresna den heinean. Eta badu, gainera, balio sinboliko bat, talde, tradizio eta kultura batekiko identifikazio balio bat duen neurrian, eta horregatik, balio sentimental handi bat atxikitzen zaio askotan, duen eta izan dezakeen balio funtzionalaren gainetik.

Baina gure arteko elebidunen eta elebarkarren arteko banaketa ezintasunaren eta aukeraren artekoa da, aukera identifikazio eta sentimendu sakoneko balioekin loturik badago ere. Administrazioak gurean espainolez bakarrik hitz egingo balu, diotenaren ezagutzari ez lioke kalte handirik egingo. Bai elebidunek duten eskubideari, administrazioak esateko duena aukeratzen duten hizkuntzan jasotzekoa alegia. Baten ezintasuna eta bestearen identifikazio eta sentimendu balioekin loturiko aukera maila berdinean kokatzen al dira, maila berdinean kokatutako eskubideak al dira? Azterketa guzi hauek kontutan hartu beharko lukete guzientzat komuna den, komunikazio funtzioa bete dezaken hizkuntza bat badagoela Erkidego autonomoan, espainiera alegia. Espainiera da hizkuntza *frankoa* gurean. Eta hori da gure hizkuntzazko egoeraren ezaugarri nagusia, elebidun, beste era batera elebidun, diren herrialdeekin parekatuz gero, adibidez Suitzarekin edo Belgikarekin.

Gogoeta honen helburu bakarra bi paradigmaren artean sor daitekeen kontrakotasuna ikustaraztea da. Eta sor daitekeen kontrakotasun horrek elebidunek eta elebarkarrekok dituzten hiztun eskubideak elkarrekiko posizio asimetrikoan jartzen ditu: gehiago balio dute hiztun elebidunaren eskubideak, nahiz eta aukeran oinarrituak izan,

elebkarrekoaren hitzun eskubideak baino, nahiz eta hauek zenbait kasutan ezintasun bat begi bistan jarri eta beraren ondorio izan.

Hizkuntzak harremanean bakarrik uler daitezke. Ez dira aukera pertsonal eta banako baten esparruan agortzen. Ez dago bakarkako hizkuntzarik. Hizkuntzak ezinbestean bat baino gehiago eskatzen du. Gutxienez biren arteko kontua da. Gizarteko gerta-kizuna da hizkuntza. Hitzen eskubideak harremanezkoak dira, erlazionalak: baten eskubideak bestearen betebeharra dakar. Elebidun batek euskara aukeratzen bada administrazioarekin bere harremanak kudeatzeko unean, eta aukera hori ase beharreko eskubide gisa kontsideratzen bada, orduan administrazioak, eta administrazioan norbaitek, bere gain hartu behar du obligazio hori.

Kontutan izanik gure gizarteko gehiengoa elebakarra dela, euskara aukeratzen duenaren eskubideari erantzuteko gehiengoari bizkarreratzen zaio elebakarreko hitzun bezala duen ezintasuna gainditzeko obligazioa. Euskara aukeratzen duen elebidun batek egoera guzitan, hogeita lau ordutan eta eremu guzitan euskara baliatzeko eskubidea bada eta eskubide hori bermatu behar bazaio, elebakarreko guziak beharturik daude beraien abiapuntuzko ezintasuna gainditzera. Batzuen aukerazko eskubideari besteen ezinbesteko betebeharrak bakarrik erantzun diezaioke. Elebidunek dituzte eskubideak gurean eta espainolez elebakarreko direnek obligazioak.

Txostenean garbi gelditzen da hori ez dela norbaiten burutzioan oinarritzen den zerbait. Badirela funtsezko arrazoiak asimetria hori, nahiz eta asimetria gisa apenas formulatzen den txostenean, —ez dakit aipatzen den deserosotasunak asimetria hori duen gogoan—, planteatzeko. Hizkuntzen arteko bizikidetza eta gizarte kohesioa dira arrazoirik nagusienak.

Iruditzen zait, ordea, aipatu egiten direla, bizikidetza batez ere, baina zer den, zer diren, zertan datzaten argitzeko ahalegin gutxiarekin. Abstrakzio hutsean gelditzen dira. Guzientzat jakina balitz bezala. Edonork besterik gabe ulertuko lukeen, eta modu berean ulertuko lukeen zerbait bezala.

Abstrakzio guziak dira, ordea, zehazki aztertu beharrekoak, izugarritzko engainuen iturburu izan nahi ez badute. Hizkuntzen bizikidetzaz ari gara, edo hiztunen bizikidetzaz? Bata eta bestea berdinak al dira? Era batera edo bestera ulertuz, bizikidetzaz hori al da gizarte kohesioaren giltzarri? Nolatan, zergatik?

Galdera konkretu hainbat formulatuz saia nadin arestian egingdako galderei erantzuten. Erkidego autonomoko gizarte kohesioa hizkuntzen arteko bizikidetzan oinarritzen al da, edo kohesio faltaren iturrian hizkuntzen arteko bizikidetzarik eza aurkitzen al da? Zaila da baietz erantzutea errealitatea kontutan hartzen bada. Biolentzia da kohesio faltarik handiena sortzen duena Erkidego autonomoan. Ez dut uste biolentzia eta euskara osoki parekatu daitezkeenik. Euskara aukerako hizkuntza dutenen artean kohesio falta izugarria ematen da euskal gizartean biolentziaren aurreko jarrera neurri bezala hartzen bada –eta neurri hori hartzea ez da inola ere arbitrarioa.

Ba ote dago Erkidego autonomoan elebidun batez eta elebkarreko batez osaturiko bikoterik? Bikote horien kohesioa eta bizikidetzaz zalantzan jartzerik ba ote dago? Eta bikote horiek banantzen badira hizkuntza eskumen diferenteak izateak ote du errua? Esperientziak bestelakorik erakusten duela uste dut.

Guzi honek ez du esan nahi hizkuntzen arteko harremanek, elebidunen eta elebkarrekoen arteko harremanek bizikidetzan inolako garrantzirik ez dutenik, eta gizarte kohesioarentzat garrantzirik ez dutenik. Baina garrantzi hori zehaztu egin behar da behar bezala baloratu ahal izateko. Sortzen diren gatazkak, –azkenekoa aipatzekotan A ereduarekin jarraitzeko eskubidea eskatzen dutenek agertarazi dutena– ez da hiztunen arteko gatazka bat, elebidunen eta elebkarrekoen artekoa, hiritar batzuk administrazioaren erabaki politiko batzuekin dutena baino.

Suitzako gizartearen kohesioaz ezin genezake zalantzarik egin, nahiz eta hizkuntza *frankorik*, komunik, ez eduki, hiru hizkuntza nagusitan banandutako gizartea izan. Euskal gizartean dauden gizartezko kohesio arazoak ez daude nagusiki, ezta urru-

nik ere, hizkuntzen eskumenean ematen den ezberdintasunarekin loturik. Gizarte baten kohesioa zertan datzan ez da erraz sumatzea kasu bakoitzean. Eta mendebaleko gizarteek Estatu nazional gisan erakundetu direlarik, erakundetze horretan hizkuntza franko batek jokatu duen funtzioa ez da ezerezaren hurrengoia izan, handia baizik. Baina horrek ez du inola ere esan nahi hizkuntza bakarra izan denik kohesioaren suspertzaile bakar: egon badaude hizkuntza bakarra izanik beste arazo batzuegatik kohesio guzia galdu duten gizarteak: garai bateko Jugoslaviara begiratu besterik ez dago serbokroaziera izenduriko hizkuntza ez dela nahiko izan gizartea bateraturik eusteko.

Hizkuntzen arteko bizikidetzak garrantzizkoa da, zalantzarik gabe. Baina argitu beharreko zerbait da bizikidetzaz esan nahi dena, bizikidetzak zertan datzan, zerk duen arriskuan jartzen.

Eta txostenak dioena kontutan harturik, badirudi bizikidetzaren giltzarria hiritar bakoitzaren elebitasun betean kokatu behar dela. Badirudi diot, txostenak ez baitu lotura zuzenik egiten, baina bai esan gabeko elkartasun bat adierazten bien artean. Egia da txostenak jasotzen duela elebitasunari buruzko iritzia diferentean existentzia. Zuzenean aipatzen du egon badaudela osoki elebiduna litzatekeen gizarte baten izateko aukerari dagokionez zalantzak. Honelako gizarterik ez dela existitzen dioen iritzia aipatzen du espresuki.

Hala ta guziz ere, eta zalantzari zuzenean erantzun gabe, irtenbide kurioso bat aurkitzen du arazoa zeharkatzeko: egon daitekeenaren hipotesia egitea eskatzen du, horretarako inolako arrazoirik eman gabe. Elebitasun osoko gizarte bat guziz elebidunak diren hiritarrez osaturikoa da. Horretarako administrazioak bitarteko guziak jarri behar ditu, eskola amaieran ikasle guziak bi hizkuntzetan berdina gaituak egon daitezten.

Maila hori lortuz gero, hizkuntzen arteko harremana aukera hutsekoa izango litzateke, hiritar bakoitza egoera berdinean egongo bailitzateke erabilera gaitasunari dagokionetan. Maila hori lortuz

gero gizartearen hizkuntzazko egoera ez litzateke izango elebidunen eta elebakarren arteko banaketa. Hiritarren hizkuntza eskubideen arazorik ez legoke, gorago hemen aipatu den bezala, eta batez ere gaur Erkidego autonomoan elebidunek duten abantaila handia administrazio publiko eta administrazio publiko moduko lanpostu kalitatezkoetara iristeko unean. Bat batean arazo guziak desagertuak lirateke.

Hipotesi bat, errealitatean zalantzan jarri daitekeena gainera, hartzen da egoera ideal bat definitu, eta egoera ideal horretatik abiatuz hizkuntza politikaren ildo nagusiak definitzeko. Hori bai: ildo nagusiak behin definituz gero, errealitate erreala –eibartarren egia berdaderoaren antzekoa– kontutan hartu behar dela azpimarratzeko, inposaketak alde batera utzi behar direla behin eta berriz aitortzeko, eta hartutako erabaki guziak adostuak izan behar dutela esateko, esan nahiko balitz bezala, guzia askatasunean, hau da, inoren hizkuntza eskubideak urratu gabe gauzatu behar dela.

Errealitatetik abiatu beharrean, errealitatean ahalezko deneetik abiatu beharrean, teoriarik eskakizun maximoa dena planteatu, eta praktikari eskatu pausoak leundu ditzan, errealitatean gertatzen dena gogorregia izan ez dadin: hizkuntzaren eskubideak –esan nahi baita, euskararen eskubideak, hizkuntza ahul gisa dagozkionak alegia– dira bermatu beharrekoak, euskal hiztunen eskubideek dute lehentasuna –gorago aipatu ditugun bi paradigmak elkarren ondoan euren arteko harreman korapilatsua aztertu gabetik sortzen den bezala, adostasunaren fetitxismotik datorren moduan, eta bizikidetza abstraktu baten ondorioz beharrezko ikusten den gisan–, eta elebakarreko hiritarrak dira guzi hori betetzeko beharrezkoa den bete-beharra bizkarreraturik dutenak.

Onar dezagun, ordea, joko metodologiko moduan txostenak eskatzen duen hipotesia: osoki elebiduna den gizarte bat ahalezko dela, zeinetan hiritar guziak gaitasun berdina duten bi hizkuntza ofizialekin baliatzeko. Nola jokutzen du horrelako gizarte batek, nola funtzionatzen dute hizkuntzek honelako baldintza batzuetan? Gizar-

te batek hizkuntzen erabileran elebiduna izateko, eta modu simetrikoan, hiritarren erdiak bi hizkuntzetako bata erabiltzeko aukera egin beharko luke beti. Eta beste erdiak beste hizkuntza erabiltzeko aukera.

Hori gertatuko balitz, ordea, euskara erabiltzeko aukera egiten duen erdiaren eskubideak bermatua izan nahi badu, beste erdiak euskaraz jarraitu beharko lioke, eta orduan erabileran elebakartasuna izango genuke nagusi. Edota hiritarren erdiak euskara aukeratuko luke erabileran, eta beste erdiak espainola, eta orduan erdiak euskaraz mintzatzen eta erdiak elkarriketa kide gisa espainolez hitz egiten edukiko genituzke. Imajinazio indar handia behar da honelako zerbait irudikatzen. Zer gertatzen da orduan administraritzarekin? Zer eskolekin? Zer komunikabide publikoekin: kazetari batek galderak euskaraz egin eta elkarriketatuak espainolez erantzun, eta alderantziz? Euskarazko formularioa jaso eta espainolez bete? Euskaraz ikasi unibertsitatean eta azterketa espainolez egin?

Nire susmoa garbi aitortzeko, guziz simetrikoa den gizarte elebidun osoko gizarte baten ideia atzetik, ondorio gisa eta ez intentzio mailan, gizarte elebakarrekoaren egoera ikusten dut, batez ere erabilerari dagokionez, eta erabilera mailako elebakartasunaren ondorioz baita ezagutza mailan ere, ezari-ezarian.

Komenigarri da ahalegin bat egitea irudikatu ahal izateko nola funtzionatuko luken osoki elebidun den gizarte batek, hiritar guziak gaitasun berdinez bi hizkuntzetan jarduteko ahalmena izanik. Eta irudikapen ahalegin hori eginez gero, elebakartasunerako joera nahiko agerian dagoela iruditzen zait. Batez ere elebitasun osoarekin batera euskarari hizkuntza ahula izatetik sortzen zaizkion eskubide bereziak kontutan izanik, eta espainolak inolako arriskurik ez duela uste izatetik, beti noski hizkuntzaren eskubideen paradigmen eskutik.

Garbi geldi bedi: txostenak hipotesi moduan planteatzen duen osoko elebiduna litzatekeen gizartearen eskutik planteatzen da baita ere hipotesi moduan hemen elebitasun hori praktikan, erabileran, elebakartasun bihur daitekeela, hori dela ondorioz errazena eta

aukerakoena. Ez da esaten inola ere hori dela txostenaren planteamenduaren asmoa eta helburua.

Hitz bi amaitzeko orain artean Erkidego autonomoan hiritar gehienak euskara sustatzeari eta euskara sustatzeko neurriei emandako babesari buruz, neurri horien inguruan gure gizartean eman den gehiengoaren adostasunari buruz. 1982ko euskararen legeak adostasun parlamentario zabala jaso zuen. Hezkuntzan orain artean ezarritako hizkuntza politikak ere adostasun zabala jaso dute. Gurasoen aukerak beraien haurrak eskolatzerakoan ere adostasun zabala ikustarazten dute.

Administrazioko lanpostuak euskalduntzeko hartutako erabakiak eztabaidatuagoak izan dira. Hala eta guziz ere, esan daiteke euskararen sustapenerako erabakitako politikek babes zabala jaso izan dutela, ez dutela gizartezko gatazka sakonik eta hedaturik sortu.

Ez litzateke egokia, ordea, adostasun eta babes zabal hori dagokion testuinguruan ulertuko ez balitz. Bi puntu dira, batez ere, gogoan izan beharrekoak. Bata aipaturiko adostasuna eta babesa sortzeko unean gizarte presioak izan duen garrantzia. Eta bigarrena aipaturiko adostasuna eta babesa zer nolako itxaropenekin zegoen lotuta kontutan hartzea.

Lehenengo puntuari eutsiz garbi dago Erkidego autonomoko gizarte giroa abertzale izenda genezakeen imaginario batek markaturik egon dela urte luzetan, gizarte mailako diskurtso ofiziala abertzale eta euskaltzale edukiez osaturik egon dela. Eta giro horrek garrantzi handia izan duela gizabanakoek, hiritar bakoitzak hizkuntzekiko, euskararekiko izan duen jokabidean. Gizarte mailako diskurtso ofizialean aldaketarik emango balitz, eta horrelakoak gertatzea ez da sekulan baztertu behar, hiritarren jokabidea ere aldatuko litzateke, eta orain artean adostasun eta babes izan dena kontrakotasun bihurtu.

Bigarren puntuari dagokionez berriz, ez da ahaztu behar elebakarreko hiritar askok eta askok zuzenean edo bere haurren-

tzat euskararen apustua egin zutela uste izanik apustu horrek babilio zezakeela gizartea integratzeko, gizartearen baitako gatazkak bideratzeko, gatazka politikoa eta biolentziarekin loturiko gatazka konponbidean jartzeko. Elebakarreko hiritargo hori prest zegoen hainbat lan bere bizkar hartzeko eta euskararen alde egin beharrekoak egiteko edo gutxienez babesteko, guzi horrek gatazkak gainditzera ekar zezakeelako.

Ez da horrela gertatu, ordea. Gizartearen integrazio politikorako, biolentziaren arazoa gainditzeko, alferrikakoa izan da elebakarreko hiritargo horrek egindako apustua. Ez hori bakarrik: ikusi ahal izan du integrazioaren helburua ez baina euskaltzetasuna bere erreklamatzeko zuen abertzaletasun batek kontrako apustua egin duela, erradikalizaziora joz. Erkidego autonomoko erakundeek erabakitako hizkuntza politika ez baita beti berdina izan, aldaketarik gabekoa. Lehenengo Euskararen Aholku Batzordeak erabakitako oinarriak erakunde estatutarioak eraikitzeke giroan kokaturik daude; hezkuntza politikaren akordioa eta berarekin loturiko eskolako hizkuntza politika koalizio gobernuen garaikoa da; garai berekoa da administrazioko lanpostuak euskalduntzeko plana, eta plan horrek sortutako egonezinak; garai horren amaieratan ematen da aldaketa handi bat hizkuntza politikan, ezker abertzalearekin adostasuna bilatuz, ezker abertzaleari gogoko zitzaizkion apustuak bultzatuz, Lizarra-ko akordioaren izpiritua izango zenaren aitzindaritzan moduan: abertzaleen jardura batasuna euskara munduan probatuz.

Eta Ibarretxe Lehendakariaren planaren ingurukoak dira hezkuntzan euskara hizkuntza nagusi bezala ezarri nahi den politika eta zenbait administraritzatan lanpostuak euskalduntzeko plana estu eta indarrez bultzatzea, hala nola Osakidetzan. Guzi honek diskurtso ofizialak berdina izaten jarraitu arren adostasun faltak begi bistakoak egiten hasi delarik.

Txostenean askotan aipatzen den adostasuna eta euskararen sustapenerako neurriei gizarteak emandako babes zabala zehazki aztertu beharreko zerbait da, eta ez aldaezinekoa litzatekeen

naturazko gertakizun bat. Adostasuna eta babesa baldintzatuak izan dira, eta baldintzak aldatu daitezken neurrian galdu ere egin daitezkeenak.

Aurreko gogoeta guziak ez dute esan nahi Euskararen Aholku Batzordeak helarazi digun txostenak esaten dituenak oro har gaitzetsi egiten deirenik. Ezta gutxiago ere. Gehiengoak sinatzeko modukoak dira. Ahalegin handia nabari da jarrera orekatu bat hartzeko euskararen sustapen bidean, inposaketaren bideak dituen arriskuak ikusiz eta inposaketaren ordeztu euskararen erakargarritasuna azpimarratuz, denboraren faktoreari dagokion garrantzia emanez eta egoera diferenteetan beharrezkoa den malgutasunaren apustua eginez.

Baina gogoeta hauetan aipaturiko bi paradigmatik elkarren ondoan jartzea, bien arteko harreman korapilatsua aztertu ere egin gabe, bizikidetzaren ideia garrantzizko jotzea, baina modu guziz abstraktuan, eta osoki elebiduna litzatekeen gizarte bat hipotesi moduan onartzea beharrezko egitea, eta hiru ideia horiek elkar indartzeko, elkar bermatzeko duten joera, guzi hori azpimarratzea beharrezkoa iruditu zait, guzi hori muturrera eramanez gero sor daitezken arriskuak begi bistan jartzeko asmoz.

- Hitz gutxitan laburbildu beharko banu gogoeta hauen mamia, hurrengo esaldiak idatzi beharko nituzke:
- ez dago betebeharririk sortzen ez duen eskubiderik. Eskubideak ez dira amairik gabeko ondasunak. Agortu daitezke, eta batez ere elkarren kontrakoak suertatu daitezke
- hizkuntzaren eskubideen paradigmatikaren eta hiztunen eskubideen paradigmatikaren arteko harremanak gatazkatsuak dira gehienetan
- Erkidego autonomoan ematen den hizkuntza mailako banaketa elebidunen eta elebakarrekoen artean ematen dena da. Erkidego autonomoko gizartean badago hizkun-

tza amankomun bat, hizkuntza *franko* bat, *koiné* funtzioa betetzen duena

- ez dago Europa-n osoki elebiduna den gizarterik eta horrelako gizarte elebidun bat hipotesi moduan abiapuntu-tzat hartzeak ez dakar inolako onurarik
- euskara sustatzeko neurrien inguruko Erkidego autonomo gizartearen adostasuna aztertu beharreko zerbait da, baldintzatua, eta baldintza horiek irautearekin lotua

Hizkuntza politika politika da. Politika bada, aukerak ezinbestekoak izango ditu. Eta aukerak egiteak arazoak dakartza. Beti. Gizartearentzat sentiberatasun haundikoa den zerbaiti dagokionez hizkuntza, politikak ahalegin berezia egin beharko du arazoak gutxitzeko, mingarriegiak izan ez daitezen. Baina egon egongo dira. Txostenean faltan ikusten dudan elementu nagusia horixe da: ez onartzea gatazkatsua den zerbait duela eskuartean. Eta eskubideen arteko gatazka. Konponbide errazik ez duena. Idealizatuegia dago txostena. Idealizazio hori gainditzeko bidea zera litzateke, helburu gisa elebitasun asimetrikoan bizi den gizarte bat jartzea, zeinetan batzuk egokiago erabiliko duten hizkuntza bata, eta beste zenbaitek bestea, baina komunikazioa guziz hautsi gabe.

Honek eskolako helburuak malguago finkatzea ahalbideratuko luke, eta administrazioko lanpostuen euskal definizioa ere modu askoz malguagoan burutzea ere ahalbideratuko luke. Arazoak, baina, ez lirateke desagertuko. Errealismo karga hori falta zaio txostenari. Joan den mendeko hirurogeigarren hamarkadaren amaiera aldera Euskaltzaindiaren izenean alfabetatze kanpainak abiarazi zituen Rikardo Arregi-k idatzi zuena, euskarak inperialista izan behar duela, euskaldunok gizaki izateko euskararen konkretutasuna beharrezkoa dugulako, eta argudio horrek era berean gaztelera zihardutenentzako baliozkoa zela ikustean, gaztelera frankismoak osoki alienaturik zegoela eta horregatik erdaldunek baztertu egin zezaketela, egin behar zutela euren hizkuntza alienazioa gainditu

ahal izateko, eta horregatik izan behar zuela euskarak inperialista hain zuzen: horrenbeste esan beharrik ez dago, argudioa ez baita onargarria. Baina hizkuntza politika oro ez dago sekulan nolabaiteko bortxatik urrun. Gogoan ez edukitzea arriskutsu gerta daiteke.

EUSKARA 21

Mikel Basabe

SARRERA

Oinarrizko txostena irakurri ondoren, zalantza bat baino gehiago geratzen da, nahiz eta diagnostikoarekin, oro har, bat egin daitekeen. Beharbada, horixe da zalantza nagusia: ez ote den batez ere diagnostikoa (eta hori ere mugatua) egiten edo, bestela esanda, diagnostikoan baino ez ote den geratzen. Testuan behin eta berriro kritikatzeko den boluntarismoan ez ote den erortzen, sarritan, hemendik aurrerako jardunerako oinarrizkoa behar zuen ponentziak. Zehaztasun-gabezia geratzen ez ote den, behin eta berriro. Hizkuntza-politikaren oinarriak planteatu beharrean, hizkuntza-politikaren arazoez diharduen txostena ez ote den.

POLITIZAZIOA

Argi dago hizkuntza baten –edozein hizkuntzaren– normalizazioak eskatzen duela hizkuntza hori herritarrek salbuespen ideologiko barik erabiltzea. Ez da hizkuntza normalizatua izango multzo ideologiko batek baino erabiltzen ez duen hizkuntza. Beste alde batetik, testuan sarritan aipatzen da hizkuntza-politikak beharrezkoa duela adostasuna. Bada, hasteko zehatz dezagun hori: guztien arteko adostasuna ezinezkoa da; hain justu, testuan behin eta berriro adierazten den legez, sistema demokratikoak berezkoa duelako herritarren kritika eta desadostasuna, alderdien

arteko kritika eta desadostasuna ere ohikoak dituen legez. Beraz, aldekotasun zabala bilatu beharko litzateke, ezer bilatzekotan. Adskripzio nazionalaren mugak gainditzen dituen aldekotasun zabala. Gertatzen da, ostera, oinarrizko ponentziak esaten digula aldekotasun hori, teoriarik behintzat, egon badagoela. Gehiengo soziala eta horren ordezkari den gehiengo politikoa hizkuntzaren normalizazioa bultzatzearen alde daudela azpimarratzen da, oinarrizko txostenean, behin eta berriro. Zer gertatzen da, orduan? Non dago arazoa? Adostasuna ezinezkoa bada baina aldekotasuna aspaldi lortua badago, ez litzateke arazorik egongo. Ala? Adostasuna, gainera, ezin uztar daiteke txostenak 55. orrialdean jasotzen duen aipuarekin: “Eragingarria izan nahi duen hizkuntza-politika bat inertiak-eta astintzeko deserosoa izan behar du, ezinbestean, bestela ez bali-zateke hizkuntza-politika egin beharrik ere”.

Nire ustean, legeen bozketetan agertzen den aldekotasun handi samar hori ez da hitzetatik ekintzetara igaro. **Aldekotasun zabala lortu zuen Gernikako estatutuak, eta aldekotasun zabala Euskararen legeak ere. Baina aldekotasun hori paperean gertatu da.** Bataren eta bestearen alde bozkatu zuen alderdi sozialistak –oker ez banago, oinarrizko testuan aipatzen den alderdi politiko bakarra– ez du aldekotasun hori ekintzetara pasatu, eguneroko praktikak behin eta berriro erakusten digun legez. Lehenengo egin-kizuna, beraz, aldekotasun hori praktikoa ere izatea.

Euskararen politizazioak dituen arriskuez ohartarazten du ponentziak, arrazoi osoz: hain justu horregatik ari dira zenbaitzuk euskara eten barik politizatu guran. Jakin badakitelako horixe dela normalizazioaren kontra duten bitarteko eraginkorrenetakoa. Kohesio soziala arriskutan ez jartzeko ezinbesteko baldintza ez da bakarrik hizkuntza-politika malgua egitea, ezen behar-beharrezkoa baita, horrekin batera, indar politikoek ere kohesio soziala ere helburu izatea. Politizazioa, beraz, hortxe dago. Ez da agian, gauzak txarto eginez gero, gertatuko den zerbait: izan baden arazoa da. Politizazio horri amaiera ematea zehar-lerrotasunetik

baino ez da ailegatuko. Egunero euskara jaurtigai legez darabilte-
nek –batekoek zein bestekoek– ez dute helburu hori.

Argi dago abertzaleen artean hizkuntzaren politizazioari amaiera eman gura dioten pertsonak, erakundeak eta alderdiak asko direna. Gauza bera gertatu beharko litzateke abertzale ez diren alderdien artean. Horien artean kohesio soziala lortu eta gobernu-lanean jardun gura duenak du berebiziko garrantzia. Hizkuntza politika erdi eperako kohesio-bide legez planteatzen duenak egiten dio herri honi mesede. Oposizioan dagoela hizkuntza-politika jaurtigai erabiltzen duenak konturatu egin behar du ezin izango duela jarra bera izan, gobernu-arduretan jardunez gero. Hizkuntza-politika zentzukoa, malgua eta gura beste adjektibodunak norberaren talde ideologikoko muturrekoenen beldur izan barik egiten ausartzen denak etekin politikoa izango du, zalantza barik. Horretaz konbentzitu beharra dago, oraindik ere konbentziturik ez dagoena.

Egoera bitxian dago, beraz, euskararen politizazioaren kontua. Ez dira abertzaleak nagusiki hizkuntza politizatzen dutenak, baizik eta ez abertzaleak. Baina hizkuntzaren normalizazioak ez ezik, iraupenak ere euskararen erabilera normala ez abertzaleen artera ere zabaltzea eskatzen du. Zeren hizkuntza bat talde ideologiko zehatz eta bakar batena denean, gerta bailiteke talde ideologiko horrek, desagertuz gero, berarekin eroatea hizkuntza ere. Hortxe dugu, beraz, lehenengo eginkizuna: ez abertzaleak hizkuntzaren normaltasunera gehitzea, urrats hori ematetik gertuen daudenetatik hasita. Ez litzateke sobera egongo euskararen auzitik hizkuntzen auzira egitean jauzi: Erresuma honetan 10 hizkuntza daude 'jatorrizkoak'. Hizkuntza-aniztasun horren jabe egin beharko lirateke nagusiki elebakarrak diren herritarrak.

HIZKUNTZAREN EGOERA

Badago oinarrizko txostenaren hasieran deigarria den beste baieztapen bat behintzat: "Argi-ilunak ikusten ditugu euskararen

egoeran, baina azken hogeita bost urteotan egindako lanari esker, argiguneak dira nagusi”. **Benetan argiguneak dira nagusi? Ala orain hogeita bost urteko egoerarekin erkatuz gero dira argiguneak nagusi? Ez baita, inondik ere, gauza bera.** Eztabaida ezina da euskarak azkeneko hamarkada bietan aurrerapauso handiak egin dituen. Zalantzarik ez dago: oraina eta etorkizunerako perspektiba hobea da 2008an 1978an baino. Baina duela hogeita bost urteko egoerarekin erkatu beharrean gaur egungo egoera bada kontuan hartzen duguna? Orduan ere argiguneak dira ilunguneen gainetik nagusi? Txostenak ez dio horri erantzunik ematen. Izan ere, ilunguneak ez dira inondik ageri. Eta egon badaude, eta erraz identifika daitezke. Hezkuntzan, esate baterako. Guztiok bat gatoz batez ere hezkuntzan egin dela ahalegina azkeneko hamarkada bietan. Guztiok bat gatoz gaur egungo egoera duela hamarkada biko baino hobea izatearen arrazoietakoa asko hezkuntzan bilatu behar direla. Ereduak izan duten bilakaera (herritarren borondatearen ondorio, ez dezagun ahaztu) hizkuntzaren normalizazioa bilatzen dugun guztion pozgarri dira. Baina: zer gertatzen da lanbide heziketarekin? Noizko esparru horretan ere unibertsitate aurreko hezkuntzako gainerako esparruetan egin den ahaleginaren modukoa? Bitxia da hizkuntza-ereduak aldatu gura izateko erabiltzen den arrazoietakoa bat gizarte-pitzadura saihestea izatea (eredu ezberdinetan ikasten duten ikasleen artean horrelakorik sortuko ote den beldurrez), eta lanbide heziketaren eta batxilergoaren arteko hizkuntza-lubakiari horrelako garrantzi txikia ematea. Bitxia den legez ereduaren porrotaz jardutea –eztabaida publikoak, ez txostenak–, eta ez jardutea, berriz, Hezkuntza sailak ereduaren eskaintza unibertsitate aurreko hezkuntza osora zabalteko lanean izan duen porrotaz.

Eta hezkuntzako hizkuntza-ereduez dihardugula, hori ez “al da gaurko euskal gizartean herritar gehienek euskararen alde eman nahiko luketen pausorik eta Euskararen Legeak edo gainerako lege-arauek tratatzen duelako bertan behera erortzen” den puntua?

Txostenak galdera hori egiten du, eta 10/82 Legeak, hain justu, eragozten du ereduak aldatzea. Hain justu.

Justua ez dena, berriz, oinarrizko txostenean erretorikoa izan gura duen galdera hori bota eta hurrengo paragrafo bietan egiten diren baieztapenak dira: ez da egia hizkuntza-eskubide horiek “zenbait kasutan nekez betetzen direla” eta ez da egia justizia alorra denik gabezia handienak dituena. Eta onartezina da autokritika agindu eta egiten ez duen txostenak hurrengo baieztapen hau egitea: “Kontua da, euskara den baino indartsuagoa ez bada, euskararen normalizazioaren aldeko jardunean gauzak aurrerago joan ez badira, gizarteak oro har mugak ezartzen dituelako dela”. Hizkuntza-politika bultzatu dutenei haren argiguneen aitortza dagokienean egin behar zaien legez, ilunguneena ere egin beharko zaie, hori ere dagokien heinean.

Txostenaren lana izan beharko litzateke ilungune horiek dektatu eta argigune bihur daitezen proposamenak egin. Ez dut uste horrelakorik egiten duenik.

HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK

Lege-markoa aipatzen du txostenak, eta “egoki” dela irizten dio. Kasu honetan, eztabaidagai dena ez da esaten den hori, esaten ez dena baino: bizantziarra litzateke lege-markoa egokia den ala ez eztabaidatzen hastea (aldaketa proposamenik egiten ez bada, behintzat), baina **ez legoke sobera lege-markoaren sorburu den Konstituzioak hizkuntza ofizialen artean ezartzen duen ezberdintasuna aipatzea. Gaztelania derrigor jakin beharra eta erabiltzeko eskubidea dago, eta besteak aukerakoak dira**, hala ezagutzan nola erabileran. Ez da txikikeria: ezagutza segurtaturik dagoelako jardun dezakete hizkuntza bakarrean administrazioek. Alegia, gaztelania ez erabiltzeko eskubiderik ez daukagula herritarrok.

Testuak, berriz ere boluntarismo itzelarekin, jasotzen duenean hizkuntza-eskubideak “han eta hemen” erabiltzeko eragozpenak dituela euskara hautatzen duen herritarrak, asko jota egia erdia baino

ez du esaten. Edo egiaren erdia isilpean gordetzen du. Zalantzazkoa da baieztapena, berriz ere ez esaten denagatik, baizik beren beregi aipatzen ez denagatik: hizkuntzaren normalizazioa diseinatzeko ari den administrazio-atal bera ere bada hizkuntza-eskubideak erabiltzeko eragozpenak jartzen dituena. Hori horrela, **eskubideak lortzeak, indarrean den legeriak behin eta berriro azpimarratzen duenez, progresiboa izan behar du, eta ingurunearen errealitate soziolinguistikoari begiratu egin behar dio. Ados. Baina progresibotasunak benetakoa ere izan behar du.**

Administrazioak esparru askotan lan egin dezake, baina, zalantza barik, herritarren eskubideak betetzera beharturik sentitzen denean lan hori errazago zuzentzen da, bai baitaki zer bilatu eta lortu behar duen. Horren adibide dira Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza-politikaren azken hamarkada biak. Baina administrazioaren hutsuneak ere aipa daitezke. Bai barrura begira bete barik geratu diren hutsuneak (zenbat euskalduni ez zaio hizkuntza aukeratzeko aukera ukatu, azkeneko hilabetean, eta horietako zenbat izango dira datorren hilean administrazio-sail berberaren aurrean berriz ere hizkuntza aukeratzeko eskubide gabeko egoera berberetan izango direnak?), baita kanpora begira ere: Estatuko administrazioa kritikatzeko da oinarritzeko ponentzian, arrazoi osoz, euskararen normalizaziorako indarrean diren legeak betetzeko ahaleginik egin ere egiten ez duelako; baina, noiz egon da gai hori EAEko eta Estatuko gobernuen arteko negoziazio mahairen batean? **Harako eskumena eta besteko eskuduntza eztabaidatu eta borrokatu badira ere, hizkuntza normalizazioaren atalean Estatuko gobernuak egin beharrekoak ez dira estatus horretara ailegatu.** Esan liteke Euskal Autonomia Erkidegoko gobernuarentzat (eta bera da administrazioaren atal garrantzitsua zuzentzen duena) ez dela lehentasuna izan Estatuko administrazioak herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzea. Eta bere administrazioak ere hala moduz betetzen ditu, gaur egun ere, hizkuntza-eskubideak. Jendaurreko zerbitzuetan, pertsona bat baino gehiagoz osaturik daudenean

ere, ez da segurtatzen legeak dioena, hau da, herritarrak hizkuntza aukeratzeko eskubidea izango duela.

Gainera, atal berekoa izan arren aparte jorratzen den alderdi bat ere badago: azpikontratena (baita enpresa publikoena ere, maila batean). Azpikontratak nahinon erabiltzen dira. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioan erruz agertzen dira. Hizkuntza-eskakizunik ez dute. Argi dago administrazioak baduena normalizazioan jarduteko lanerako esparrua: azpikontratazioetara jotzen duenean, jar ditzala hizkuntza-eskakizunak. (Beti bezala, lanpostuari eta ingurune soziolinguistikoari begiraturik egin beharko du, baina baita herritarrek hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea bermatzen dela kontuan hartuz. Baina, bate zere, egin egin beharko du).

EZAGUTZA ETA ERABILERA: BILAKAERA EZBERDINAK

Ezagutzan aurrera egin da, ez ostera erabileran. Datu enpirikorik esku artean ibili barik ere, argi dago erabileraren bilakaera ez dela ezagutzaren bilakaera bezain ona izan. Zer egin lezake administrazioak erabilera bultzatzeko? Berriro ere, barrura begira eta kanpora begirako neurriez jardun genezake. Barrura begira, administrazioan bertan hartu beharreko neurriak aipatzeko orduan, badago nabarmena den bat: bilatu behar da hiritarrak, edozein leihatilatara hurbiltzen denean, argi izan dezala hizkuntza benetan aukeratu ahal izango duena. Hizkuntza bi daude hemen, eta guztiok dakigu, tramite bat egitera goazenean, batean seguru ulertuko digutena. Bestean ere horrela gertatuko dela jakin behar du hiritarrak. Hori lortzea administrazioaren (edozein administrazioaren) eginkizuna da. Eta bete-beharra, hainbat legetan ezarririk dagoen puntua baita.

Kanpora begirako neurriak ere badaude. Erabilera bultzatzea aipatzen denean, gazte eta umeak izan ohi ditugu buruan. Zergatik? Gainerakoek ez dugu berba egiten? Ez dira nagusiagoak gazteagoen eredu? **Ez ote dugu, erabilera gazteen esparruan sustatu**

beharreko kontutzat hartzen dugunean, orain arte beste zenbait alderditan egin dugun hanka-sartze bera errepikatzen? Alegia, normalizazioa berez etorriko dela, gu baino gazteagoen esku-tik. (Eta, beraz, gure erantzukizuna eta inplikazio-beharra txikiak dira oso). Bitxia da, oso, helduen euskalduntzeari buruz egiten den aipamena: “Euskara ikasi nahi duten helduek, berriz, eskura daukate euskara ikasteko aukera, 139 euskaltegiz osaturiko sare publiko eta pribatu profesionalizatuaren bidez”. Egia izango da, ez dut nik ukatuko –nahiz eta, hainbaten, ordenak alderantziz joan beharko lukeen, pribatu profesionalizatuak lehenengo aipatuz–; baina, horrekin nahikoa da? Hala aukeraz gainera motibazioa ere landu beharko da? Izan ere, hainbeste dira helduok eskura dauzkagun aukerak...

Baina gazteei begirako neurriak hizpide izanez gero ere, badago lan handia egiterik. Erabilera + gazteak batuketa planteatzen denean, badago osagai bat oso kontuan izan behar dena: euskara ezin da bakarrik eskolako hizkuntza izan. Gelako lau hormen barruan gera dadin gura ez badugu, erabilera bultzatzeko ekimenak babestu beharko dira, hain justu gelarekin loturarik ez dutenak. **Jardun beharko da eskolaz kanpoko ekintzak antolatzen dituztenekin, jardun beharko da kirol taldeekin, jardun beharko da gazteen aisiaz arduratzen direnekin. Horrek planifikazioa eta baliabideak eskatzen ditu, zeinak hizkuntza-politika diseinatzten dutenen esku baitaude.**

ESKOLA, ALA ESKOLAK?

“Ikasleek eskura dezaketen euskara-gaitasun neurria ez dago bakarrik irakasleen hizkuntza-prestakuntzaren eta hizkuntza-ereduaren esku”. Konforme. Baina argi dago, egia enpirikoa da, A ereduak ez duela balio hizkuntza ofizial biak jakiteko, ez duela balio eskubidea den hori bermatzeko, ezta derrigorrezko eskolaldia amaitzen denerako ikasleei ezartzen zaizkien hizkuntza-ezagutzak betetzeko ere. Inoiz ez. Argi dago A ereduak ez duela balio. Argi dago txostenean gorai-

tzen diren estatutuak eta 10/82 legeak zer dioten hizkuntza ofizialen ezagutzari buruz. Horiexetan jasotzen dira “guztientzako jarritako gutxieneko hizkuntza-helburu orokorrak”. ‘Apaldu’ egin behar ditugu? Konforme egonik ere “ikasleek eskura dezaketen euskara-gaitasun neurria ez dagoela bakarrik irakasleen hizkuntza-prestakuntzaren eta hizkuntza-ereduaren esku”, proposamena helburuak ‘apaltzea’ da? Izan beharko luke, bada, irakasleen prestakuntza, hizkuntza alorrean ere bai, hobetzea; eskolak baliabide eta irakasle gehiagoz hornitzea; eskola-orduetatik kanpoko ekintzetan ere jardutea; ereduak aldatzea beharbada ... ala besterik gabe jarraitu behar dugu helburuak betetzen ez dutela segurua den ereduak bere horretan mantenduz, nahiz eta jakin eskola publikoko A ereduaren ume etorkinen ghetto bihurtzen ari dela? Bere horretan diot: **eztabaida ereduak derrigor aldatzera bideratu da, beharbada lehenengo egin beharreko urratsa ereduak –guztiak– bere horretan ez mantentzea denean**. Hezkuntza alorrean egin diren urratsek, metatu den eskarmentua eta gurean zein kanpoan egin diren ikerketetatik ondorioak atera beharra dago. “Ikasleek eskura dezaketen euskara-gaitasun neurria ez dago bakarrik irakasleen hizkuntza-prestakuntzaren eta hizkuntza-ereduen esku”, baina horiek eragin handia dutenez, horietan lan egin behar da emaitzak hobetzeko xedez.

Horregatik, oinarrizko txostenak aipatzen duenean “hezkuntzaren eremuan aldaketak gutxika-gutxika egin behar direla, egin nahi dena orokortu aurretik aldeztu aurretik probatuz eta balioetsiz”, baina, aldi berean, lerro gutxi batzuk geroago txosten berberak adierazten duenean horrek ez duela “esan nahi bere sasoian diseinatutako hizkuntza-ereduak bere horretan utzi behar direnik, bai zik eta komeni dela eraldaketa oro aurreko bideari segituz egitea”, zehaztasun-gabezia erakusten du, nahiz eta arrazoia daukan.

Proposatu egin beharko luke oinarrizko txostenak:

- 1.- Aldaketa berehala egitea, horrek dakartzan arriskuak eta aukerak zehaztuz, edo

2.- Aldaketa egiterik ez dagoela iritziz gero, giza eta material baliabide gehiago sartu behar direla derrigorrezko hezkuntzan, orain indarrean dauden ereduak emaitzak ahalik eta gehien gerturatu daitezten pertsona elebidunez osaturiko sozietate elebiduna lortzeko beharrezkoak diren emaitzei. Ahaztu barik A eredu publikoa ghetto bihurtzen ari dela eta administrazioari dagokiola hori saihesteko neurriak hartzea. Ahaztu barik lanbide heziketa.

Nik bigarren hautuaren alde egingo nuke, bazterrean utzi barik ereduak ereduak gainditzeko proba-egitasmoak abian jartzea.

ETORKINIK BA AL DAGO HEMEN?

XXI. mende hau zelan joango zaigun asmatzea gaitza da. Ikusi egin behar globalizazioak benetan zer dakarren, eta eredu ekonomikoen aldaketa zertan geratzen den. Baina orain arte ikusirikoetatik –zortzi urte daramatzagu jada XXI. mende honetan, matematikoki ez bada pertzepzioaren aldetik bai behintzat– eta zortzi urteotan gure demografiak astindu ederra jaso du. Astindua, aldaketa baino sakonagoa izan delako, eta ederra aldi berean. Hizkuntza-politikaren lege-markoa diseinatu zenean ez bezala, asko dira euren sorterrira utzi eta euskal herrietara ogibidearen bila etorri diren pertsonak. Herrietako askok gaztelania du lehenengo hizkuntza, baina beste askok ez. Oker ez banago, txostenak behin aipatzen ditu, 54. orrialdean: “Etorkinek, hedabideek, arian-arian sortzen diren komunikazio-beharrak, eta abarrek beste ezaugarri batzuk ekarri dizkigute, eta horien arabera moldatuko da gure gizartea, hizkuntza kontuetan baita ere”. Kito.

Etorkinak ugaritu izana ez da gure artean bakarrik gertatu den zerbait. Munduko alde aberatseko herrietara etorri den immigrazioa ezagutzen dugu guk batez ere, herri pobreetatik herri pobreetara joan dena baino gehiago. Eta herri aberatsen artean ere badaude

hizkuntza-normalizaziorako politika egiten dutenak: Katalunia, esate baterako. Aldeak alde –eta handiak dira gero–, **XXI. mendeko hizkuntza-politikaren oinarriak finkatu gura badira, arreta berezia jarri behar zaio etorri berri diren –eta etorriko diren– herritarrei begira egin beharreko politikari**. Horretan, zalantza barik, berebiziko garrantzia izango du helduen euskalduntzearen sektoreak. Administrazioaren eta sektore horren arteko harremanak asko hobetu direla aprobetxatuz, erronka berri horri aurre egiteko planteamendu bateratua lantzen hasi beharko lukete biek. Kohesio soziala bilatzea ez baita bakarrik herritartasuna dutenekin lortzen: sozietatea osatzen duten guztiak hartu behar dira kontuan, Europako beste herrialde batzuetan gertatu izan direnek ondo baino hobeto erakutsi diguten legez.

LABURBILDUZ

“(…) herri-erakundeen aitzindaritza ere ezinbestekoa da, baldin ezberdintasunak orekatzeko moduan paratuko badira”. Horixe da hizkuntza-politikak egin beharreko hurrengo urratsa: **administrazioaren aitzindaritza orokortu beharra dago, esparru zehatz, jakin batzuetatik administrazioaren arlo eta maila guztietara zabalduz**. Barrura begira, hizkuntza-eskakizunak eguneratuz, erabilerara bideratuz eta, batez ere, herritarrak hizkuntza aukeratzeko duen eskubidea bermatzea ahalbidetuko duten neurriak hartuz. Euskararen ezagutza, txostenean esaten denaren kontra, ahalik eta gehien hedatuz: umeen artean eta helduen artean. Besterik ez bada, hurrengo belaunaldiak euskalduntzeko abiapuntu hobean egongo garelako. Aitzindari ez ezik, eredugarri ere izanez. Aitzindaritza hori, gainera, ideologiengainetikoa behar dugu. Alegia, berdin izan beharko lioke unean-unean agintean nor dagoen, hizkuntza-politikaren ardatz nagusiak bere horretan mantentzeko.

Kanpora begira, erabilera izanik egungo ardura nagusia, hori bultzatzeko behar besteko baliabide jarriz arlo horretan diharduten

administrazioaren atalen eskura, baina baita eragile sozialen esku ere. Ez bataren eta bestearen arteko osagarritasuna bilatuz, baizik eta aitzindaritza bikoitza izango duen prozesua egituratzeko ahalegina eginez: administrazioak tira egin dezala, eta eragile sozialek ere tira egiteko ahalik eta baldintza onenak izan ditzatela.

EUSKARA, XXI MENDEKO HIZKUNTZA BIZIA, EGUNEROKOA ETA NORANAHIKOA

Ana de Castro

SARRERA

Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politikak egokitzapena behar duela inork ez du zalantzan jartzen. Euskararen Legea onartu zenetik –urteren bat lehenago ere– herri administrazioetatik euskara normalizatzeko burutu den lan sistematikoa, Hizkuntza Politikarako Sailordetzak lideraturik, 25 urte luze pasa dira.

Autonomia Estatutuak eman zigun tresna legalaren aurretik egindako hamaika ahalegin –ahal bezala egin genuena– izan ziren abiapuntua. Sakabanatutako indarrak batzea eta, batez ere, bultzada indartsu, ofizial eta homogenea eman zion guzti horri gure Legeak. Indarrak batzen ez omen gara oso trebeak euskaldunok, baina hala ere Euskararen Legeak babestutako arlokako programen eguneroko garapenak, irauli ez baina egoera nabarmen aldatu da onera hiru hamarkada eskasetan. Bilbon behintzat, horrela gertatu da.

Orain arte gauzatutako hizkuntza politikak egokitzapena behar du, beraz, baina ez mendearen aldaketak estetikoki horrela eskatzen duelako; ez da, inola ere, irudi operazioa euskara sustatzeko planek behar dutena.

Arrazoa ez da planek huts egin dutela. Batzuen ustez Estatutuak ekarri digun guztia izan da porrota, dena txarto egin dugu. Horixe bera entzun dugu frankismo osteko euskal erakundeak marxan jarri ziren egun beretik. Hori ez da kritika, ez baita egiten errea-

litatearen gainean. Zer egiten den baino, nork egiten duen izan da argudio ezkor horren motorra. Dena dela, azken hamarkadan nabaria izan da euskararen munduan elkarlanaren bidean gertatu den hobekuntza.

Planak ez du huts egin. Oso alderantziz, Autonomia aroan aurrera atera diren plangintzei esker egoera linguistikoak onera egin duenez gero, gaurko abiapuntua ez da 1980koa, zorionez. Horixe egokitzapenerako beharraren arrazoa, egoera berriaren azterketa sakonaren beharra, aurrerantzean esku artean ditugun tresnei eta ahamenari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko bidean.

Beste batzuen iritziz, ordea, urrutiegi joan gara gure hizkuntza normalizatzeko neurrietan. Gauza batzuk hobeto joan dira beste batzuk baino, egia da, baina orain arte egindakoa pragmatismo handiz planifikatu eta aplikatu da. Gehiegikeriak nonahi ikusten dituenaren helburua benetako elebitasunetik urruti dago; gure errealitate zabalean gertatzen den hizkuntza ofizial bien arteko desorekari erreparatzea baino ez dago.

BURUTAZIOAK

1) Adostasuna da hizkuntza politika orok behar-beharrezkoa duen sostengu nagusia

Horrela da. Eta horretarako norbanakoen atxikimenduaren garrantzia. Baina atxikimendu mailan alde handiak daude. Askok ez du ikusten euskara komunikazio-adierazpen tresna moduan; gainditu beharreko oztopoa da batzuentzat (lan-mundura sartzekoa, adibidez) eta ez gutxiren kasuan atxikimendua oso sinbolikoa da: euskararen aldeko jarrerak ez ditu hizkuntza ezagutzera bultzatzen. Garrantzi handikoa omen da beraiantzat euskaldunen eta euskal kulturaren adierazleen existentzia baina gazteleraren elebakartasunetik. Kanpaina asko antolatzen da urtero handik eta hemendik, gehienak umeei eta gazteei zuzenduak. Baina beraien eredu diren

helduen testigantza elebitasunetik urruti dago. Zalantza dut gaurko gazte horiek heldu izango direnean beteko duten klitxe linguistikoaz. Bilbo inguruaz ari naiz, non biztanleria erdaldun elebakarra da gehiago zabal batean.

2) Erabilera da etorkizunaren giltzarria, baina Legeak ezin du bermatu, herritarrek baizik... Lehenespenen politika bat sustatu beharra dago

Gora egin du euskararen presentziak, arlo formal batzuetan batez ere, nahiz eta erabilera askoz mantsoago ezagutza baino. Guztion ahotan dago kontua. Eta zenbakiak aipatzen ditugu, portzentaiak. Azken batean, plangintzen eta gehienen borondatearen adierazle dira numero horiek. Baina gizartearen arkitektura ez da laua. Eta beharbada, zenbatek egiten duen bezain inportantea, nortzuk egiten duten jakitea argigarria izan daiteke, portzentaia horiek izango duten bilakaera nolabait usaintzeko. Piramidea da ezagutzen dugun gizarte hau, non gutxi batzuk bizimodu ereduak ezartzen dituzten –hizkuntza barne– eta gehienok bete egiten dugun, kontsumoaren kate amaigabearen ibilbidea betez. Gizartearen goiko aldean, dau den batzuk sikiera, euskara erabiliz gero eragina askoz biderkatzaileagoa litzateke euskararen alde. Ez da erraza, baina badago beste modu eraginkorrik gure gizarte aurreratu honetan?

3) Euskarak kalean hartu behar du arnasa, eguneroko bizitzan. Erabileran dago etorkizunaren giltzarria

Ondorengoetaratzearen zutabe nagusia, hala ere, etxean dagoelakoan nago. Eta kontu honetan familiaren egiturak eta ohiturek azken urteotan ezagutu dituzten aldaketa sakonek, euskararen ezagutza eta erabilerari dagokionez, zeresan handia izango dutela uste dut. Kalea eta etxea bi gune desberdin izan arren, lotura handia dute norbanakoek egiten duten hizkuntzaren aukera erabakitzeko orduan.

Bestetik, kaleko erabilera sakonago neurtzeko premia ikusten dut. Herritarrak kalean direla zein hizkuntza erabiltzen duten jakitea (non, adina,...) datu eskergarria da gure lanerako, baina haruntzago joko nuke. Normalizazio estrategiak eta programak erabakitzeko orduan egoeraren berri zehatzagoa behar dugu. Kontsumo gizartean bizi garen garai honetan, euskarazko produktuei dagokienez, herritarren nondik norakoaren berri izatea funtsezkoa da. Zenbat liburu, musika, egunkari, telebista, pelikula, internet, bideojoko eta abar kontsumitzen diren, zeintzuk, non eta nortzuk. Eta datu hauek aldiro neurtuta, bilakaeraren ezaugarriez jabetzeko. Gaitasuna eta jarrez gain, kontsumo indizea ere neurtzea, hizkuntza normalizazioan proposatzen diren ekimen ugari produktuak baitira, materialak zein zerbitzukoak (aisialdian, kasu baterako).

ERRONKAK

1) Erabilera sustatzeko neurriak

Orain arte gure inguru erdaldunean ume eta gaztetxoek esparruan gauzatu ditugu erabilera sustatzeko programa gehienak, egoerak hala eskatuta. Urte gutxitan gure programen hartzaile haietako asko helduak dira egun, bizitzan bestelako koordinada eta estimulutan mugitzen direnak. Badugu batzuekin zeharkako harremana gure programetan, guraso direnekin hain zuzen. Baina ez dugu oraindik asmatu helduengana mezuak helarazteko eta neurriak proposatzeko moduan.

2) Euskaldun berriak

Bilbo aldeko euskaldun gehienak. Seaskakoak baino, arbela kumeak. Bizi garen inguruan, hizkuntzaren industrietxoan sartuta izan ezik euskararen gaitasunean erosio handia jasaten dutenak dira milaka euskaldun hauek. Egindako esfortzu handiaren ostean hartutako saria etengabe herdoildua ikusten eta sentitzen dute; eta

ataka horretatik irteteko, beste esfortzu bat, eta beste bat ondoren. Oso zaila da horrela euskaltegitik –edo eskolatik– ateratako etekina eguneroko komunikazio tresna bihurtzea. Erabilera naturaletik gero eta urrutiago daude hauetako gehienak, bizimoduaren inertziak baldintzatuta.

Irteera bat eskaini behar zaie, bikoitza. Batetik, duten gaitasun linguistikoa eguneroko harremanetan trebatu eta osatuko dien bermea. Eta, aldi berean, egin eta egiten duten esfortzua prestigiatuko duen onarpen eta prestigio sozial handiagoa.

3) Euskaraz ikasi duena euskalduna da.

Derrigorrezko Hezkuntza osoa eta ondorengo ikasketak –unibertsitatean gehien bat– egindakoen lehen belaunaldia aspaldiko notizia izan zen. Geroztik milaka gaztek erabaki du ikasketa guztiak euskaraz egiteko aukera historikoa. Urtetik urtera handitzen doan kolektiboa da lan mundura abiatzen diren profesional euskaldunena.

Ikasle hauen gaitasun linguistikoa hamaika azterketa eta lan akademikotan frogatua izan da. Eta, paradoxikoa den arren, duten hizkuntza gaitasuna demostratu behar izaten dute lan munduan euskalduntzat hartuak izateko. Fielatoa da, gainkarga, beste hizkuntza ofizialaren kasuan gertatzen ez dena. Noiz, eta –adibidez– oposaketak euskaraz egiteko aukera dagoenean. Ez zait bidezkoa iruditzen.

4) Legeriaren egokitzapena

Euskararen normalizazioari dagokionez egungo egoera berriak eskatzen duen erantzuna osatu, adostu eta plazaratzeko ezinbestekoa dugu legeriaren oinarria. Orain arte hain baliagarri gertatu zaigun “*Euskararen erabilpena arauzkotzeko Oinarrizko Legea*”k (10/1982, azaroaren 24koa), orokorrean oraindik oso baliotsua, ukitu batzuk beharko ditu proposamen berriaren sostengua eta bermea izan dadin. Gauza bera apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuari dagokionez,

Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenaren kasuan.

Hauexek dira Oinarrizko Txostenari egin nahi dizkiodan komentarioak, Bilbon bizi dugun egoera linguistikotik pentsatuak. Neure eskerrik beroenak txostena osatu dutenei, egoeraren diagnosian bete-betean asmatu eta aurrera begira proposatzen dituzten ildoe-tan guztiz bat natorrela.

HIZKUNTZA POLITIKA BERRIA GAZTE TEKNOLOGIKOENTZAT

Miren Dobaran

SARRERA

XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak dokumentuan adierazten den moduan, edozein hizkuntzaren biziberritze prozesuaren arrakasta bermatzeko nahitaez gertatu behar diren faktoreak dira, lege-marko egokia, hizkuntza normalkuntza ahalbideratzeko behar bestekoa izango dena; hizkuntza politika eraginkorra eta baliabideak; herritarren atxikimendua eta hizkuntzaren aldeko jarrera eta konpromisoa. Datozen urteotan hizkuntza politika eraginkorrak aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da gure gizartea ondo ezagutzea eta gure gizartean gertatzen ari diren fenomenoak ulertzea. Egia da azkenengo 25-30 urteotan euskarak nabarmen egin duela aurrera eta guraso gehienek gogoia dela une honetan euren seme-alabek derrigorrezko hezkuntzako ikasketak euskaraz egitea. Milaka hiztun berri irabazi ditu euskarak azkenengo 25 urteotan eta gazteen artean jadanik gehienak dira euskaraz dakitenak, beste kontu bat da gazte hauek euskaraz egiten duten edo euskaraz mintzatzeko interesa duten.

INFORMAZIO ETA TEKNOLOGIEN GARAIA

Edozelan ere, mundua eta gizartea asko aldatzen ari da eta momentu honetan aro berri bat daukagu aurrez aurre, informazio eta komunikazio teknologien garaia da eta gure gizartea inoiz baino abiadura handiagoz ari da aldatzen. Teknologien hedapena azkarregia da eta gure eguneroko bizitzan baliagarriak dira teknologiek eta, gainera,

edozein erabiltzaile arruntek erabil ditzake. Gaur egungo 15-25 urte bitarteko gazteak ez dira euskararen militanteak eta hizkuntzaren perspektiba ez dute euren eguneroko bizitzan kontuan izaten. Gure gazteak Europako edozein herritako gazteen antzekoak dira, izan ere, gauza bera gertatzen ari da Kataluniako gazteekin ere. Arazo honi aspaldi erreparatu zion Carmen Junyent irakasle kataluniarak. Beraren ustez, mila bederatzirehun eta hirurogeita hamahirutik aurrera jaiotako gazteentzako normalena katalana jakin arren gaztelaraz hitz egitea da eta ez daukate orokorrean euren hizkuntzarekiko inolako atxikimendurik. Jokabide hori erabat kezkatzekoa dela dio eta katalanaren biziraupena benetan kolokan dagoela belaunaldi horien katalanarekiko atxikimendu eta konpromiso ezagatik. Iritzi hori katastrofistegia dela diote batzuek baina Junyent irakaslearen ustez, azken urteotan egin diren azterketen arabera teoria hori sendo baino sendoagoa da.

David Crystal, Cambridge-ko Unibertsitateko Hizkuntzalaritza Saileko irakasleak dioenez, “eremu urriko hizkuntza batek aurrera egingo badu, bere hiztunek teknologia elektronikoa erabili behar dute”

Gure eguneroko bizimodura Informazio eta Komunikaziorako Teknologia (IKTak) bildu ditugunez, egitura, aukera, bizitza eta kontzeptu berriak sortu dituzte, beraz, datozen urteotako hizkuntza politikak ezartzeko orduan, gizarte berri honi egokitutako hizkuntza politika berritzaileak asmatu beharko ditugu. Hori guztia kontuan izanda ezinbestekoa da XXI. menderako hizkuntza politikaren inguruan hausnarketan gabiltzanon artean, batzorde zabal horretan, behinik behin, “gazte teknologikoak” ere ez egotea. Izan ere, batzordean gazte askorik ez dago, gutxi dira 40 urtetik beherakoak.

INGELESA NAGUSI SAREAN

Gaur egungo haurrik gehienek derrigorrezko hezkuntzako ikasketak euskaraz egiten dituzte baina dagoneko gehienek DBH-n ikasgai

batzuk ingelesez ematen dituzte, beraz, ingelesa ere nahiko ondo menperatuko dute.

Interneten nagusi den hizkuntza ingelesa da. 2008an 156 milioi web gunez osatuta dago sarea, horietatik %70 ingelesez editatuak. Euskararen web guneen zenbateko zehatza ez dakigu. Joxe Aranzabal Mondragon Unibertsitateko irakasleak egindako lanari esker badakigu 2007ko ekainean euskarazko 5.170 blog inguru zeudela. Tartea ikaragarri handia den arren, euskarak badu presentziarik sarean.

TELEBISTA ANALOGIKOTIK ARO DIGITALERA

Euskarak Interneteko sare teknologikoetan eremuak irabazi behar dituela argi daukagu guztiok. Telebista analogikotik aro digitalerako saltoa egin da eta emisioak digitalak izango direnez, aurrerapauso handia izango da sare teknologikoetan zehar murgiltzeko. Telebistak bideogintzarekin bat egingo du eta ikus-entzunezko fitxategien gordeleku bihurtuko baita Internet. telesaio eta bideo pertsonalen gordailu edo errepositorioa, hain zuzen. YouTube-k eta Google-ek duten ahalmenari esker, herritarren hedabide eta komunikabideak sustatuko dira. Hedabideak gero eta gehiago eta audientziak gero eta urriagoak izango dira. Hori dela eta, ezinbestekoa da Euskal komunitateak ere euskarazko baliabideak sortzea. IP Telebistak eta bideoguneak gureganatzea ikus-entzunezkoen etorkizuneko hazia hedatzea da Gorka J. Palazio EHUko Ikus-entzunezko Informazio teknologian katedradunaren ustez.

HEDABIDE DIGITALEN AROA

Erabiltzaileak ADSL 2 teknologien bidez ikus-entzunezko edukietan murgil daitezke bete betean. YouTube-ren efektuak garai berria zabaldu du Interneten, izan ere, ikus-entzunezkoen aroa heldu da Internetera. Google-n Web 2.0 mugimenduko bideoguneek itze-

lezko arrakasta izan dute. Telebista analogikoa iragana da eta orain edizioa eta emisioa digitalak dira eta horrek aukera asko ematen dizkie erabiltzaileei. Beraz, erabiltzailea, herritarra da orain protagonista eta Internet albisteak irakurtzeko ez ezik, idazteko eta edukiak sortzeko tresna bilakatu da. Erabilera hori zabaltzeko, ostera, aplikazioak edo sistemak lokalizatu behar dira, hau da, tokian tokiko hizkuntzetan jarri beharko dira. Beraz, gainerako hizkuntzen parean izateko, erabilera zabala duten web-zerbitzuak lokalizatzea behar beharrezkoa da.

Hedabide digitalen aroan, beraz, herritarrak emititzeko ahalmena du orain eta herritarrek norberaren telebista edo bideo kanala izan dezakete eta zuzenean telebistaz emititzeko moduan gaude. Horren guztiaren ondorioz, betiko telebista izatetik, hedabide pertsonalak izaterako saltoa eman dugu.

Gure gazteek telefonoekin grabatu eta aplikazio sinpleak erabiliz kapaz dira euren bideoak egiteko, sakelako telefonoren bidez esaterako film labur asko eta asko egiten dira gaur egun. Hortaz, bideoblogen garaian bizi gara; oraintsu blogen inguruan aritu gara eta jadanik vlogetan (video berbatik dator) dabilta gure gazteak. Vlog edo bideoblogetan herritarrek ikus-entzunezko fitxategiak argitaratzen dituzte, telefonoz, web-kameraz edo bideo kameraz grabatutakoak eta baliabide merkeak direla medio egiten dute.

Hori guztia kontuan hartuta, argi dago etengabeko bilakaera teknologikoaren aroan bizi garela.

BIZITZA BIRTUALA

Gaur egun, beraz, edozeinek erabiltzen du ordenagailua, sakelako telefonoa, Mp3a, DVDA, GPSa edota Kamera digitala. Era berean, edozeinek dauka bere blog-a eta hemendik aurrera gure gazteak gero eta gehiago “bizitza birtualean” murgildurik biziko dira. Kontuan hartu dezagun Estatu Batuetako Alderdi demokratiko Barack

Obamak, kasurako, zelan erabili duen sarea bere kanpainarako dirua lortzeko. Horrek argi adierazten digu Internetek duen erabilera zabala.

Sareko bizi oso erakargarria da gazteentzako, azkarra, hurbila eta ikusgarria delako eta beraiek ere partaide zuzenak direlako. Gurea gero eta gizarte indibidualistagoa da, gizartean zuzenean eragina izatea asko kostatzen zaigu eta Internet berritu eta eraldatzeko ahalmena erabiltzaileak du orain.

Baina enpresek ere teknologiaren aldeko apustu irmoa egin dute eta horrek ez du esan nahi ekipamendu berriak erosi dutela bakarrik, izan ere, lan egiteko modua erabat aldatzen ari da. Azterlan askoren arabera, teknologia berriek langileen produktibitatea handitzen dute. Enpresetan ez ezik, hezkuntza munduan ere teknologia berriak ezartzen joan dira.

IRAKASKUNTZA DIGITALA

Hezkuntza eta Informazio eta Komunikazio Teknologien uztartekari esker, irakaskuntza telematikoa ezarriko da apurka-apurka. Gaur egun, informazioa eskuratzeko moduaren arabera on-line irakaskuntza mota asko ezagutzen dira, b-learning, e-learning eta m-learning-a esate baterako. Saio presentzialak eta irakaskuntza konbina daitezke, on line eman daiteke eskola edo edozein gailu mugikorren bidezko irakaskuntza birtuala egin daiteke, ordenagailuaren ordez, mp3/4/5ak, eskuko telefonoak, iPod-ak eta PDAk erabiltzen dira batez ere.

Irakaskuntza digitala ere garatzen ari da dagoeneko ikasgela batzuetan, ikasleek ez dituzte liburu, boligrafoak eta apunteak erabiltzen. Horren ordez, irakasleek eta ikasleek Tablet PCak erabiltzen dituzte liburu eta koadernoen lekuan eta arbel digitala betiko arbela erabili beharrean. Hortaz, komunikazioan eta orokorrean ingurune berriak sortarazi dituzte IKTek, komunitate birtualen sorkuntza bultzatu dute eta hauek ez dira hezkuntzara soilik mugatu. Teknologien

inguruan sortutako aplikazio berriak talde-lana eta elkarreragina bultzatu dute, esaterako, blogak eta wikiak.

Erabiltzaile kopuruari dagokionez, esan behar da 2007an 1.300 milioi erabiltzaile baino gehiago izan duela sareak eta horietatik 380 milioi ingelesa erabili dutela nabigatzeko. EAEn, Eustaten datuen arabera, 14 urte baino gehiagoko biztanleen %45,9 Interneteko erabiltzaileak dira. Guztira, 798.000 erabiltzaile ibili ziren nabigatzen amaraunean eta horietatik 172.000-k euskaraz nabigatu zuten. 2006ko datuekin alderatuz erabiltzaile kopuruak %10,1eko hazkundera izan du Euskal Autonomia Erkidegoan.

ETEN DIGITALA

Gure gazte euskaldunak “alfabetatu teknologikoak” dira, teknologia berriak azkar hedatu dira gazteen artean. Horretara, alfabetatu eta alfabetatu barik daudenen artean (belaunaldien artean) tarte nabarmena dagoela esan behar da, hutsune bat, eten digitala, hain zuzen.

Gure gazterik gehienak, beraz, IKTeetan alfabetatuak dira eta konektatuta bizi dira, bizitza digitala dute.

Sarea, beraz, ikaragarri zabala da, esan dugun moduan, 1.300 milioi erabiltzaile daude Interneten. Egun, 158 milioi web gune ditugu baina Interneterako trafikoaren %50 900 web-orriek jasotzen dute. Beraz, sarea osatzen duten guneen zati txiki bat besterik ez da ezagutzen.

Interneten ikusgarritasuna lortzeko bilaketa tresnetako emaitzetara jo behar dugu, hau da, Googlen azaltzea ezinbestekoa da. Bilaketa tresna espezializatuak egon arren, bilatzaileen artean Google da nagusi, bera da gehien erabiltzen dena. 2005eko datuen arabera, bilatzaileen bidez egindako bilaketek %50 Google bidez egin ziren, %23,8 Yahoo erabiliz eta %9 MSN Search bidez. Estatu espainiarrean, esaterako, 2006an egindako bilaketek %95 Google erabiliz egin ziren.

TRESNA TEKNOLOGIKOEN ETA SAREKO EUSKARAZKO EDUKIEN INBENTARIOA

Hori guztia kontuan hartuta eta gizartean “aro teknologiko” honetan ematen ari diren aldaketak ikusita, gazteei zuzendu beharreko hizkuntza politiken inguruan arreta berezia jarri beharko dugu. Gazte horien euskararekiko atxikimendua lortzeko, berrikuntza nabarmenak aplikatu beharko ditugu erakundeok gure hizkuntza politikak aurrera eramateko ditugun tresnetan, esaterako, diru-laguntza dekretuak, kanpainak, egitasmoen sustapenetan etab.

Gazteei zuzendutako hizkuntza politika egokitu ahal izateko, ordea, ezinbestekoa da orain dauden tresna teknologikoen inbentarioa egitea eta euskaraz sarean dauden edukien inbentarioa egitea. Beren beregi jakin beharko genuke zer daukagun sarean eta, gainera, urte batzuk barru erabiliko ditugun teknologia berriak aztertu eta euskararen perspektibarekin gure gizartean izango duten eragina zein izango den kontuan izan behar dugu.

ARO TEKNOLOGIKOARI EGOKITZEKO HIZKUNTZA POLITIKA ADOSTU

Aro teknologiko eta sarearen inguruan hitz egiten denean, gehienok eztabaida berean murgildurik izaten gara beti, hain zuzen ere, euskararentzat mehatxua edo aukera den azaltzen saiatzen gara guztiok. Baina nire ustez denbora galtzen ari gara, aro teknologikoa gainean daukagulako eta aukera zein mehatxu izan, gizartean gertatzen diren gainerako aldaketei egokitzen gatzaizkion bezala, aro berri honetara moldatu beharra baitauekagu. Behin behar dugun informazio osoa eguneratuta izan ondoren, aro teknologikoan gazteei zuzenduko zaizkien hizkuntza politikak erabakitzeko orduan “gazte teknologikoak” kontuan hartu beharko ditugu eta partaide aktiboak behar dute izan. Ondo dago azterlan guztiak egiteko adituen batzorde bat osatzea erakundeetako arduradun eta teknikariek batera baina gazteak integratu behar ditugu ezinbestez plan estrategikoa

osatzeko orduan. Euskararen presentzia sarean areagotzeko estrategiak gazteek eurek adieraziko dizkigute.

Euskal erakundeok ondo dakigu sarean euskararen presentzia mugatua izango dela beste hizkuntzekin konparatuz eta ezingo dugula erabili euskara baliabide teknologiko orotan. Baina egunero-egunero gure gazteek erabiltzen dituzten hainbat produktu identifikatu behar dira eta erakunde guztiek batera adostu beharko ditugu presazkoenak euskarara ekartzeko. Adibide argi bat jartzearen WIKIPEDIA entziklopedia aipatuko nuke. Gazteek egunero eskolako lanak egiteko erabiltzen duten tresna da eta gazteleraz dagoenez informazioa euskarara ekarri behar dute eta hori oztopoa dela esaten digute abiadura hain handian bizi diren gure gazte ez militanteek. Gure hizkuntzaren balioa parametro horretan neurtzen dute gazteek. Beraiek lan bikoitza egin behar dutenez, bilatzen dutena euskarara ekarri behar dutelako, euskara oztopo bihurtzen da eta euskarekiko atxikimendu eza hazi egiten da.

Arestian aipatu bezala, Carmen Junyent irakasle kataluniarak aspaldi ikusi zuen Katalunian gazteen Kataluniarekiko atxikimendua gero eta txikiagoa zela eta kontuan izan behar da katalanez euskaraz baino baliabide gehiago dituztela eskura gazteek. Gure euskaldun gazteek, ordea, oztopoak baino ez dituzte aurkitzen euskara edozein eremutan erabili behar dutenean, beraz, euren euskararekiko atxikimendua gero eta txikiagoa bada ez gaitu inola ere harritu behar.

Beraz, gazteek ezinbestekotzat jotzen dituzten baliabideak euskarara ekartzeko erabakiak hartzeko gai izan behar dugu erakundeok eta adostasunak lortu behar ditugu behar diren baliabide ekonomikoak jartzeko. Zelan egon gaitzke itzultzaile automatikoetan pentsatzen, teknologia hori behar den neurrian garatuta ez dagoenean, behar beharrezkoak diren beste baliabide eta produktu batzuk gehien erabiltzen diren entziklopediak elektronikoak, esaterako, euskarara ekarri gabe ditugunean?

Plangintza serio eta adostu bat ezinbestekoa dela argi dago eta horren arabera erabat aldatu beharko ditugu erakundeok urteetan erabili ditugun tresnak, esaterako, diru laguntza dekretuak.

Baina ba al daukagu asmorik erakundeotan pausu hori eman eta horrek eragin dezakeenari behar den moduan aurre egiteko? Horregatik guztiagatik aldaketa hori euskalgintzako agenteekin hausnartu eta adosteko gai izan behar dugu. Baina horretarako egoeraren diagnostiko serio eta behar den moduko plangintza bat osatzeko gai izan behar dugu.

ONDORIOAK

- Gizartean ematen ari diren aldaketak, batez ere iraultza teknologikoaren ondorioz, kontuan izan beharko ditugu gazteei zuzendutako hizkuntza politikak diseinatzeko orduan.
- Euskarazko baliabide teknologikoen inbentarioa eta sarean dauden euskarazko edukien inbentario eguneratua osatu behar da.
- Batzorde teknologikoak egoeraren diagnostikoa egin ostean, datozen urteotan euskarak sarean izan behar duen presentzia aurreikusi beharko du, helburu hori lortzeko ekintzak, epeak eta parte hartzaileak zehaztuz.
- Plan estrategiko ireki bat egin beharko da, urtean-urtean eguneratu beharko dena Informazio eta Komunikazio Teknologien hazkuntza ikaragarriari aurre egiteko. Plan errealista, objektiboa eta betetzeko modukoa behar du izan.
- Gazte teknologikoen partaidetza ahalbideratu behar dugu, bai diagnostikoa egiteko orduan bai plan estrategikoa osatzeko orduan.

- Erakunde desberdinen koordinazioa ezinbestekoa izango da plana osatzeko eta plan horretatik eragindako ekintzak eta estrategiak erakundeen hizkuntza politikara batzeko.
- Hizkuntza politikan berritzaile izateko konpromisoa hartu behar dugu erakundeok, beti ere herritarren egunean eguneko nahi, helburu eta erritmoei egokitzuz.
- Herritarren borondatea gure nahi eta erritmoetara egokitzea ere arduradun politikoen eginbeharra da eta horretarako berritzaile izateaz aparte, ausartak eta sendoak izan behar dugu, horretarako gaude, hain zuzen, erakunde publikoetan.

Azken batean, gazte teknologikoentzat hizkuntza politika berritzailea behar dugu.

BIBLIOGRAFIA

- J.PALAZIO, Gorka (2008), *Interneteko bideo eta telebistaren aro berriaz* artikulua
- JUARISTI, Patxi (2008), *Nola sortu zerbait berria, baina zerbait gurea?* artikulua
- MARTÍNEZ, Uxune (2008), *Euskara eta tecnología berriak: ikusezina agertarazteko auzolana jorratzen (Euskal komunitate zientifikoaren datu-sarea hedatzen* artikulua

EGINDAKOARI EUTSI ETA EGITEN SEGI

Joseba Iñaki Etxezarreta

EKARPENAREN GIDOIA

- ◇ Testuingurua eta hainbat ohar
 - Esker ona
 - Eztabaidarako ekarpen pertsonala.
 - Hezkuntzan eta hezkuntzatik.
 - Mugak
 - Gidoia.
- ◇ Azken urteak. Oparotasunak eta miseriak.
 - Hezkuntzaren ekarpena euskara indarberritzean.
- ◇ Egungo argazkia. Mehatxuak, ahuleziak, abaguneak eta indar-guneak
 - Indar demografiko erlatiboa
 - Faktore demografiko berria. Etorkinak.
 - Lanbide Heziketaren zuloa
 - Curriculum berriaren eta hizkuntza-kompetentzien bide berria

◇ Etorkizuneko norabideak

- Euskara ardatz duen eleaniztasuna.
- Euskal kultura ardatz duen kultur aniztasuna.
- Euskara, komunikazioaren tresna eraginkorra.
- Euskara, jarduera guztietarako baliabidea.
- Euskararen erabilera, ikastetxearen hizkuntza-proiektua-
ren xedea.

◇ Ildoak

- Eskola, euskalduntzearen oinarria
- Lege-markoa hobetzea, gizarte-eragileekin batera
- Egindakoari eustea eta egiten segitzea

TESTUINGURUA ETA HAINBAT OHAR

Esker ona

Lehen hitzak, OINARRIZKO TXOSTENA osatzeko ahaleginean jardun dutenei zuzendu nahi dizkiet, “XXI. Mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak” batzorde-atal bereziko kideok eztabaida bideratuago izatea eskertu nahi baitut.

Eztabaidarako ekarpen pertsonala

Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailari dagokion Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak gidaturik, eta Euskararen Aholku Batzordearen baitan, *Euskara, XXI. Mendeko hizkuntza bizia, eguerokoa eta noranahikoa* izenburua duen OINARRIZKO TXOSTENA (2008ko apilaren 29koa) aztergai delarik, “XXI. Mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak” batzorde-atal berezian plazaratu den eztabaidan ekarpena egiteko asmoz, ondorengo orrialdeetan islatzen diren iritziak idatzi ditut, nire kabuz osatuak eta, beraz, horiei dagokien erantzukina nirea da, ez beste inorena.

Hezkuntzan eta hezkuntzatik

Aztergai jarri den auziak hamaika ikuspegi izan ditzake, guztiak zilegiak eta aberatsak, baina nire ekarpena, hau da, hemen idatzirik islatzen dudan jarduna, balizko ikusmolde horietariko batean bereziki kokatu nahi izan dut, dakidan apurra hortik jasoa dudalako eta edonolako eztabaidari hortik so egin nahi diodalako, hots, Hezkuntza alorrean eta eremutik.

Mugak

Euskararen herria **Euskal Herria** hartuta, kontzeptua Euskaltzaindiak bezalaxe erabilia, hots, “Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa (Beherea eta Garaia) eta Zuberoak osatzen duten multzoa”, egin dudan ekarpenak badu muga dialektikoa, murriztaile, osoaren eta par-

te baten arteko alderaketa aberasgarria galerazten duena. Hala ere, muga hori leial eta ahal den ondoen gaintitzen saiatu naiz, aztergai dugun OINARRIZKO TXOSTENA deritzan proposamenak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa hiru euskal lurraldeok osatzen duten Euskal Autonomi Erkidegora eztabaidaren edukia lotua baitu

Gidoia

Eztabaidarako eskuratu zaigun OINARRIZKO TXOSTENAK berak bi atal nagusi ditu: atzokoari eta gaurkoari buruz baloratzen diharduena; eta etorkizun hurbila proposamenez marrazten saiatzen dena. Bi azpi multzo horiek ere izan dira nire ekarpenaren aldeak, funtsean, iraganaren eta gero aldiaren arteko joan etorrietan saiatua.

AZKEN URTEAK. OPAROTASUNAK ETA MISERIAK

Hezkuntzaren ekarpena euskara indarberritzean

Euskararen berreskuratze prozesuan, hezkuntza eremuko mekanismoek izan duten eragin nabaria (egun batzuek gutxiesteko joerari kontra jarri nahi diedana) analizatzeko espazioa ez da ekarpen honen mugetan landu daitekeena, baina merezi du gutxieneko aipamen batzuk gogora ekartzea, hainbat lagunek erakusten duten oroimen eskasa indartzea komeni delako.

Euskal Autonomi Erkidegoari buruz ari garenean, bistan da Espainiako Estatuaren hizkuntza eta hezkuntza politikari buruz ari garela, eta geurea, euskal hezkuntzarena, ulertu eta interpretatzeko garaian, Estatuaren eskolatze prozesua aztergai dugun auziaren iturburuan jarri beharra dago.

Eliza eta Gobernu espainola, hau eta hura, hura eta hau, biak, mende eta erdi luzean lehian aritu izan dira hezkuntzaren oinarri den eskola, tresna preziatua, beren kontrolpean izateko. Espainiak urte luze horietan zehar bizi izan zuen etendura sozialaren osagai bat, eta ez nolana hiko, hezkuntza-politikan agerian zen, gizarte-talde desberdinen arteko **lehia** etengabekoa izan baita eskola-sisteman.

Bi botere guneok, ordea, hizkuntzaren bi funtzioetan, komunikatiboan eta sinbolikoan, bat etorri ziren legeetan, arauetan eta praktikan, eta gainerako errealitateak (katalana, galegoa, euskara ...) zanpatuz, gaztelania baliatu zuten Estatuko haur eta gazteak hiritar elebakar eta kultur bakarreko bideetara eroateko, lurralde, nazio eta herritar salbuespenik gabe.

XX mendeko lehen herenean Eusko Ikaskuntzaren, Euskaltzaindiaren eta Muñotarren eraginez sortutako lehen euskal eskolen mugimendua ahanzi gabe, pasa den mendeko erdialdeko garaian abian jarritako Ikastolak eta helduen euskalduntze eta alfabetatze mugimenduaren ekarpena, lehenik, eta Gernikako Autonomi Estatutoaren ondotiko eskola euskalduntzea eta euskaltegi ofizialena garrantzi handikoak izan dira Euskal Herrian gaztelaniaren elebakar izateari galga jartzeko ez ezik euskararen indarberritzea gertatu ahal izateko ere.

Euskal gizartearen sektore txiki batek abian jarri, gero eta sektore zabalagoetara heldu eta proiektua orokortzera iritsi den egitasmoa eta jarduna Euskal Herrian izan den eraikintza sozial errentagarriena dugu, bai euskararen berreskuratzeari dagokionean, bai identitate euskalduna eratzeari dagokionean, baita gizarte kohesioan osagai konpartituak baliatzeari dagokionean ere.

Egindakoak, asko eta ona izan delako, pozten gaitu, baina ez gaude konforme, geure eremuan gehiago egin zitekeelako eta egin litekeelako, eta euskal gizartearen beste esparru batzuetan nola baita euskal administrazio publikoan egin dena hezkuntzan egin denarekiko eskasa zaigulako

Lege-marko egokia, hizkuntza-politika eraginkorra eta baliabideak, eta herritarren jarrera eta konpromisoa, hiru faktoreok, batera eragitea hizkuntzaren biziberritze prozesuaren arrakastaren bermerik handiena dela dioen printzipioarekin bat etorrita, geure historia laburrari so egingo bagenio, noiz eta zertan ondo ibili garen eta noiz eta zertan oker ibili garen ikasiko genuke.

Ikastolen ikusmoldetik, EAEko hezkuntza-sistemaren lege-markoari eta hizkuntza-politikari dagokienean, esaterako, une la-tza eta gorrikeria izan bada, oraintxe hamabost urte gertatutakoa da. Hizkuntza-politikaren erabakiak “era eskusiboan” Administrazio Pu-blikoarentzat gorde behar dela, sistema demokratiko baten ezau-garri lez, diotenean badute gertaera haietan hausnarketarako gaia. Gogora ekartzea komeni da, hots, Eusko Jaurjaritzatik ikastolak desagertzeko egindako ahalegin juridiko eta politikoa. Klase poli-tikoari, oro har, baina Administrazio publikoaren kudeatzaile denari, bereziki, “herritarren jarrera eta konpromisoa” beste bi faktoreekin batera eman behar dela behin eta berriro gogora ekarri behar zaio, tamalez.

Eztabaidan dugun *Oinarrizko Txostenaren* pasarte batean, 65. orrialdean, agertzen denak behar du erlatibizatze puntu bat. Tes-tuak ondokoa dio: *“Euskararen alde egitea ez da bakarrik erakunde publikoei dagokien lana, guztion zeregina baizik. Alde horretatik, ezin da ahaztu erakunde pribatuek ere badutela hemen lanik. Nola-nahi ere, komeni da esatea, inork bere erantzukizunari bizkar eman ez diezaion, gizarte demokratiko batean herritarren mandatua eta ordezkartza duten erakunde publikoei dagokiela hizkuntza politika definitzea eta garabidean jartzea.”* Ondo da, baina “guztionean zeregi-na” dela diogunean, gizarte demokratiko baten adierazlea ere bada hizkuntza politika definitzeko eginkizuna duen erakunde publiko ho-rrek erakunde pribatuekin elkarrizketak eta, ahal bada, adostasunak lortzeko ahaleginak egitea. Ezta?

Hizkuntzaren biziberritze prozesua bermatzeko aipatzen diren hiru faktore horiek besterik kontuan izan behar dute, hezkuntzaren eremura eta, bereziki, ikastetxearen joku zelaira etorritakoan, esko-lak berak bestelako ezaugarri propioak baititu, bai garatzen duen jarduera, multzo askotarikoak interbentzio ugari eta abagunez betea eskaintzeagatik, baita ikastetxean bertan jarduera anitz horien ingu-rumarian pertsonak eta giza taldeak elkar hartueman mota ugari eta abagunez betea eskaintzeagatik ere.

Hain zuzen, hizkuntzaren biziberritzerako komenigarritzat jotzen diren hiru faktore aipatu horiek, beraz, hezkuntzak eskaintzen duen balio erantsia, gehitua, behar-beharrezkoa dute, soziolinguistikari dabilten askok kontuan hartzen ez dutena: eskola pertsonen gizarteratze, komunikazio, harreman eta elkarbizitzaren gune funtsezkoetarikoa da, ume eta gazteei dagokienean, familiek eskatzen eta ematen zaizkien zerbitzuei dagokienean, guraso eta irakasleen arteko harremanei dagokienean, ikastola edo eskola eta ingurune sozial eta instituzionalaren arteko interakzioari dagokionean, gurasoen euskalduntze, guraso prestakuntza eta eskola-kudeatzailer formazioari dagokionean, herri arteko ikastola edo eskola arteko sareari dagokionean... Osagai hauek guztiak eskolaren jardunean dira, pertsonen bizitza akademikora mugatzen ez direnak, alegia. Euskararen biziberritzeare ardatz den erabilera sustatu nahi duenak horiek guztiak kontuan hartu eta badu zer eginga, alajaina.

Horregatik asko egin dela, baina beste horrenbeste edo gehiago egiteko dugula diogu, egiten den hori era sistematikoago eta eragingarriago batean hezurramitzea posiblea dela uste dugulako, baina, plan horiek guztiak tarteko direla, ez dezagun pentsa gure gaitz guztien soluziobideak hortik datozkeenik soil-soilik. Euskararen erabileran aurrerapausoak emateko askotariko eragileak, erabakiak eta politikak abian jarri behar dira, baina gakoa agintarien eta hezkuntza-eragileen arteko elkar lanean dago, horien ausardiaren, kemenaren eta borondatearen baitan dagoena, ezbairik gabe.

EGUNGO ARGAZKIA. MEHATXUAK, AHULEZIAK, ABAGUNEAK ETA INDARGUNEAK

Indar demografiko erlatiboa

Ikastolek hasita eta gainerako eskola-sareek jarraituta, euskaldun belaunaldi berriak kopurutan handitzea izan dugu lehen helburue-

takoa. Eta bide horretan, euskararen ezagutza gehitzeari dagokionez, hezkuntza arautuan egin dira ahaleginik gehien-gehienak.

Aurreikuspen haietan, belaunaldi gazteenen euskalduntzea ahalbidetuta euskararen kinka larria gainditzea aurreikusten bazen ere, hogeita bost urtez beheko adin taldeetan gertatu den biztanleen urritze progresiboak belaunaldi gazteenen garrantzia erlatibizatu eta biztanleria-piramidean daukan eragina apaltzea suposatu izan du. Eta horrek, besteak beste, euskararen ezagutzaren abiadura moteltzea ekarri izan du.

Faktore demografiko berria. Etorkinak.

Euskal Herriko biztanleria zaharkitzen ari den aldi berean, sistema ekonomikoak eragiten dituen lan postuetarako behar den langile nahikorik ez du euskal gizarteak. Honen ondorioz, etorkinen emanaldi berria gertatzen ari da, joera hori etorkizun hurbilean indartuko dela dirudi, eta lehenago gertatu dislokazio demografikoaren eragina indartzea gerta liteke.

Hezkuntza-sistemari planteatzen zaion erronka berri honen aurrean, berriro galdegai nagusia erantzun beharrean dago: zein izango da etorkinen emaldi berrien hizkuntza eta kultur erreferentzia?

Lanbide Heziketaren zuloa.

Argi dago, ez dut uste inor zalantzan jartzen duenik, euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren hedatzeari dagokionez, EAEko Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan indartzen ari dela, baina, Bigarren Hezkuntzan eta Unibertsitatean goraka egin arren, oraindik asko falta dela egoera erabat normalizatzeko.

Baina, puntu ilunena Lanbide Heziketan dago. Ikastoloi gogoeta berezia eragiten digu datu honek, halaber, ikastolok historikoki presentzia izan ez duten hezkuntza-etapa baita. Lanbide Heziketako ikastetxeetan euskararen egoera guztiz kezka-

ria da eta honen eragina erabakigarria da lan munduan euskara normalizatzeko egin beharreko urratsei begira. Beste hezkuntza-etapetan izan duen eragina kontuan izanez, ez legoke soberan euskarazko moduluak eta bestelako ikasketen eskaintzak lehenestea.

Curriculum berriaren eta hizkuntza-kompetentzien bide berria

Europa mailan erreferentziatzeko markotzat hartu dena, bai hizkuntzei dagokienez, bai hezkuntza-kompetentziei dagokinez, nabarmenki eragiten ari da EAEren hezkuntza-politikan, oro har, eta hizkuntza-politikan bereziki.

Espainiako Gorteetan onetsia den Hezkuntzaren Lege Organikoak ezarri dituen arau berrien argitan, eta segidan Gobernu zentralak dekretu bidez erregulatzeko bidean agindu dituenak kontuan izanez, Eusko Jaurlaritzak abagunea baliatu du hezkuntza-sistemaren curriculuma norabide propinan abiatzeko, azken urteotan behatutako gabezei soluziobideak eskainiz.

Hezkuntzaren prozesuari, europar gomendioei kasu eginez, kompetentzietan oinarrituriko curriculum diseinua egin du, horien artean “komunikatzeko kompetentzia” delarik, euskara ardatz duen eleaniztasunari lekua egin dio, eta ikastetxe bakoitzak bere “hizkuntza-proiektua” izateko apostua eta babes normatiboa eskaini du.

Ahokotasna, hizkuntza-ekoizpena, jarria, komunikazioaren naturaltasuna eta zuzentasunaren oreka dira, Informazio eta Komunikazio Teknologien presentzia eta rola, besteak beste, hezkuntza eremuan garenon aztergaiak. Curriculum berriak ekartzen dituenak ikastetxearen eskemak dantzan jarrito dituela uste dugu. Eta onerako izando delakoan gaude, hezkuntzaren kalitatearen mesedetan ez ezik, hizkuntz kalitatean nabariko dena.

Euskeraren Erabilpena Arauzkatzeko Oinarrizko Legea (1982ko azaroaren 24koa) errespetatuz, hots, derrigorrezko irakas-

kuntza amaitzen duten ikasle guztiek, jatorriz euskaldun zein erdal-dun, elebidun orekatuak izan behar dutela agindutakoari atzerriko hizkuntzaren balio erantsia gehitu dio Eusko Jaurlaritzaren Curriculum Dekretuak. Lana emango duen bidea, baina hainbat urtetarako ibilbidea seinalatzen duena.

ETORKIZUNeko NORABIDEAK

Euskara ardatz duen eleaniztasuna

Euskaldunon etorkizuna ez da elebiduna, eleaniztuna da.

Euskarak eskola eremuan hizkuntza nagusia izan behar du eta eskola eremuko hizkuntza-planifikazio guztiek baldintza hori bermatu behar dute.

Euskal kultura ardatz duen kultur aniztasuna

Euskal kultura ardatz, horren inguruan ukipen kulturak eta kultura unibertsala uztartzea nola baita etorkinen kulturak uztartzen dituen *curriculum* integratzailea gauzatu beharko da.

Euskara, komunikazioaren tresna eraginkorra

Euskara komunikaziorako tresna eragingarria eta hiztunentzat behar-beharrezkoa zein hiztun gaienez erakargarria den hizkuntza bihurtu behar da, bai funtzio komunikatiboan, bai funtzio sinboliko eta politikoan.

Euskara, jarduera guztietarako baliabidea

Euskararen erabilera ikastetxean indartzeko egitasmoek eragingarriak izateko ikastetxe osoaren jarduera guztiak kontuan hartu behar dituzte. Eragotzi egin behar da kosta ahala kosta euskara hizkuntza akademiko soil bihurtzeko egun dagoen arriskua, hau da, eskola

barruko esparruetan (eta ez guztietan) bakarrik erabilia izatekoa, ikasleen eskolaz kanpoko bizitzan inolako erabilpenik izan behar ez balu bezala.

Euskararen erabilera, ikastetxearen hizkuntza- -proiektuaren xedea

Curriculum berriak ezartzen duen bidean, ikastetxean hizkuntzen erabilera eta trataeraren diagnostikoa egitea, helburuak definitzea eta lehentasunak finkatzea, eta lehentasunei erantzuteko lanak eta egileak abian jartzea.

ILDOAK

Eskola, euskalduntzearen oinarria

Euskarak eskola behar du, gizarte-ekintzarik sentituenetakoa baita. Eskolak asko du euskaren alde egiten jarraitzeko, euskarari kultur adierazpen berriak errazteko, euskarari euskaldun identitatea garatzeko, euskarari funtzio komunikatiboa eta sinbolikoa bermatzeko. Eskolak asko egin du eta gehiago egin behar du. Eskola erlijiosoak, publiko edo estatalak, ikastolak ... guztiak behar ditu euskarak, belaunaldi euskaldun berrien katea etenik gabe bermatzeko.

Euskara izan da ikastolek hezkuntza eremura ekarri duten bereizgarria, euskal eskolaren osagai komuna eta ardatza.

XXI mendeko euskal hezkuntza-sistemaren ezaugarri propioen elementu zentrala Euskara bihurtuko bagenu, hau da, ikastetxe erlijiosoena, eskola publiko edo estatalena, eta ikastolena, guztiok gutxieneko curriculum hori, konpartituko bagenu, bi mende luzetan zehar Estatuak eta Elizak euskal gizartean eragin zuten hizkuntz, kultur eta identitate kalteari buelta emateko urrats bateratuak egiten hasiak geundeke.

Euskarak, hizkuntza orok bezala, iraun lezake irakatsia eta ikasia bada, hots, transmisioa bermatzen zaion heinean. Lan hori egiten ez duen eskolak jai du EAEn.

Lege-markoa hobetzea, gizarte-eragileekin batera

Euskararen biziberritze prozesuaren arrakastaren hiru faktoreetako izanez, Euskal Hezkuntza osoari babes juridikoa emango dion Legea behar-beharrezkoa dugu, azken hogeita bost urteotan ondo egin direnak sendotzeko, okerrekoak zuzentzeko eta berriak bideratzeko.

Geure erkidegoak izango lukeen Hezkuntza Legea, historian lehena, EAEko hezkuntza-sistema XXI. mendean lekutzeko eta dinamizatzeko balio beharko lukeena, ezin da Euskal Eskola Publikoaren Legea egitean eta garatzean erakutsi zen “estilo trake-tsaz” onetsi.

Hizkuntzari dagokionean, ondoko aspektuok, gutxienez, arautu edota arautzeko bidea egin beharko lituzke:

- **Ikastetxeen hizkuntz proiektuari babesa eta baliabideak.** Egun indarrean dagoen hizkuntza-ereduen politika gainditzeko, EAEn ofizialkide diren bi hizkuntzak nahikotasunez eta erraztasunez eskuratzeko ez ezik Europako hizkuntzak ere eskuratu ahal izateko, euskara ardatz eta lekuan lekuko egoera kontuan hartzen duen eleaniztasun egitasmo bakarra abian jartzeko.
- **Hezkuntzan hizkuntz I+G+B egitasmoei babesa eta baliabideak.** Euskararen erabilera ikertu, garatu eta berritzeko saioak egiten dituzten eskolak, eremu kurrikularrean eta ez-kurrikularrean, ahozkotasunean, aisialdian, kirolean, gurasoen prestakuntzan eta euskalduntzean... laguntzeko eta esperientzia-pilkotuak, dagokien ebaluazioaz, martxan jartzeko.
- **Etorkinen euskalduntze prozesuari babesa eta baliabideak.** Ikasle hauen kalitatezko eskolatzea berma-

tzeko, gainerako hezkuntza-konpentzietan kalterik ez sortzeko, ikas/irakaskuntza prozesuaren eta gizartera-tze eta integratzearen komunikazio tresna den hizkuntza ezagutzeko eta erabiltzeko.

- **Bigarren Hezkuntzaren euskalduntze bizkortzeari babesa eta baliabideak.** Maila guztietan (Lanbide Heziketa barne dela) euskararen erabilera indartzeko asmoz egitasmo osatu eta bateratua eduki behar delakoan, maila desberdinetan egitasmoak zehazteko, abian direnak koordinatzeko, irizpide komunen arabera antolatzeko, jarraipena egiteko zein halako egitasmoak garatzeko.
- **Informazio eta Komunikazio Teknologien garapenari babesa eta baliabideak.** Ikas/irakaskuntza prozesuan, eskolaren gestioan, gestio akademikoan, barne eta kanpo komunikazioetan euskaraz jarduteko, euskararen erabilpenaren balizko espazioak handitzeko eta euskara berrikuntzaren ospeari lotzeko.
- **Jendeaurrekoan irakasleen euskarazko jarduna garatzeari babesa eta baliabideak.** Euskara maila jasotzeko, hizkuntza baliatu behar dutenean sortzen zaizkien zailtasunei berehalakoan erantzuteko.
- **Profesional guztien euskalduntasuna lantzeari babesa eta baliabideak.** Ikastetxeetan lan egiten dutenen euskalduntasuna eta euskara maila ona ahalbidetzeko, irakasleen prestakuntzari gainerako zerbitzuetan (heziketa bereziko langileak, begiraleak –jantokikoak, jolas denboran zein eskolaz kanpoko jardueretan ari direnak–, bestelako zerbitzuetakoak –zaindariak, sukaldariak, ea.–, etab.) ari direnak euskalduntzeko edo alfabetatzeko.
- **Gurasoen euskalduntze eta alfabetatzeari babesa eta baliabideak.** Ikastetxean lantzen diren edukiak eta metodo-

logiak aintzat zein haurrak hezteko dituzten gabeziei erantzun nahian, berariaz euskara ikasteko edota hobetzeko.

- **Nafarroan eta Iparraldean euskararen erabilerari babesa eta baliabideak.** Ikastetxeetan euskararen erabilera indartzeko, administrazio edota gizarte eragileekin halakoak garatzeko eta lankidetzaz hitzarmenak izenpetzeko.

Egindakoari eustea eta egiten segitzea

Ikastoletan badakite bereizten egoera politiko anitzetan jardutea zer den. Bi estatu, lau administrazio publiko, diktadura, errepublika, monarkia, konstituzioa, eliza espainola, eliza euskalduna, funtzionarioak eta bukaera gabeko abar luzea.

Demokrazioaren aipamen ugari agertzen dira Oinarrizko Txostenean zehar, euskararen garapenak izan behar dituen ezauzgarriez ari denean. Tamalez, sarri ahortzi egiten dugu euskararen garapena ez duela soilik Estatu frankistak oztopatu edota desegiten saiatu. Inork zalantzan jartzen al du Frantziako Estatuaren zigilu demokratikoa? Eta nor izan da gogorrago euskararekin, ikastolekin?

Euskaltzaleak elkarteak antolatutako Kongresuan, 1931n, hauxe zioeten: “Atzo Monarkiari galdegin genion, atzo ere Diktadurari eskatu genion geure haurrak euskaraz hezi zitzala, gaur eskaera bera Errepublikari egin diogu. Estatuko agintariak, atzokoak eta gaurkoak, monarkikoak zein errepublika zaleak, gor dira geure eskubideen aurrean. Haien Estatu dena da, interes gorenak”

Behin irakurri nuen “askatasuna erresistentzian irabazten dela”. Ez dakit horrela den ala ez, baina ikastolen adibidea esanguratsua dut eta Lizarran egin zen Nafarroa Oinez hartako leloak zioen moduan “ezina, ekinez egina”. Oso baldintza prekarioetan dagoelako, artean, euskarak bereari eutsi behar dio, eta aurrean bide luzea duelako, egiten segi behar du.

“XXI MENDE HASIERAKO HIZKUNTZA POLITIKAREN OINARRIAK” TXOSTENARI IRADOKIZUNAK

Itziar Idiazabal

SARRERA

Hizkuntza ekintza da, erabilera da, eta txosten hau idazteko egin behar izan den bakarkako nahiz taldeko hizkuntza ekintza guztia nagusiki euskaraz eginga izan den heinean, bere horretan eta besterik gabe aurrerapausoa eskuartean dugun auzian. Alegia, euskararen erabilera indartzeko ahaleaginean, aurrerapausoa txosten hau, edukiz oparoa delako, eta irakurterraza delako ere bai. Seguruenik eztabaidatua, elkarreraginean mamitua izan delako, esku bat baino gehiagoren eragina nabari zaiolako; guzti horregatik agertzen zaigu hain aberats, eta aldi berean hain eztabaidagarri.

Azken hogeita bost urtean euskarazko txostengintzan asko ikasi dugu. Generoa berezia da, alorrez alor bere ezaugarriak dituen, eta eskuartean dugun txostenak ere baditu bere berezitasunak. Gogoeta txostena da; egindakoaren emaitza enpirikoak baino interesgarriagoa dirudi egindakoaren gaineko hausnarketa, iritzien azalartzea, eztabaiden bultzatzea. Aukera bat da. Nolanahi ere ez dago aurreiritzirik gabe eginga hitzaurrean esaten den moduan. Ezinezkoa baita hori. Kontua aurreiritzi edo iritzi ezberdinak biltzeko ahalegina nabaria dela, eta aldeko iritzi ezberdinak identifikatzea, plazaratzea, eta bultzatzea oso beharrezkoa dugula. Jakina, aldekoak, alegia euskararen erabilera indartzeko balio

dutenak direla ikustea, eta onartzea kontu zailagoa da, baina derrihorrezkoa ere bai.

Txostena, formaz, hizkuntzaren erabilera dela (euskarazkoa behinik behin, ez baitut gaztelerazkoa irakurri), moldiztegi baliabideak direla, eroso da. Goian aipatutako trebezia nabaria da. Edukiz, konplexuagoa iruditu zait. Badago aurkibidea, baina gaien banaketa ez da argia, errepikatua ere bada, eta askotan gauza bat eta haren kontrakoa ere aldi berean esaten dela ematen du. Eta hizkuntza politikan, beste politika guztietan bezala, ezinezkoa da aldi berean gauza bat eta haren kontrakoa onartzea eta bultzatzea.

Txostenean ideia on eta proposamen interesgarri ugarien ondoan arazo larri batzuk ere ikusten ditut. Bereziki hiru: 1) Euskaingintzan egindakoaren gaineko susmo txarra, kulpa, kontzientzia txarra sortarazi nahi duela dirudi. 2) Autokritika horretan inoiz ez da zehazten zer den gaizki egin dena, eta saihestu behar litzatekeena. Bestalde, apenas agertzen den proposamenik aipatutako arazoei irtenbide konkretu modura. 3) Errealitatea eta boluntarismoa bezalako hitzak zentzu lausoa dute; nahi duenak nahi duen modura erabili eta uler ditzake. Horregatik ez dute gauza askorik argitzen. Emankorragoa izango den hizkuntza politika bultzatu ahal izateko zehaztasuna behar da. Ahulguneak eta indarguneak identifikatu behar dira, zer bultzatu eta zer saihestu erabaki ahal izateko. Aldiz, zalantzak, susmoak, errezeloak, aztertu, ikertu, frogatu. Bestela ezin da aurrera egin.

Abiapuntuko kezka hauen haritik hiru multzotan bilduko ditut nire iradokizunak. Txostenean bertan datorren hurrenkera jarraituko dut eta jatorrizko txostenean errepikatuak ageri direnez, nirean ere zenbait ideia behin baino gehiagotan ageri dira. Ekarpen bezala ikusten ditudanak aurkeztuko ditut lehenengo, arazotsu edo eztabaidagarri iruditzen zaizkidanak bigarren, eta hirugarren, nabarmendu nahi nituzkeen eta txostenean aurkitu ez ditudan edo behar beste aipatzen ez diren zenbait arazo laburbildu ditut.

1. TXOSTENAREN EKARPENAK, NIRE ALDETIK BEHINTZAT, ADOSTEKO MODUKOAK

Modu eskematikoan bilduko ditut txostenean zehar aurkitu ditudan zenbait alderdi positibo. Adierazgarriena iruditu zaidana bildu dut. Horrek ez du esan nahi, noski, beste guztiarekin ados ez nagoenik.

- Ondo egiten da hizkuntza baten biziberritze prozesuaren hiru baldintza gogoratzean. Alegia, lege-marko egokia, politika eta baliabide eraginkorrak eta herritarren atxikimendua (23.or.)
- Lorpenak, hizkuntza politikaren emaitza positiboak gogoraraztea derrigorrezkoa da; hala nola, euskararen aldeko politika publikoa, sustapen-ekimen ugariak bultzatu izatea, guraso gehienek euskaraz ikasteko apustua egin izatea, milaka hiztun berri irabazi izatea, gazte gehienek euskaraz dakitenak izatea, eta euskarazko kultura guztiz homologagarria dela aitortzea.
- Gizarte prozesuetan kostu sozialik gabeko onurarik lortzerik ez dagoela ere osasungarria da gogoan izatea. (20.or.)
- Euskara kontuetan euskal hiztunaren eskubideak direla gehien atakatzen direnak, albora ezin utzi den egia. (20.or.)
- Adostasuna dela hizkuntza politika orok behar-beharrezkoa duen sostengua.(20.or.) Beti ere, adostasunik ezean gehiengo demokratikoak ere kontuan izan beharko direla ere esatea ez legoke gaizki.
- Lege-markoaren ezaugarri nagusien aurkezpena egokia da oro har. Eskubide linguistikoen aitortpena, progresiboa eta egoera bakoitzari egokitua, eta ez neutraltasuna, alegia euskararen normalizazioa duela helburu. Behar bada,

34. orrialdean zerbait esaten den arren, ez da nahikoa azpimarratzen lege hori adostasun politiko handiz onartua izan zela.

- Euskara, gaztelania bezala, ofiziala izateak hizkuntza askatasunaren printzipio nagusia gogora ekartzea ere derrigorrezko kontua da, txostenean behin baino gehiagotan esaten den bezala. Esaten da, eta hori ere beharrezkoa da, euskaraz bizi nahi duenak dituela zailtasunak hainbat tokitan, alegia hizkuntza eskubideak ez daudela berdin bermatuak euskararen eta gazteleraren kasuan.
- Lege-babesa eta sustapen handia izan arren, euskarak behar duen /nahi litzatekeen erabilera ez duela oraindik lortu eta horren aldeko bidean egon daitezkeen arriskuak identifikatu behar direla. Derrigorrezko kontua hau ere.
- Hizkuntza baten erabilera indartzeko erabilera bera dela giltzarria, "erabiliz indartzen da, erabilerak dakar gustua eta atxikipena, ez derrigortasunak, legeak edo zigorrak."(33.or.) Egia osoa.
- Euskararen indarberritzean eskolari asko zor zaion arren, eta hura gabe ezinezkoa izango litzatekeen arren, eskolaren esku bakarrik ezin dela utzi gizartearen euskalduntze prozesua.(34.or.) Jakina bezain ahaztu ezina.
- Hizkuntza baten berreskurapena urte luzeetako kontua dela eta aurrera egindakoa baikortasunez ikusi beharra, "egin gabe dagoenarekin goibeltzeak ez baitu etekin onik ematen". Oso beharrezkoa nolana ere, aurrera pausoak egiten ari garen edo ez tentuz begiratzea, adibidez, oso ideia interesgarria eta emankorra iruditzen zait elebidunen kopuruak gutxiengoa gairitu dezan agertzen den helburua.

- Oinarrizko printzipioa da baita ere, eta horregatik esan eta azpimarratzekoa, hiztunok euskara erabiltzeko borondatea eta aukerak, biak behar ditugula. Jakina, oinarrizkoena den baldintza gaitasuna da, eta hala ageri dira hirurak bilduak 43.orrialden.
- Euskararen auzia ez dela euskal hiztunen arazoa, edo ez behintzat haiena bakarrik. (39.or.) Erdaldunen atxikipena ere behar da, jakina, haientzat ere onuragarria baita euskara indartzea. Besterik ez bada, kultur ondarea indartzea delako eta kultura guztion altxorra delako. Ildo hone-tan, bizikidetzan eta garapen orokorrean ekar ditzakeen onurak ere aipa daitezke, gaur egun garapena eta kultur askatasuna oso lotuta dauden kontzeptuak direla ez baitugu ahaztu behar.
- Administrazioan herritar euskaldunen hizkuntza-eskubi-deak bermatzeko zerbait aurreratu den arren, egin gabe dagoena askoz gehiago dela ere esan behar da, eta hala egiten da. Esaten den beste kontua bat, eta oso inportantea, perfila lortzea bezain garrantzitsua dela lanean euskara erabiltzen dela ziurtatzea, edo behinik behin zer egiten den jakitea. Euskarazko gaitasuna eta lanpostuan euskara erabiltzea lotutako kontuak behar dutela izan alegia. (40-41. or.)
- Guztiz ados nator administrazio periferikoak erakutsi duen utzikeria salatzearekin (41.or.), eta uste dut salaketa berberak egin beharko lirakekeela beste hainbat eremuetan ere; Estatu mailako beste hainbat arlotan ageri den axolagabekeria, eta askotan eraso ere diren jokabideak guztiz salagarriak dira eta salatu egin behar lirakeke. Adibidez, guztiok ordaintzen ditugun komunikabideetan euskarak eta gainerako hizkuntza koofizialak duten leku eza oso da salagarria eta normalizazioaren aurkakoa.

- “Pixkanaka, baina beti zerbait gehiago” (47.or.) oso printzipio egokia iruditzen zait.
- Leialtasuna eta atxikimendua dira euskarak nahitaez behar dituen jarrerak, eta jakina, jarrera guztiak bezala ezinezkoa da beharturik sortaraztea. Aldeko jarrera garrantzitsu hauek indartzeko zehar bideak daude, eta hori da hain zuzen ere politikak egin behar duena. Bestela badakigu gurea bezalako hizkuntza gutxituak ia ezinezkoa dutela atxikimendu eta leialtasun berriak sortzea.(47.or.)
- Guztiz beharrezkoak iruditzen zaizkit baita ere: gizar-teko ezberdintasun linguistikoak orekatzeko helburua, elebakartasuna gainditu beharra, eta eleaniztasuna bultzatzea, egiazko hizkuntza-askatasuna handitzeko eta bizikidetza sendotzeko. Eta jakina, 48. orrialdean esaten den moduan, hizkuntzarik ahulena, euskara dela erabiltzeko aukerak indartu beharrean agertzen dena.
- Euskaratik urrun daudenak erakartzeko euskara aukera berrietarako leiho atsegin, aberats eta erakargarri moduan azaldu nahi izatea guztiz helburu onargarria da.(53)
- Hizkuntza politika ebaluatu egin behar dela ere gogoratzen da 53.orrialdean, eta hala izan behar du, beste edozein politika ere ebaluatu behar den bezala. Jakina, ebaluatu ahal izateko proposamen zehatzak egitea komeni da, eta txosten honetan horrelako gutxi dago.
- Guztiz ados 56. orrialdean dionarekin: hizkuntza politikak gizar-tearen kohesio-bilatzailea izan behar duela, baina aldi berean ezin izan litekeela deserosotasunik gabea. (Lehen ere agertu da hau)
- Integrazioaren hainbat helburu biltzen dira 57. orrialdean eta guztiz aproposak direla uste dut eta gogoratu beharrekoak: euskaldun jendeak hizkuntza-gutxiengo baten

trataera ezin izan dezakeela Euskal Herrian, ez behintzat botere publikoen eskutik datorrenean; erdal mundua eta euskal mundua elkarri bizkar emanda bizitzea oztopo handia dela elkarbizitzarentzat, eta beraz, elkar ezagutzia sustatu behar litzatekeela; integrazioak ez du asimilazio bide izan behar beste lurraldeetatik datozenentzat ere. Haiek ere gure aniztasunaren aberasgarri dira, hain kaltegarria den elebakarkeri eta kulturbakarkeriari aurre egiteko lagungarri izan daitezke eta helburu hau kontuan izan behar genuke.

- Herri administrazioetan euskaraz dakiten langileek egiten dituzten jarduera guztiak kontuan hartzea, gutxi izan arren euskararentzat asko dela gogoraraztea (56.or.) haien atxikimendua bilatzea eta elikatzea, oso iruditzen zait printzipio garrantzitsua eta baikorra. Sustatu beharrekoa.

2. EZTABAIDAGARRIAK IRUDITZEN ZAIKIDAN TXOSTENEO ZENBAIT IDEIA, EDO NIRE DESADOSTASUNAK ETA HAIEN ARRAZOIAK

“Euskara guztiona bada, guztiok izan beharko genuke zeresanik horretan, eta esateko duguna lau haizeetara zabaltzeko eta gainerako ikuspuntuekin kontrastean jartzeko aukera erosoak behar ditugu. Besteak beste, kontsentsu sozial eta politikoa –hori da euskarak ororen gainetik behar duen arnasbide edo makulurik behinena– eraiki eta etengabe indartu eta hedatzeko ezinbestekoa baita ikuspuntu ugariak patxadaz eta askatasun osoz plaza publikoan jarri eta eztabaidatzea.” (18.or.)

Sarreran aipatzen nuen bezala, **eztabaida** ageri da txosten honetan helburu nagusi bezala. “Euskara guztiona bada” baldintza, bestalde, nola gauzatu?, nola kontrolatu? Izan ere, euskara berea

sentitzen ez duenarekin eta askotan guztiz kontra dagoenarekin, nola bideratu eztabaida erabileraren aldeko bihurtu dadin?

Eztabaida bai, baina gutxieneko etekin batzuk lortzeko baldintzak landu behar lirajtekeela iruditzen zait. Metodo bat behar da, fina eta ebaluagarria, eztabaida bultzatu ez ezik, bere etekinak ere jaso ahal izan behar genuke. Edozein eztabaidak ez dut uste balio duenik.

Adostasunaz hitz egiten denean, euskararen aldeko politikak izan ez duen zerbait dela dirudi. Adostasuna, euskararen 1982ko legeak, beste lege gutxi izan dutena baino askoz ere handiagoa izan duela gogoratzea ez legoke gaizki. Eta oro har, hezkuntzan adibidez, adostasuna egon delako lortu dira lortutakoak. **Gurasoen adostasunean** oinarritu baita euskal hezkuntza sistema elebidunaren normatiba, besteak beste.

Egia da kontsentsua gauza ona dela eta oinarrizko legeetan, behinik behin, hor daukagun aberastasun handi bat dela, abiapuntu ahaztezina. Legearen gauzatzean, eguneroko ekintza eta ekimenean, adostasun hori elikatu, sustatu, garatu egin behar dela, ados, baina ez dezagun ahaztu abiapuntuan daukagun sendotasuna!

Aurrekoa gogoan izanik, alegia, daukagun lege-markoa nahikoa egokia izanik, kontu handiz ibili beharko genuke aldaketak proposatzerakoan. Geroago ere etorriko gara honetara, baino hezkuntzan, bistan da, izan dugun eta oraindik daukagun legearen aldaketa proposatzeak, dagoeneko, lege berria onartu ere egin ez den arren, liskarra, gehiegikeria (gaztelania arriskuan dela esatea, adibidez!) eta euskararen kontrako mugimendua indartzea besterik ez duela sortarazi gogoan izan beharko genuke. Txostenean behin eta berriz esaten da hizkuntza politika malgua, egoerari lotua eta progresiboa izan behar duela. Dударik ez. Nolanahi ere, **errealitatea** bezalako kontzeptu lausoak ez dut uste bide garbirik erakusten digunik. "(...) errealitatea baita hizkuntza politikaren abiadurari eta nondik norakoari mugak ezartzen dizkiona. Eta komeni zaigu errealitate hori kontuan hartzea, baldin eta hizkuntza politika arrakasta-

tsua eta euskararen erabilera egiazki indartzeko eta areagotzeko balio duena egingo badugu.” (27.or.) Hori egia da, baina aldi berean, politika da errealitatea aldatzeko daukagun baliabidea, beraz, errealitatea kontuan hartzea bezainbat beharko dugu jakin nora iritsi nahi dugun.

Beste kontu batzuetara igaroz, Koldo Mitxelenari jasotzen zaion baieztapenarekin, ez nago guztiz ados. “Hizkuntza bat (...) ez da gizarteko mintzabide eta adierazpidea **bestestik**.” (Azpimarratua nirea) (32.or.). Hizkuntza bat hori ere bada, jakina, baina hori bestetik ez balitz, hobe genuke lehenbailehen ingelesa ikasi; mendebaldean gutxienik, ingelesa baita adierazpide eta mintzabide garatuena. Eta sinbolo bat ere badela baina ororen gainera hizkuntza dela esateak (33.or.) ez digu ezer argitzen. Ez dago argumentu logikorik, zientifikorik esan nahi da, hizkuntza baten adierazpide (beraz, pentsamendu bide ere bai) balioak sinbolo edo identitate balioak baino garrantzitsuagoak direla baieztatzen. Balio guzti horiek ditu hizkuntza batek berarekin. Hizkuntza, gizarteratzearen ardatza den heinean, beti izango da sinbolo eta identitate marka, norbanakoarengan eta taldean (hizkuntza erkidegoan) ere bai. Hori hizkuntza izatearen baitan dago. Ez dago hizkuntza (bizirik) bere hiztunentzat nolabaiteko sinbolo eta identitate baliabide ez denik. Beraz, ez bakarrik ez da bekatua hizkuntza bat (eta euskara ere bai) sinbolo eta identitate aukera bat dela onartzea, baizik eta ona da hori ere kontuan izatea euskararen erabilera indartzeko neurrietaz arduratzen bagara. Behar bada, esan nahi dena zera da: euskara identitate eta sinbolo bezala hartzea erabiltzea bezain garrantzitsua ez dela. Agian bai, baina sinbolo eta identitate baliorik ez badu ez dut uste erabileraren erronkan ezer lortuko dugunik. Nolanahi ere, hizkuntzak (eta beraz identitateak) bakarra izan beharrik ez dauka, jakina.

Euskararen **aurrerakadaren ifrentzuaz** jarduten delarik arriskuak identifikatzeko helburua aipatzen da. Halere, zenbait baieztapenetan, arriskuak baino gehiago gaizki egindakoen kulpabarmendu nahi dela dirudi. “eta onartu beharko dugu hobe izango

dela agian, urteotan guztiotan egindako zenbait gauza beste modu batean egin izan bagenu”. (32. or.) Zer da zehazki gaizki egin dena? Aurreraxeago, berriro dator antzeko gogoeta: “Izan ere, uste baitugu hizkuntza-eskubideen ikuspegitik ez ezik euskararen erabilera areagotzeko eta sendotzeko helburua lortzeko bidean zer egitea komeni zaigun, zer saihestea interesatzen zaigun, zer lehenestea eta zer aldi baterako bada ere bazterrean uztea komeni zaigun (...)”. Gaizki egin dena zehazten ez bada, susmo txarra besterik ez da sorrarazten. Baikortasun itsua ez da ona baina ezkortasuna garatzeak ere ez du ezertarako balio, ez behintzat hemen bultzatu nahi denerako.

Euskararen aurrerakaden ifrentzuetan, beti ere, eta 34. orrialdean, zenbait galdera ageri da. Galdera erdi erretorikoak dira; batzuk halere, nahiko zehatz erantzun daitezkeenak, eta egin dira ikerketak eta lanak erantzun horiek bilatu nahirik. Esaterako, zenbat gehiago egiten den euskaraz, edo zenbat gehiago kontsumitzen diren euskal produktuak galdetzen denean. Ez dira nolanhiko kontuak, eta jarraipen zehatza eskatzen dute. “Gaur egungo euskal hiztunok **euskaraz adierazkortasun** handiagoa ala txikiagoa ote daukagu?” galdera, aldiz, erantzun ezina da, edo hobe esanda inolako oinarri zehatz edo zientifikorik gabe ezetz erantzutera bideratua dagoena. Izan ere, zer da hizkuntza adierazkortasuna? Nola neurtzen da hori? Non ditugu lehen egiten zenaren bilketa fidagarriak gaurkoarekin alderatu ahal izateko? Ez legoke gaizki arlo honi dagozkion azterketa zehatzak bideratuko balira, gure artean hizkuntzalaritza ikerketaz arduratzen diren erakundeak ezer gutxi egin baitute orain arte eremu honetan. Bestela, “Lehenengo garaietan bai, orduan egiten zen ondo euskaraz!” argumentu ahula izango da hemen agertuko dena. Hizkuntza gutxituen inguruko gogoetetan preskriptibismoa beti agertzen da, eta jakin beharko genuke gure burua kontrolatzen.

Eskolaren eraginaz jarduten denean, 35. orrialdean, hau esaten da: “Ondorioz, onartu beharko dugu, guztientzako jarritako

gutxieneko **hizkuntza-helburu orokorrek apalak** izatea eta ikastegi ezberdinetako hizkuntza-emaizak gutxieneko orokorretik gora ezberdinak izatea tokiz toki. Bestela, hizkuntza eta hezkuntza, biak atera litezke kalteturik” Baieztapen hau oso kaltegarria dela iruditzen zait. Ez dago munduan hezkuntza arduradunik gutxieneko helburuak, edozein arlotakoak, apaldu behar direla esaten duenik. Zergatik esango dugu guk euskararen kasuan? Zertarako? Zer konpontzen du honek? Gaurko elebitasun legeak hiru eredu eta eredu bakoitzean bere helburuak ditu ezarriak. Badakigu helburuak ez direla beti betetzen, eta gutxien eskatzen denetan lortzen da gutxien, gainera. Hori hala da, baina horren konponbidea ez dator denentzat apalagoak diren helburuak ezarriz, ezta denentzat gorengoak eta berdinak eskatuz ezta ere. Elebitasun legeak eta haren eskolarako egokitzapenak oro har, tokiak tokiko ezberdintasunei erantzuteko oso neurri aberatsak garatu ditu, eta horri esker lortu dira gure eskoletan, munduan beste inon lortu ez diren emaitzak, euskara bezalako hizkuntza baten berreskuratze prozesuan. Bide horretatik, geroz eta azterketa finagoetan, neurri egokituagoetan, jarraipen zuhur bezain lagungarrian sakontzeak zentzuzkoagoa dirudi hain emaitza onak eman dituen 25 urteko ekimena goitik behera aldatzeko ekimenak baino. Azken urteetan egin diren ebaluaketak (PISA 2003, 2006, EUSKARA B2, EUSKARA B1) eta aurrekoak ere (EIFE 1, 2, 3) ez dute euskara ez den arloetan emaitza txarrik erakusten. Egia da, euskara mailan ez direla lortu amesten ziren helburuak, baina hemendik ezin da ondorioztatu gutxieneko hizkuntza-helburua apalduz ezer hobetik lortuko denik. Bestalde, hizkuntza-helburuak esaten denean, euskara helburuak esan nahi dela ulertu behar da, hala edozein hizkuntzaz ari gara.

“Bestela, hizkuntza eta hezkuntza, biak atera litezke kalteturik” argumentua, bestalde, ahula iruditzen zait oso, faltsua ez esatearren. Kontuan izan beharko genuke irakaskuntza elebidunak, zenbat eta bi hizkuntzetan maila hobeak lortu are eta hezkuntza maila hobeak lortzen dituela, eta hau norbanakoan nahiz sisteman

islatzen dela leku askotan frogatua dago. Eta gurean ere bai. Par-tez, horregatik lortzen dira PISA eta beste kanpo ebaluaketetan emaitza nahikoa onak, inguruko elebakar sistemetan baino hobeak, askotan. Konponbidea ez dago maila apaltzean, eta are gutxiago berdintasuna ezartzean. Daukagunarekin lortutakoa kontuan izan, eta ahal den heinean beti pixka bat gehiagoren printzipioa erabili be-harko litzateke hezkuntzan ere. Jakina, eta hau da gure hezkuntza sistemaren sendotasun handi bat, gurasoen borondatean oinarrituz. Eskolarekin jarraituz, eta erabileraren garrantzia eta baldintzak gogoratzen direnean, hau esaten da: “erabiltzeko borondatea eta erabiltzeko aukera. Bi faktore hauek eskolaz haratagoko faktoreak dira, **eskola barruko lau hormen artean itotzen** ez diren faktoreak alegia” (36.or)

Badirudi, euskarari eskolatik ateratzea komeni zaiola ito ez dadin. (?) Badakigu eta behin eta berriro esaten da, txostenean eta beste hainbat lekutan, eskolak bakarrik ez duela euskararen auzia konponduko. Eta hori egia da. Beste gauza bat da ordea, eskolatik kanpo balego, ez hain aspaldi zegoen bezala, gauzak hobeto egon-go liratekeela pentsatzea. Arinkeria hau ez dut uste euskararen era-bileraren alde dagoen inoren buruan egongo denik, baina aurreko baieztapena horrela ulertzea ere posible da, eta niri behintzat oso desegokia iruditzen zait.

Eskolatik irtenda, edo lagun artean euskararik egiten ez bada ez da euskara eskolan sartu delako. Eskolan ere egoera horren aurka zerbait egin liteke, eta erronka handia daukagu hor irakas-kuntzaz arduratzen garenok.

Antzeko zerbait esango nuke “**hizkuntza naturala gaztela-nia**” duten ikasleez jardutean esaten denari buruz. Gauzak lasai esateko aukera izan behar dugu, baina gauza hauek ez dira zuzenak eta euskarari kalte handia egiten dio, behin eta berriro euskara ez naturala, beraz artifizia la dela baieztatzeak. Ikasle batzuk edo askok euskaraz nahikoa erosotasunarekin hitz egiteko gaitasunik ez dutela lortu, ados, jar gaitetzen zer egin behar den pentsatzen. Maila

bereko ingelesa ikasi izan balute ikasle horiek lortutako gaitasuna artifizialtzat joko ote genuke?

Hizkuntza kontuan jarrerak eragin handia dute hain zuzen ere erabileran, beraz, edozein gauza ezin da esan, kontrako jarrerak oso erraz indartzen baitira, eta gutxiago euskararen erabilera area-gotzeko ahaleginetan bagabiltza.

Lehen ere aipatu dut gaizki egindakoaren kulpa ageri dela behin eta berriro. 37-38.orrialdeetan hauxe esaten da: “Hori (atxikimendua) lortzeko balio ez duten neurriak, edo zenbait herritar euskaratik uxatzen dituzten jarduerak, borondaterik onenez bultzatuak izan arren, ez dira euskararentzat onuragarri. Horretan ororen gainetik pragmatikoa izan behar du hizkuntza politikak (...)”. Neurri horiek zehazten ez badira, zertaz ari garen ez badakigu, gaizki egina naren susmoa besterik ez da geratzen.

Oso anbigua, egia esan ulertezina, gertatzen da ondoko beste baieztapen hau ere:

“Euskararen etorkizuna bermatzeko bidean, seguruena, hazkunde ahalik eta modu naturalenean gertatzea dela uste dugu.” (38.or.) Zer esan nahi da? Zein hizkuntza-politika da naturala? Zer da artifiziala euskararenean egin dena eta zer da saihestu behar litzatekeena?

Uste dut gure ikasle askok adierazten duten atxikimen falta, edo gaztelera igarotzeko joera hobeto aztertu, eta joera hori aldarazteko bitarteko baikorrak bilatu beharko liratekeela. Eskola, berez, ez da arduraduna. Eskolan zer eta nola jardun dugun jakitea garrantzitsua da, baina euskara eskolatik ateratzeak ez digu euskarazko erabilera ekarriko, hori ere argi dago.

Hizkuntza handiak, gaur egun, ez daukate eskolaren beharrik belaunaldi berriek hizkuntza horiek ikasi eta gara ditzaten. Gure artean ondo frogatua dago eskolan gaztelera erakusteko ezer gutxi egin arren, gaztelera besterik egiten ez duten ikasleen adinako maila lortzen dela hizkuntza horretan. Ikusi bestela EIFE edo PISA ebaluaketetako emaitzak. Eta gauza bera frogatu da ingelesarekin Ka-

nadan eta beste leku batzuetan. Kontua euskara bezalako hizkuntza gutxituena da. Horiek, gure giza inguruetan behinik behin, eskolaren babesik gabe ez daukate etorkizunik. Eskolan egiten dena, beraz, oso garrantzitsua da, eta eskolari oro har kulpa eman baino eraginkorragoa iruditzen zait eskolan hizkuntzaren irakaskuntzan egiten denaren azterketa sakona eta ikerketa gehiago egingo balitz.

Militantismoaz eta boluntarismoaz hitz egiten da behin baino gehiagotan. Lehenengoa beharrezkoa omen dugu, baina bigarrena kaltegarria omen da (43. or.). Garbi ote dago bataren eta bestearen atzean ulertzen dena? Zentzu berean, eta lehen ere esan dut, errealitatea aipatzen denean, oso zehaztasun gutxiko kontzeptua erabiltzen dela iruditzen zait. Eta zehaztasun kontzeptuala gora-behera, uste dut kaltegarriena ezkortasuna, egindakoaren kulpa, zalantza antzua eta desanimoa sortarazten duela diskurtso honek. Ez baita irtenbiderik proposatzen, ez da eginkizun konkreturik adierazten. Seguruenik gauzak hobeto egin zitezkeen, baina gaizki egindakoa zehaztu egin behar da konpondu nahi bada. Bestela, kritika lauso honek ezkortasuna besterik ez dakarrela iruditzen zait.

“Nolanahi ere, ezin dugu ahaztu hizkuntza politika batek, hemen zein nonahi, lehenik eta behin, helburuen artean bat duela lehena eta oinarrizkoena: erakundeek unean uneko hizkuntza errealitatera egokitu behar dituzte nahitaez hizkuntza politikaren gainean hartzen dituzten erabakiak. Horrez gain, hizkuntza politikak izan dezake –eta gure ustez izan behar du– **hizkuntza indartzea ere xede.**” (45. or.)

Paragrafo honetan ez dakit zer esan nahi den, baina badirudi hizkuntza indartzea bigarren mailako xedea dela eta garrantzitsue-
na berriz, errealitatera egokitzea. Nahi gabe gertatutako zentzugabekeria dela pentsatu nahi nuke.

Aurreraxeago, eta 1982ko legea aipatuz, gizarte-baldintzak aldatzen ari direla eta “akaso” aldatu beharko dela (lege hori) adierazten dela dirudi. Lege horren inguruan gogoeta egitea komeni dela, haren inguruan sortutako zenbait gaizkiulertu argitu beha-

rra ere aipatzen da, eta “elkarrizketaren bidez aurreratu beharko da zein irizpide, oinarri eta printzipio diratekeen gaur-biharretako adostasunerako baliagarri” (46.or.) Hasteko, lege horrek lortu zuen adostasuna kontuan hartzetik abiatu behar litzateke, eta gaizki ulertuak zeintzuk diren ere jakin beharko genuke zuzendu ahal izateko. Bestela, behin eta berriro adierazten ari naizen ezkortasuna, egingakoaren zilegitasun eza indartu nahi dela dirudi. Diskurtsoak, testu honek, alderantzizko tonua beharko lukeela iruditzen zait. Baikortasunaren aldeko apustua, alegia.

Errealitateaz eta boluntarismoaz berriro jarduten da 51.orrrialdean eta hau esaten: “euskal hiztun-erkidegoa indartu nahi badugu, ezin dugu neurririk gabe bultzatu euskara hedatzeko nahia (kuantitatiboa), besteak beste, halako politika batek hiztunen ahulezia kualitatiboak areagotuko lituzkeelako (ereduari, zuzentasunari eta kalitateari dagokionez) eta euskarak etorkizunaren aurrean dituen arriskuak bistaratuko. Testuinguru horretan euskara hedatzearen aldeko politika neurtu egin behar dugu, hiztun-elkartea bera ahuldu nahi ez badugu.” Hemen esaten denaren atzean ere boluntarismoa ez dakit baina oinarri objektiborik gabeko iritzi kontua besterik ez dela esan behar da. Nork, non eta nola frogatu du **kantitatea gehitzeak kalitatea eskastea** dakarrela? Ze kalitatez ari gara? Beste gauza guztien gaintik erabileraren alde egiten bada, hemen esaten denak ez dauka zentzurik. Gaztelera edo frantsesa ezin ikasian dabilen etorkinari nork esaten dio hobe dela gaztelera edo frantsesez ez hitz egitea hizkuntza horien kalitatea kaltetua gertatuko delako?

Gure artean ere, ohartzen ez garen hizkuntza gutxituekiko jarrerara ezkorrak gehiegi agintzen dutela dirudi.

Eta **boluntarismoaren** aurkako diskurtsoa, jarduera zehatzetara heldu gabe, lehen ere esan dut, guztiz antzua iruditzen zait. Zertan laguntzen digu? Non dago muga borondatea, borondate ona, militantismoa eta boluntarismoaren artean? Nor da gai hau borondate onez egindakoa, eta bestea, berriz, boluntarismoaren ondo-

rio dela bereizteko? Antzua ez ezik kaltegarria ere ikusten dut. Eta kontraesanera ere oso erraz eraman gaitzake. Adibidez, 53. orrialdean haxe esaten da: “Euskaratik urrun dauden herritarrak pixkanaka euskarara erakartzen saiatuz, euskara aukera berrietarako leiho atsegin, aberats eta erakargarri moduan azaltzea nahi dugu”. Hau ez al da boluntarismoa? Azken muturrera gauzak eramanda, politika, bere esanahirik txukunenean, alegia gizarte hobeago bat egiteko ahalegina bezala ulertzen badugu, ez al da boluntarismo kontua?

Lehen aipatu den **kalitatearen** kontua ageri da berriro ere 59 eta 60 orrialdeetan. “ (...) hiztun kopurua haztearen eta belaunaldi berrietara hedatzearen ondorioz hizkuntzak puntu honetan bidesaria ordaindu beharko du. Nolanahi ere, erabilera areagotzen den neurrian eta esparru ugarietara zabaltzen den heinean, espero liteke hizkuntzaren kalitatea hobetu eta hizkera eta esapide eredugarriak azalerratu direla”. Esaldi hauen atzean dagoen jarrera preskriptibista oso ezkorra da. Jarrera guztiak bezala, oso eraginkorra, baina jakina, oinarri objektiborik gabea. Nola neurtzen da hor aipatzen den ordaindu beharreko bidesaria? Kalitatea neurtzea ez da erraza, eta gure artean gehien bat bakoitzak bere buruan duen kalitate neurria erabiltzen du guztiz objektiboa dela pentsatuz. Nolanahi ere, hemen esaten denari erraz eman dakioke buelta. Konpara ditzagun adibidez, gai beraren inguruan orain hogeita bost urte idatzitako zerbait eta gaur eskuartean dugun txostena. Eskasagoa ageri al zaigu gaurkoa?

Iritzi testu bat da eskuartean duguna eta iritziak ez datoz beti emaitza ziur eta zuhurretan oinarrituak. Nahi duenak nahi duena esateko eskubidea du, baina gurea bezalako egoeran dagoen hizkuntza politika kontuz ibili beharrekoa dela uste dut. Ezin dira usteak egia oso bezala zabaldu, bereziki helburu orokorrari begira kaltegarri izan badaitezke.

Irakaskuntzak izan duen garrantziaz eta bilakaeraz, berriro dihardu txostenak 60. eta hurrengo orrialdeetan. 1982ko legearen

garapenari zor zaion emaitza dela gogorarazten da, nire iritziz, zentzu onean gehien bat. Halere, bilakaera baikor horren zergatiak laburtzerakoan, 61. orrialdean, hiru gauzetan oinarritzen da aipaturako eraginkortasuna: “gurasoen eskubidea hizkuntza aukeratzeko haien seme-alabak hezi daitezen”, guztiz ados, hauxe baita oraindik ere indarrean dagoen legearen sendotasun handienetakoa. Aipatzen diren beste bi arrazoiak hauek dira: “eskola-erkidego bakoitzaren hezkuntza-proiektuan jasotako hizkuntza-helburuak, eta ofizialak diren bi hizkuntzetan derrigorrezko eskolaldiaren amaieran lortu beharreko gutxieneko komunikazio-gaitasuna”. Bi printzipio hauek oso garrantzitsuak dira irakaskuntzaren plangintzan, hor ez dago dudarik. Halere, nik dakidala, printzipio hauek ez dira ebaluatu. Ez dakigu ondo zergatik gertatu den eredu elebidunagoen alde gurasoek egin duten apustua. Hipotesiak baditugu, eta azken arrazoi bi horiek ere maila horretan jarri behar dira. Gurasoen adostasunaren printzipioaren mailarik ez dute.

Aipatzen den arrakasta azaltzeko beste hipotesi hauek ere baditugu: adibidez, zenbat eta elebidunagoa bihurtu nahi den eskola, eta ingurugiro batzuetan besteetan baino zailagoa da lorpen hori, orduan eta irakasle eta eskola-erkidego osoaren ahaleginak handiagoa izan beharko du. Euskara bezalako hizkuntza bat tarteko delarik eskola elebiduna edo eleanitza egin nahi izateak oso jardun sendoa eskatzen du: plangintzan, programazio integratuak bideratzen, irakasleen arteko koordinazioa dela, gurasoen parte hartzea bultzatu behar dela, ... Guzti horrek eskola osoaren hobetzea dakar, jakina helburuak arduraz hartzen badira. Bestela esanda, euskaraz eta beste hizkuntzetan ere emaitza onak lortzeak hezkuntzaren beste alor guztietan ere hobekuntza dakar. Gurasoek eredu euskaldunagoen alde egin badute, batez ere euskara kalitatearekin lotu dutelako izan dela esango nuke. Gaurko legea, horregatik da oso eraginkorra, eta ez litzateke besterik gabe aldatu behar, lehen ere esan ditugun arrazoiengatik.

Eremu berean, eskolarenean beraz, **xede-hizkuntzarekiko atxikimena eta adierazkortasuna** lotzen dira. Baliteke bietan aha-lerin berezia egiteko beharra egotea. Baina ez lirateke lotu behar. Gauza bat da atxikimendua eta bestea adierazkortasuna. Lehenengo neurtzeko hainbat aurrerapen egin da, baina bigarrena ez dakigu nola neurtu, gehien bat, horrekin zer esaten den argi ez dagoelako. Edo bestela, adierazkortasuna esaten ari garenean hizkuntza ezagutzaz ari gara, eta hori neurtzen ere zerbait ikasi dugu.

Adierazkortasuna, maila bat gorago egongo litzatekeen hizkuntza gaitasuna bezala agertzeak, baina nola neurtu ez adierazteak, iritzia ematen duenaren prestigioaren baitan (kasu honetan Eusko Jaurlaritzak bideratutako txostena!) uzten ditu gauzak. Hori bidezkoa ez izateaz gain ez dirudi batere eraginkorra denik.

Ados nengoke hurrengo paragrafoetan (62.orrialdean) esaten denaz: “hiztunen adierazkortasunari eta egokitasunari bainoago gramatika arauak baliatzeari eman zaio askotan lehentasuna”; **“gramatikakeriaren morrontzak”** ere aipatzen dira, eta aipatu beharra dago, iritzia pixkaka aldatzen joan dadin, baina berriro ere, lehen bezala, neurtu ez daitezkeen baieztapenetan gaude. Nola lortu, bestela esanda, lasaitasunez hitz egitea “gainetik autoritate linguistikoaren arnasa sentitu gabe?” Esatea bada zerbait, baina konponbidea, berriz ere, erabilerak berak dakar. Hori bai, “komisario linguistikoan” lana apur bat zokoratzea ez letorkiguke gaizki. Eta uste dut, zorionez, informatikaren eraginez erabilera askoz askeagoak agertu direla, eta horiek bultzatzeak ere lehentasuna izan behar harko lukeela euskararen erabilera bultzatzeko aha-lerin hauetan.

Administrazioko euskararen erabilerari dagokionez, (64-65. or.) itzulpengintzak normalizazioan izan dezakeen eragina zalan-tzan jartzen da, batetik, eta bestetik, batez ere erabilera bultzatu beharra, jardun-eremuak identifikatuz, horietako langileen hizkuntza-trebakuntza lehenetsiz eta nola edo hala euskaraz egiten den guztia, gutxi izan arren asko izan daitekeela gogoratuz. Bigarren alderdiarekin ez dago zalantzarik. Lehen ere esan dut, hori da egokiena irudi-

tzen zaidan jardunbidea. Itzulpengintzari dagokionean, ez dut uste hain erraz baztertu daitekeen kontua denik. Beste gauza batzuen artean, itzulpengintzari esker euskara idatzian izugarritzko aurrerapena gertatu delako. Beste alde batetik, badirudi hemen ez dela kontuan izan, hain zuzen ere Administrazioeko euskara eraberritzeko eta gazteleraren morrontzatiko itzulpenetatik aldentzeko, IVAPen laurogeita hamarretan egindako ahalegina. Badirudi ekimen haren eragina ez dela handiegia izan, nahiz eta nire ustez guztiz irizpide zuzenekin egin zen. Harrigarria da, esate baterako, gure unibertsitatean behin eta berriro erabiltzen ditugun agiri eredu ilun eta ulertezinak, erabat gazteleraren morroi direnak, oraindik ere zuzendu gabe agertzea, nahiz eta lehen esandako IVAPeko proposamen haietan oso printzipio zentzuzkoak, eta ereduak ere bai, nahikoa sinpleak eta garbiak, eskura jarri ziren. (Administrazio idazkiak, 1994; Argi idazteko bideak, 1996, Argiro, 1997, eta IVAPeko estilo liburuak, 2005, liburukiak lekuko).

3. EUSKARAREN ERABILERA AREAGOTZEKO POLITIKAN INTERESGARRIAK IRUDITZEN ZAIZKIDAN BESTE KONTU BATZUK

Badira zenbait gauza euskararen erabileran, zuzenean ez bada ere, eragina garrantzitsua dutenak. Jarrerari buruz ari naiz. Euskararen alde egiteko ahalegina areagotzea dakarten ekimenak ditut gogoan. Inori kalterik egin gabe eta inoren kontra egon gabe, euskararen aldeko jarrerak indartzeko baliagarriak diren ezagutzak plazaratzea beharrezkoa iruditzen zait.

Bat. Euskararen alde, alegia arriskuan dagoen hizkuntza baten erabilera areagotzearen alde, egiten dena denona den **ondare kulturaren** aldeko ahalegina da, ez euskaldunen aldekoa soilik. Hizkuntza bat, edozein hizkuntza, eta hizkuntza guztiak dira aberastasun kulturalaren adierazgarri bikainenak. Beraz, haiek gal ez daitezen egiten den oro kultur ekarpen bezala

aitortu eta bultzatu behar litzateke. Esan behar da baita ere hizkuntza gutxitu baten alde egiten denak ezin duela handia eta haren erabilera kaltetu, baina alderantziz bai. Eta hori ondo dakigu eta salatu bekarrekoa da. Hizkuntza handiak berez, politika berezien beharrik gabe garatzen diren arren, politikak badituzte eta oso indartsuak gainera! Alabaina, euskararen alde egiteak ez dakar erdaren kontra egitea, ez eskolan ez beste eremuetan. Bestalde, txikien alde egiten den guztia da gehitzea norbanakoarentzat eta taldearentzat.

- Bi.** Euskararen aldeko **legea** eta haren garapenak eskatzen duen sustapena egon delako lortu dela euskalgintzan lortu den asko gutxiegi aipatzen dela txosten honetan iruditzen zait. Legearen gaizki ulertuak, sortarazi dituen balizko arazoak gehiagotan ageri dira legeari esker lorturakoaren baieztapenak baino. Aurrerapenak bere kabuz gertatu direla dirudi batzuetan. Alderdi horiek ezin direla ahaztu, ez albora utzi edo arindu iruditzen zait, aurrera egiteko gaizki egindakoa zuzentzeak bezainbat edo gehiago balio baitu ondo egindakoen barne-indarrak. Maila indibidualean autoestimaz esaten dena talde-ekimenari ere ezarri dakioke.
- Hiru.** Euskara sinbolo bat ere badela esaten denean ez da **identitate** konturik aipatzen eta ezin dugu ahaztu, lehen esan dugun bezala, euskarak beste hizkuntza guztiak bezala norbanakoarentzat eta hiztun komunitatearentzat identitate balioa duela. Bestela ezin uler daiteke euskara eta beste hizkuntza asko gaurdaino bizirik heldu izatea. Lehen ere esan dugu identitateak ez duela, derrigorrez, bakarra izan behar. Gehiago esango genuke, anizkoitasunean bizi garen heinean askotariko identitateak besarkatzeko gaitasuna ere badaukagu eta guretzat bezala edonorentzat litzateke hori ona.
- Lau.** Eskolak euskararen ezagutza mailan egindako ekarpenak behin eta berriro aitortzen dira, eta egin behar da. Ez da esaten aldiz, eta horren zenbait froga badago, **eskola euskaldun-**

tzeak haren hobekuntza ekarri duela, alegia, euskara irakasteaz gain, eta hura erakutsi behar izan delako, hobetu egin direla eskolaren hainbat arlo. Hobekuntza horiek, jakina, behin betiko lorpenak ez dira, eta eten gabe sustatu eta elikatu beharrekoak dira, lortutakoa galdu nahi ez bada. Horregatik da hain garrantzitsua hezkuntza arloan egindako eta egiteke dagoenaren azterketa zehatza, erakunde hori baita erabileraren baldintza nagusiena, ezagutza alegia, ziurtatu dezakeena.

Bost. Ebaluaketaz gutxiegi hitz egiten dela iruditzen zait. Neurketa, datuen bilketa, jarraipen zehatza eta ikerketa bultzatu beharra gehiago azpimarratu behar litzatekeela esango nuke. Politikak adostasuna, eztabaida eta autokritika beharko ditu, baina batez ere hainbeste hitz egiten den errealitate horri buruzko datu zehatzak behar ditu erabakiak hartzeko.

Sei. Euskarak Estatuan, eta erkidegoan bertan ere duen **presentzia eskasa** askotan salatu izan den kontua da. Txosten honetan ez da gehiegi agertzen arazo hau. Aldiz, hizkuntza politikaren adierazgarri bat bada zenbateraino ageri den edo ez komunikabideetan, lan munduan, merkataritzan, politikan, eta kultur ekimeneetan oro har. Ondo dakigu euskara, gure altxorrik preziatuena dela, baina bestelako altxorrei gertatzen zaienaren kontrakoa gertatzen zaio hizkuntzari, gordeta jasotzen bada galdu egiten da!

EUSKARA 21

Anjel Lertxundi

EUSKARAREN LURRALDEA

Kontuan izanda Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikako Sailburuordetzak eskatua dela **Euskara 21** txostena, logika politikoak eskatzen du, eta ez bakarrik zuhurtasunak, hausnarketaren muinak EAEn dituen arazoei erantzuten saiatzea duela dokumentuak bere egitekoa. Baina hori hala izanik ere: txostenak euskarari berririburuzko kontsiderazio orokor bat jaso behar zukeelakoan nago. Inor inoren soroan sartu gabe ere, egokiera baliatu behar da euskarak han-hemen dituen arazo elkarrekikoak azpimarratzeko; elkarlanerako deia egiteko; egoera desberdinen aurrean estrategia berdinak praktikatzearren arriskuak seinatzeko; euskararen inguruko hainbat ekimen indibidual zein kolektiboen egokitasun nola-halakoaz ohartarazteko; ahalegin adostuen onura azpimarratzeko.

HAINBAT HUTSUNE

Dokumentuak kemen berezia jartzen du eskolaren munduan. Beste modu batera, ezin. Baina eskolaren inguruan esandakoei ezer kendu gabe ere: eskolari buruz bezain luze-sakonean ez bada ere, ahalegin berezia eskaini behar litzaieke euskararen presentziari eta arazoei lantegietan, ostalaritzan, dendetan...

Merezi luke Internetek eta teknologia berriek euskarari ekar diezazkioketen onurez eta arriskuez hausnartzea ere.

Merezi luke administrazioaren paperaz ere hitz egitea, bai euskararenganako jarrerari dagokionetan, baita administrazioak berak eskaintzen duen euskarari buruzko ereduaz ere.

Merezi luke, halaber, eskubide-kortesia dialektikak eguneroko komunikazio sozialean eragiten dituen zailtasunei buruz hausnartzea ere, sarriegitan uko egiten baitzaie hiztun-eskubideei gaizki ulertutako kortesia baten tranpagatik, hizkuntza hegemonikoaren itzal luzeak hizkuntz gutxituko hiztunei betidanik eragin izan dien betizu konplexuagatik.

TONUA

Emanak gara euskararen auzia erosta-musikarekin barneratzera; euskararen inguruko guztia aldapa, neke eta zailtasun gisa bizi zera; euskararen problemak modu agoniatsu batean planteatzera eta plazaratzera.

Errealitatea beti da konplexua, bai, baina ez da beti nahasia eta basa. Euskararen errealitatea ere halatsu: ugariak dira bere egitatearen osagaiak, baina, ezin baititugu denak batera ikusi, alde ezkorrak lehenesteko joera izaten dugu. Baina lipar batez badarik ere: utz diezaiogun euskararen egoerari begiratzeari, eta azter dezagun euskal hiztunok zer nolako bizi-poza transmititzen dugun euskarari buruz hitz egiterakoan. Beti lantuka eta kexuka ari den giza talde baten irudia ematen badugu, etsipenaren mezulariak baldin bagara, neurotizatutako itxura transmititzen baldin badugu, nekez erakarri dugu jenderik euskararen plazara. Nekez erakarriko dugu inor biktimismoan goxo egindako jarrera batetik, eta auziaren errua auzoari egotziz.

Bestalde, euskaraz ez dakiten euskal herritarrek giza talde monolitiko baten moduan ikusten bagaituzte, denok berdina baldin bagara haien pertzepzioan, kolore bakar bateko hiztun talde baten

irudia transmititzen badugu, errealitatearekin batere bat ez datorren irudi oker bat eskaintzeaz gainera, geu bihurtzen gara, neurri handi batean, euskararen inguruko aurreiritzi askoren iturri eta erantzule.

Aitortzea, ordea, ez da aski: oso errotua baitago, administrazioetik beretik hasita, euskara ikuspegi politiko jakinekin lotzea, pauso batzuk pentsatu eta eman beharko dira aurreiritzi horien kontra borrokatze aldera.

Horregatik guztiagatik, euskararen politikak behar du jarrenen formulazio eta didaktika bat ere, islatzen dugun irudia ez dadin desatsegin desegokia gerta eta ezta kolore bakar batekoa ere.

Bestalde, naturaltasunaren pedagogia bat behar dugu bai euskararen etxe barrurako, baita hizkuntzen arteko harremanetarako ere; hizkuntza normal bizitzeko terapia psikologikoak aplikatu beharrean gaude: praktika psikologikoki orekatuak bilatu behar ditugu, eta ez neurotikoak, masokistak, morbosoa, agoniatsuak, konplexuz beteak.

Eta hori guztia ere bada hizkuntz politika.

EREDUAK

Aniztasunaz hitz egiten dugu eta, dokumentuak dioen bezala, euskaraz bizitzeko moduak ere anitzak dira. Jarrera aktiboagoak eta pasiboagoak daude euskararen plazan; baikorrak, ezkorrak; erasokorrak, pazientziadunak; apokaliptikoak, integratuak; adore handikoak eta txepelak. Guztiek dute beren tokia, jakina. Hori onartuta, onartu beharko dugu motibazioak ere era askotako aurpegiak dituela. Afektiboak batez ere, bai, baina baita ekonomikoak, prestigiozkoak, komenientziazkoak, atseginari lotuak, praktikoak, utilitaristak ere...

Motibazio kolore anitz horri, ordea, oso ondo etorriko litzaioke eredu sozial garden bat; ispilu garbi askotarikoa. Eta ez daukagu. Euskaldun askok, euskaraz primeran jakin arren, eta euskarari **plus** sinboliko halako bat aitortu arren, ez du euskaraz egiten. Baina ez da kaleko kontua soilik. Egunero ikusten dugun kontua da Legebil-

tzarreko jardunetan; administrazioko goi-mailetan halatsu; eta uni-
bertsitatean; telebistako jardun formalenetan...

Euskarak prestigio soziala behar du bizitzaren alor guztietan.
Eredu egokiak plazaratu.

IZURRITEA

Italo Calvinok dio:

“Izurrite halako bat gertatzen ari zaie hizkuntzei oro har eta gureari partikulariki: gero eta abstraktuagoak, artifizialagoak, anbiguoagoak dira; gauza xumeenak ezin zuzenean esan. Izen konkretu gutxiago erabiltzen da. Hasieran, izurrite honek politikoak, burokratak eta intelektualak kutsatu zituen, gero jende artean hedatu zen, gero eta azkarrago, gero eta indartsuago”.

Calvino italieragatik ari da. Ari zitekeen euskaragatik ere. Euskara ere mendebaleko hizkuntza baita eta teknologia berrien iraultza ez baitaia arrotza, larrutik ezagutzen ari da prozesu hori. Baina egoera horri guztiari eransten badiogu, gure betiko ahuleziaz gainera, euskararen batasunak abiarazi zuen prozesu galbahegilea –batasunaren izenean ugaritasuna baztertu behar izan dugu oso denbora laburrean–, hizkuntza hegemonikoei ez bezala eragiten digu Italo Calvinok **izurritetzat** jotzen duen gaitzak.

ESTANDARRA

Euskararen etorkizun hurbilak derrigorrezkoa du estandarra, baina, aldi berean, derrigorrezkoa du euskararen eredu estandarrenak –administrazioarenak– hartu duen homogeneousotasun gehiegizkoa aztertzea, bai euskararen beraren ezaugarriei dagokienez, baita eredu horrek hiztunen komunitatean izan dituen eta izaten ari den eraginez ere. Ereduak dezenteko gorpuzkera hartu du oso epe laburrean –oraintsu hogeit urte inork susmatuko ez genukeen bezalakoa–, baina ez beti bide onenetik. Lexikoaren hedapenak okupatu

ditu hizkuntzaren ia plaza guztiak; egitura morfosintaktikoarenak, ordea, ez hainbeste. Horri erantsi behar zaio hizkera horrek gaztelania duela ispilu eta itzulpena oinarri. Hizkera maizter bat da, eta gaztelaniaren/itzulpenaren maiztertzara behartzen ditu administrazioako agiri eta jardun guztiak, eskoletako testugintzaren zati handi bat, hedabideetako albiste gehienak, euskararen kaleko presentziaren zati handia...

Nolanahi ere den: eredu estandarrenak ez ditu eguneroko euskara biziaren premiak asetzen. Ezta ase behar ere, ez da hori hizkera estandarren egitekoa. Baina euskararen egoerak hartarata –eta hizkuntza hegemonikoaren plazan gertatzen ez den bezala–, hizkera estandar hori bazter guztietara hedatu da, modu guztiz uniformatua hedatu ere, erregistro desberdinenganako ardura handirik gabe. Edo haiek itoz. Administrazioan, testugintzan, kazetaritzan, iragarpen publikoen munduan eredu pisu beti berdina –gazi-gozo handirik gabea– nagusitu da. Eredu hori klase baten jerga bihurtu da. Kode ia sekretua da, kaleko jendeari batere familiarra egiten ez zaiona. Euskara natural egiten duen herritarren multzo handi bati hori iruditzen zaio, eta hori bakarrik, euskara ereduzkoa.

Hizkera estandar hori, munduko perfektuena izanda ere, horixe da: hizkera estandarra. Ez du bizitzaren eremu askotarako balio. Baina haren itzala gizartearen beste eremuetara hedatzen bada –kazetaritzara, unibertsitatera, kaleko karteletara, deialdietara, eskuin zein ezkerreko alderdi eta sindikatuen jergara zabaltzen bada– hizkuntzaren sarea ahuldu egiten da.

Halako hizkera batek berezkoak ditu monotonia, lexikoaren unibokotasuna, kate morfosintaktiko askotan bera, kolore bakarra eta balio gutxi izatea jardun ez formaletarako.

Bestalde, hedabideek-eta, beren kodea propioa landu ordez, hizkera burokratikoaren alde antzuenak imitatzen dituzte, eta, okerragoa dena, hizkera burokratikoari bermea ematen, hizkera klase horren bozgorailu lana eginez.

Hizkera zurrun uniboko hori da jendearen erreferentzia nagusia. Eredua. Kode hori, erregistro hori bihurtzen da euskara estandarra, ona, imitagarria. Eliteen erregistroa da. Boterearena. Kaletarrak ulertzen ez duen erregistro bat da, ordea. Bere eremutik kanpo deus gutxi komunikatzen duena.

Euskara estandarra elite politiko, sozial, kulturalak praktikatzen baitu, jendeak bere hizkera eta elitearena konparatzen ditu, garai batean bere euskara eta pulpituetakoa konparatzen zituen bezala. Eta konparazio horretan kaleko jendeak uste zuen eta uste du bere euskara ez dela ona, dotorea, duina. Hondamen sekulakoak eragiten ditu pertzepzio horrek.

EREDUA, LITERATURAN

Literatura omen da eremurik askeena, hizkuntzaren ibilbideari bide eta bidezidorrak seinalatzen dizkiona, baina bazter guztietara hedatu den hizkuntza estandarraren eraginez, gero eta idazle gutxiagok arriskatzen du hizkeraren hausnarrean, pauso berrien saioan, etekin adierazkorren bilaketan. Ondorioz, gaurko literaturan ere gero eta gehiagotan aurkitzen dugu tonu ia beti bera. Kezkagarria da, ez soilik hizkuntzaren eliterik teorikoki eliteenean hori gertatzen delako, baita beste hainbat alorretako egoeraren nolakoaz pentsarazten digulako ere.

ELITEA

Itzultzaileak, irakasleak, kazetariak...

Klase berriak darabilen gero eta euskara egituratuagoa, estandaragoa, abstraktuagoa...

Etxea, kalea, gaztea...

Eredu bat falta da euskara batua iristen ez den plazetan; ez dago euskalkiei buruzko estrategiarik; gazteen hizkera norabidean dabil eredu jator-usteetan barrena...

Kontua da tarte sekulakoa egin dela, hizkuntzaren erabilerari dagokionez, euskararen inguruan egituratu den elitearen eta kaleko hiztunen artean. Inorena ez den terreno halako bat dago hizkera jasoaren eta kaleko jardunaren artean. Zubi gutxi dago eta saiatzen diren zubiak –telebistan, adibidez– ez daude estrategia bati lotuak.

ARAUA

Hau horrela esan behar da, hori gaizki dago. Hizkera estandarrak berezkoa du araua jartzea, jarioaren gainetik. Halatan, jardun klase horri ikusten zaiona, zehaztasunaren izenean hedatu den arau eta betebeharren nagusitasuna da –zurruntasunarena, kontrolarena–, baina ez komunikazioarena. Hizkuntza bera ere unibokoa balitz bezala jokatzeko du; irudi luke hizkuntzak erregistro bakarra duela. Hizkuntzaren eta erregistro baten arteko identifikazioa bideratzen du praktikan.

HIZKUNTZARENGANAKO TXERA

Hizkuntzaren auzia ez da auzi sozial soilak, eta dokumentuaren defiziten artean kontabilizatu behar da, ene ustez, auzi sozialak hartzen duen pisu beharrezkoa baina gehiegizkoa. Hiztunak harreman pertsonal bat du hizkuntzarekin berarekin –ez beti zuzena, atsegina, edo eroso–, eta norbanakoak bere hizkuntzarekin duen harreman horrek hiztunen arteko harremanari –sozializazioari– eragiten dio.

Hizkuntza zer da hiztunarentzat? Bere identitatearen zeinu bat da, ikurra, bandera, marka, sinboloa, ala arnasa bezain natural irtetzen zaion jarduna? Kontzientziaren deia da ala komunikazioaren lanabesa? Agian, biak batera da? Etxea da ala tenplua? Diskurtsoa da ala konpromiso kategoriko halako baten agindua? Produktu hutsa ala zerbait gehiago? Bera bezalako hiztunen zokora biltzeko gonbitea ala etxeko ateak zabaltzeko deia?

HIZKUNTZA ETA NI

Hizkuntza baten nondik norakoak ezagutu nahi badira, ezinbestekoa da soziologiaren ikuspuntua. Baita komunikazioaren alorreko gorabehera psikologikoena ere.

Ez zaio, ordea, behar adinako garrantzirik ematen hiztunak hizkuntzarekin duen harremanari. Euskarak hiztunari zenbat balio dion, hiztunak hizkuntza disfrutatzen duen, txirbilak ateratzen ote dizkion. Alegia, hizkuntzarekin duen harremana naturala ote den.

Hizkuntzak ematen dizkigun aukerak baliatzen saiatzen gara hiztunok. Etengabe, atsedetik gabe, ezinbestean. Baina hizkuntza, zerbait baldin bada, testuinguru ia infinituei erantzun ia infinituak ematen dizkion tresna da.

Hizkuntzari etekin onenak ateratzeko posible da, teoriarik behintzat, borroka hori modu naturalean eta tentsiorik gabe bizitzea. Kontua da, ordea, ikasleek bai heldu jendeak arazoak dituztela askotan euskara natural egiteko. Gaztelaniaren presentzia etengabe nabarmentzen da. Ohikoa da esaldiak osatzen ez dituztenen jarduna. Edo beren euskarazko jardunean gaztelaniako formulak, kliseak, esamoldeak, esaldi osoak tartekatzen dituztenena. Gorabehera adierazkorrenenak erabiltzeko beste hizkuntzara jotzen dutenena.

Horrek, batetik, ondo errotu gabeko sistema baten alarma pizten du. Edo erakusten du arrakalak egiten ari zaizkiola ondo errota zegoen sistemari. Prozesu baten hasiera da, eta prozesuaren amaiera baliabide adierazkorrenaren helmugan dago: gaztelaniaren abaroan, alegia.

Oso arazo hedatua da. Denoi eragiten diguna aldeaz edo moldez. Ez diogu, ordea, arretarik jartzen, nahiz bide horretatik doan euskal hiztun askoren ibilbide gainbeheratsua, nahiz bide horretatik ari garen galtzen euskara jakin arren euskara hitz egiten ez duenaren multzoa.

Horri nola egin horri aurre?

Hiztunen arazo adierazkorrak aztertuko dituzten hausnarke-tak behar ditugu; bien hizkuntzen arteko joan-etorrien deskribape-nak; non eta nola gertatzen diren ahuleziak. Lan horren guztiaren helburua: gero ahulezien inguruko pedagogia bat sustatzea. Mur-gilduegiak gaude hizkuntzaren irakaskuntza deskribatzaile araugile batean, baina arazoak beste batzuk dira. Indar guztia hizkuntzaren mekanismoen ezagutzan jartzeak ez dizkigu ez erabilera ez natu-raltasuna ziurtatuko.

Aztertu beharra dago, bada, bi hizkuntzen arteko harreman-ean zergatik eta zertan galtzen duen euskarak. Non eta nola ira-bazten dion gaztelaniak euskarari. Zertzuk diren olioztatu gabe ditu-gun hizkuntz mekanismoak, ongarritu gabe dauzkagun hizkeraren eremuak, ongarrri gehiegiz itota dauzkagunak.

ETORKIZUN HURBILA

Gure gurasoak elebakarrak ziren. Ez zuten gure kezkarik. Beste toki batetik zetorkien, etortzekotan, kezka: bizitza aurrera ateratzeko euskara ez ote zuten traba.

Gu elebidunak gara. Gaztelaniaren konpainian bizi izan dugu euskara, noiz gaztelania nagusi, noiz euskarak bere tokia errebin-dikatzen zuela. Bi hizkuntzen arteko harremanen nolakoa definitu behar izan genuen gure baitako dibanean. Lehia horretan ari gara oraindik ere. Elebakarraren talaiak eta obsesioak ez digu balio.

Gure seme-alabak, berriz, eleanitzak dira. Aniztasun horretan euskarak eta beste hizkuntzek izango duten tokia hausnartzen hasi beharra dugu. Elebitasunaz mintzatzen gara eta elebitasuna dugu oraindik ere gure jardunaren ardatz eta joko-eremu, baina aurre-ra begiratu nahi duen hizkuntz politika batek zehaztu beharra du euskarak izango duen tokia etorkizun eleaniztun gero eta hurbilago batean.

EZ DOPINGIK, EZ EUTANASIARIK

Jose Luis Lizundia

Nire ekarpenak dekalogo gisa aurkezten ditut, zehatzago esan, en-dekalogo gisa, hamaika baitira, zentzu bitan: 1. Batzorde iraunkor-
rrak idatzitako testuari kritika edota iradokizunak; 2. txostenak, ene
ustez, beharrezko dituen gehiketa-ekarpenak. Nik jarritako ordenak,
ez du zentzu hierarkikorik, izatekotaz, orden logikoa izango luke.

I

Oinarrizko txostenaren ahulezia nagusia, Hego Euskal Herriaren historia garaikideari errepasso bat ez ematea dela esango nuke, hots, XIX. eta XX. mendeari, bereziki, hizkuntzaren historia sozia-
laren ikuspegitik. Espainiako Erreinuak, estatu liberal gisa eraikitze-
ko ahaleginak porrot bat baino gehiago izan zuen, militar golpismo,
klerikalismo eta absolutismoen erasoengatik, baina horrek guztiak
ezin ditu ezkutatu estatu horrek egin zituen ahaleginak zentralis-
mo jakobinista ideologiarekin, gaztelaniaz gaineko beste hizkuntzak
baztertzeke: irakaskuntza publikoko lehen legea Ley Moyano dei-
tua, “Ley General de Ayuntamientos del Reino”, “Ley General de
Registros” eta abar dira lekuko.

Hizkuntza politika asimilazionista bat martxan jarri zuen Es-
painiako “estatu modernoak”, lege, dekretu, agindu eta ebazpene-
tan askotan bat ere lotsarik gabe. Hortaz asko idatzi da, bai hemen
eta Galizian, baina askoz ere ugariago eta sakonago Katalunian.
Gaurko hizkuntza politikaren paradoxak ezin dira ulertu, gutxiago

ondo diagnostikatu, II. Errepublika arteko politika linguistiko “gaztelanista” bat kontuan izaten ez badugu, zeren eta euskara, katalanaren eta galegoaren bazterketa ez da frankismoaren diktadura zapalkuntza ondorio soil bat, hau aparte aztertu behar delako.

Eskertuko nien testugileei, Euskaltzaindiak, 1977 urtean argitaratutako *EUSKARAREN LIBURU ZURIA*ri begirada bat bederen botatzea, zeren eta bertan, besteak beste: L. Mitxelena, J. Intxausti, L. Villasante, J. M. Barandiaran, J. M. Satrustegi, G. Monreal, J. Urrutia eta J.A. Obieta Deustuko Unibertsitateko irakasle famatuak, J. M. Castells, Txilardegi eta beste batzuk lan argigarriak idatzi bai zituzten. “Liburu zuriak” deitzen diren horietako izanik, zoritxarrez, transizioan eta, gero, gure politiko gutxik, abertzaleek barne, irakurri zuten/dute liburu hori.

II

Ez nago ados gaztelaniaz “nacionalismo” eta euskaraz “abertzaleatasuna” sinonimotzat itzultzeaz, ez baitira gauza berbera, nahiz eta sinplifikazioz edota komunikabideen sinplekeriaz horrela hedatua den. Ene aburuko hizkuntza politketan eta, kasu honetan, euskararekikoan, nazionalismoek kalte ugari egin dizkiete, orohar. Euskal nazionalismoekiko kritikoa naiz, alde askotatik, gainera, baina zentzu berean ezin da espainol nazionalismoa, nik, nire artikuluetan zehatzago deitzen dudan gaztelau nazionalismoa, ez balego legez, epaitu eta kritikatu gabe utz.

Badirudi, azken bolada honetan, euskaltzaleok, Ebroz Honandikoen “bekatuen” konplejuz, Ebroz Harandikoen nazionalismoari kritikarik xumeena egiten ez garela ausartzen. Onesimo Redondoren “Juntas Castellanas de Acción Hispánica” edo Doctor Albiñanaren “Partido Nacionalista Español”, Falange Españolan integratu zirenak 1930 hamarkadan existitu, existitu egin ziren eta bere ideologia sar arazi eta indarrean bortxaz jarri Francoren gobernu faszistetan, ahantzi gabe berriz, Espainiako hedabide eta ideologia

ultretan eta, ez hain ultretan, geroago eta lotsa gutxiagorekin nabarmentzen hasiak direla, hain zuzen beste hiru nazionalitateetako hizkuntzen kontra.

Behin baino gehiagotan idatzi dut hortaz eta ez dut hemen errepikatuko, bat aipatzekotan, 2007ko abuztuaren 9an, “El País” egunkarian idatzi nuen “*Del euskera y los “otros abertzales”*” titulu-ludun artikulua (*eranskin gisa doa*). Horrek guztiak, ez du kentzen, ordea, “Demokraziaren printzipioetan oinarritu behar da hizkuntza politika” kapituluarekin bat ez nentorrenik, alderantziz baizik, zeharo ados bai nago.

III

“Euskara Euskal Herriko hizkuntza propioa da.– Baieztapen hori, jakina denez, Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan agertzen da lehen aldiz gure artean. – Hizkuntza propioa zer da, beraz? Ez da, bistan da, Euskal Herriko hizkuntza bakarra edo, gutxienez, nagusia...”. Oinarrizko txostenaren azken hitz horrekin ados, beraz, Hezkuntza Sailak darabilen nagusitasun=printzipaltasun kontzeptu hori ez dut onartzen eta, gainera, errakuntza estrategiko bat deritzat, seguru asko euskararen kaltetan. Hori esan da, txostenaren aurreko testuak matizazio eta zehaztapen bat baino gehiago mereziko lukete.

Hasteko, Euskaltzaindiak, bere 139. hizkuntza arauak –euskaltzain oso guztiek aho batez, 2004ko uztailaren 23an, Abadiñoko udaletxean egindako osoko bilkuran onartua, bestalde– honako hau dio hasieran bertan: ***Euskal Herria izena. Aspaldiko mendeetatik hedatua izan da Euskal Herria izena, kultura ezaugarri aski jakinak dituen herrialdea adierazteko, politika eta administrazio mugen nahiz ezberdintasun historikoen gainetik erabilia.– Izen hori euskara + herri hitzetik sortua da, hots, “euskararen herria” ...*** Gauza jakina da geografia zientzian herri edo nazio izenak jatorri desberdinekoak direla: jentilizio edo tribu izenetatik sortuak: Frantzia frankoen herria, Danimarka daniarren herria; hidronimoetatik, Uruguay, Paraguay,

Jordania; oronimoetatik: Sierra Leona, Libano; puntu kardinaletatik: Austria, Norvegia, Australia etab. baina hizkuntzan jatorria dutenak: Deutschland, adibidez, nahiz eta guk erabiltzen dugun exonimoa, mendebal tribu batena izan, alamanena. Adibideekin ez luzatzeko, gure herriaren izena ere hizkuntza propiotik datorrela argitzen du Akademiaren arauak.

Matizazio eta zehaztapen gehiago mereziko luke beste esaldi honek ere: *Euskal Herriko zenbait eskualdetan euskara baino bertakoagoa da eta/edo izan da gaztelania...* Euskararen atzerakada historikoa askok ikertu dute bere Hego, Ekialde eta Mendebaldean eta, ikerketa horiek guztiz argitu ez badute ere, bat datoz Euskal Herriaren gehiengo geografiko osoan mintzatu dela euskara, Araba eta Bizkaia, barne. Horrek ez du kentzen zenbait eskualdeetan erro-mantze desberdinek sortu zirenetik, hots, gaztelania, astur-leonera, nafar-aragoiera eta gaskoiera ez diren egon eta mintzatu. Baita, euskararen eremuetan, gaztelania "lingua franca" bezala ere.

Hitzaldi batean, oraintsu, Bilbon, pertsona ezagun batek esan omen du: *"el concepto de lengua propia tiene una connotación exclusivamente nacionalista..."*. Entzulegoa pozteko bota bazuen ere esaldi potolo hori, nabarmen uzten du duela hogeitamar urtean jazotakoaz duen ezjakintasuna, bere aldaketak sortzen didan tristuraz landa. Estatutuaren 6. artikulua lehen idazketako egilea izanik, esan behar dut horrela onartu zutela alderdi politiko guztiek: EAJ-PNV, EE, EPK-PCE, ESEI, PSE-PSOEK eta UCDe eta, gero, hala berretsi, euskal parlamentariak Gernikako Juntetxean. Beraz, euskal nazionalista zirenak eta ez zirenak. Eta berdin diote, baita ere, Katalunia, Galizia eta Balear Uharteetako autonomia estatutuek 3., 5. eta 3. artikuluek. Ez da, beraz, inondik nora euskal abertzaleek, beraientzat, propioki, *hizkuntza propioarena* asmatutako zerbait. Gainera, Galizian eta Balearretan ere ez zuten nazionalistak gehiengo politikorik.

Segidakoan, txostenarekin ados. Kontuz, beraz, gaiaren aurrekaririk eta legeria konparatua aztertu gabe, entzuten diren arinkeriez eta ezjakintasun supinoez.

IV

Aurkeztu zaigun txostenak, 55. orrialdean, honako hau dakar: “*Demokrazia hitzak esanahi bat baino gehiago izan badezake ere, hemen sistema demokratikoez ari gara, ez beste zerbaitetaz. Hau da, sistema demokratikoak dituzten herrialdeetan demokrazia ulertzen denaz: **botereen banaketan eta PARLAMENTUAREN** indarrean oinarritzen demokrazia. Azken batean, biztanle gehienek ordezkariek hartzen dituzten erabakietan funtsatzen den demokrazia*”. Lerrokada bikaina, zeharo bat nator. Hain zuzen, parlamentarismoan sinesten dugunok, faltan bota dugu hizkuntza politika hain gutxi eztabaidatzea eta erabakitzea, foru parlamentarioetan, gure kasuan, Eusko Legebiltzarrean eta, baita ere, hiru Batzar Nagusietan. Adi egon beharko ginateke, bestalde, euskal hiztunkide ditugun Foru Parlamentuan zer egozten den eta, noski, Gorte Orokorretan gaztelania beste hizkuntzez.

Sarri goraiatu da alderdi abertzaleetatik, euskaldunak, Batzar Nagusietan izan zuten tradizio parlamentarista, baina, hori berori ez da aplikatu gaurkoetan eta, bereziki, gaur egun legegintza eskumena duen Legebiltzarrean. Guk hautatutako herri hautetsien debate eta erabakietan gehiago sinetsi beharko genuke – hori bat, ezaupide eta aholkularitza hornituagoekin – ez eta hizkuntza politika “Agitprop” erako bilera, eztabaida eta gatazka guneetan sartuz. Okerrago oraindik, terrorismoaz, nazio unitarismoaz edo separatismoaz edo antzerako gatazkekin, frankotan apropos, nahasten den hizkuntza politika.

1981-82an, 10/1982 Oinarrizko Euskararen Legea prestatu, eztabaidatu eta onartzeko kapaz izan baginen, adostasun handiz, gainera, domaia izan da oinarrizko lege horren garapena zergatik ez den egin, geroztik, alor desberdinetan. Hortaz, hara 2006ko azaroaren 24ean, Euskararen Legearen 24 urte bete zituen egunean, Euskaltzaindiaren egoitzan “Europar Batasuneko hizkuntza aniztasuna eta euskararen hizkuntza politikak”, Akademiaren Sustapen Batzordeak antolaturiko X. Jagon Jardunaldietan esan nituen pa-

sarte zenbait: “...24 urte geroago, Oinarrizko Lege horren garape-na jorratzea nahiko nuke, ez lege berri batez, ez baita gaurko gaia. Aukerak, ene ustez, oso modu desberdinez aprobetxatu dira. Hara hor eta eztabaida agortzeko asmorik gabe, hausnarketa edota iradokizun zenbait. Irakaskuntza izan da, dudarik gabe, oparoen garatu dena... “Deskuidatu” egin ditugu beste alor asko... Justizia administrazioan, zoritxarreko 1985ko “Ledesma Legeari esker”, aukera handirik ez bada ere... Tokiko administrazioan... Quebec-eko “Comission de toponymie” bezalako proiektua (prestatu arren ez zen ez erakunde artean adostu, ez indarrean jarri)... Merkataritza, nekazaritza, industria eremuetan hainbeste erabaki hartu dira, baina euskararekiko lege propiorik, kapitulu berezirik, gutxienez, ez dut ezagutzen... Estatutua-ren 6.4. lerroakadak historia triste bat du... Dena dela, ikus: EUSKERA, LI, 2006, 2. 1009-1013 orr.

Eta une honetan, bertan, irakaskuntza ereduen aldaketa Jaur-larizatit planteatzen denean, gune parlamentarioetatik debatea eraman beharrean, Becerro de Bengoa kaleko Etxera eramanez, Lakua-tik okerreko mezu hartzaileengana igortzen denean, ene uste apalez.

Erratzen dute, baita ere, gure hedabide publikoek, 1982 urte berean, “Euskal Irrati Telebista herri erakundea sortzeko” martxoaren 20ko 5/1982 Legearen bidez ofizialki legeztatuak izan zirela ahazten baitute, hots, botere parlamentariotik. Hizkuntza politikari eta, bereziki, euskararen normalizazioari hain mesede bikainak eman dizkion legegintzaz ez da ez debaterik izan, oraintsu Radio Euskadiren 25. urteurren ospakizunen kariatara. Hedabide horien mahainguru eta tertulietan ere. Kritika-autokritika hau egin dut EITBko Administrazio Kontseiluko pare bat bilkuretan, kontseilukide bezala

V

Txostenari aurkitzen diodan hutsuneetariko bat beste hau da, hots, Euskal Autonomia Erkidegoaren erakundetze konplexuari ez erre-paratzea eta, horretan, hizkuntza politikak izan dezaken eragin

estrategikoa oso garrantzitsua baita. Bi kapitulutan banatuko dut, lehenean, foru erakundeekikoa eta, bigarreanean, administrazio lokaletan.

Bidenabar, arestian, Batzar Nagusiekiko aipamena egin dut, oroit araziz nolatan harro aipatzen den gure Batzar Nagusien tradizio parlamentarioa, 1876 urtean Madrilgo Cánovas del Castilloren gobernu kontserbadoreak ezabatu arte. Foru erakundeetan “ejekutiboarena” goraiatzen da, Diputazioena, alegia, baina ez erakunde parlamentarioarena. Gutxi ezagutzen da Lemonauria bizkaitar liberal fueristak idatzitakoa, hots, Bizkaian, bigarren mailako erakundea zela Diputazioa, lehena eta garrantzitsuena, ordea, Batzar Nagusiak. XIX. mende horretan Batzar Nagusiei parlamentarismo moderno bat emateko ahaleginetan aritu ziren liberal fueristak parlamentu erara batzordeak sortuz, bat, gaurko gaiari lotuta “COMISION DE LENGUA BASCONGADA” deitutakoa, zeinetan, garai hartarako, iniziatiba interesgarriak agertu baitziren.

1979an, ehun eta hiru urte ezabatuta izanda gero, berriz Batzar Nagusiak sortu zirenean, lehen urtean zenbait adierazpen eta erabaki hartu genituen Batzar Nagusietan, batez ere Diputazioen elebitasunaren mesedetan, baina, Eusko Legebiltzarra sortu geroztik eta, honek bakarrik legegintza maila agintea izanik, foru erakundeetan ez dut uste hizkuntza normalizazioaz lan ugarririk egin denik.

Egin zitekeen, beti ere, Parlamentuko legeen garapenez, foru administrazioen eskumen garrantzitsuetan hizkuntzarekiko foru arauak eztabaidatuz eta onartuz.

Foru Ogasunek, hizkuntza politika baten mesedetan, zer zerga politika: beherapen eta beste, ikertu eta foru arau proposatu dituzte Batzar Nagusietan, beste zerbitzu eta alor askotan egin bezala? Foru Diputazioek, gizarte zerbitzu eta, beraien, edota udalekin batera kudeatzen dituzten arlo askotarako azken hogeitabost urteotan, Batzar Nagusietara aurkeztu dituzten hainbeste foru arau proiektuetan zenbatetan agertzen da artikulatuetan hizkuntza politika azterrenik? Ezagutzen dugunetik, oso gutxi.

Nola hizkuntza politika, batez ere, edota ia erabat, irakaskuntza alorreko zeregin bat zela, uste izan den eta, LThen arabera, horretan Eusko Jaurlaritzak duen eskuduntza, foru erakundeek, tamalez, “joko zelaia” abandonatu egin dute. Hori bai, Foru Diputazioek, Batzar Nagusietara aurrekontuek aurkeztu dituztenean, “sustapen” eskumen aitzakiaz edota udalei laguntze aldera, Diputazioetatik administratu diren kopuru izugarrietan, hizkuntza politika propioari buruzko eztabaida gune edo foru araugintza gune gutxitan izan dela esango nuke. Baditut frogak.

VI

Ados nago Hizkuntza Politikaren Oinarriak finkatzeko “indirizko politikoa” Eusko Jaurlaritzari dagokiola eta eztabaida eta akordio parlamentarioak Eusko Legebiltzarrean gauzatu behar direla. Beti esan dut hori. Besterik da, aurreko kapituluan esan bezala, beste administrazio mailetara ez jaistea. Zeren eta politika hirietan, herrietan hasi da mendez mendetan, “polis” hitzak adierazten duen legez.

Gainera, gure kasuan, beste fenomeno bar gertatu zen Euskararen Oinarrizko Legeaz duela hogeitasei urte, hau da: EAJ eta EE alderdi politikoen talde parlamentarioek % 100 negoziatu eta adostu zutela Lege hori, PSEk gehiengo handiz eta UCDek ere artikulatu askotan. AP alderdiak Jaurlaritzak aurkeztutako lege proiektuari kontrako zuzenketa orokorra jarri zion eta HBk Eusko Legebiltzarrari boikota egiten zion, dakigunaren konsigna obedituz. Bi indar politiko kontra, beraz.

Baina oroitu beharko genuke hor ez zela arazoa gelditu, zeren eta lege indar minimorik izango ez zuen alternatiba estrategiko gisa, udaletxeetara eraman bai zuen azken aipaturiko indar politiko horrek hizkuntza politika eta, oraindik ere, neurri apalago batean, hala dihardu, zeren eta zer dira ba “euskarari buruzko udal ordenantza” gehienak?. Zuzenbide Fakultate bateko lehen ikasturteko ikasle batek errefusatuko lituzkeenak, ez bakarrik Estatu abokatu batek.

Euskara, edozein euskaltzale zentzudun batentzat, ez dago “Agitprop” eraso politikoen artean eroso eta indartsu erabiltzeko moduan. Udaletxe baten indarren korrelazioak euskal abertzaleen alde dagoelako eta, sektore erradikalenari gainontzekoek segidismo akonplejatua eginaz hizkuntza politika dopatu bat egiten bada eta, albokoan, indarren korrelazioa alderdi estatalisten alde suertatzen delako, 1982/10 Legea ere ez bada betetzen, horietako alderdiren batek hizkuntza politikari eutanasia aplikatzeko gogoaz badago, ez da Lakuako “indirizko politika” udaletxera iristen.

Jakinen gainean, Gipuzkoa-Bizkaietako udalerrri batzuetan, legez kontrako ordenantzez baliatuz edo gabe, ene ustez, hizkuntza politika gogorregia aplikatu zaio eta, alderantziz, Arabako eskualde=kuadrila zenbaitetan eta Bizkaiko Mendebaldeko udalerrri batzuetan, ahulegia, euskararen atzerakada historikorako. Hizkuntza Politika Sailburuordetzari eskari konkretu bat egiten diot, hots, egin dezala estudio zehatz bat, udalik udal nolako hizkuntza politika aplikatu den, ez horrenbeste ohiko inkesta soziolinguistiko horietakoa, hori besterik baita.

80 hamarkadaren amaiera aldean, orduko Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak gidatuta eta EUDELen laguntzaz zenbait ikerketa eta txosten prestatu genituen. Helburua hau zen: Euskadiko Udal Legea gauzatuko zelakoan, EAJ eta PSE zeuden Gobernuan. Helburua, 10/1982 Legearen garapenez, hizkuntza politikari kapitulu oso bat eskaintzea Udal Legearen barnean. Ordu mordo bat sartu, hizkuntza propiodun beste nazionalitateetako legeri konparatua aztertu, Euskal Autonomia Erkidegoan zonaldeka plangintza saioak begiz jo, bigarren Lege horren garapenez, beti ere, udal ordenantza tipo desberdinen beharizana azpimarratu baina, azkenean, dena bertan behera gelditzeko. Orain Euskadiko Udal Legea Jaurlari-tzak onartzeko unean dagoenean eta, laster, omen, Legebiltzarre-ra aurkeztu, lege proiektu horrek izango du administrazio lokaletan hizkuntza politika arautzeko kapitulurik, gero, udal bakoitzak ordenantzen bidez eta zonaldearen egoera soziolinguistikoa eta udala-

ren izaera kontutan izanda garatu ahal izateko? Poztuko nintzateke hala balitz.

VII

Estatu Administrazioak ere bete beharko zukeen 10/1982 Legea. Aitor daiteke Gobernu ordezkari batzuek saiatu direla neurri bategan, ildo horretako hizkuntza politika bat betetzen, beste batzuk bat ere ez, gehiago ahalegindu dira Estatu abokatuen bidez, inoren administrazioetan, foru eta udal administrazioen erabakiak inpugnatzen, bere eginkizunak betetzen baino. Estatuaren administrazio periferikoa ere ez ahal dago Zuzenbide Estatu baten, alegia, legea betetzeko? Gaztelaniarekiko hizkuntza politika bai? Euskararekiko hizkuntza politika ez?

Badago, ordea, estatu administrazio bat Espainiako Konstituzioaren 3.2. eta 3.3. artikuluek diotena bete nahi ez duena, 3.1. artikulua soil soilik aplikatuz, bere tradizio jakobino eta gaztelaniaren hegemonia izpiritua XIX. mende erditik, Franco jeneralaren diktadura amaitu arte iraun duena eta, oraindik ere, Espainiako Erreinuaren nazionalitate eta hizkuntza aniztasuna onartu nahi ez duena, hain zuzen. Justizia Administrazioa da hori, botere horretan gelditzen baitira azken diktadura luzeko izpiritu atzerakoiak, frankotan nazionalismo gaztelau elebakarreko hizkuntza politika agerian uzten dutenak. Ez euskara, ez katalan eta ez galegoarekiko ere. Hortaz, Antonio Tovar Real Academia Españolako kide eta Euskaltzaindiko ohorezko euskaltzainak esan zuen behin *“un funcionario público (Galiziako hizkuntza normalizazio legeak epailei bertako hizkuntza jakitea Auzitegi Konstituzionalera eraman zutelako, gertatu zela uste dut) “el que no aprende gallego, es porque no quiere, no porque no puede y catalán, lo mismo, el euskera es más costoso, lo sé por experiencia propia, aunque también se puede”*. Epe luzamendu kontua, beraz, gure kasuan. Eta Tovar ez zen nazionalista. Baina zeharo lotsagarria da aurton, oraindik, Galizian epaiketa baten ger-

tatu dena, hots, hango Auzitegi batean kazetari batek galegoz hitz egindakoa epaileak onartu nahi ez izatea, jadanik hogeitalau urte dituen hango 3/1983 Legearen 7, artikuluaen kontra!

Estatuko Justizia Administrazioa hizkuntza politikaz hain ezkorra izateak ez du ukatzen Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak, dituen eskumen urrietan ere bere eginkizunak ondo bete dituenik. Zentralismoari errua beti botata, norberaren ahuleziak ez dira estaltzen. Euskaren Aholku Batzordean nengoelarik, bi aldiz eskatu nuen estudio soziolinguistiko konkretu bat egitea alderdi judizialka, alegia, ez udalerrrika, ez eta INE-EUSTATEN eskualdeka, ez bai ziren baliagarri, jakiteko, adibidez, Gernika eta Azpeitiko alderdi judizialeetan nola aplika zitekeen justizia administrazioarekiko hizkuntza politika bat, kontuan izanik eremurik euskaldunenak direla. Niretzat eta, barka, aiarar edo enkarterritarrak, ez zuten lehentasunik Amurrio eta Balmasedakoak. Nik dakidala, behintzat, egin gabe jarraitzen du.

Tartean, adibide bat jartzearen, hemengo Justizia Sailak konbokaturiko peritu judizialen deialdi batean hizkuntza bakarrean, gaztelaniaz, noski, agertzen ziren frogak guztiak, duela bost-sei urte. Adierazi nionean Durangoko Justizia Jauregian istripu edo beste ez-behar baten peritu irizpena beharko banu euskaraz egiterik lortuko nuen, Saileko kargudun batekin jarri ninduten eta erantzuna izan zen peritu horiek hiriburuetarako bakarrik zirela. Ondorioz, Durangalde-Arratiako hiritar batek, Durangon edota Tolosalde-Goierriko batek, Tolosan ezingo zuketen peritu euskaldun trebatu batez balia. Epailen izendapena, mende bat baino gehiagoko zentralismoz Madrili dagokio, zoritxarrez, baina perituak eta beste funtzionari asko ez. Hor, 10/1982 Legearen 9. artikulua zehazki garatua izan beharko zukeen. Kasu honetan eta, bestetan, eskumenean ditugun giza eta bestelako baliabideetan hizkuntza politika posibilista bat egiten ez dugu asmatu, bai, ordea, Madrili errua botata eta, badiot, administrazio honetan asko ditu, erronkaka igarotzen dugu denbora.

Justizia Ministerioaren eta Sailaren artean, planteatu ote da, kooperazio eran, hiritarren eskubideen mesedetan, itzultzaile eta in-

terpretari zerbitzuak, esparru honetatik hizkuntza politika etengabeko gatazketatik aldentzeko? Hiru hiriburuez gain, ez bai daude alderdi judizial buru asko: Amurrio, Azpeitia, Balmaseda, Barakaldo, Bergara, Durango, Eibar, Gernika, Getxo, Irun eta Tolosa. Hamalau zerbitzugune, beraz, batzuk auzi kopuruagatik, edota auzitegi eremuaren egoera soziolinguistikoagatik, batzuk hornituago, beste batzuk baino, hizkuntza politika baten ikuspegitik onuragarriak suertatuko ziren.

VIII

Hizkuntza politikaz zer hausnarketa egin da enpresa eta zerbitzu publikoetan? nola planifikatu da?. Enpresa publiko estrategiko batzuetan badakigu hausnarketa bat baino gehiago egin dela, adibidez, EITBn, geroago aipatuko duguna.

Onuragarria litzateke enpresa publiko guztiak zenbatu eta, banan banan, zer hizkuntza politika diseinatu, planifikatu eta aplikatu duten azken hogeitabost urteotan. Denen batuketa eginda, izugarrizko garrantzia eta pisua duela konturatuko ginateke, gizarteari, egunero eta nonahi onura egingo liokeena. Kontuan izanik, bestalde, giro eta urte hobegoak izan ditugula, gaur egun, ETAREN terrorismoa, alde batetik, eta horren aitzakiaz edo, gabe, Espainiako Erreinuaren, geroago eta lotsa gutxiagoko nazionalismo gaztelaua indartzen hasita dagoela, prekonstituzionala frankotan, ultra ez deanean. Hori gutxi balitz, bertakoen, beste alde bateko jarrera ultrak ere sobera ditugula. Batzuek eta besteek, elebitasun eta euskarearen mesedetan zeharo zailtzen dute Euskal Herrian hizkuntza politika demokratiko bat, baita ere, Estatuaren hizkuntza aniztasuna defendatzen dugunontzat.

Ba da, horregatio, Jaurlaritzaren erakunde publiko oso garrantzitsu bat, OSAKIDETZA, hain zuzen, zeinez, hedabide zentralistek edo neozentralistek, gaztelau nazionalistek ez esatearren, neurritz kanpoko kanpainak egiten diharduten. Gaixo euskaldunak, beraien hizkuntza propio eta ofizialean medikuak edota erizainak

arta izateko eskubidea demagogikoki ezkututzen da. Besterik da, zonaldearen egoera soziolinguistikoaren arabera planifikatu behar dela osasun arloan hiritarren zerbitzu publikorako ari diren profesionalen hizkuntza ofizial bien jabetasuna, baita ere espezialitateen arabera ere. Ez dadila gertatu, 80. hamarkadan Gurutzetako ospitalean ia hiru urte zituen ume bati gertatutakoa, solairu osoan euskaraz zekien ez medikurik, ez erizainik izan ez, isolaturik “*!o! !o!*” eskatzen negarrez eta frantsesez zekien erizain batek ura eraman! Non zauden haur koitaduaren eskubideak?, eta non zerbitzari publikoen betebeharrak? Mereziko luke aipaturiko kanpaina nazionalistei, moduz, baina zorrotz aurre egitea.

Enpresa publikoetan hizkuntza politika zabalagoa izan beharko lukeela uste dut, bereziki Jaurlaritza eta foru administrazioen menpekoetan, ahantzi gabe estatuarenak, Estatu ere baikara. Neurri txikiagokoak dira, oro har, udaletako enpresa publikoak.

Enpresa pribatuen eremuko hizkuntza politika beste kontu bat da, hor Administrazioa nekezago sar daitekeelako. Besterik da, sustapen politika bat egitea, zenbait kasutan ondo egin dena eta, beste batzuetan, huts. Esango nuke, bestalde, enpresa pribatu batzuk, ez asko, eredugarri izan direla eta, direla, hizkuntza politika normalizatu bat diseinatuz eta aurrera eramanaz.

IX

Lluís Ninyolles soziolinguista valentziarrari aspaldi entzun nion Sitgesen –“transizio” garaian izandako Kongresu baten izan zen, hain zuzen – hizkuntza bat egoera normalizatu baten egoteko hezkuntza maila guztietan irakatsi behar zela, administrazio desberdinetan hiritar-administratuak zerbitzatu behar zirela eta giza hedabide orok, publiko nahiz pribatuk ere bazutela hizkuntza minorizatu bat normalizatzeko, neurri batera edo bestera, erabiltzeko betebeharrak soziala. Oraindik katalana, galegoa eta euskara ez ziren ofizialak, ez geneukan autogobernurik, baina bere mezua argigarria iruditu zitzaidan.

Hedabide publikoetako hizkuntza politika helburu estratejiko mesedegarriz hornitua izan da. Lekuko, 1982/5 Legea, martxoaren 20ko "Euskal Irrati Telebista" Herri Erakundea sortu zuena, zeinen 3. h) artikulua honako hau agintzen duen: *"Kulturaren eta euskararen sustapena, euskara erabiltzearen xedeetarako, oinarrizko egitarau sortarauak ezarriz, orotariko eskaintza mailan Erkidego Autonomodunean euskaraz irrati-telebistazko emankizunen oreka beharra kontutan izanik"*. Ildo honetatik ofizialdu eta garatu dira bai Euskal Telebista eta baita Euskadi Irratia izugarritzko onuragarritasuna ekarriko hizkuntza politikari eta elebitasunari. Elebazarreko Estatu zentralista historikoan, batez ere diktadura frankista luzea ezagutu genuenok amestu ere ez genuen egiten holako aukerarik izango genuenik. Elebazarreko hedabideetatik elebidun hedabideetara igaro gara autogobernuari esker, 1982 urteko 5. eta 10. lege bion segurantzaz, ez da gutxi. Maximalista zenbaitek bakarrik uka dezakete hori.

EITBn, oraintsu, bere Administrazio Kontseilu barruan, proioki batzorde berezi baten bidez eta adostasun ia erabatekoaz, Kontseiluak zeinetan, EITB taldearen euskarrietan euskara eta euskal kulturaren tratamendua onartu duen. Iritsi da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzara? EITBko Zuzendaritzak berak eman dio honen berri euskal gizarteari? Ba, egin ez bada, oker gabiltza, zeren eta hizkuntza politika hedabideetan gatazka denean bakarrik barraiatzen da, gehienbat irakaskuntza desberdinen alorretan eta herri zerbitzaritza, hots, funtzionarioekiko elebazar trintxera zentralistetan edota euskalduntze dopatzaileetan. Eta, ez naiz aspertuko esaten, hizkuntza politika zabalagoa da esparru horiek baino, enpresa publikoetan hausnartuago izan beharko luke, bereziki Jaurlaritza eta foru administrazioen menpetakoetan, ahantzi gabe estatukoak, Estatu ere baikara, Orohar, neurri txikiagokoak dira ere udaletako enpresa publikoak.

Besterik da, hedabide pribatuez Euskal Administrazio Publikotik zenbait urtetan eraman den hizkuntza politika, edota he-

dabide pribatuen enpresetatik eraman dena. Estrategia lerratuegiak eraman direla maizegi uste dut, alde batetik eta bestetik, inoiz sektarioak ere, horrek desenkontru bat baino gehiago sortaraziz euskararen kaltetan. Ondo letorke autokritika zintzo bat hizkuntza politika euskaltzale baten mesedetan. Faltan bota dut, inoiz, 1982/10 Legeko III Kapituluaren garapena, batez ere 25 artikulua, zeinak amaieran hau agintzen baitu: *“Horretarako, aurreko alor horietaz (egunkari eta aldizkarietan, besteak beste) ihardun eta horiek arau-petu ditzaten legeen horretaz kapitulu garatuko da”*. Garapen horrek bidera zezakeen gizarte inizatibazko euskal prentsaren hizkuntza politika autonomo bat, ziurtapen juridiko-ekonomiko adostu batez baliaturik.

X

“Zonalde” kontua ere Oinarrizko Txostenari egin nahi dizkiodan nire erakarpenetan aipatzea zilegizkoa deritzat. Ez noski, inondik nora, Legean bertan Nafarroan bezala hizkuntza bat ez ofizialtzeko, baizik eta planifikazio zentzuan. Zeren eta erabili den hizkuntza politikan gutxiegi nabaritu dudalako, ez bakarrik administrazio autonomikoan, baita ere foru eta udal administrazioetan ere. Oinarrizko Legeak, inplizitoki, aipatzen du 2. Xedapen gehigarrian plangintza soziolinguistikoaren egin beharra egosten dio Jaurlaritzari, *“hori, al-dian aldian, Eusko Legebiltzarrari jakin arazi ondoren berrikuskatuz*. Zonalde eremua aipatu genuen hiru talde parlamentarioek eztabaida eta negoziaketetan: EAJ, PSE eta EEek, ez ordea “lurralde historikoa”, ez eta “udalerrria”, uste bai genuen plangintza zonaldeka egitea zela hoberena.

Aldi bateko 2. xedapena espreski aipatzen da zonalde baten egoera soziolinguistikoa bereziki begiratzeko Jaurlaritzari eskatuz. Duela hamabost bat urte, irakaskuntzan Euskararen Aholku Batzordean kide batek “A eredia” desagertu behar zela adierazi zuenean, kontra agertu nintzen – uste dut bakarra – esanez Batzordekide eta

politiko euskaltzale bezala ez naukala horrenbeste interes Añana eta Enkarterri eskualdeak presaka euskalduntzeko, gutxiago hango hiritargoa irabazi gabe. Konkretuki eskualde horietako udalerrri bi aipatu nituen Gaubea eta Artzentales haranak, hain zuzen. Nire interesa eta ardura Gipuzkoako eskualde guztietan; Bizkaikoetan, salbu Enkarterri historikoan, Ezkerraldea barne eta Arabako Iparraldean, zonalde eskualdeetan hizkuntza kontsolidatzea zen D ereduarekin. Ahantzi gabe, hiriburu eta beste hiri nagusietan, hiru erduei aukera ematea, ikastetxez ikastetxe, edota barrutiz barruti, ongi planifikatuta, noski. Enkarterrian eta Arabako koadrila bakoitzean, egoera soziolinguistikokoaren hiritarren giroari eta gogoari, euskararen atzerakadaren noiztik norakoari eta gainontzeko zirkunstantziei so eginda.

Irakaskuntzari buruz esan nuen ildotik, Euskadiko Udal Legea gauzatu bazen eta bertan hizkuntza normalizazioaren kapitulu aipatzen nuen, arlo honetan, prezeski eskualdeka sailkatzea, garatzea eta planifikatzea. Kataluniako “Centres Comarcals de Normalització”, hasieran jarri ziren bezalaxe, hemen ere, amankomunean, Mankomunitateen bidez, hizkuntza zerbitzu teknikoak jartzea izango zen biderik aproposena. Oinarrizko txosten bati ez badagokio ere, gaur egunean ere, hizkuntza politika bat udal administrazioetan modu desbideratze ideologizatuetan erortzea nahi ez bada, hiri nagusiez kanpo – hauek bakarrik izan dezakete ahalmena bakarka hornitzeko – amankomunean soilik jarri daiteke, beti ere zonaldeka eta eskualdearen tipologia soziolinguistikoa kontuan izanik. Ongizate gizarte zerbitzuak horrela ez dira bada egiten? foru administrazioen diru laguntza oparoaz gainera, herri txikiak ez direlako kapaz bakoitzak bere kontutik egiteko? Hizkuntza normalizazio zerbitzuek ere ez dira beste mota bateko gizarte zerbitzuak? Prestakuntza profesionala duten zerbitzu teknikoekin, euskal filologia lizentziatuekin, adibidez, hornituak bakarrik berma dezakete profil arautu jakin batzuekin, udaletxeetatik hizkuntza politika gatazka ideologikoetatik ateratzea.

Azkenik, tokian tokiko hizkuntza politika udaletxeetan lar egiten da, arestian esan bezala eta, hemen ere, gehiegikeriak edo gutxiegiak ez egiteko. Zonaldeen tipologia eta sailkapena onuragarria litzateke. Lea-Artibai eta Urola-Kosta baldin badira eskualde euskaldunenak ezin dira, ez udalak, ez mankomunitateak, Arabako Errioxa edo Enkarterri eskualdeekin nahasi, historikoki erdalduak baitira, nahiz eta elebitasuna horietan ere desiragarri izan, baina helburu eta erritmo zeharo desberdinekin. Durangaldea eta Deba-goiena, oso antzerakoak dira, euskaldungoaren, euskalkiaren eta sozioekonomiaren aldetik ere. Hiriburuak eta zenbait hiri nagusik tratamendu propio beharko lukete, antzerako hizkuntza politika jar-tzeko.

XI

Hamaikatxo gauza nituzke esateko baina, hamaikagarren honetan berkapitulazio batekin amaituko dut, beraz.

Euskal Herrian hizkuntza politika, beste politika guztiak bezala, erresistentzia eta “rupturismoaren” estrategiapean izan da, zoritxarrez. Eta, trantsizio garaitik geroztik, ezin izan dugu atera, ez eta erreforma politikako ildo politikoa hartu genuenok ere. Autokritika sakon bat egin beharko genuke. Eta zer esan ETArek borroka armatuaren strategiapetik, ez ideologiapetik oraindik libratu ez direnez? Dugun autogobernua arbuiatzen hasi ziren, antiparlamentarismo antzu batez hizkuntzarekiko legegintzari boikota egiten, baina, gero, pixkanaka pixkanaka onura guztiak ateratzen. Ez deritzat gaizki ofizialtasunari onurak aprobetxatzea, beste batzuk ere hori egin baitugu, baina posibilismo politiko osoz joko zelaian bustita, baina, gutxienez, espero zitekeen aitormen autokritiko bat. Euskaltzaletasuna dutela, ez dut duda egiten, hori besterik da.

Ba dago hirugarren sektore bat, hots, trantsizioan “trantsitatu” ez zutenak, alegia, frankismo ideologia aldi baterako ezkutatu zutenak eta, orain berriz, mozorroa kendurik, tertulietan eta prentsa

zutabeetan elebitasun hizkuntza politikarekiko aurka azaltzen dena. Oraindik talde desberdinetan ari direnak, baina hedabide eta zirkulu garrantzitsuetan aukera ugari dituztenak, batzuetan kriptikoki, beste batzuetan nabarmenago baina beti ere, gaztelaniaz beste hiru hizkuntzez kritiko. 1930 hamarkadan bezala, zenbaitzuk bakarrik falta dute Falange Española aldra bateratu bat berpiztea. Hauen zat euskara Antzinateko arkeologia erlikia baliotsu gisa bitrina baten gordeko lukete baina, horretarako, eutanasia aplikatu behar. Konstituzioaren 3.2. eta 3.3. artikuluen aldaketa ere aipatu dute horietako batzuk, ondorioz, legegintza mailakatu eta garatu batez, gerta dadin heriotza gozo gozoa.

Baina, ondo dakigun bezala, heriotza ez da eutanasiak bakarrik gertatzen, baizik eta “doping”az ere. Kirol munduan batez ere emaitzak azkartzeko, recordak lortzeko, txapelketak irabazteko, gorputza dopatzea gauza ezaguna da. Hala hil dira kirolari asko, gure Herrian ere ez gutxi. Euskalduntze politika arriskutsu eta ausartegi lar eraman da, egoera soziolinguistikoa Euskal Herri guztian Auletiko edo Ataungo udalerrietakoa bailitzan, zerbitzu publikoetan, ez bakarrik hezkuntzan, ekintza dopatzaile ugari aplikatuz. Euskara oraindik ahul dago eskualde askotan, gaixorik beste batzuetan, indartsu gutxitan hizkuntza politikan dopagerik apurrena erabiltzeko. Hizkuntza politika ezer izatekotan epe ertain eta urrunerako sendabidekoa izan beharko luke, erakundeetan politika posibilista eta demokratikoa adostuaz, zonaldez zonalde planifikatuaz, gizarte elkarte bidez ekimen orekatuz hornituaz. Sekulan santan ezin da dopatu, hau, heriotzara kondenatzea bai litzateke.

Labur bilduz eta amaitzeko Euskal Herrian hizkuntza politikak ez du behar ez eutanasiarik, ez eta “doping”ik.

XXI. MENDE HASIERARAKO HIZKUNTZA POLITIKAREN OINARRIAK

Koldo Martínez Urionabarrenetxea

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEKO KIDE BATEN GOGOETAK

Hizkuntzalaria ez den, politikaria ere ez *sensu stricto*, nahiz eta lehengo hainbat euskaldun fededun euskaldun politikadun bihurtu garen azken urteotan, Gipuzkoan jaio eta Nafarroan bizi, eta guztiz nafarra sentitzen den Euskararen Aholku Batzordeko kide arrunt baten gogoetak dira hauek. Ez dute, beraz, beste mailako sendotasun edo sakontasunik. Har itzazue, bada, bere neurri estu eta txikian.

SARRERA

“Euskara, XXI. mendeko hizkuntza bizia, egunerokoa eta noranahikoa” lemapean aurkeztutako oinarrizko txostena, itxaropenez eta ilusioz irakurri dut. Eta egia esan, ilusioz beterik eta erabat itxaropentsu geratu naiz irakurketaren ondoren.

Eta ez euskarari dagokionagatik soilik, demokraziari dagokionagatik ere. Txostenaren sarreran argi eta garbi aitortzen da *gizarte demokratiko eta aurreratuen ezaugarrietariko bat politika publikoak oro eztabaidagai izatearen garrantzia*. Eta bide horretatik zuzentzen da txostena bere osotasunean, geroago *kontsentsu sozial eta politikoa –hori da euskarak ororen gainetik behar duen arnasbide edo makulurik behinena–* baieztatzen duelarik.

Hasteko, demokraziaren baloreak onartu eta bultzatzen dituen aitorten sakona. Euskararen aldeko apustu soila ez, askatasunaren eta kontsentsuaren aldeko apustua ere, bada. Eskertzekoa dena, euskara geure historia laburrean denok –alde batekoak eta beste-koak– maneiatu eta manipulatu egin dugulako geure epe motzeko interesen alde, ez beti joko demokratikoari loturik. Eta euskararen interesen kontra suertatu direnak. Edo hobe, euskaldunon interesen kontra, zeren euskarak berak interesik duenik ez dut uste nik.

Baina ez hori bakarrik. Argitasun osoz –inork besterik pentsa ez dezan– aipatzen da, era berean, jakin badakigula, eta ez dela ahantzi behar *gure gizartean euskal hiztuna dela gaur oraindik berak aukeraturiko hizkuntzan han eta hemen jarduteko eragozpenak dituena, eta ezberdintasun hori gainditzea dugula helburu, hizkuntza politika egoki eta orekatuaren bidez, euskararen erabilera indartuz eta bizikidetzat sendotuz.*

Aurrerago, *euskararen erabileraren mesedean indarberritu beharreko zatitzat jotzen dugun adostasunak politika arloan ez ezik gizartearen luze-zabalean ere arnasa hartzen duen adostasun politiko-soziala izan behar duela aitortzen da zuzen-zuzenean. Eta zenbat eta adostasun politiko-sozial handiagoa, orduan eta ziurrago gordeko ditugula osasunbidean euskara eta hizkuntzen arteko bizikidetzat pentsatzen eta desiratzen delako.*

Txostenaren sarrerak, txostenaren egileek beraz, hasiera hasieratik, sakontasun osoz batu egiten dute euskara, demokrazia eta kontsentsua. Bata bestaren lagungarri bailiran. Izan badirelako.

EUSKARA INDARBERRITZEKO HIZKUNTZA POLITIKAREN PARADOXAK. GAUR EGUNEKO EGOERAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Euskararen gizarte-bilakaeraz

Bat nator edozein hizkuntzaren–biziberritze prozesuaren arrakastan bertatzeko nahitaez gertatu behar diren faktoreak ondokoak

direla: *lege-marko egokia, hizkuntza normalkuntza ahalbidetzeko behar bestekoa izango dena; hizkuntza politika eraginkorra eta baliabideak; herritarren atxikimendua eta hizkuntzaren aldeko jarrera eta konpromisoa. Eta baita ere hizkuntza-normalkuntza prozesuak prozesu sozial luze eta konplexuak direla eta herritar bakoitzaren borondate, askatasun, gaitasun eta ohituren mendeko direla aipatzen denean.*

Abiapuntu legala

Txostenak hizkuntza politika orok bi alde dituela onartzen du: *dimentsio instituzionala eta gizarte-dimentsioa. Gure artean, ordea, ohikoa da hizkuntza politikaz jarduten dugunean dimentsio instituzional hutsetik jardutea, hizkuntza politikaren erritmoak eta egokitasuna soilik lege-arauek eta herri-aginteen jardueraren esku baleude bezala.*

Baieztape horri indar emateko galdera egiten dute txostengileek: *ba al da gaurko euskal gizartean herritar gehienek euskararen alde eman nahiko luketen pausorik eta Euskararen Legeak edo gainerako lege-arauek tratatzen duelako bertan behera erortzen denik?* Bistan da, argi dago, Euskal Herriko Autonomi Erkidegoaz ari dira. Nafarroan ez baita gauza bera gertatzen. Nafarroan bada “Ley del Vasce” deritzona eta hainbat lege-arau, euskararen normalizaziorako balio beharko luketenak baina oraingoz, eta batez ere, azken urteotan, betebeharrak hori ahalbidetu ez dituztenak. Areago esango nuke, neurri handi batean helburu hori galarazi egin dutenak.

Hau esatean ez naiz “Ley del Vasce” delakoa goitik behera aldatu behar dela esaten ari, uste baitut, eta horrela frogatu zen Nafarroan euskararekiko ardura beste batzuen eskutan egon zenean, aurrerapausoak emateko bidea errazten ahal duela, baizik eta Nafarroako hainbat eremutan legeria erabilia izan dela eta gaur egun ere erabilia dela herritar askok *euskararen alde eman nahiko luketen pausoak* tratatzeko. Edo ez behintzat laguntzeko edo bul-

tzatzeko. Bada, beraz, bi komunitate politikoon legeriaren eta legeriaren erabileraren artean alde handirik!

Hau aitortu ondoren, eta aipaturiko ideia azpimarratzeko, txostenaren ondoko baieztapenarekin guztiz bat natorrela argitu nahi dut: *errealitatea baita hizkuntza politikaren abiadurari eta nondik norakoari mugak ezartzen dizkiona. Eta komeni zaigu errealitate hori kontuan hartzea, baldin eta hizkuntza politika arrakastatsua eta euskararen erabilera egiazki indartzeko eta areagotzeko balio duena egingo badugu.* Badirelako, ustez euskararen alde daudenen artean, errealitatea kontuan hartzen ez dutenak, Nafarroa Goierria balitz bezala imajinatzen dutenak eta fantasia horretan oinarriturik euskararen batabateko ofizialtasuna ezarri nahi dutenak Nafarroa osoan. Kolpe batez, Nafarroako biztanleriaren errealitatea kontutan hartu gabe.

Argi dago, bestalde, bai, Nafarroako legeriak ez dituela eskubide berdinak onartzen nafar ororentzat, Nafarroa eremu ezberdinetan zatitzen baitu eta, horrela, eremu euskaldunean bizi direnek eremu mistoan edo ez-euskaldunean bizi garenok baino eskubide gehiago daukate euskararen erabilerarako, euskaraz ikasteko eta bizitzeko. Hau ez dago ukatzerik!

Beraz, geure legeriak ere hizkuntza-eskubideak aitortzen die herritarrei, baina bizi diren eremuaren arabera. Eta herri-erakundeei ezartzen dizkien betebeharrak herritarrei aitorturiko hizkuntza-eskubideak eguneroko bizitzan egiazki errespetatuak eta baliatuak izan daitezen eragiten du, baina, esan bezala, eskubide gehienak murriztak dira eta eremu euskaldunera mugatuak ia soil soilik.

Nafarroako legeria ere ez da neutrala, ez da *laissez-faire* printzipioaren jarraitzaile. Eta nahiz eta aitortzen duen euskararen erabilera normalizatzea eta babestea dituela helburu, errealitatean, legeriaren garapena ikusirik, huts egiteko beldurrik gabe esan daiteke batez ere euskaraz ez dakitenen eskubideak bermatzeko sortua dela. Eta ez, inolaz ere, alderantziz. Ezta ere, alajaina, batzuen eta besteen eskubideen artean oreka demokratikoa lortzeko. Egungo Hezkuntza Kontseilariak elebitasuna aipatzen duenean, elebita-

sunaren defentsa aipatzen duenean, gaztelerari eta ingelesari buruz ari dela ikustea besterik ez dago! Eta ez Nafarroako bi hizkuntzen jabetzaz edo erabileraz.

Kontuan hartzekoa da ere, hainbat aldiz, Foru Parlamentuan izan direla “Ley del Vasculence” delakoa aldatzeko alderdi politikoei eman dituzten pausoak. Guzti guztiak arrakastarik gabe, euskararen alde dagoen nafar gizartearen gehiengo edo ia gehiengoaren kalterako eta alderdien lotsarako! Horrexegatik jotzen dut garrantzitsuztat txostenak dioena: *Hizkuntza eskubideen eragingarritasunak progresiboak izan behar duela. Progresiboak, ordea, ez du esan nahi mugagabe geroragarria*. Guztiok kontuan eduki beharko genukeen ideia hasi berria den mende honetan.

Euskararen aurrerakadaren ifrentzia

Egia da: *Euskara, bistan da, ez da hizkuntza hutsa, ez da komunikaziorako tresna neutro bat bakarrik. Gainerako hizkuntza guztiak ere badira esandakoa baino zerbait gehiago. Badakigu euskara sinbolo bat dela, gure gizartearen izaera askotarikoaren ezaugarri behinena, bizirik gorde beharreko kultura ondarea*. Baina euskara ez da, inolaz ere, gu besteak baino hobeak garenaren ikurra. Edo areago, gaztelera baino hizkuntza geureagorik. Biak dira geureak eta biak erabili behar ditugu. Inolako mespretxurik gabe, ez baten-tzat ez bestearentzat. Areago, ez elebakarrak direnentzat, ustez beste hizkuntza bat menderatzen dugulako hoiek baino hobeagoak garelako pentsatzeagatik. Aberatsagoa da elebiduna, noski, batez ere, batez ere, elebidunak edo eleanitzaren mezuak balioa duenean. Mezuak ere bere balio duelako, hizkuntza batean eman edo bestean.

Bai, *bi hizkuntza ofizial* –geure kasuan, Nafarroa osoan ofizial ez propio baizik– *dituen gizarte honetan, zenbat eta berdinkideago izan biak, orduan eta sendoagoa izango dela hizkuntza bien arteko bizikidetzak, eta, ondorioz, herritarren arteko onartzea jarrera logiko eta demokratikoa iruditzen zait*. Eta nahiz eta bat natorren *euska-*

raren etorkizuna bermatzeko bidean, seguruena, hazkundera ahalik eta modurik naturalenean gertatzea dela dioen esaldiaz, ez dut uste egiten ari garen ahalegina naturaltzat jo daitekeenik, ez EAEn ez Nafarroan. Noski, “natural” ez izateak ez dio baliorik kentzen. Aldiz, balioa erantsi egiten dio, gizartearen ahalegin aske eta kontzientea delako. Ez ahantz, dena dela, euskararen kontra daudenak ere aske eta kontzienteki ari direla...

XXI. MENDE HASIERAKO HIZKUNTZA POLITIKAREN ZIMENTARRIAK ETA ERRONKAK

Edozein hizkuntza biziberritzeko beharrezkoak dira, bai, legeak, dekretuak, laguntzak eta abar luze bat. *Herritarren jarrerak-eta ezagutzeaz gain, politikan eta gizartean hizkuntza kontuetan aldiro adostasuna gaurkotzea eta berritzea ere ezinbestekoa da*, txostenak dioenez. Eta seguruena, hau da Nafarroan egiatan, ez sakonean ez azalean, oraindik lortu ez duguna, oinarriko adostasun politiko eta soziala. Eta adostasun hori gabe, ezinezkoa da helburuak eta mugak ongi zehaztea. Eta nire ustez, hor gaude nafarrok, euskararentzat zer nahi dugun ongi, zehazki, jakin gabe.

Beraz, euskararekiko helburuak aipatzen direnean, Nafarroan, neure ustez, lehena euskara nafar guztiona dela onartzea da. Dakigunona, mintzatzen dugunona eta baita ere ez dakitenena. Eta hau onartzea aurrerapauso ikaragarria litzateke. Gezurra dirudi baina horrela gaude. Ez da hau euskararekin bakarrik ematen den arazo bat. Euskal aurrizkia duen guztiarekin gerta daiteke. Hona adibide bat (nolabait eta neurri batean eredu ere badena): Jorge Oteizak bere obra Nafarroako herriari utzi zion. Altzuzako Museoa bukatua zelarik eta eskulturak ikusi ahal zirelarik, Caja de Ahorros de Navarrako agintari batekin bazkaltzen ari nintzela ikustera ez zela joan eta ez zela joango ere, “porque estos vascos a los navarros sólo nos traen problemas”. Ez da nafar gehienek pentsatzen dutena, baina askok bai.

Gutziz bat nator, beraz, *gizartean ezberdintasunak orekatzea, gizartearen kohesioa indartzea eta bizikidetza areagotzeko urratsak bizkortzea* txostenak proposatzen dituen xedeekin. Eta guztiz neure egiten dut ondoko gogoeta: *den-denok jarri beharko genizkioke geure buruari honako helburu hauek: hizkuntzen arteko ezberdintasun sozialak pixkanaka-pixkanaka baztertzea, hizkuntzak erabiltzeko aukera berdintasunerantz bidea egitea eta egiazko hizkuntza-askatasuna eraikitzea. Horrela, bada, etorkizuneko hizkuntza politikak, edozein delarik ere, bere oinarri nagusien artean honako bi zutabe hauek berderen izan behar lituzke: batetik, norbanako bakoitzaren hizkuntza-aukera erabat errespetatzea; bestetik, hizkuntza –zeinahi hizkuntza– baliatzeko askotariko erabilera-aukerak bermatzea; eta azken zutabe hau aipatuta, eta euskararen erabilera bultzatzea izanik goiburua, garbi eduki behar da hizkuntzarik ahulena, ezberdintasunean dagoena, jarduteko aukera urriena dituen, euskara, erabiltzeko ditugun aukerak indartu egin behar direla eta berriak sortu (nahiz eta argi eta garbi ez izan zer ote den aipatzen den “hizkuntza-askatasuna”...)*

Agian, ametsa dirudien arren, *nahitaezkoa da elebitasun orekatua eta aukera-berdintzailea benetan posible balitz bezala jardutea, hori helburu duen hizkuntza politika malgu eta errealista egitea*, hori da biderik egokiena hizkuntza bien eta biztanle guztien arteko oreka lortu ahal izateko, boluntarismo guztien gaineratik. Mitxelenak arrazoi osoa zuen *diglosiaren purgatorioetatik ihesi goazela, ez gaitzezela ghettoaren infernua eror. Hizkuntza integrazioa beste ezein bezain beharrezkoa dugu* idatzi zuenean. Uzten badidazue esaldia neurea egiten, **Nafarroan areago** erantsiko nioke.

Txostengileek ez zaigula *komeni hizkuntza politikaren diskurtsoa eskubideen inguruan bakarrik ardaztea* diote eta nik baiez-tapen hau politikaren arlo guztietara eramango nuke, bizitza osora. Edozein eskubideen gainean soilik eraikitzen denean, batzuen eskubideen alde egiten da eta besteen eskubideen kontra. Eskubideen hizkuntza dilematikoa da guztiz, eta nire ustez, eskubideei uko egin gabe, askoz baliagarriago, aberatsago, kontsentsurako aproposago

da baloreen hizkuntza. Honek batzuen eta besteen baloreak ados-
teko balio duelako eta ahalik eta balio gehien lortzen eta babesten
saiatzen delako.

Integrazio-nahirik gabe ez da helbururik zehazterik. Eta ho-
rix da bereziki Nafarroan kaltetan botatzen dena. Edo nik botatzen
dudana, bederen. Hortikan datoz euskaldun ere garenon jasaten
dugun dagozkigun eskubideen murrizketa; hortikan, erdaldun soilak
direnen euskal munduarekiko duten mesfidantza (egia esan, euskal-
dun garenok ere eta bereziki, euskaldunak izan ala ez, euskararen
defentsan ari direla aitzakiatzat hartuz indarkeria erabiltzen dutenek
badute honetan erantzukizun eta erru galanta); hortikan bi mundu
hauen arteko bizikidetzarako komunikazio zubi handirik ez izatea;
hortikan, euskararen egoera kaskarra Nafarroan. Zentzu honetan
euskarari ez datorkio batere ongi bere inguruan orain arte izandako
aurkaketak, instituzioen aholkularien dimisioak, etab. Euskarabidea
da egun Nafarroan dagoen Aholku Batzarraren antzeko erakundea:
orain dela gutxi lehen bilera ospatu zuena, jite berri batez, lehengo
ezinikusiak, istiluak eta aurka egiteak alde batera utzirik, kontsen-
tsu giroan... nahiz eta UPNren begirada zaintzailaren azpian egon.
(Pena da, atzo bertan jaso genuen berria: Euskarabidea-ko Zuzen-
dariak bere lankide bat, zerbitzuburu zena, dimitiarazi du beraien ar-
teko ezberdintasunengatik... Euskara berriz ere, erakunde jaio berri
honetan arazoak sortzen... Hori, hainbatek salduko duten irudia.)

*Hizkuntza politika malgutasunean eta progresibotasunean
oinarritu behar da. Malgua, neurrikoa, eraso gisa sentitzen ez dena,
beti ere integratzailea* diote txostengileek. Eta neureak balira sentitzen
ditut hitzok. Baina bada Nafarroan Nafarroako Gobernuaren egungo
sasi hizkuntza politika erasotzat hartzen dutenak, batez ere politika
orokorraz lotu egiten dutelako eta euskara euskal nazionalisten –edo
hobe, Euskadiren– ikurtzat hartzen dutelako eta ez nafar guztien on-
dare bat bezala. Neurri horretan soilik ikusten dute euskara integra-
tzaile, Euskadin integratzeko tresna bat bezala. Pentsamolde honen
bultzadan sekulako erantzukizuna izan du UPNko hainbat aitzindarik

(azpimarratzekoa da arlo honetan orain gutxi arte Hizkuntza Politika-rako Idazkaria izan zen Pejenaute jaunak mantendu zuen euskararen kontrako jarrera bortitza) Eta guztiz bat nator berriz ere txostenak dioenarekin zera aipatzen duenean: *Hizkuntza politikak ahalik eta gutxien baldintzatu beharko luke herritarren askatasuna. Borondatean oinarritetik indarrean, edo indarkerian, oinarritzera pasatuz gero gertatuko litzateke hori. Nafarroan arlo honetan bortxa jasaten dugun bakarrak euskaldun ere garenok gara.*

Azpimarratzekoa da Nafarroan hezkuntzak izan duen garrantzia normalizazio bidean; euskararen hainbat eremutan, hainbat lekutan, legeriatik at egin delako eta askotan Gobernuaren laguntzarik gabe eta ia beti Gobernuak bultzatutako politikatik urrun eta kontra. Urteak joan urteak etorri D ereduan ikasten duten haurren multzoak gora egin du. Hau ikusirik, Gobernutik, guraso elkarteen iritzi eta eskakizunen kontra, “British” delako ereduak bultzatu da, zeinean haurrek gaztelera eta ingelesa ikasiko dute. Hauxe da Pérez Nieves kontseilariak egin duen apustua. Asmo horren kontra, bat egiten dut txostenak dioenaz: *gure ustez, hezkuntzaren eremuan aldaketak gutxika--gutxika egin behar direla, egin nahi dena orokortu aurretik aldeztu aurretik probatuz eta balioetsiz, bitartekoak esleitu ahala jeneralizatuz, hezkuntza-erkidegoaren eta gizartearen borondateak arian –arian bilduz eta kohesioa landuz. Honek ez du esan nahi bere sasoiaren diseinatutako hizkuntza-ereduak bere horretan utzi behar direnik, baizik-eta komeni dela eraldaketa oro aurreko bideari segituz egitea. Krakatakoa gerta liteke bestela, eta kaltea ahulenari ekarriko dio, berreskura ezinezkoa beharbada. Argi eta garbi esan dezagun: herritarren borondatea eta herri-erakundeak eskuz esku joan behar dute hizkuntza kontuetan.*

AZKEN HITZAK

Ez dut, dena dela, negatiboki bukatu. Itxaropentsu nago eta ilusioz beterik. Nafar gizartearen atal handi batek euskara maite du eta

bere haurrak euskaraz eskolaratzen ditu; atal txikiago batek geroz eta gehiago euskara erabiltzen du eguneroko gauzetarako (nahiz eta oraindik ehuneko txikia izan inoiz baino handiagoa da); asko dira arlo guztietan, ez bakarrik literaturan baizik eta hainbat arlo ezberdinetan, euskaraz idazten dutenak; askoz gehiago dira euskararen aldeko topaketetan parte hartzen dutenak... Bada, bai, egun, nafar gizartean euskararekiko joera sakon bat.

Nire ustez, joera honek duen bultzada neurri handi batean euskararen despolitizazioari zor zaio. Guztiz lortu ez dena. Eta agian, sekulan lortu beharko ez dena, zeren euskarak zerbaiten beharra baldin badu, politika on baten beharra da. Politika demokratiko on batena. Euskara guztiona dela azpimarratuko duena. Eta euskara batzuen eta besteen kontra arma jaurtigarri bat bezala inoiz gehiago erabiliko ez duena. Txosten honek horretarako bidea irekitzen du. Horrexegatik, neure zorionik beroenak txostengileei eta eskerrik sakonenak Batzorde honetan eta gogoeta hauetan parte hartzera gonbidatu gaituen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuari eta Hizkuntza Politika Sailburuordeari.

Egin dezagun **denok** aurrera txostenak maisuki markatzen duen ildotik!

GARDENTASUNAREN ALDE*

Lucía Martínez Odriozola

Garai batean irudipen bat izan genuen: sinetsi genuen, alegia, euskeraren ezagutza Euskal Herrian bizi ziren guztiengana hedatu ahal izango zela. Iritzi-joera bat sortu zen, denok euskararen erantzule ginela zioena. Euskara ikastea eta erabiltzea militantzian eta hizkuntzarekiko nahitasunean oinarrituta zeuden gehienbat.

Jende askok ekin zion euskara ikasteari: ez zegoen ez bitartekorik eta ez irakasle prestatuak, oso handia zen, ordea, euskararen aldeko joera. Euskara guztiona zen eta denon artean zaindu beharra geneukan. Saltoki batzuek euskarazko esaldiekiko kartelak ipini zituzten hormetan, bezeroek euskaraz hitz egin ziezaieten enplegatuei. Lehenengo harreman hori gainditu ondoren, gaztelaniaz jarraitzen zuen elkarriketak.

Gaur egun ia nahitatezkoa da nonahiko kartel guztiak bi hizkuntzetan idatziak egotea, baliteke enplegatuak 18 urte igaro izana ikastola batean eta bezeroak berak ere beste urteren bat gehiago, baina gaztelaniaz da elkarriketa.

Hain handia izan zen euskara ikasi nahian zebilen jendearen emana, non euskaltegiek eta gaueskolek ez zeukaten eskari hari erantzuteko ez lokalik ez nahikoa irakaslerik. Urte gutxi batzutan, jende askok ikasi zituen euskararen hasi-masiak eta euskaraz mintzatzeko gai izan zen. Eta euskaldunen artean bi kategoria sor-

* Testu hau gaztelaniazko jatorrizkoaren itzulpena da.

tu ziren, bi klase ia: euskaldun zaharrak eta euskaldun berriak. Ez zen gauza bera. Haiek pedigria zuten; bigarrenak, berriz, irrigarri geratzen ziren hizkuntza erabiltzeko zuten lehiagatik eta hizkuntza erabiltzeko eragatik. Haiek, euskararen *maitaleak*, oso *estimatuak* izan ziren hasieran (haiengan baitzegoen hizkuntza beste belaunaldi batzuetara transmititzeko ahalegina), baina azkenean *arrimatu-tzat*, konbertsotzat tratatu zituen jendeak. Garai batean, kargu hartu ere egin zitzairen euskara kalteak jasaten ari zelako bere sintaxian, lexikoan eta fonetikan.

Hizkuntzarekiko militantzia hark bizirik dirau gaur egun gizarte-agerraldi batzuetan. Pentsaezina da gure inguruko beste herrialde batzuetan inork hizkuntza goraiatzeko jaiak antolatzea, are gutxiago, gainera, hemen ospatzen diren bezainbat: Ibilaldia, Araba Euskaraz, Nafarroa Oinez, Herri Urrats, Kilometroak... Garaiz kanpoko kontua da hori.

Oso baliagarria izaten da alderantzizkatzearen araua aplikatzea gorabehera jakin batzuk bere neurrian sumatzeko. Ondo da, aplikatzea dezagun araua: Nola hartuko luke jendeak erakunde batek Donostian antolatzea, adibidez, gaztelaniaren aldeko festa bat?

Jarduera sozial bizi-bizi hori ez dator bat hizkuntzak gaur egun bizi duen egoerarekin, ez baitu militanteen beharrik, hiztunen beharra baizik.

Euskaldun jakin batzuen biktimismoa guztiz kaltegarria da eta ez du zuribiderik, gainera. Haietako askok begirada ilunez begiratzen diote euskal kulturari, azken 25 urteotako lorpen ugariak sumatzeko gauza ez direla. Eta haiek igorritako mezua aise barnertzen da gizarte honek urrats erraldoiak egin dituela jakiteko nahikoa eskarmenturik ez dutenen artean. Duela urte batzuk, harrituta ikusi genuen ikuskizun bitxi bat, alegia, euskarak izugarri kezkatutako gazte batzuek EHUKo bilkura nagusi bat nola etenarazten zuten eta nola hizkuntzaren etsaia zela leporatzen zioten errektoreari. Orduko errektorea Pello Salaburu zen, euskalduna, Euskaltzaindiko euskaltzain osoa, euskararen ikertzaile ospetsua eta euskararen etsai

izatearen inolako susmorik egotz ez zekioketena. Garbi dago gazte haiek ez zekitela nor ari ziren astintzen.

Bada irudipen jakin bat biktimismo horri atxikita egoten dena, baina gero eta gutxiago; alegia, hizkuntza bera hitz egiteak printzipio-kode bera partekatzea ere badakarrela. Hiztun euskaldun batzuek jakintzat ematen dute solaskidearen konplizitatea, eta hala botatzen dituzte, beraz, gaztelaniaz esango ez lituzketen gauzak eta adieraziko ez lituzketen ideiak. Hori, zorionez, galtzen ari da.

Duela urte batzuk, ETBko gatazka bat zela eta, kate horretako programa baten aurkezlea elkarrizketatu nuen euskaraz gaztelaniazko egunkari batentzat. Elkarrizketan, aurkezleak ukatu egin zuen ETBko zuzendarietako batek legebiltzarreko batzorde batean esandakoa, gezurra esateaz salatu zuen. Guri iruditu zitzaigun berri hori gaztelaniaz helarazi behar geniola irakurleari, eta hala argitaratu zen. Handik egun batzuetara, aurkezlearekin topo egin nuen eta hark kargu hartu zidan beraren hitzak gaztelaniaz argitaratzeagatik: “Nik hori gaztelaniaz esan nahi izan banu, ez nion egunkari horri esango”. Garbi geratu zen, bada, Bushen edo Sarkozyren hitzak hizkuntza guztietara itzul daitezkeela baina ezin dela gaztelaniaz esan euskaraz adierazi den hura.

Hizkuntzari benetan laguntzea da hura berdintasunez tratatzea, tratu bera jaso dezala eta haren bidez adieraz daitezela ideia mota guztiak, ederrenetatik hasi eta makurkeriarik handienetaraino.

Gaztelaniaz entzun nahi ez dituen gauzak euskaraz esaten dituen jendeaz gainera, bada besterik. Euskarazko produkzio kulturalak aukerak eman izan dizkio hizkuntza merkatu askoz handiagoetan lehiatu behar izatekotan aukerarik izango ez zuen jendeari. Hori dela eta sortu dira euskaldun klase batzuk, arrazoibide ofizialisten gatibu direnak eta harekiko kritiko agertzeko gauza ez direnak. Ez da egituratu euskaraz arrazoibide kritikorik, disidenterik ez esatearren. Askieza horrek txirotxea dakar eta baliteke eskaskeriarren babesleku bihurtu izana, zeren eta bikainak direnak berdin baitira bikain, adierazpidetzat duten hizkuntza zeinahi ere den.

Bitxia gertatzen da baita ere ikustea nola batzuetan, euskal autonomia erkidegotik kanpoko jendea bisitan etortzen zaigunean, entzule jakin batzuen aurrean esaten dituzten lehen hitzak euskaraz ez hitz egiteagatik barkamena eskatzeko direla, hori bekatu balitz bezala. Zenbaitetan, beste modu batera ere esaten dute: “Barkatu zuen hizkuntzan mintzo ez natzaizuelako”. Gaztelania gure hizkuntza ere ez balitz bezala. Horrelako adierazpenek aditzera ematen dute lurralde hau elebakarra dela, elebakarra euskaraz, eta klixex hori oso urrun dago errealitatetik.

Lanpostu bat eskuratzeko euskara nahitaezkoa delako zurrumurrua zabaldu izan da urtetan, interesatuki. Ideia hori erro-errotik da negatiboa eta askotan gezurrezkoa: badago lana lortzea euskaldun izan gabe. Baina uste horrek euskara ikastera bultzatu ditu bestela euskara ikasiko ez zuten batzuk. Behartuta ikasi dute, gogo txarrez, eta oso emaitza onik lortu gabe.

Irakaskuntzan, kezka handiagoa sortu beharko zuen gertara bat izan da: eskarmentu eta jakintza handiko irakasle eta maisu batzuek beste postu batzuetara esbesteratu behar izan dute ez zirelako gai sentitzen berandu eta gaizki ikasitako hizkuntza batean kalitate berberaz erakusteko.

HEDABIDEEZ

Hedabideak izan dira euskara batua ez ezik euskalkiak ere hedatzeko aukera eman duen tresna ahalmen handikoa. Izan ere, euskal telebista sortzeko arrazoietakoa bat hizkuntza izan zen eta Euskarearen Normalizazio Legean oinarritu zen haren sorrera.

Lehenengo urteetan, ETBk kanal bakarra izan zuen, euskaraz, gaztelaniaz azpigitulatu, hala audientziak hurbildu ahal izan zitezten ez bakarrik euskarara, eta euskara etxekotu zezaten, baita ere ETBren bidez ematen ziren informazioetara, zeren ez baita ahaztu behar ETB batez ere komunikabide bat dela, publikoa, Eus-

ko Legebiltzarrak eta agintzen duen alderdiak estu-estu zaindua, baina komunikabide hala ere.

Bereziki euskara hedatzeko tresna izateko borondate horrek 1986 arte iraun zuen, urte hartan erabaki baitzuen ETBk bere buruarekin lehiatzea gaztelaniazko bigarren katea sortuz, ETB2. Harrezkeror, 1986ko martxoaren 31tik, euskal gizarteak lau telebista kanal publiko ditu 2 milioi herritarrentzat: ETB1, ETB2, TVE eta La Dos.

Misterio hutsa da, ordea, zergatik 4 kanal telebista kanal publiko izanda eta emisio-ordu mordo bat Euskal Herrirako, zergatik ETB1ek bakarrik emititzen duen euskaraz? Zergatik ez dio TVEk, noizbehinka izan ezik, eskaini lekuri euskarari, beste autonomia erkidego batzuetan barra-barra erabiltzen badu bertako hizkuntza? Euskal agintariak ez dute jakin espainiar agintariak konbentzitzen haiek ere bete dezaten bertako hizkuntzan emititzeko betebeharra, betebeharr hori legezkoa ez bada, morala baita behinik behin?, edo iruditu zaie ETB1eko kuotarekin nahikoa dela?, edo patrimonializatu egin dute, monopolio-erregimenean, gainera? Edo hemen audientziek ez dute agintzen?, ez dute agintzen euskara behar ez dutelako?, euskara ezaugarri bat delako, apaingarri bat delako eta zenbaitetan oztupo bat ere bai informazio jakin batzuk ulertzeko?

Aldi ikaragarri luzeetan, ETB tresna gisa baliatu izan dute agintariak gure herriaren fantasia bat eraikitzeko: Euskal Herria herri ederra eta, batez ere, arkaikoa. ETB1eko edukiak zaharkituak izan dira denboraldi gehiegitan, eta erakutsi izan dute Euskal Herri zahar bat, mendi girokoa, baserritarra, askotan zahar jende askoduna, eta giro horretako kirol emanaldirik modernoena belarra moztea izan da, eta hango neska gazteak gona luzeak eta mantalak dituzte jantzita, eta ilea mototsan bildua eta zapia buruan, eta bizi, etxe ilun eta goibetan bizi dira, harriak, aizkorak eta enborrak botatzen dituzte, leihotik astoak ikusten dituzte eta oihuka hitz egiten dute.

Euskara urtetan erabili izan da euskaraz egiten ziren ageraldi kultural edo herrikoiak besterik ez aipatzeko. Begien bistakoa da eta ulergarria bertsolari txapelketa bat euskara hutsez erretrasmir

titzea, baina ez dago inolako arrazoirik albiste hori gaztelaniadunei ez emateko, gure mugetatik urrun gertatzen diren gertaeren berri euskaraz eman beharra dagoen bezala.

Euskarazko hedabideek, inprimatuek bereziki, antzeko irizpi-deak aplikatu izan dituzte. Albisteren bat euskaraz argitaratzen den une gutxi horietan ere euskara menderatzen duen eta seguru asko berriaren jakitun dagoen jendearentzat argitaratzen da.

Askoz ere aberasgarriagoa litzateke komiki aleman bat euskaraz eta bertsolari txapelketaren sailkapena edo Euskaltzaindiaren azken erabakiak gaztelaniaz argitaratzea.

Gaztelaniaz argitaratutako hedabide jakin batzuek egindako inkestek argitzen dutenez, irakurleek ez diote uko egiten orrialde horietan informazioa euskaraz emateari, betiere horregatik ez badiote berari behar-beharrezko informaziorik ukatzen. Beraz, gaztelania-dun irakurlearen arabera, euskara bigarren mailako kontuetarako da, jakitea edo ez jakitea berdin dion kontu horietarako. Eta baliteke hori izatea arazoaren gakoetako bat.

Baina ez dira irakurleak iritzia duten bakarrak, profesionalek ere badute iritzia. Ohiko kontua izaten da euskaraz lan egiten dutenek eta euskaraz argitaratzen dutenek kexu izatea beren eskusibek gizartean oro har garrantzi edo oihartzun gutxi dutelako. Gerta daiteke kazetari batek informazio bat aste batzuk lehenagotik argitaratua izatea eta, gero, informazio hori gaurkotasuneko gai bihurtzea berandu argitaratuagatik gaztelaniaz argitaratu delako.

Probintzietako egunkarietako kazetariak ere kexu izaten dira beren informazioek oihartzunik izaten ez dutelako harik eta Espainiako hiriburuko hedabideren batek berri hori berea bailitzan jasotzen ez duen arte.

Hala eta guztiz ere, eta zailtasun horiek jorratu ondoren, garrantzitsua eta esan beharrekoa iruditzen zait hedabideek lan handia eta aipagarria egin dutela euskararen zabalkundearen alde; aberastu egin dute euskara eta, batez ere, hura normalizatzea lortu dute.

UNIBERTSITATEAZ

Irakasleek unibertsitatean sartzeko dituzten araubideak eta prozedurak alde batera utzita, eta horiek eztabaidatzen hasi gabe, agintari akademikoek ez dute kontrolik ezarri unibertsitatean lanpostu elebidunak betetzeko sartu izan diren irakasleek eskolak euskaraz emateko beren betebeharra gerora bete ote duten ziurtatzeko.

Euskal Herriko Unibertsitatea jakintza alor jakin bateko departamentuka antolatuta dago; departamentu horietan irakasle kopuru oso aldakor batek dihardu. Irakasleen artean hautatuz, zuzendaritza aukeratzen da.

Eskola jakin batzuk emateko irakasle bat edo bestea izendatzea Departamentuaren zuzendaritzak erabakitzen du irizpide jakin batzuen arabera; irizpide horietako bat hizkuntza da. Bada, badira irakasle batzuk beren lanpostuak edo jabetzan dauzkaten postuak euskaraz irakasteko konpromisoarekin eskuratu zituztenak, baina, gero, departamentuaren zuzendaritzarekin elkar harturik, irakasle horiek berek gaztelania hutsez ematen dituzte eskola horiek.

Unibertsitateko goi mailako agintariak badute gertaera horren berri, departamentuek beren lanpostuen zerrendaren berri nahitaez eman beharra daukatelako, bakoitzaren ardura eta zeregina zehazturik.

Hala eta guztiz ere, unibertsitateko agintariak ez dute batere araurik ezarri eskolen parte bat bederen euskaraz eman dadila behartzeko, eta arrazoizkoa da hori hala izan dadin, lanpostua emateko irizpideak, euskara ezagutzea alegia, benetako premia bati erantzun behar baitio, premia egiaztatu eta arrazoitu bati, nola den euskaraz irakasteko gauza izango den irakasleak izatea.

Lanpostuen oposizio edo lehiaketa deialdia egiten denean, hizkuntza eskakizuna aukeratu beharra dago. Izendatu beharra dago, alegia, ea irakasleak euskara jakin behar duen euskarazko taldeei irakasteko bideratuta dagoelako lanpostu hori. Zenbaitetan, hori ez da hala izaten: euskarazko lanpostua ateratzea izaten da kontua,

besterik gabe, nahiz jakinaren gainean egon bide horretatik sartuko den irakaslea ez dela seguru asko sekula behartuta egongo bere eskolak euskaraz ematera: gaztelania besterik ez du erabiliko.

Zertarako orduan lanpostu elebidun bat? Egon daitezke horretarako baita hiru arrazoi ere, eta ager daitezke hirurak batera pilotuta edo bakarka.

- Lanpostua eskatzen dutenak hizkuntzaren defendatzaile sutsuak dira, eta, premiak premia, berez izendatzen diote eskakizun elebiduna eskari bakoitzari. Baliteke, azkenean, euskaraz hitz egiten dutenen edo, baita ere, euskaraz hitz egiten duten batzuen defendatzaileago izatea, euskararena berarena baino.
- Garai jakin batzuetan zurrumurrua zabaltzen da lanpostu elebidunei lehentasuna ematen zaielakoa, alegia, baina zalantzazko kontua izan liteke lanpostu hori berori ematea elebakarra baldin bada (gaztelaniazkoa izaten da beti). Hizkuntza eskakizun hori ezarriz gero, aukera gehiago izaten dira lanpostua eskuratzeko. Pragmatismo hutsa lanpostu gutxi ematen den merkatu batean.
- Euskaldunak gutxiengoa dira gizartean eta, horren isla gisa, Unibertsitatean ere bai. Gainera, azken urteotan urrats erraldoiak egin diren arren, eta alde handiarekin jakintza alorka, ikasketak euskaraz egiten dituztenen prestakuntza akademikoa, eskarmentu profesionala, curriculumaz azken batean, ahulagoa izaten da batez beste, laburragoa izan delako. Eta, batez ere, askoz gutxiago dira, eta, gainera, ezagunak dira eta haien ingurukoek haien produkzioa ezagutzen dute.

Gaztelaniako lanpostu batera unibertsitate askotako irakasleak etor daitezke, curriculum potoloetako hautagaiak, bertako hautagaiak lanpostua lortzeko dituen nahiak aise zapuztuko lituzketenak. Hobe

horrelako arriskutan ez sartzea. Hobe kate motzean lotzea kontua. Tradizio luzeagoko unibertsitate alorretan, dozena bat hautagai bil liteke, Espainiako leku guztietatik eta beste herrialde batzuetatik etorriak, gaztelania jakinez gero. Lanpostu hori bera euskaraz eskaintzen bada, murriztu egiten da hautagai multzoa eta lehiakideak neutralizatuta geratzen dira. Nahiz hautagai jakin horrek euskarazko argitalpenik ez izan, nahi ziur jakin inoiz ez dituela eskolak euskaraz emango... Nahiz jakin haren hizkuntza maila oso urria dela. Nola da hori posible? Epaimahaiak osatzeko, eskuratu nahi den lanpostuaren maila bereko edo goragoko irakasleak ekartzen dira unibertsitate espainoletatik. Epaimahai batean inor ez bada euskalduna, edo bakar bat besterik ez badago, gaztelaniaz egiten da orduan proba.

Zein arrazoiengatik sartu dira, bada, irakasle batzuk elebitasunaren bidetik, ez badute azkenean eskolarik euskaraz emango?

Hasteko, aurreko guztitik eratorritako arrazoiengatik eta, beharbada, beste bakan batengatik ere bai. Kexuka ibili ohi dira beti irakasle euskaldunak materialak askoz urriagoak direlako euskaraz; beraz, eskolak eta materiala prestatzeko denbora gehiago behar da. Luze bilatu behar izaten dute eta ez beti onerako. Gehiago kostatzen da, beraz, ikasgai bera euskaraz ematea gaztelaniaz baino.

EHUn nahitaezkoa da lanpostu elebidunak eskuratu nahi dituztenek euskara ondo ezagutu eta etorri handiz hitz egiteko gauza direla ziurtatu behar izatea. Batzuetan, epaimahaia eskuzabala izaten da bisatuekin, jakitun baita, beharbada, lanpostu bat betetzeko dagoen premiaz. Profesional horiek ez dute ziurtasunik izaten ikasgelan eta nekez adierazi ohi dituzte kontzeptu korapilatsuak beren bigarren hizkuntzan. Gaur egun ez da ohiko kontua, baina une jakin batzuetan irakasleek lehen aldiz adierazi behar izan zituzten kontzeptu batzuk euskaraz, eta kontzeptuak hitzez adierazten dira. Sakon ezagutu beharra dago, horretarako, bai ikasgaia eta bai hizkuntza.

Kasu batzuetan eta garai jakin batean, fakultate batzuetako euskara taldeen ezaugarriengatik izan da utzikeria, ikasle erradikal gehiago biltzen baitituzte, gure herriaren idiosinkrasia dela eta. Eduki

jakin batzuetako ikasgaiak irakastea ez da eroso izaten. Hizkuntza ez da egokia izaten gai jakin batzuetan katedra-askatasuna lantzeko.

Azkenik, azken urteotako joeraren eraginez, erabakita baitago lanpostu sortu berri guzti-guztiak elebidunak izatea, hainbesteraingo eskastu da hautagai unibertsitarioen kalitatea non irakasle lizentziatu berriak kontratatzen baitira, beren curriculumean ia ezer aipagarririk ez dutenak, ekainean lizentziatu edo, are okerrago, irailan eta urtarrilean ordezkoko gisa eskolak ematen ari direnak, lanpostu hori bete behar duen batzordeak ez duelako nahi hura hutsik geratzea. Edo hutsik geratuz gero, gainerako irakasleen lan-karga gehiegizkoa eta onartezina litzatekeelako. Hori oso kontu larria da eta bistan dago erantzukina norena den, neurriak aldeztetik hartu nahian oso prestakuntza gutxiko jendea kontratatzea ahalbidetzen dutenena hain zuzen.

Beste egoera, hautagaien jariora estutzeko euskara inbutu gisa erabiltzearena, ez da izango, beharbada, hain kaltegarria etorkizuneko profesionalentzat, bai, ordea, batzuk euskara instrumentalizatzen ari direla badakitenentzat, euskara hautagaiak kanporatzeko metodo eragin handikoa dela badakitenentzat.

Euskara jakiteko eskakizuna ez da zorrotasun berarekin aplikatzen irakasleriakoak ez diren langileen artean, administrazioakoak eta zerbitzuetakoak diren langileen artean, alegia.

Unibertsitatean sartzeko ikasleei egiten zaizkien azterketak ere ez dira, nonbait, zorrotzak, nahi duten lerroan sartzea eta hura aukeratzea uzten baitzaie, unibertsitateko ikasketak zentzuz baliatzeko behar bezain hizkuntza ezagutza maila duten neurtu gabe. Gauza bera gertatzen da, ordea, gaztelaniaz. Euskarazko taldeetako irakasleen zati batek, gehienbat erdaldun diren eremu geografikoetatik datozenek bereziki, zailtasunak izaten ditu, eta zailtasun horiek are nabarmenagoak dira hizkuntza lan-tresna bat baino zerbait gehiago den ikasketetan. Herrenka ibiltzen dira, lehian, ahalegin bizian, gu guztiok bezala, baina unibertsitateko ikasketak beren ama hizkuntzan egitea edo ez planteatuz gero lortuko litzateketenak baino

emaitza okerragoak izaten dituzte. Urte batzuk badira aholkatu niola Barakaldoko neska ikasle bati saia zedila euskara unibertsitateko paretetatik at erabiltzen. Handik egun batzuetara emaitzaren berri eman zidan: egun hartan, mundu guztiarekin euskaraz hitz egiteko erabaki sendoa hartuta, bere herriko udal liburutegira joan zen, hango langileak funtzionarioak izanda euskaldunak izango zirelakoan. Enplegatua aurkitu zuen bezero batekin galegoz hizketan.

Oinarrizko txostenak aipatzen duen joera, alegia ohikoa dela ikasleak beren artean gaztelaniaz hitz egiten entzutea baita gela barruan ere duela gutxi samarreko kontua da (3 edo 4 urte), Kazaritzako lizentziaturan, behinik behin. Ikasketak zein hizkuntzatan egin nahi diren erabakitzerakoan heldutasunik eza eta gogoetarik eza larria adierazten du horrek, nire iritzian. Hiru urte betetakoa eta gurasoen erabakiz hasitako ikasketak berez eta nahitaez jarraitu behar izatea balitz bezala unibertsitateko prestakuntza. Nolanahi ere, ez dira gizabanako batzuen jarrerak eta, sarri errepikatzen direnez, alarma jotzeko modukoak dira.

Lehen eta bigarren hezkuntza hizkuntza batez, euskaraz, jabetzeko erabili izan da lehenik eta behin; eta bigarren mailan besterik ez da erabili beharrezkoa den hezkuntza emateko. Jarrera hori unibertsitateraino hedatu baldin bada... bada zerbait hor ez dabilena, edo, okerrago dena, gaizki dabilena.

Unibertsitateak beste zeregin bat du. Hizkuntza erabili arren (edozein eta gehienetan bat baino gehiago) erakusteko eta ikertzeko, ez da hizkuntza eskola, ezta beste hizkuntza batzuk ikasteko akademia ere. Etorkizuneko profesionalen prestakuntza txirotu egiten da hizkuntza oztopo denean.

AURKAKOZ

Gardentasunez betetzea du hizkuntza politikak alderdi garrantzitsu bat. Gardentasuna helburuetan eta kostuetan. Euskal gizarteak badaki elebitasuna diru karga oso handia dela, baina inoiz ez da garbi

hitz egin gai horri buruz. Beharbada, gehienbat gaztelaniaz ari diren administrazioek ez dutelako beren aurrekontuetan euskarari dagozkion atalen kostua bereizteko ohiturarik.

Baina beste administrazio batzuek ere, euskalduntze maila handiko eremuetako udal txiki batzuek, ez dituzte legeak bete nahi izan eta euskara ezarri dute hizkuntza bakartzat. Oinarrizko kontutzat hartuko bagenu herri txiki horietan ere kontu-sail batzuk bideratu behar direla administrazioko testuak gaztelaniara itzultzeko, beharbada argudio asko kenduko litzaizkieke euskara gizarte honi diru kopuru handia kostatzen ari zaiola uste dutenei eta horrez gainera kopuru horiek zer-nolakoak diren inoiz jakiten ez dugula diotenei. Kontua ez da ezkutatzea, hori egin beharra dagoela erakutsi eta defendatzea baizik.

Ust dut, bestalde, auzi hau dagokien erakundeek ahalegin handi bat egin behar dutela kontrakoak konbentzitzeko —ez naiz ezaxolatiez ari—, esanez hizkuntza aberastasun bat dela euskara eta guztioi dagokigula hura zaintzea. Beti hitz egin beharra dago kontrakoekin. Urrats handia litzateke euskara zaintzearen kontrako ahotsik ez goratzea lortuko balitz. Mirari hori lortuz gero, askoz errazagoa litzateke iritzi horiek berak zeharo ezaxolatiak direnengan txertatzea. Hizkuntza politika aktibo eta dinamikoen kontra ahotsik ez goratzea lortzea urrats handia litzateke. Gizarte talde batzuek lortu izan dute XX. mendean zehar iritzi jakin batzuk adieraztea politikoki oso desegokia suertatzea.

Badakigu gizarte elebidunak gizarte elebakarrak baino garestiagoak direla eta badakigu orobat gizarte horiek denbora eta espazio gehiago behar dutela, informazioak bikoiztua egon behar duela, badakigu horrek kostu bat duela. Ez dakigu, ordea, zer-nolako kostua duen.

Administrazioek harro erakusten dituzte hezkuntzara eta osasunera bideratutako kontu-sailak, adibidez. Hizkuntzan egiten diren gastuenak ere kontu-sail ezaguna izan behar luke eta gogoia beterik erakutsi behar litzateke, altxor bat gordetzeko modu bat baita inbertsio hori, euskara gordetzeko modu bat.

INDIOEN ERRESERBATIK IHESI

Euskara, 21. mendeari begira

Ludger Mees

“Pero a su peculiaridad nacional preparan las influencias lentas tanto más seguramente el ocaso, al forzar en nuestros días al más pequeño grupo, en el contacto recíproco de casi todos los puntos de Europa unos con otros, a renunciar a su carácter exclusivo. Arrinconan poco a poco su lengua y con ésta se pierde necesariamente a la vez también aquél. Ya en el día tiene que retroceder a la montaña, de decenio en decenio cada vez más, acosada por todos los lados, tratada como por mala madre precisamente por la parte más ilustrada de la nación, y es de prever que su decadencia tomará de aquí en adelante una marcha aún más acelerada (...) En menos de un siglo habrá desaparecido quizás el vascuence de la serie de lenguas vivas (...)”

Wilhelm von Humboldt, 1821.

“Cuando me pongo a pensar, así sobre esto como sobre la raza, comprendo claramente que esto se va: se va antes que termine el siglo que acaba de empezar.

El único remedio está en el dinero: y éste no se encuentra. El aldeano sabe de sobra que el euzkera de nada sirve al hijo. El remedio está, pues, en fundar industrias, adquirir caseríos, sostener compañías navieras, organizar sociedades de artes y oficios, hermandades benéficas y de mutua-

lidad de pesca, de agricultura, de ganadería, apoderarse o abrir vías de comunicación ... nacionalizando todas esas esferas de la vida, de suerte que el euzkera sirva de algo, porque sea obligatorio para tener parte en ellas. ¡Sólo Dios, único Grande y Poderoso puede remediarlo! Es preciso que el euzkera baste, y es el caso que no sirve más que para hablar de las operaciones agrícolas”.

Sabino Arana Goiri, 1901.

OINARRIZKO TXOSTENA

“XXI. Mende Hasierako Hizkuntza Politikaren Oinarriak” izeneko txostena arretaz irakurri ondoren, eta xehetasunetan sartu gabe, aitortu behar dut orokorrean bai txostenak oinarritzat duen filosofia zein bertan jasotzen diren ideia nagusiekin ados nagoela. Testua ausarta iruditzen zait, argudioak gardenak eta proposamenak zenbait kasutan berritzaileak eta ortodoxiaren aurkakoak. Horixe da behar duguna eta horregatik gustura gelditu naiz 66 orrialdeak nireganatu eta gero, bertan, besteak beste, nik neronek ere aspaldian eginak nituen zenbait gogoeta eta ideia aurkitu ditudalako. Ondoren egingo dudan komentarioak ez du, beraz, oso originala izatearen asmorik. Adostasun orokor batetik abiatuta testu bat komentatzea zailagoa baita aurkako jarrera batetik baino. Nire lerroon helburua da txostenaren ideia zenbaitzuetan sakontzea, baina baita ere –gogoeta batzuk txostenean duten orokortasunetik zehaztasunera eramanez– irakurri ahala bururatu zaizkidan galdera eta arazoak mahai gainean jartzea.

MENTALITATEAREN ALDAKETA: GOLAK SARTU, PENALTIA SIMULATU BEHARREAN.

Gaur ondo dakigu goiko aipuetan jasotako euskararen etorkizunari buruzko aurreikuspen nekrofilikoak ez direla bete. Euskara ez da desagertu eta. Bi baieztapenok testuinguru historiko berezietan eginak zeuden, gizartearen eraldaketa sakonak markaturiko testuinguruetan, hain zuzen. Humboldték iraultza politikoaren (Frantzia) eta sozio-ekonomikoaren (Ingalaterra) eraginpean idatzi zuen euskarari buruz pentsatzen zuena, Euskal Herrira bi bidaia egin ostean. Sabino Aranak, berriz, bere alderdikide eta laguna zen Engrazio Aranzadiri goian aipaturiko gutuna bidali zionean, industria iraultzak bi hamarkada luze zeraman Bizkaia eta Gipuzkoako gizarte eta ekonomia egitura hankaz gora jarriz eta gaztelania, modernitatearen hizkuntza bezala, bultzatuz. Humboldt eta Aranaren iragarpen ilunak ez dira bakarrak izan euskarari heriotza azkarra iragartzekoan. Azkenean, errealitateak gezurtatu egin ditu aurreikuspen horiek eta hori, funtsean, bi arrazoiengatik: alde batetik, hizkuntza gorde eta zaintzeko borondate tinkoa zeukan gizarte mugimendu zabal bat sortu zelako Euskal Herrian, eta, bestetik, Autonomia Estatutuaren bidez borondate tinko horrek aginte politikoaren babes zabala eskuratu zuelako, eta hau benetan funtsezkoa izan zen: etorkizunik eduki nahi duen aginte politikorik gabeko hizkuntzarik ez baitago mundu osoan zehar.

Hala eta guztiz ere, zorioneko bilakaera honek heriotza zigorra momentuz bertan behera utzi baldin badu ere, euskaltzale asko ez gara horretaz jabetu, edo ez dugu horretaz jabetu nahi. Izan ere, askoz errazagoa baita zalantzarik gabe etorriko den apokalipsiaren aurrean makurtzea eta horren morroi bihurtzea, ez hondamendia saihesteko botikarik ez dagoela pentsatzen dugulako, baizik eta dauden botika guztiak gutxiesten ditugulako: botika horiek agian lagundu lezakete hagineta mina gutxitzen –horrela pentsatzen dugu– baina ez ordea gure gorputza harrapatu duen minbizia eza-

batzen. *No-Future* mentalitate honekin bizitza zaila denez gero, kanpora begira beste itxura eman diogu, desagertzeaz dagoen eta nekez bizirik jarraitzen duen hizkuntzaren defendatzaile sutsuak bezala aurkezten baitugu geure burua. Euskara indioen erreserba batean jarri dugu giltzapean eta guk zaintzen ditugu erreserba horien mugak kanpotik datorren kalteak aldeztatik neutralizatzeko. Erreserbaren barruan, hizkuntza bizi eta garatu dadin, laguntza-sare zabal bat asmatu dugu. Hizkuntzaren alde edozer egiten hasi aurretik, mila oztopo ikusten ditugu eta oztopoak gainditu ahal izateko babes eskatzen dugu. Futbolaren adibidea aipatzearen, gure taktika guztiz defentsiboa da, golak ez jasotzea helburu nagusizat duena. Halako deskuidu batean kasualitatez beste taldearen atera hurbiltzen garenean, ez zaigu burutik pasa ere egiten gola sartzeko ahaleginak burutzea, horretarako kalitate nahikorik ez dugula iruditzen zaigulako. Gure ahaleginak antzezlan dotore bezain eraginkor batean biltzen dira, beste taldearen arean behin eta berriro antzezten duguna: gure gorputza lurrera botaz eta horrela penaltia disimulatuz, epailearen babes bila egoten gara etengabe, epailearen laguntzarik gabe ezin baitugu golik sartu. Horixe da, behintzat, pentsatzen duguna.

Gure gaira itzuliz, agerian utzi nahi nuen fenomeno hau da: nire ustez kontraesan handi bat dago 21. mendearen hasiera honetan euskarak bizi duen egoera eta horren inguruan eraikitako diskurtso askoren artean. Etorkizunari begira diseinatu beharreko hizkuntza politika orok, nire uste apalean, oinarritzat hartu beharko lituzkeen hiru funtsezko baieztapenak hauexek lirateke:

- a) Euskara, desagertu beharrean, garatu eta hedatu egin da azken hiru hamarkadetan. Ikuspuntu historiko batetik aztertuta, historia garaikidean euskarak ez du inoiz egun daukan indar eta presentziarik izan esparru desberdinetan (hezkuntza, kulturgintza, politika, komunikabideak, administrazioa, lan mundua...).

- b) Egoera horri ez dagokio diskurtso apokaliptikorik, ezta eten gabe babes bila ibiltzen den mentalitate penalti-disimulatzailerik. Mentalitate ofentsiboa behar dugu, gaur eguneko egoerak euskararen garapenerako eskaintzen dituen aukeretan sinesten duena.
- c) Sabino Aranak asmatu egin zuen fokua euskararen erabilgarritasunean jarri zuenean (“es preciso que el euskera baste”). Euskara garatu ahal izateko hizkuntza horrek zerbaitetarako balio behar du, eta zerbaitetarako balio ahal izateko lehenik eta behin kalitatea behar du, erakargarria behar du izan. Erabilgarritasuna, kalitatea, erakargarritasuna: hona hemen elkarren artean estuki loturiko hirukotearen zutabe nagusiak, edozein hizkuntza politikak jomugatzat hartu beharko lituzkeenak, hain zuzen.

Jakina, hemen aldarrikatzen den mentalitate aldaketa ezin da gauzatu egun batetik bestera, eta gainera badakit gauzatzekotan ere ez lituzkeela dauden arazoak besterik gabe konponduko. Halere, nekez aurkituko dugu gaur egungo arazoak konpontzeko giltzarik ez badugu abiapuntutzat hartzen analisi errealista eta hizkuntzaren erabilgarritasunean oinarrituriko ikuspegia. Hortik aurrera, guztiz ados nago Oinarrizko Txostenak planteatzen duenarekin, alegia, euskara zalantzarik gabe hizkuntzarik ahulena dela eta, “ahularen aldeko jokabidea garatu behar dute(la) herri-aginteeak eta gizarteak oro har” (30. or.). Herritarrok demokratikoki erabakitzen badugu euskara gure kulturaren ondare nagusienetariko bat bezala gorde eta garatu nahi dugula, diskriminazio-positiboak hizkuntza-politikaren ezinbesteko osagai bat izan beharko luke, baina ez bakarra eta ezta nagusia ere.

ELEANIZTASUNA

Askotan orain dela urte batzuetako anekdota bat kontatu izan dut. Artean, etxean nengoenean, goiz askotan semea ikastolara joateko autobus geltokira eramaten zuen aita bakarra izaten nintzen auzoan. Nirekin autobusaren zain hainbat ama, gehienak Zarauzta-rrak, batzuk inguruko herrietakoak, guztiak euskaldun peto-petoak. Garai hartan, emakume horien hizkuntza— aukeraketa xelebrea bezain eskandalagarria iruditzen zitzaidan: umeekin euskaraz, beraien artean gaztelaniaz. Eskandalagarria iruditzen zitzaidan alde batetik euskara umeentzako hizkuntza zela erakusten zutelako, eta, bestetik, nire aburuz beraien izaerari traizioa egiten ziotelako. Izan ere, euskaldunok —gutxi izanik eta euskaraz hitz egiteko aukera mugatua izan arren— ahal dugunean euskaraz hitz egiteari uko egitea barkatu ezinezko bekatutzat jotzen bainuen.

Gaur egun, ordea, nire iritzia zertxobait aldatu dut. Lehenik eta behin, pertsona orok hitz egin nahi duen hizkuntza aukeratzeko askatasuna eduki behar duela pentsatzen dut eta andre horiek, beste askok bezalaxe, zenbait kasutan gaztelania aukeratzen badute ez dela ezer gertatzen, zerbaitengatik izango da-eta. Gainera, gaztelania euskaldunon bigarren hizkuntza baldin bada eta hemengo kulturaren osagai garrantzitsu bat baldin bada, zergatik ezin du euskaldun batek gaztelania ere erabili nahi duen guztietan? Gaur egun gaizki iruditzen zaidan gauza bakarra —umeen hizkuntza versus helduen hizkuntza bezala laburbildu genezakeen bereizketarekin batera— euskaldun askoren itxurakeria da: denok gara oso abertzaleak, denok euskaltzale sutsuak, denok kilometroak-en eta antzeko agerrialdi publikoetan gure euskaltzaletasuna paseatzeko eta ospatzeko prest egoten gara, baina inork ikusten eta entzuten ez gaituenean gaztelaniara jotzen dugu, inork behartu gabe.

Azken finean, honekin esan nahi dudana ondorengoa da: etorkizunari begira onartu behar dugula elebakartasuna geroz eta gehiago baztertu behar dugula gure bizitzatik, eta hemen ere batzuk proposa-

tzen duten euskarazko elebakartasunari buruz ari naiz. 21. mende honetan, jarrera egokia ez da besterik gabe gaitzestea euskaldun batek gaztelaniaz hitz egiten duenean, baizik eta aukerak jartzea geroz eta euskal herritar gehiagok gutxienez bi hizkuntza ofizialak menderatu eta erabili ditzaten, ahal dela beste hirugarren edo laugarren hizkuntzarekin batera. Historikoki, gizarte liberal eta kapitalistaren ezarpenaren ezaugarri nagusienetakoa mobilizazio eta komunikazio prozesuak izan dira. Prozesu horien ondorioz, komunikazio esparruak zabaldu egin ziren. Frantses Iraultzaren garaiko herritar askok familiaritate kanpoko komunikazioa lantzeko bi aukera izaten zuten nagusiki: igandeko mezaren ostean, eta herriko azoka egunean. Harrez geroztik, komunikatzeko esparruak biziki ugartu egin dira eta egingo dira. Eta askotan, esparru horietariko bakoitzak komunikatzeko arau bereziak izaten ditu, baita komunikatzeko hizkuntza berezia ere. Esparru guzti horietan euskaraz (edo gaztelaniaz) aritu ahal izateko eskubidea aldarrikatzea asmo nostalgiko bezain arriskutsua da. Behingoz onartu beharko genuke esparru horietariko bakoitzaren ezaugarrien araberrako hizkuntza aukeraketa egin beharko genukeela. Hemen adibide asko aipatu genezake, baina ideia orokorra zehazteko gertu dudak bakarren bat aipatuko dut: Unibertsitateko ikerketa. Mundu osoko unibertsitate guztietan ikerketaren kalitatea neurtzeko erabiltzen den irizpidetariko bat ikerlariak estatu eta nazioarte mailako iker-sareetan bere lanaren emaitzak sartzeko eta kontrastatzeko duen gaitasuna izaten da. Horretarako, geroz eta gehiago, nahitaez ingeleza erabiltzera behartuta izaten da. Pentsatu daiteke, beraz, ikerlari euskaldun batek bere ikerketaren emaitza ingelesez nazioarte mailako aldizkari batean argitaratuko duela adituengana iritsi ahal izateko, bere iker-taldearen lankide euskaldunekin artikulua ahoz euskaraz landu eta, behar bada, euskarazko –edo gaztelaniazko– hedabideren batean ikerketaren emaitza dibulгатzen duen bitartean. Alderantzizko bidea ere gertatzen da Euskal Herriko Unibertsitatean: urtero hainbat doktorego tesi euskaraz idazten dira. Euskara bezalako erabat normalizatu gabeko hizkuntza baterako tesi horiek guztiz mesedegarriak izaten

dira terminoen eta kontzeptuen kodetze-lanean ekarpen handiak egin dituztelako. Ikerlari horiek, berriz, ahalegin berezia egin behar izaten dute beraien ikerketen emaitzen berri kanpoko ikerketa-sareetan sartu ahal izateko eta horretarako euskara ez den beste hizkuntza batez baliatu behar izaten dira. Ikuspuntu instituzional batetik aztertuta, Euskal Herriko Unibertsitateari bi bideak garrantzitsuak iruditzen zaizkio eta hori dela-eta laguntzak eskaintzen dizkie bai zientziaren euskarazko dibulgazioa landu zein jatorrizko ikerketa euskaraz egin eta horren emaitzak ondoren ingelesez aldizkari espezializatueta zabaltzeko nahi dituzten ikertzaileei. Ikerketa burutzeko eta zabaltzeko bidea edozein delarik ere, gauza bat garbi dago: 21. mendearen hasiera honetan, hizkuntza bakar batekin ez goazela inora, are gutxiago unibertsitatearen esparruan. Hizkuntza desberdinak erabiliko ditugu eremu desberdinetan. Aipatu dudan kasu konkretu honetan, ez dago zalantzarik bere doktorego tesia euskaraz idaztea erabaki duen ikerlariak eta baita ere bere ikerketa beste hizkuntza batean burutu duenak eta dibulgazio mailan euskarazko ekarpena egiteko asmoa daukanak ahalegin bereziak egin behar dituela bere asmoa gauzatu ahal izateko. Ahalegin horiek euskararen normalizazio-prozesurako guztiz funtsezkoak direnez gero, herri erakundeek –kasu honetan unibertsitatearen administrazioak– ahalegin horiek sustatzea eta laguntzea erabat beharrezkoa iruditzen zait.

BORONDATEA VERSUS INPOSAKETA: HITZ SAMURRAK, ERREALITATE GORDINA

“Borondatea ez da ongi konpontzen bortxarekin. Politikaren ondorioa bada nor edo nor halabeharrez eta ezinbestean hizkuntza bat ikastera eta erabiltzera bultzatzea, zerbaitek huts egiten du”. (58. or.)

“Hizkuntza politika malgutasunean eta progresibotasunean oinarritu behar da. Malgua, neurrikoa, eraso gisa sentitzen ez dena, beti ere integratzailea”. (58.or.)

Orain arteko lerro hauek irakurri dituen orok dagoeneko jakingo du nik Oinarrizko Txostenetik hartutako goiko bi aipu hauekin bat egiten dudala. Halere, kontua ez da hain erraza. Nire tesia da, nahiz eta norbanakoaren borondatea eta guztion "integrazioa" helburu izan, hizkuntza politikak ezin izango duela beti inposaketa eta koertzioa erabat ekidin. Are gehiago: hizkuntza politikak neurri batean beti izango da inposatzailea eta koertzitiboa, baina inposatzen duenak gehiago demokratiko baten borondate kolektiboa izan behar du oinarri, eta gehiago demokratiko hori ahalik eta zabalena izan dadila ahalegin bereziak egin behar dituzte hizkuntza politikaren arduradunek.

Hemen ere gauzak argiagoak geratuko dira teoriatik eguneroko errealitatera jaisten bagara, eta horretarako berriro ere Euskal Herriko Unibertsitatea hartuko dugu adibidetzat. UPV/EHU bere Estatutuen arabera bi hizkuntza ofizialen erabilera normala bermatzen duen unibertsitate elebiduna da. Hortaz, egun eskaintzen dituen ikasketa gehienak euskaraz zein gaztelaniaz ikasi daitezke. Azken urteotan, euskarazko aukera egiten duten ikasleen kopurua nabarmenki igo egin da eta laster matrikula berria emandako ikasleen erdia baino gehiago izango da euskaraz ikasi nahi duena. Halere, irakasle elebidunen kopurua oso mantso joan da gora, gaur egun % 35a ingurukoa delarik. Euskal Herriko Unibertsitatea unibertsitate publikoa da eta horren ondorioz gizartearen zerbitzuan egon behar du, gizarteak artikulatzen dituen beharrianak asetze aldera. Unibertsitatea bera elebiduna izanik eta gizartearen zati gero eta handiagoak euskarazko ikasketak eskatzen dituen une honetan, ez dago zalantzarik UPV/EHUK euskarazko irakats-eskaintzaren arlo horretan urratsak eman behar dituela, eta urrats horien artean garrantzitsuenetariko bat irakasle elebidunentzako lanpostuak sortzea da. Hori dela eta ulertu daiteke –Euskara Errektoreordetzak proposatuta eta UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onetsita– azken urteotan sortu diren irakasleentzako lanpostu gehien gehienak soslai elebidunarekin sortu izana.

Unibertsitatean euskarazko ikasketak eskatzen dituzten gero eta euskaldun gehiago baldin badago, bestelako zerbitzuak ere egoera berrira egokitu behar dira. Horrela, komenigarria eta beharrezkoa da jendaurreko lanpostuetan ere euskara maila bat eskatzea, elkarrizketa simple bat eramateko baino balio ez duen oinarrizko maila baldin bada ere. Izan ere, 2008an ezin baita onartu sarritan eman ohi den erantzuna ikasle euskaldun batek liburutegi edo atezaintza batean euskaraz zerbeit esan duenean: “Vuelve mañana porque el del euskera está por las mañanas”. Oinarrizko zerbitzu horiek euskaraz ere eskaini ahal izateko, hurrengo urteetako hizkuntza politika finkatzen duen plan estrategiko baten bidez, besteak beste, atezaintzetako lanpostu guztiei lehengo edo bigarren mailako soslai elebiduna esleitu zaie, lanpostu horietan dauden langileei –adinagatik salbuetsita ez badaude– oinarrizko jakintza maila egiaztatzeko bost urteko epea emanez.

Nire ustez, eta beti horrela defendatu izan dut, neurri horiek dira unibertsitate publiko batek halabeharrez hartu beharreko neurriak, ideologia eta pentsamolde politiko guztien gaineratik egon beharko luketen neurriak, hain zuzen. Hori horrela da ez baitut onartzen bere existentzia gizarteari zor dion erakunde publiko batek gizarte horrek eskatzen duena ez betetzea. Eta horretarako, besteak beste, irakasle elebidunak behar dira. Ingelesa irakasten duen hizkuntza akademia batek kontratatuko al ditu ingelesez ez dakiten irakasleak? Horien artean segur aski irakasle bikainak dira, baina akademia horrek ez ditu behar. Zarauzko hondartza zaintzeko igerian dakiten sorosleak kontratatzen badira udaran, igerian ez dakiten gainontzeko hiritar guztien bazterketa diskriminatzaile onartezintzat jo behar al da? Zerbitzu horrek ez al du kalitatea galtzen hiru aldiz 100 metrotako lasterketetan munduko txapelduna izan den baina igerian ez dakien hautagaia kontratatu beharrean inongo curriculumik ez duen baina uretan itotzen ez den izenik gabeko edonor hautatzen baldin badu?

Jakina, galdera horiek erretorikoak dira eta erantzun erraza dute. Unibertsitatean, ordea, tarteka marteka antzeko galderak edo salaketak egiten dira. Azkenekoak, 12 katedradunek prentsan argitaratutako manifestuan ageri dira errektoregorako hauteskundeetan hautagai bakarraren aurkako bozka eskatzeko. Hemen salatzen dena –gaztelaniaz, jakina– besteak beste, hauxe da:

“La contribución decisiva del equipo rectoral para acentuar una presión lingüística injustificable ha conducido a un declive de nuestra universidad. La forzada euskaldunización del PAS {Personal de Administración y Servicios, L.M.}, sin atender a las situaciones y dificultades de una plantilla no consolidada, además de exigir grandes sacrificios personales, no se justifica ni por sus resultados ni por sus costes. Respecto al profesorado, el problema es igualmente grave. Las plazas sin euskera preceptivo han sido prácticamente inexistentes. La confrontación de esta política lingüística con las necesidades expresadas por los centros y departamentos crea disfunciones graves que no tienen justificación. La falta de competencia en la selección de candidatos compromete la calidad de la actividad docente e investigadora de nuestra Universidad. También en la UPV/EHU se debe hablar de sobredosis lingüística. La función de la UPV/EHU no es ser un ámbito privilegiado de construcción de la nación vasca, sino la creación y difusión de conocimiento y la formación de profesionales. Las críticas sobre la política de euskaldunización forzosa de nuestra sociedad también pueden trasladarse a nuestra Universidad”.¹

Manifestu hau eredugarria da antzeko idazkietan errepikatzen diren topikoak eta aurreiritziak lerro gutxietan ongi laburbiltzen dituelako. Zer esanik ez dago Unibertsitateko hizkuntza politika –beste alorretako politika guztiak bezalaxe– eztabaidatu eta kritikatu daitekeela, egin dena eta egiten ari dena ez baita posible den bakarra. Halere, kritika hori sinplekeria eta topikoetan oinarritzeak

1 “Manifiesto por el ‘no’”. *El Correo*, 17.5.2008.

ez du batera laguntzen benetan eztabaidatu eta iritziak kontrastatu nahi baldin bada. Hemen, funtsean, egiten den salaketa gogorre-na da esatea hizkuntza politika ez dela dauden arazoak aztertu eta gainditzeko asmoz egin den analisi arrazional baten ondorioa, inposaketa ideologiko baten ondorioa baizik. Ikuspuntu honen arabera, irakasle elebidunak ez dira kontratatzen beharrezkoak direlako, baizik eta nazionalisten nazioa eraikitzeko tresna direlako. Lehen aipatu dugun matrikularen bilakaeraren analisisia ez da egiten. Ez da esaten eskolak emateko, salbuespen oso gutxi izan ezik, gaur egun ez dagoela gaztelaniazko irakasleak kontratatzeke inolako beharrik. Ez da esaten irakasle elebidunen lanpostuak sortzearen alternatiba ez dela lanpostu ez-elebidunak sortzea, baizik eta inongo lanposturik ez sortzea. Ez da esaten lanpostu baterako irakaslea aukeratzea hizkuntza politika definitzen duten arduradunen esku ez dagoela. Horretarako Unibertsitateko sailek osaturiko epaimahaiak daude eta hautagai batek kalifikazio maila nahikorik ez badu, nahiz eta elebiduna izan, lanpostua bete gabe gelditzen da (edo gelditu beharko luke, bestela epaimahaiak bere lana gaizki egingo luke). Ez da esaten Unibertsitatean hizkuntza politika malgutasun handiz aplikatu egiten dela eta hizkuntza eskakizuna inoiz ez dela izan oztoporik kalifikazio eta prestakuntza akademiko handiko irakasle ez-elebidunari ateak isteko: horra hor Euskara Errektoreordetzak emandako hainbat baimen irakasle ez-elebidunek aldi baterako lanpostu elebidunak betetzeko, beraiek epe jakin baten barruan bere burua euskalduntzeko konpromisoa sinatuz gero. Eta bukatzeko, ez da esaten hizkuntza politika hori babesten duen plan estrategikoa (Euskararen Plan Gidaria) UPV/EHUko organo erabakikor gorenak gehiengo handi batez onartu zuela. Nik ulertu dezaket, maila personal batean, lanpostu bat eskuratzeko euskara ikastera behartuta dagoen langileak pentsatzea politika hori ez dela batere "integratzailea", baizik eta bere aurkako "erasoa". Sentipen hori, segur aski, ezin da beti saihestu. Baina, beste alde batetik, kasu honetan Unibertsitateko arduradun eta diru publikoaren kudeatzaile bezala,

eskatu beharko nioke langile horri “inposaketa” horren arrazoiak ulertzen saiatzeko, eta euskara ikasi ahal izatea aukera bat bezala, eta ez mehatxu bat bezala ulertzea. Aipaturiko 12 katedradun horiek bezala “inposaketa” eta “mehatxuaren” diskurtsoa publikoki lantzen dutenek, berriz, edozein eztabaidatan sartu baino lehenago, nire ustez argitu beharko luketeen zalantza da benetan elebitasunaren aldeko urratsak emateko prest dauden ala ez. Izan ere, susmo hutsa baino gehiago den inpresioa baitaukat “sobredosis linguistikoaren” salaketa horren atzean egiazko kezka eta hizkuntza politika hobetzeko ardurarekin batera kasu askotan kontrako helburuak nahasten direla: edozein hizkuntza politika geldiarazteko helburuak, hain zuzen. Kasu horietan, “sobredosi” edo “fundamentalismo linguistikoaren” mozorroa erabiltzen da elebitasunaren aurkako jarrera tinko bati itxura emateko. Ez gaitezen inozoak izan: euskara ez den guztia gustura baztertu eta debekatuko luketen muturreko mega-abertzale horiek bezalaxe, egon badaude beste muturrekoak ere: euskara bera modernitaterako balio ez duen bitxikeria anakronikoa bezala mepreziatzen dutenak, aintzineko historiari buruzko esku-liburuetan edota turistak erakartzeko museoetako bitrina dotoreetan gorde nahiko luketenak, elebitasunean sinisten ez dutenak eta euskararen aldeko neurri guztiak norbanakoaren askatasuna murrizteko eta –garai bateko egoera politikoak behartuta– nazionalistei egindako kontzesiotzat jotzen dituztenak. Eta gainera –hauxe da azken bolada honetan gero eta maizago entzun daitekeen beste argudiotariko bat– denok gaztelaniaz badakigu, eta beraz elkar ulertzeko tresna badaukagu, zergatik eta zertarako artifizialki puztu hainbat hiritarrek ulertzen ez duten hizkuntza bat? Gaztelaniaz jakiteak berdinak egiten bagaitu, euskararen aldeko neurriak bultzatzea berdintasun horren aurkako politika diskriminatzailea litzateke.² Eta horrek eramaten gaitu azken komentario bateraino.

2 Adibide gisa, Aurelio Artetaren artikulua irakurri daiteke (“Unas ‘Bases’ sin fundamento”, *El Diario Vasco*, 2008/5/24). Bertan, besteak beste, ondorengoak esaten dira: “Menos aún es cierto que el monolingüe en lengua española restrinja la

EUSKARA ETA POLITIKA

“Euskara denona eta denontzat” dio Oinzrriko Txostenaren atal baten izenburuak (54. or.). Bertan, testuak ondorengo baieztapen eta nahiak azaldu ditu: “Euskararen geroa ez da euskaltzaleen –eta are gutxiago, abertzaleen– kontua bakarrik, euskara guztion ondarea denez, guztiok, baita euskaltzale sentitzen ez direnek ere, hartu beharko genuke eginkizun propiotzat gizartean eta gizabanakoen artean euskarari arnasa ematea, erabilera handituz eta elebakartasuna gaindituz”.

Ezin dut adostasun handiagorik sentitu baieztapen hauekin. Errealitatea, ordea, ez da horren samurra eta, beraz, zenbait xehe-tasun eta zehaztapen gehitzea beharrezkoa iruditzen zait baieztapen polit horiek errealistagoak eta eraginkorragoak izan daitezen:

- a. Ez genuke ilusiorik izan eta denbora gehiegirik galdu beharko goian aipaturiko bi muturretako sektoreak (euskarazko elebakartasuna ezarri nahi duten mega-abertzaleak; euskara oztopotzat jotzen duten eta elebitasunean sinisten ez duten agitpropalariak) hizkuntza politikaren aldeko kontsentsuan sartzeko. Ezinezkoa da eta. Gizartearen eta politikaren gutxiengoak ordezkatzeko dituzten taldeak izanik, bazterrean utzi beharko genituzke eta kontsentsua gainontzeko guztien artean landu, nahiz eta mutur fundamentalistetatik kontsentsura mugitzeko prest daudeneztat ateak beti zabalik utzi behar diren. Kontsentsu horrek bi oinarri sendo baino ez luke izan beharko abiapuntutzat: bata, bi hizkuntza ofizialen estatusa eta erabilera ahal den neurrian eta tokian tokiko errealitateak aintzat hartuz

libertad del bilingüe, porque ambos disponen del español como lengua compartida”. “Ni es defendible, en fin, la cansina salmodia de que haya que favorecer a la lengua más débil, la minorizada (!), pues tal discriminación positiva no se justifica por una agresión que hubiera que reparar o desde una voluntad general que consienta ese privilegio. Justificarlo será aún más difícil si todos disponemos ya de una lengua común, como es el español”.

parekatzearen aldeko borondatea; eta bigarrena, planteamendu maximalistak alde batera uzteko borondatea, ahalik eta adostasun zabalena lortze aldera.

- b. Egia baldin bada ere, euskara ez dela inorena, guztiona baizik, egia da, baita ere, historikoki hizkuntzaren aldeko borrika askoz ere gehiago lotuta izan dela nazionalismoarekin bestelako ideologiarekin baino. Eta hori ez da gertatu soilik Euskal Herrian, mendebaldeko mugimendu nazionalista guztien ezaugarritariko bat hizkuntza propioaren aldeko aldarrikapena izan baita. Euskal Herriko historia garaikidean nazionalismo eta hizkuntzaren arteko lotura honek bere alde ona eta txarra izan du: ona, hizkuntzarekiko interesa eta prestigioa piztu eta garatu duelako, eta txarra, sarri askotan propaganda politikoaren mesedetan –euskaltzalea eta abertzalearen kontzeptuak berdinduz– hizkuntzaren aldeko aldarrikapena patrimonializatu egin duelako. Hemen lan handia geratzen da egiteko. Nazionalistek behin betirako onartu beharko lukete Oinarrizko Txostenak aldarrikatzen duena (“Euskara denona eta denontzat”), baina aldi berean nazionalistak ez direnek (eta baita ere bestelako atxikipen nazionalak sentitzen dituzten euskal hiritarrek) ahalegin gehiago egin beharko lukete erakusteko beraien hizkuntza politika –hizkuntza politika bat egotea beharrezkotzat joez gero bederen– ez dela soilik “nazionalistek planteatzen dutena ken % 50a” formulak adierazten duena, alegia, ahal egin gehiago egin beharko luketela beraiek ere sarritan “nazionalisten bitxikeria” bezala ulertu duten hizkuntza politika propioa lantzeko. Fernando Bruesa zenak Hezkuntza Sailerik ederki erakutsi zuen nola urratu daitekeen bide hori.
- c. Bi mugimendu horiek eginez gero –nazionalistek gizar-tearen eta baita hizkuntzaren izaera plurala onartuz eta

gainontzekoek hizkuntza politikari garrantzi gehiago emanez— hizkuntza politikaren inguruko oinarritzko kontsentsu bat jorratu beharko genuke. Horrela bermatu beharko genuke aginte publikoaren kolore politikoa aldatzen denean, hizkuntza politikak aldaketa sakon eta traumatikorik ez jasatea. Horrek, jakina, ez du esan nahi alderdi politikoek hizkuntza politikari buruzko euren ideia eta programei uko egin behar dietenik. Ideia eta programa desberdin horiek hiritarrek hauteskundeetan baloratzen jarraituko dute. Desberdintasunen gaintetik, ordea, alderdi guztiek garbi edukiko balute —historiak ederki erakutsi duen bezala— kulturaren ondarea den hizkuntzaren bizitza eta erabilera etorkizunari begira bermatzeko aginte publikoaren babesa, nahikoa ez baldin bada ere, baina bai beharrezkoa dela, orduan aurrerapauso handia emango genuen. Ez da esan beharrik hori guztia hipotesi jakin batean oinarritzen dela, alegia, euskal hiritarrok —euskaldunok eta euskaraz ez dakitenek— gure hizkuntza propioa bizitzeko eta erabiltzeko borondatea dugula dioen hipotesian hain zuzen. Hiritarren borondatearekiko lotura hori egon ezean, edozein hizkuntza bitxikeria arkeologiko bat bihurtzen da, hizkuntza politika baino —Unamunoren adierazpen probokatzaile ospetsu haiek gogora ekartzeko— hildakoa duintasunez lurperatzeko hileta-elizkizunak beharko lituzkeena.

BUKATZEKO

Lerro hauek hasi ditut mentalitatearen aldaketa eskatuz, euskararekiko jarrera baikorragoa eta ofentsibagoan datzan aldaketa, hain zuzen. Bukaeran, berriz, hizkuntza politikaren beharra azpimarratu dut, eta baita politika horren inguruko adostasunaren beharra ere. Bi aldagai horien arteko orekan ikusten dut nik, behintzat, etorkizunerako bidea. Alde batetik, euskara indioen (euskaldunon) erreser-

ban giltzapean gordetzeko eta babesteko tentazioa gainditu behar dugu eta horretarako segur aski biziki maite ditugun zenbait ohiko pentsamolde eta aldarrikapen ahaztu beharko genituzke, hala nola mimetismo linguistikoa (“Gaztelaniak daukan oro nik ere euskararako nahi dut”) edo David eta Goliaten arteko nahasketa (euskarak ez du inoiz gaztelaniak duen garrantzi eta eragina izango, gaztelaniak, alemanak edo frantsesak inoiz ingelesak daukan garrantzi eta eragina izango ez duten bezalaxe). Guztietara iritsiko ez garenez, euskararen indar- eta erabilguneak definitu behar ditugu, beti hizkuntzaren kalitatea eta erakargarritasuna sustatzea helburu nagusizat hartuz. Kalitatean jarri behar dugu arreta, beraz, eta ez kuantitatean. Hobe da kalitatea duen eta jendea erakartzen duen ekimen bakarra egitea errutinak bultzaturiko mila ekimen aspergarri egitea baino. Horretarako, beste alde batetik, aginte publikoaren babesa behar da, bera hizkuntza politikaren norabidea definitzen duen eta behar diren baliabideak jarriko dituen eragile demokratikoa baita. Baliabideen banaketak ere beti kalitatea eta erakargarritasunari lotuta egon beharko luke, diru-laguntzaren jarraipena ebaluazio neurgarri baten emaitzaren arabera erabakiko delarik. Zerbait euskaraz edota euskararen alde egiten dela argudiatzea printzipioz, besterik gabe, ez luke nahiko izan beharko aginte publikoaren babesa jasotzeko.

Arestian aipatu bezalaxe, guztiz kontziente naiz hemen aldarrikatu dudan oreka –mentalitatearen aldaketa alde batetik, eta hizkuntza politika berritua bestetik– ez dela egun batetik bestera gauzatuko. Hori dela eta, “Euskara 21” gogoeta prozesua bezalako ekimen zabal eta anitzak behar beharrezkotzat jotzen ditut behin eta berriro aldarrikatzen den kontsentsua lantzeko. Eztabaida gizartearen sektore guztietara eramaten saiatu beharko genuke, baita –eta bereziki– Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzak abian jarri duen ekimen berri honetan inon ageri ez den sektore batengana: euskal gazteen mundura, hain zuzen. Gogoeta prozesu hau ez da erraza izango, hizkuntza oro komunikatzeko tresna soila baino askoz

ere gehiago delako. Globalizatutako mundu honetan hizkuntza gure identitatea osatzeko ezaugarri nagusienetariko bat ere denez gero, eztabaida kontu eta errespetu handiz eraman behar dugu, hori bai, eztabaida honen inplikazio edo sustrai politikoak –askotan ezku-tuak– ahaztu gabe. Oinarrizko Txostena lehen urrats garrantzitsua izan da eta bertan ageri diren (edo ageri ez diren) kontuen inguruko nire gogoetak mahai gainean jartzen saiatu naiz aurreko lerroetan. Hemendik aurrera irakurleek esango dute burutazio antzuak baino ez diren ala agian indioen erreserbatik ihes egiteko eta 21. mendeko bidea markatzeko orientabide gisa baliagarri izan litezkeen.

OINARRIZKO TXOSTENARI EGINDAKO EKARPENA

Xabier Mendiguren Bereziartu

1.- GAUR EGUNGO EGOERAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Komenigarria iruditu zait ekarpenari hasiera ematea, 2008ko apirilaren 9ko datarekin aurkeztutako *XXI. mende-hasierarako hizkuntza-politikaren oinarriak* txostenaren lehen partean maiz erabiltzen diren kontzeptu batzuen inguruan zenbait hausnarketa eginez. Izan ere, neurri handi batean, bai balantzea bai eta aurrera begirakoa ere egituratzen duten ideiak dira eta horregatik, garrantzi handikoa da kontzeptu horien inguruan egon litezkeen hausnarketa desberdinak plazaratzea. Hona hemen, beraz, ekarpenaren hasiera gisa gure iritzia hainbat gai eztabaidagarri buruz.

1.1.- Ustezko arrakastaz

Dokumentuan zehar, behin baino gehiagotan, azpimarratzen da aztertzen ari garen zikloaren emaitza arrakastatsua. *“Euskal gizarteak egin duen bide arrakastatsuen argitan baditugu arrazoiak etorkizunari itxaropen eta ilusioz begiratzeko”, “Errealitateak ez digu hil-kanpaien tristuran amiltzeko eta etorkizunari ezkortasunez begiratzeko motiborik ematen.”* Gauza jakina eta begi-bistakoa da, geldia ez garela egon eta euskararen alde egindakoak asko, interesgarriak, maiz eraginkorrak eta beti herri-mugimendu indartsu batek bultzatuak izan direla. Hala ere, arrakasta kontzeptuak ñabardurak eskatzen ditu, izan ere, arrakasta ez du egindakoak

bakarrik definitzen, egin behar zenak eta egin ez denak ere definitzen baitu 'arrakasta' kontzeptua. Beraz, triunfalistegiak dira baieztapen horiek, ez baita egia arrakastatsua izan dela, ez baitira lortu lor zitezkeen helburu guztiak eta, dudarik gabe, badugulako etorkizunari kezka begiratzeko arrazoi objektibo ugari. Gure uste apalean, beraz, egokiagoa da beroaldiak aparte utzita, mende-laurdenak izan dituen elementu, jardun, proiektu, ideia eta zeregin positiboez eta negatiboez hitz egitea eta, ez arrakastaz, txostenean egiten den bezala.

Bestalde, garrantzi handikoa da azpimarratzea gaur egun, oraindik ere, XXI. mendearen hasieran, euskararen etorkizuna hizkuntza bizi gisa ez duela bermatu aplikatu den hizkuntza-politikak. Gaixoa larri dago, biziko ote den ez dago ziurtaturik, konstante batzuk hobetu dira baina, edozein kasutan bizitza arriskuan du. Oso ohikoa izan da arduradun instituzionalen diskurtsoan euskararen normalizazioa ongi doalako ideia. Hasiera-hasieratik, erabili den diskurtsoa izan da, gaur egun, herritar askoren artean oso hedaturik dagoena eta neurri batez txostenak ere azpimarratzen duena. *"Egin behar zena egin dugu"* dio arduradun instituzional batek euskarearen normalizazioari erreferentzia eginez. Berriro ere, arrakasta egin denaren argitan soilik definiturik, egin ez dena ahazturik. Arrakastatsua izan garen edo ez epaitzerakoan egiten hasi ez dugun hori ere kontuan hartu behar dugu. Hona hainbat adibide:

1. Produktuen etiketak eta publizitatea euskaratzeko ahalegin eraginkorrik ez da egin. Ikusi besterik ez dago nola etiketatzen diren EAEn saltzen diren produktuak.
2. Aisialdiarekin erlazionaturik, zinema aretoak ditugu, esate baterako, adibide esanguratsu. 25 urte pasatu ondoren, euskarazko eskaintza irragarria da. Ezer gutxi egin da hori gainditzeko, arrakastatsua behintzat ez da izan.
3. Osakidetzak, 25 urte izan ditu plan bat abian jartzeko. Duela 4 urte jarri du abian, beraz, 20 urte galdu ditu.

4. Administrazio orokorra euskalduntzeko plangintzaldiek ez dituzte beren helburuak betetzen. Maiz, euskalduntako langileek euskara gaitasuna galtzen dute euskaraz lan egiten ez dutelako. Salbuetsita daude langile asko eta asko. Jardun hori ez du arrakastak definitzen.
5. Hezkuntzan ere, A eta B ereduek sortzen duten emaitza onartezina hipoteka bat da etorkizunari begira eta, hala ere, 25 urte pasatu ondoren, oraindik ere, indarrean diraute euskalduntzen ez duten ereduek. Unibertsitateek ezin izan dute beren eskaintza erabat euskaldundu 25 urtetan, eta Lanbide Heziketaren egoera tamalgarria, onartezina da.
6. Justiziaren egoera aipatu da txostenean, bereziki txarra delako. Bitxia gertatzen da benetan, Justizia bereziki aipatzea, neurri handi batean Espainiako Estatuaren esku dagoena, eta beste Sailik ez aipatzea.
7. Ertzaintzaren euskalduntzearen berririk ez dugu. Helburuak betetzen ote diren ez dakigu. Baina, ederki eza-gutzen dugu herritar batzuek pairatu behar izan duten tratu ertzainen aldetik euskara erabili nahi ez izateagatik.
8. Alor sozio-ekonomikoan euskalduntze-bidean ari diren enpresen kopurua oso txikia da eta alor horretan, gainerakoetan bezalaxe, geure buruari galdetu behar diogu benetan arrakastatsua ote den emaitza.
9. Hedabideen alorrean ere, herri-ekimenak egindako ahalgoinak, maiz garaian garaiko arduradun instituzionalen kontrol-nahi guztien gaintik, janzten du zertxobait emaitza. Izan ere, euskaldunok dugun eskaintza benetan urria da alor guztietan, prentsa idatzian, telebistan, aldizkari espezializatuetan, irratietan... Ezin aipatu gabe utzi ETB1en eskaintza urria, XXI. mendeko herritar batentzat guztiz askieza dena.

9. Beraz, aitortuz hala ere, urte hauetan guztietan ez garelako geldirik egon, herri-mugimendu bizi, irudimentsu eta indartsu batekin egin duen ekarpena zinez interesgarria izan dela, argi ikusten dugu azken mende-laurdena ezin dela arrakastatsu bezala definitu egin zitekeen asko eta asko eginkizun gelditu delako eta aplikatu den hizkuntza-politikak ez duelako ekarri hizkuntza-eskubideen bermea.

1.2.- Kontsentsuaz

Etengabe aipatzen eta goraiatzen da ‘kotsentsua’ dokumentu osoan zehar. *“Kotsentsu sozial eta politikoa – hori da euskarak ororen gaitetik behar duen arnasbide edo makulurik behinena”* *“Adostasuna da hizkuntza politika orok behar beharrezkoa duen sostengu nagusia...”* *“adostasuna delako hizkuntza politika orok behar-beharrezkoa duen sostengu nagusia alde berean demokratikoa eta eraginkorra izan nahi badu”* Kontzeptua berez ongi dago, ez dago dudarik, euskararen normalizazioa bezalako prozesu luze eta konplexu bat inplikatu guztien adostasunez aurrera eramaterik balego, horixe da jorratu beharreko bidea. Hala ere, kotsentsua bilatu eta adostasuna landu beharrek inplizituki esan nahi dute desberdin pentsatzen dutenen artean negoziatu beharra dagoela, zer negoziatu ordea ez da inon ere aipatzen. Beraz, kotsentsua behar dela esate hutsak ez du ekarpen handiegirik egiten, ezinbestean definitu behar da zer den negoziagaia eta zer ez dagoen negoziatzerik. Hori dokumentuan ez da zehazten eta eskubideak ere negoziagai ote dauden zantzuak ditugu: *“Eskubide hori egiazki nola bermatu herritar erdaldunen eskubideekin nola uztartu eta progresibotasuna nola gauzatu horiek dira demokratikoki erabakitzekeo puntuak”* Begi-bistakoa da hizkuntza-eskubideak nola bermatu ez dela negoziagarri, eskubideak bermatu egin behar dira kasu guztietan, ahalik eta denborarik laburrenean eta, kasu guztietan, epe ezagun baten barruan.

1.3.- HERRI-AGINTEEK EGIN DUTEN AHALEGINAZ

Txostenaren alor desberdinetan egiten zaio erreferentzia herri-aginteen zereginari: *“Sekulako ahalegina egin da urteotan euskararen alde. Herri aginteen eskutik eta gidaritzapean, gizarte ekimeneko eragile ugarien bultzadaz, euskal gizarteak inoiz ez bezalako indarrak jarri ditu urteotan euskara biziberritzeko lanetan”*. *“Aurrerakada hori gertatzea ezinezkoa izango litzateke, halaber, herri-erakundeen aitzindaritza eta konpromisorik gabe”*. *“Euskarak ez du bere historian inoiz izan herri-erakundeen aldetik urteotan jaso duen babes edo bultzadaren parekorik edo antzekorik”*. Autokritikarik ez da tes-tuan aurkitzen. Instituzioek gidatu dute, egin behar zena egin dute, inoiz ez bezalako indarrak jarri dituzte eta historiako unerik gozoena bizi izan dugu. Errealitatea ordea, ez da hain gozoa, zoritxarrez. Azken 25 urte hauetan aplikatu den hizkuntza-politikak une askotan gidaritza baino noraeza areago adierazi du. Ikus ditzagun adibide batzuk:

1. Alor instituzionala maiz egon da herri-mugimenduarekin liskarretan eta normalizazio-prozesuak alor instituzionala eta herri-mugimenduaren artean eskatzen duen konplizitate ez dugu ezagutu aldi osoan zehar, hau da mende-laurdenean. Historia ahazteko joera handia izaten dugu eta horregatik, berehalaxe ahaztu zaizkigu AEK versus HABE auzia, eta *Euskaldunon Egunkariaren* sorrerako gatazka ezagunenak baizik ez aipatzearen, baita gaur egungo bestelako bikoizketak ere indarra batu ordez, kontrol-nahiarengatik egiten direnak. Herri-mugimendua kontrolatzeko obsesioak harreman desegokiak sortu ditu, une askotan, azken mende-laurdenean. Ez da hori instituzioen lidergoaren adibiderik egokiena, dudarik gabe.
2. Administrazio Orokorra eta Toki Administrazioa aldiaren une askotan guztiz deskoordinaturik egon dira eta, gaur egun, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia indarrean ba-

dago ere Toki Administrazioan hizkuntza-politikak dituen hutsuneak oso handiak dira:

- a. Kontseiluak EHko 66 udalerrri populatuena aztertu zituen. Gehienak EAEkoak dira, logikoa denez, eta adibide gisa, esango dugu, erdietan ez dagoela euskararen ordenantzarik.
 - b. Plan orokorra heren batek ere ez du eta dutenen erdiak ez du betetzen planifikatutakoa.
 - c. 16 udalerririk bakarrik dute abian plangintza bat udaleko langile guztiak barne dituen.
 - d. Euskara ez dakiten langileak kontratatzen dituzte instituzio guztiek.
 - e. Euskara ofiziala ez den eremuan kokaturik dagoen Barañain herriak politika eraginkorragoa du Euskara ofiziala duen Bilbok baino. Aitzindaritza? Gidaritza? Ibarrezkerreko udalerriek aplikatzen duten hizkuntza-politika desegokia da eta euskara lehenesten duen hizkuntza-politika egokia eta eraginkorra definitzen duten parametroetara udalerririk bakarra iritsi da. Toki Administrazio gehienetan aplikatzen den hizkuntza-politika zinez eskasa da.
3. Laguntza eta araua dira edozein politika aurrera ateratzeko zutaberik garrantzitsuenak. Hizkuntza-politikaren kasuan bien arteko desoreka oso nabarmena da. Lagundu egiten da etengabe eta gutxi arautzen da euskararen normalizazioaren alorrean eraginkortasuna galduz.
 4. Hizkuntza-eskubideak sistematikoki urratzen dira Administrazio guztietan Hizkuntz Eskubideen Behatokiak azken 5 urteotan ziurtatu ahal izan duen bezala.

5. Hala ere, egia da gure historian inoiz ez dugula izan herri-erakundeen aldetik pareko babes edo bultzadarik. Euskararen historia oso latza izan da eta horregatik da oraingoa unea 'gozoa' eta ez hainbeste normalizazioaren aldeko politika eraginkorrak abiatu direlako. Bestalde, esan dezagun, Nafar Gobernuak ere berdin-berdin esan lezakeela, hau da, euskarak Nafarroan inoizko unerik gozoena bizi duela, eta egia litzateke gainera, eta horrek ez luke, begi-bistakoa denez, euskararen etorkizuna bermatuko, eta euskarak Nafarroan pairatzen duen egoera latza ere ez luke ezkutatuko. Balantze serio batek baztertu egin beharko lituzke horrelako esamoldeak.

1.4.- Progresibotasunaz

Ez da asko esatea prozesu sozial konplexua den euskararen normalizazioa progresiboki landu behar dela esatea. Ez dugu asko esaten goizetik gauera ezin dela dena lortu esanez. Kezkatzen gaituena da nola erabili izan den progresibitatearen kontzeptua kritika saihesteko eta *"dena ongi doan"* irudia emateko. Euskararen alde zerbait egite hutsak balorazio positiboa eskatzen du, positiboki baloratu behar da eta norbait kexu agertzen bada ez delako nahikoa egiten, orduantxe agertzen da *"progresibitatea"* arduradun politikoaren salbatzaile gisa. Hizkuntza-politika, politika planifikatua da, horixe du ezaugarri eta progresibitatea soilik plangintza baten barruan kokatzen den kontzeptua da. Progresibitatea hitz hutsa da ez baditu esplizituki ezarriak hasiera- eta bukaera-datak. Eztabaida liteke bi puntuen arteko denbora-tartea txikia ala handia den, baina hori zilegi da. Baina ez da zilegi bukaera-datarik gabeko plangintza baten barruan progresibitatea argudiatzea egiten denaren inguruko kritika sortzen denean. Urte hauetan guztietan ezagutu dugun hizkuntza-politikaren ezaugarriak desegokiena da hori. Izan ere, sistematikoki saihestu dira epeak eta horiek ezarri diren kasuetan ez dira eskubideak bermatu beharrekina erlazonaturik egon, baizik

eta ezagutza-tasarekin derrigortasun-daten kasuan bezala. Euskararen normalizazioa, fenomeno soziala den neurrian, gizarteko alor guztietan eragin behar dugu politikaren bitartez eta horrek epe eta helburu zehatzak dituen politika planifikatua eskatzen du, existitu ez dena, eta gabezia horri kritika egin zaionean kritikatzaileri eraso zaio gaia saihestuz.

Nafarroako Gobernua ere, Eusko Jaurlaritza bezala, progresiboki ari da duela 25 urte baino egoera hobean dago euskara Nafarroan baina denok dakigu euskara ez dela normalizatzen ari herrialde horretan. Nafarroako Gobernuak ere progresiboki ari dela argudia lezake, Eusko Jaurlaritza bezala, eperik gabe ari baita lanean. Honako galdera eredu hauek egin beharko lizkioke bere buruari euskara normalizatu nahi duen arduradun politikoak:

1. Noizko aurreikusten dugu gure hizkuntza politikarekin ezagutzaren unibertsalizazioa?
2. Noiz lan egingo du Administrazioak euskaraz?
3. Noizko izango dira etiketak euskaraz? Noizko publizitatea?
4. Noiz aurreikusten da EAEko enpresen laurdenak euskalduntze plana izango duela?
5. Noizko Osakidetzako pediatria zerbitzua euskaraz?
6. Noiz eskainiko du Lanbide Heziketak bere eskaintza oso-osorik euskaraz?
7. Noiz aurreikusten da Ertzaintzak euskaldunekin erabat euskaraz lan egin ahal izatea ?

Alor, Sektore eta Sail guztietan lan egin beharko litzateke epeak oso garbi daudela eta orduantxe argudiatu ahal izango genuke progresibotasuna, bitartean ez.

Bestalde, progresibotasuna eta gardentasuna bateraezinak diren bi kontzeptu dira. Administrazioako langile bakoitzaren mahai

gainean herritarrok ikusteko moduan eta inork kentzeko modurik ez duela langile horrek noiz atendituko gaituen euskaraz irakurri beharko genuke. Administrazioak noiz lan egingo duen euskaraz ikusi beharko genuke bulego ofizial batean sartzen garen bakoitzean eta alor pribatuan ere gisa bereko informazioa beharko genuke. Horrela ulerturik onargarria da progresibotasunaren kontzeptua baina, orain arte bezala erabiltzeak kontrako ondorioak ditu. Hau da, gardentasun falta, ez dakigulako prozesuak noiz bukatzen diren eta terminoaren erabilera zitala da, normalizazio-prozesua gidatzeko dauden ezintasunak ezkututzen baititu.

1.5.- Erabileraz

Dokumentuaren tesi nagusia da behar baino gutxiago erabiltzen dela. *“Erabilera da giltzarria”*. *“erabiliz bakarrik zorrotz daiteke “aizkora” eta kamuts bada erabiltzaileek lukete errua (Euskaldunek berek dute errua esan zuen Axularrek)”*. *“Erabilera da etorkizunaren giltzarria baina legeak ezin du bermatu, hiritarrek baizik”* *“lehen baino askoz ere gehiago egiten dugu euskaraz?”* Azken galderak horrek erantzun erraza du. BAI. Inoiz baino gehiago egiten da, lehen egiten ez zen lekuetan eta horra hor garrantzitsuena: dugun ezagutza-tasa zein den kontuan hartuz espero daitekeen erabilera-tasa oso altua da. Horrela, diskurtso ofizialean esaten zaigunaren kontra euskaldunaren hizkuntzarekiko atxikimendua handia da eta aukera duenean euskaraz egin ohi du, salbuespenak gorabehera. Salbuespena bihurtu da arau orokor, beraz, hori ez da kasualitatearen ondorioa. Izan ere, azken 25 urteotan, hizkuntza-politika gidatu duen tesi nagusiak porrot egin duela ezkutatzeko esaten da gutxi erabiltzen dela. Tesi horren arabera, nahikoa zen belaunaldi berriak euskalduntzea euskara normalizatzeko, beraz, hortxe jarri da indar guztia gizarte-espazioak euskalduntzea neurri handi batez baztertuz, agian pentsatuz, belaunaldi berri euskaldunek berez euskaldunduko zituztela espazio horiek beren presentzia hutsarekin. Txostenak ere, tesiaren okerra aipatzen du: *“eskola euskalduntzearekin eta neurri apalagoan*

bada ere euskal irrati eta telebista publikoa edukitzearekin, ondorengo belaunaldiak behin betikoz salbatuko dute euskara: hori uste izan du 80ko hamarkadako belaunaldiak, eta uste horren gainean eraiki da urteotan hizkuntza politikari eman zaion bultzada emateko beharrezko izan den adostasuna. Uste horrek ordea, erdia ustel du.” Nolanahi ere, tesia okerra dela aipatzen bada ere, ardurak saihesten dituenaren erredakzioa du izan ere, uste hori 80ko belaunaldiak izan duela dioen lekuan, hizkuntza-politikaren ardura izan dutenek izan dutela esan behar zuen eta horren gainean eraiki dena ez da adostasuna, baizik eta hizkuntza-politika bera. Dokumentuan joera handiegia dago arduradun politikoan ardurak saihesteko beste batzuei egotziz egoeraren ardura zuzenean edo zeharka. Hizkuntza-politika lideratzea instituzioen zeregina izan bada, egoeraren ardura nagusia ere haiei dagokie eta, hala ere, ez dago autokritika sendorik dokumentuan.

1. *“Gauzak aurrerago joan ez badira gizarteak oro har mugak ezartzen dituelako da”*. Muga horiek arduradun politikoan buruan daude nagusiki.
2. *“Hizkuntzaren erabilera herritarren esku geratzen da eta hizkuntza askatasuna da irizpide nagusia”*. Erabilera ez dago herritarren esku aukerarik ez dutelako, politikak ez dituelako aukera horiek sortu.
3. *“Erabilera da giltzarria eta herritarrak dira, gara protagonistak”*. Erabiltzeko ez da nahikoa borondatea, politika egin behar da.
4. *“Galdetu beharko genioke gure buruari lehen baino asko ere gehiago egiten ote duten euskaraz euskal hiztunek beren artean.”* Galdetu beharko genioke gehiago ez badute egiten zergatik den.
5. *“Ahaztu egiten da euskararen salbazioak hiztunak eskatzen dituela, ez salbatzaileak”*. Politika egoki bat ere eskatzen du.

6. *“Ikasketak euskaraz egiten dituzten ikasleetariko askok ikasgelatik jolastokira pasatzen direnean euskara osorik edo partez albora utzi eta gaztelaniaz egiten dute jolas”* Zilegi da aitortzea hizkuntza-politikak ez duela hori ekidin.
7. *“Euskara-gaitasun tituludunen eta euskararen erabileraren artean ez dago proportzio egokirik”*. Ez da euskarazko zirkuiturik sortu tituludun horiek jasotzeko.
8. *“Estatuaren Administrazio periferikoak urteotan erakutsi duen utzikeria”*. Utzikeria ez dago bakarrik Administrazio periferikoan.

Bestalde, esan behar dugu, erabileraz hitz egiten dugunean, ahozko komunikazioa datorkigula nagusiki burura baina, irakurtzea eta entzutea ere komunikazioa da. Etiketak irakurtzea, hedabideak kontsumitzea, erosten ditugun produktuen argibideak euskaraz irakurtzea, publizitatea, eta abar luze bat ere erabileraz da eta hori ez dago erabiltzaileen borondatearen baitan. Beraz, ez da guztiz egia legez ezin dutela erabileraz bermatu. Legez bermatu behar da erabileraz-saioak ez direla zapuztuko eta eskubideak ez direla urratuko eta hori legez bakarrik egin liteke. Ardura politikoa saihesteko modua da hori argudiatzea, hizkuntza-politikak arauak sortu behar ditu alor guztietan, zehatzak, herritarrak babesteko modukoak, eskubideak urratzen dituztenei zigorra ezarri behar zaie, zerbitzu guztiak euskaraz jasotzeko aukera ugaria dagoela bermatu behar da legez eta hori egin denean, ez bada erabiltzen, orduan leporatu ahal izango zaio euskaldunari zabarkeria.

Bestalde, komunikazio-saio ugari zapuzteak emozionalki eragiten dio euskaldunari eta zama horrekin bizi behar du etengabe. Egoera horrek markatu egiten du eta beste komunikazio-saio batzuk hasi behar dituztenean ezagutzen ez duen jendearekin zama hori beti egongo da presente. Beraz, ez da bidezkoa euskaldunari egoeraren errua leporatzea.

1.6.- Eskolaren zeregina normalizazio-prozesuan

Urte ugari eman dugu hizkuntza-politikaren tesi nagusia okerra zela esanez. Urte askotan politikaren ardura izan duten agintari politikoek uste izan dute belaunaldi berriak euskaldunduz iritsiko ginela normalizaziora. Helduen euskalduntzeak urte askotan izan duen bazterkeria ere tesi nagusi horren ondorioa da. Behin baino gehiagotan hitz egin diote belaunaldi galduaz erreferentzia eginez populazio helduari eta indarrak belaunaldi berrien prestakuntzara bideratu dituzte. Horregatik da euskalduntzearen ikuspuntutik Sailik aurreratuen. Hala ere, bertan aurki dezakegu hizkuntza politikaren bigarren desoreka estrukturala eta estrategikoa. Urte askotan ez zaio indarrez ekin gizarte-espazioen euskalduntzeari belaunaldi berrien inkorporazioak berez euskaldunduko zituela pentsatuz. Orain belaunaldi horiei leporatzen zaie ez dutela erabiltzen eta ondorioz horiena da errua baina politika diseinatu dutenena da nagusiki ardura, ez baitute aurreikusi norbanakoak euskalduntzearekin batera ezinbestekoa zela gizarte-espazioak euskalduntzea. Orain eskolak euskalduntzen du (Hori ere partzialki eta ez nahiko eta beharko genukeen intentsitatez) eta gizarteak erdalduntzen alde batean irabazten duguna bestean galaraziz. Hizkuntza-politika desorekatu baten ondorio lazgarria da hori.

Eskolak belaunaldi berriak osorik euskaldundu ditzake, ez dago arrazoi teknikorik hori horrela ez izateko. Urrun dago hala ere helburu hori lortzetik eta beharrezkoa litzateke erreforma sakon bat helburu hori bete ahal izateko.

1.7.- Euskararen aldeko neurriez

Dokumentuan zehar hainbat aldiz aipatzen da ideia lauso bat. Ideia horrek zerbait ezkututzen du baina ez dago argibiderik. Eskertzekoa litzateke adibideren bat ematea edo bestela kendu egin beharko lirateke aipamen lauso horiek: *“euskararen aldekoa dirudien neurri sustatzaile oro ez da berez eta nahitaez euskararen aldeko”* *“bere*

alde edozer egitea ez da bide segurua euskararentzako” “zenbait herritar euskaratik uxatzen dituzten jarduerak borondaterik onenez bultzatuak izan arren, ez dira euskararentzat onuragarri” “neurri eraginkorrek behar dira nahitaez euskara indartzeko, baina edozer ez da onargarri ezta komenigarri ere”. Etengabe aipatzen da kontzeptu hau era oso lausoan, zer esan nahi den argi azaldu beharko litza-teke, bestela kendu egin behar dira aipamenok, ez baita garbi uler-tzen zer esan nahi den.

1.8.- Boluntarismoaz

Pasarte iluna da boluntarismoaz ari dena. Alde batetik, ez delako definitzen zer den boluntarismoa. *“Bereziki inportantea da etorkizuneko hizkuntza politika diseinatzerakoan boluntarismoa alde batera uztea. Militantzia beharrezkoa dugu, baina boluntarismoa ezin da izan hizkuntza politikaren oinarri.” “Ezin esan beti boluntarismotik guztiz salbu egon garenik baina etorkizunari begira beharrezkoa dugu errealitatearen mugak eta errealitateak bere barnean dituen arau sozial idatzi gabeak ahazten dituen boluntarismoari ateak ixtea.”* Ikusten denez oso iluna da testua. Ez dakigu zer diren arau sozial idatzi gabeak, nola jakin idatzi gabeak badira, ez dakigu nola definitzen den boluntarismoa, militantzia eta boluntarismoa desberdinak direla suma dezakegu baina, zein den desberdintasuna ez dago jakiterik. Dokumentuak erredakzio iluna du hainbat pasartetan eta hau da adibiderik nabarmenetako bat. Iluntasun hori areagotu egiten da aurrera begira ere boluntarismoari buruzko aipamena egitean: “Boluntarismoak ez luke, beraz, inolako hizkuntza politikaren oinarri izan behar, horretatik euskarak ez bailuke deus irabaziko”.

2.- HIZKUNTZA –POLITIKA BERRI ERAGINKORRA

Definizioz euskararen normalizazioaren alde hartzen diren erabakien eta esleitzen diren baliabideen multzoak osatzen du hizkuntza-politika. Bi elementu horien arteko oreka ezinbestekoa da politika

eraginkor bat nahi badugu. Edozein kasutan, hizkuntza-eskubideen kontzeptua ardatz nagusia da hizkuntza-politika diseinatzerakoan, politika horren lehen zeregina eskubideak bermatzea baita. Horretarako, eskubideok bere alor eta hedadura guztietan babestuko dituen arkitektura juridiko-legala beharrezkoa da. Zehatza izan behar du arauak, interpretazioei aukerarik emango ez diena; beraz, honako hauek dira arkitektura juridiko horren ezaugarri nagusiak:

1. Hizkuntza-eskubideak ardatz, horiek babesteko testu juridiko zehatzak behar dira.
2. Normalizazioak behar dituen alor guztietan garatuko da.
3. Euskarari estatus egokia eskainiko zaio, gutxienez gaztelaniak duen berbera.
4. Hizkuntza-eskubideen urraketa egiten dutenentzat zigorrak aurreikusi behar ditu.
5. Epe zehatzak ezarri behar dira inplikaturakoak molda daitezzen.

Azpimarratzekoa da, hizkuntza-politika, kasu guztietan presente dagoen politika dela, euskararen alde zerbait egiten denean eta ezer egiten ez denean ere. Horrekin esan nahi dugu, euskararen aldeko neurriak ez hartzea ere hizkuntza-politika dela eta gainerako politiketan hizkuntza-irizpiderik ez hartzea ere, hizkuntza-politika egitea dela. Etxebizitza-politikaz hizkuntza-politika egiten da, osasungintzaz ere, hizkuntza-politika egiten da, turismoa, merkataritza, herrizaingoa... Sail guzti-guztietan egiten da hizkuntza-politika, euskararen aldekoa izan daitekeena edo kontrakoa. Beraz, ez dago jarrerara neutralik, kasu guzti-guztietan existitzen da hizkuntza-politika, oso gutxi baitira pertsonen artean hizkuntza erabili gabe burutzen diren ekintzak.

Horregatik, oso garbi izan behar dugu, zer ezaugarrik definitzen duten hizkuntza-politika egokia eta horren arabera lan egin.

Hona hemen, beraz, hizkuntza-politika egoki batek izan behar dituen ezaugarriak:

Toki Administrazioetik Administrazio Nagusirainokoa, izango da hizkuntza-politika kasu guztietan eraginkorra izango bada. Ezin da orain arteko egoerarekin segitu, non Administrazio bakoitzak egoki ikusten duen politika aplikatzen baitu. Hizkuntza-politika planifikatua eta koordinatua behar da indarrak metatzeko eta eraginkorragoa izateko. Administrazio bakoitzak bere bidea jorratzea bide ahula da eta ondorioz, errealitate tamalgarri hori ekidin nahi badugu estuki koordinatu behar dira abiatzen diren politikak.

Normalizazio-prozesu batek hizkuntza-egoera irauli behar du eta, eraginkorra izango bada, gizarte osoari eragin behar dio. Beraz, Administrazio guztiak daude inplikaturik. Administrazioen artean eskuduntza-banaketa egiten dute kudeaketaren eraginkortasunaren ikuspuntutik, hori dela eta, Administrazio bakoitzak kudeatzen duen eskuduntza horietako bakoitza euskararen normalizazio-prozesuaren zerbitzuan jarri behar du. Funtsezkoa da era koordinatuan lan egitea eta kasu guztietan normalizazio-prozesuaren beharrek administrazioaren autonomia eta antzeko kontzeptuen gainera egon behar dute. Une bakoitzean eta leku bakoitzean dagoen gizona egin behar da, era planifikatuan eta koordinazio estuan; horrela ez egiteak normalizazio-prozesua bera baldintzatzen baitu. Normalizazio-prozesuak Zuzendaritza politikoa izan behar du, organigrama orokorreko gailurrean kokaturik gainerako Saitetan zuzen eta nabarmenki eragiteko modukoa. Zuzendaritza horrek izaera exekutiboa izango du eta bere barnean bi adar: alde batetik, teknikoak, prozesuaren bilakaera etengabe ebaluatzeko, nazioarteko esperientziak aztertu, egokitu eta, hala balegokio, indarrean jartzeko, aplikatzen diren estrategien eraginkortasuna neurtzeko eta abarretarako; eta bestaldetik, soziala, euskararen normalizazioaren alde modu eta forma desberdinez ari diren taldeen, enpresen eta norbanakoen ahotsa entzun, haien esperientziaz baliatu eta ezinbestekoa izango den ekimen soziala indartu eta erabiltzeko. Zuzendaritza politikoa,

soziala eta tekniko batek gidatuko du, beraz, normalizazio-prozesua eta horrek berak gidatu behar du Administrazio desberdinek egin behar duten politika.

Sektoreen eta Sailen artekoa izatea da hizkuntza-politika egokiaren beste ezaugarri bat. Euskararen normalizazioa ez da kultura edo hezkuntza, hori baino askoz ere gehiago da, ogasuna, osasuna, herrizaingoa, justizia, ingurumena, merkataritza, aisia, industria, garraioa... ere euskararen normalizazioa dira. Politika guztietatik egiten da hizkuntza-politika eta soilik horrela lan eginez normalizatuko dugu euskara. Administrazioek diruz laguntzen duten edozein proiektu edo jardun hizkuntza-politika izango dira baldin eta hizkuntza-irizpideak ezartzen badira. Politika guztien bitartez egin daiteke hizkuntza-politika. Bestalde, hizkuntza-politikak orekatua izan behar du, hau da, gizarteko sektore bakar batean soilik eragiten badugu (gazteak, emakumeak, langileak...) prozesua desorekatu eta eraginkortasuna galtzen da. Adibidez, belaunaldi berriei soilik begiratzen dien politikak nekez lortuko du normalizazioa, alor sozio-ekonomikoa ahazten duenak ere ez du lortuko, helduen funtsezko papera ahaztu eta mespretxatzen duenak ez du helburua lortuko. Sektore eta Sail guztietan eragin behar da, ezinbestean, alor batean irabazten duguna ondokoan gal ez dezagun. Gizartea unitate konplexu oso bat da eta horrelaxe diseinatu behar da politika ere.

Helburu eta epe zehatzak dituen da hizkuntza-politika egokia. Hizkuntza-politika zerbait baldin bada, politika planifikatua da ezin da bestela kudeatu, egite hutsak ez gaitu helburura gerturatzen, euskararen aldeko egite huts ez planifikatuak gure kontra doan denbora faktoreari negatiboki eragiten dio. Lehenengo eta behin, azken helburua definitu behar da, definizio argia, gardena, denok ulertzeko modukoa behar dugu, ezinezko sozialik gabea. Helburu horretara iristeko eman beharreko pausoek, horiek eman ahal izateko epeek eta bitartekoez eta abarrek unitate zatiezina osatzen dute. Arestian esan bezala, jardute hutsak ez gaitu helburura hurbiltzen. Normalizazio-prozesuak diseinu teorikoa izan behar du

gauden momentutik hasi eta helbururainoko bidea egingo duena. Gizarte-bilakaeraren arabera, berrikusi beharko dira helburuak eta epeak baina, edozein kasutan, zehatz-mehatz ezagutuko behar-koak izango dira.

Gaur egun hauxe da hizkuntza-politikak duen hutsunerik nabarmenetako bat. Ez da lan egiten epe zehatzekin, euskaldundu beharreko alor bakoitza jardun amaigabeen dago murgilduta. Beti ari gara, beti gaude atzo baino hobeto baina ez dakigu noiz iritsiko garen helmugara, ez maila estrategikoan ezta taktikoan ere. Alor garrantzitsu asko batere eperik eta jardunik gabe ditugu herritarren borondate hutsaren eskuetan galduta. Alor askok ez dute atzean politika eraginkor bat eta horrek politikari berari noraeza ezartzen dio. Kosta ala kosta gainditu egin behar da horrela lan egiteko ohi-tura.

Baliabidez ongi hornitua behar du hizkuntza-politikak. Hala ere, ez da alferrik ordaindu behar, faboreko laguntza hutsa da berez egin behar denarengatik dirua ematea. Beraz, garrantzi handikoa da politika definitzen duten bi elementuen artean oreka bilatzea, araua eta laguntzaren artekoa, alegia. Euskaldun bat kontratatze-ko aukera genuenean erdalduna kontratatu eta gero hura euskaldun-tzen dirutza inbertitzea, izenik gabeko diru-xahuketa da. Baliabi-deen bitartez, normalizazioak ezinbesteko dituen bideak azkartzeko eta proiektuak sortzeko aukera bilatu behar dugu, hau da, arauaren bitartez lortzeko aukerarik ez dugun hori lortzeko. Edozein politika-tan ezar daitezke hizkuntza-irizpide argi eta garbiak dituzten diru-baliabideak; beraz, horrela, biderkatu egingo da inbertsioen era-ginkortasuna.

Gastatzeko moduari buruzko hausnarketa zabala egin behar da eta beldurra galdu behar diogu eskubideen berme juridiko le-galari, beste gauza batzuen artean hizkuntza-eskubideak ere giza eskubideak direlako.

Norbanakoak eta espazioak euskalduntzeari begirakoa da hizkuntza-politikarik egokiena. Huts handia da pentsatzea nor-

banakoak euskalduntze soilarekin gizarte-espazioak ere euskaldun-duko direla. Hitz egin dugu jada horretaz eta ikusi dugu orain arteko hizkuntza politika gidatu duen ideia nagusia izan dela, ideia guztiz okerra bestalde, txostenak berak aitortzen duen bezala. Ezagutza unibertsalera iritsi behar dugu ahal bezain azkar eta prozesu hori garatzen den une berean espazioak irabazi behar dira euskararentzat oraingo euskaldunak etorkizunean ere izango badira.

Une guztietan, norbanakoek zer motibazio duten, zer oztopo aurkitzen duten aztertu behar da eta, era berean, espazioak euskalduntzeko unean ere, zer motibazio sozialekin egiten dugun topo eta zer oztopo aurkitzen dugun ere aztertu behar dugu. Ezagutza unibertsalizatzeko bidea jorratzen dugun neurri berean gizartean espazioak irabazi behar dira erabilera areagotzeko, hauxe da hizkuntza politika egoki baten diseinuan beti presente izan behar dugun ideia. Beren burua elikatzen duten bi bide dira: ezagutzeak erabiltzeko aukera irekitzen du eta erabiltzeak ezagutzeko gogoia pizten du baina, era berean, zirkulua ez bada norabide horretan ari alderantzikatu egiten da joera normalizazio-prozesuaren kaltetan. Norbanakoak motibazioz iristen dira ezagutzara eta horiek sorburu desberdina izan dezakete eta espazioak funtsean hizkuntza-politikaz euskalduntzen dira zailagoa baita motibazio kontzeptua talde bati egokitzea.

Erabilera sozial normalizatua da kasu guztietan hizkuntza-politikaren helburua. Ez da inoiz ezagutza unibertsala izango bakarrik, ezagutza unibertsalak berez eta bakarrik ez baitu erabilera soziala bermatzen. Gizartean zirkuitu handi bat osatu behar dugu, gero eta jendetsuagoa dena, gero eta erakargarriagoa eta jardun politiko, ekonomiko, kulturala eta soziala eraldatzeko gauza izango dena, bere erakarpen-indarrez. 'Euskaldun bat = erabiltzaile bat' formula beteko da zirkuitu erakargarri bat sortzeko gauza garen unean eta hori hizkuntza-politika eraginkorrek bakarrik lor dezake.

Instituzioekin eta gizarte-eragileekin egoki koordinatua behar da hizkuntza-politika. 'Konplizitatea' da harremana hobekien

definitzen duena. Normalizazio-prozesuak dimentsio politikoa eta soziala du, dagoneko esan dugun bezala, eta biak egoki uztartzea ezinbestekoa da helburura iristeko. Bi dimentsioak estuki erlazionaturik daude, errealitate sozialek jardun politikoa baldintzatzen dute eta jardun politikoak gizartea eraldatu egiten du; ondorioz, herri-ekimenak eta ekimen politikoak batera ibili behar dute protagonismo-nahia eta interes propioak alde batera utzita. Nolanahi ere, garbi utzi behar dugu, Administrazioek bakarrik ezingo luketela euskararen normalizazioa bermatu eta herri-ekimenak ere, bestalde, ezinezko duela bere jardun propio soilez helmugara iristea. Euskararen normalizazioa bi indar horien lankidetzaz estutik etorriko da betiere.

Azken 25 urte hauetan ezagutu ditugun harreman desegokiak bukatu beharra dago. Hizkuntza-politika Instituzioen ardura dela esateak ez dakar inplizituki haiena bakarrik dela esatea. Normalizazio-prozesua fenomeno soziala da, konplexua, gizartea bere osoan inplikatzeko duena eta, ondorioz, etengabeko komunikaziotik, lankidetzaz zintzotik, konplizitatez eraiki behar da hizkuntza politika eraginkorra izango bada. Kontrol-nahiak, bikoizketak, eta abar, ez da inondik inora, euskararen normalizazioak behar duen harremana Administrazioaren eta herri-mugimenduaren artean.

Ikuspegi osoa duena da hizkuntza-politika egokia. Sektore batean, alor batean, hartzen den erabakiak eragina du beste sektore edo alor batean; hartzen ez diren erabakiek ere eragina dutela esan behar dugu, dagoeneko azpimarratu dugunez. Errealitate hori normalizazio-prozesuaren alde erabili behar da, traktore lana egingo duten erabaki estrategiko garrantzitsuenak zein diren ongi zehaztuz. Horiek ongi kudeatuz prozesua azkartzeko aukerak handitu egiten dira, dudarik gabe.

Orain arte ezagutu dugun hizkuntza-politikak ez du ikuspegi oso hori izan. Ez da aurreikusitako, esate baterako, euskalduntutako belaunaldi berriak lan-mundura pasatzen direnean haien euskalduntasuna garatzeko aukerarik ez zutela eta, ondorioz, ikasitakoa galduko zutela askok eta askok familian euskara erabiltzeko auke-

rarik ez izateagatik. Ez da aurreikusi, Hezkuntza Sistemak irakasle euskaldunak behar zituela eta gaur egun oraindik ere Magisteriotik gaztelaniaz bakarrik irakasteko gai diren irakasleak ateratzen dira; berdin gertatzen da osasun-alorrarekin ere, Unibertsitateak ez dira gauza izan behar genituen profesional euskaldunak sortzeko eta gaur egun arazoak ditugu lanpostu batzuk betetzeko; ez zen aurreikusi helduen euskalduntzeak duen garrantzi estrategikoa eta milaka aukera galdu ditugu mugimenduaren parte handi bat bazterturik egon delako urte askotan. Hizkuntza-politikan hartzen den neurri bakoitzak eragina du multzo osoan eta horiek aurreikusi beharra dago eraginkorrak izan nahi badugu.

Euskal Herri osoan aplikatzeko moduko hizkuntza-politika behar dugu. Hizkuntza-komunitatea zatiturik ageri da une honetan, administrazio desberdinek zatiturik eta hizkuntza-politika desberdinek zatiturik. Beraz, behar beharrezkoa da komunitate osoari eragingo dion politika egitea. Hizkuntza-politikak izan behar dituen helburu orokorrek errealitate soziolinguistikoko bakoitzaren arabera egokitzea izan behar dute, erritmoak eta estrategiak lekuan lekuko errealitatearekin ezkontzeko. Bestalde, **hizkuntza-politika burujabea** behar du normalizazio-prozesuak, bertakoek bertan sortu, inolako kanpotiko esku-hartzerik gabea.

Azkenik, esango dugu, politika egokiaren ardatz garrantzitsuenetariko bat **Hizkuntza eskubideen bermea dela**. Egoera gutxituan dagoen hizkuntzaren hiztunen hizkuntza-eskubideak etengabe urratzen dira egoeraren beraren ondorioz. Hizkuntza-politikak, beraz, eskubide horiek betetzea izan behar ditu helburu eta lehentasun normalizaziora iritsi baino lehenagoko tarte-helburu gisa.

Honaino hizkuntza-politika egokiak eta eraginkorrak, gure ustez, izan behar dituen ezaugarri nagusiei buruzkoa. Hala ere, hizkuntza baten normalizazioa hizkuntza-ohiturak aldatzeko norbanakoen eta kolektiboen borondateak mugitzea den neurrian, komenigarria da oso kontuan hartzea hizkuntza batean irautera edota ikastera eramaten gaituzten arrazoiak zein diren. Aztertu be-

har dugu ere, hizkuntza-politikak nola eragin dezakeen borondate horietan, nola erraz ditzakeen bideak eta nola neutraliza ditzakeen kontrako indarrak.

3.- LEHENTASUNAK NON JARRI

Nonbaitetik hasi behar da euskararen normalizazio-prozesua bizkortzeko ahaleginetan. Hori dela eta, behar beharrezkoa du euskararen normalizazioak lozorrotik aterako duten talka-neurriak hartzea bide egokian jartzeko. Hona hemen, beraz, lehentasuneko hainbat neurri eraginkor hizkuntza-politikak behar duen norabide-aldaketa egiten hasteko:

Ereduak gainditzea

- Hezkuntza-sistemak belaunaldi berriak oso-osorik euskaldundu ditzake eta euskaldundu behar ditu, etorkinak barne. Erreforma handi eta sakon bat eskatzen du horrek, baita inbertsio handia ere. Argi dago, orain arte metatu ahal izan dugun esperientziak garbi adierazten digula bidea zein den eta lasai aski esan liteke ez dugula inolako eragozpen zientifikorik hezkuntza-sistemak belaunaldi berriak osorik euskaldundu ditzan. Argi eta garbi dago, borondate politikoak, ez sozialak, sortzen duen egoera dela; ondorioz, hizkuntza politikaren ardura da euskarra ezagutzeko eskubidea bermatzea. Ozen esan behar dugu ez dagoela erabilera-tasa handitzerik ez badugu pauso eraginkorrik ematen ezagutzaren unibertsalizaziorantz eta ozen aldarrikatu behar dugu hori posible dela.

Hizkuntza-politikarentzat lehendakariordetza sortzea

- Hizkuntza-politika sailartekoa eta sektoreartekoa da. Sail batera zokoratzea, hura edozein izanik ere, Hezkuntza

zein Kultura, desegokia da. Hizkuntza-politika Sail guztiek egiten dute, dagoeneko egiten dute, hainbat aldiz esan dugun bezala, ez egitea ere politika egitea baita. Beraz, prozesua organigrama instituzionalaren gailurretik gidatu behar da, botere exekutiboz, beste politika batzuekin egiten den bezalaxe.

Administrazioaren euskalduntzea

- Administrazioa euskalduntzea garrantzitsua da, ez bakarrik herritarrok zerbitzu asko jasotzen dugulako, baizik eta eredu delako alor sozio-ekonomikoan nagusiki. Administrazioa epe onargarri batean euskalduntzeko helburua betetzen badugu, jorratu beharreko bidea erakusten dugu eta horrek kasu guztietan borondateak erakartzen baititu.
- Administrazioaren euskalduntze-data finkatzea. Administrazioa noiz arituko den euskaraz ezagutu behar da. Ez dugu arrazoirik ikusten prozesu horretan 15 urte baino gehiago emateko.
- Euskaldunek eta euskaldundutakoek euskaraz lan egitea. Euskarazko zirkuitua sortzea inplikatzeko du horrek. Euskaldunek euskaraz lan egin behar dute era berean euskaldunak euskaraz artatuz zirkuitu horren barruan. Horixe da hizkuntza-eskubideak bermatzeko modua. Prozesua beraz, euskarazko zirkuitua etengabe handitzea da Administrazioak euskaraz lan egin arte.
- Kontratazio berri guztietan lanpostuari dagokion euskararen ezagutza ezinbestekoa izatea. Hau da, Administrazioan lan egiteko bi hizkuntza ofizialak ezagutu behar direnez, ez da kontratatuko euskara ez dakienik.
- Arduradun politikoek euskalduntzeko 2-3 urteko muga izatea. Arduradun politikoak eta hautazko karguek epe

horretan bermatu behar dute euskaraz lan egiteko bidea dutela. Izan ere, alferrik arituko ginateke langileen euskalduntzeaz arituko bagina soilik, komunikazio behar handiak sortzen baitira arduradun politikoen eta kargu hautatuen inguruan, eta horien euskalduntasun faltak euskaraz lan egitea eragozten du..

- Plangintzaren ebaluazioa gardena eta publikoa izatea. Abian jartzen diren prozesuek Sail guztietan gardenak eta maiztasun jakin batekoak izan behar dute.
- Administrazioen hornitzaileei hizkuntza-irizpideak eskatzea. Administrazioak bere inguruan sortzen dituen mota guztietako interesak baliatu behar ditugu euskalduntzea azkartzeko eta horretarako hornitzaileei hizkuntza-irizpideak jartzea bide erraza eta eraginkorra da.
- Diru-laguntzak jasotzen dituzten enpresa eta gizarte-eragileei hizkuntza-irizpideak eskatzea. Hori ere bide erraza eta eraginkorra da euskalduntzeak azkartzeko.
- Azpi-kontratazioetan euskarazko zerbitzua bermatzea.
- Administrazioa euskaldundu bitartean euskaraz funtzionatuko duen zirkuitua sortzea.
- Sortzen diren egitura berri guztietan (administrazio-atalak, erakunde publikoak, esaterako, enplegu-bulegoak...) hasieratik euskara lan-hizkuntza izatea.

Lan-mundua euskalduntzea

- Bertan jokutzen dugu euskalduntzearen etorkizuna. Gai bagara alor sozio-ekonomikoan pauso sendo eraginkorrrak emateko, orduan bakarrik irabaziko dugu etorkizuna. Horregatik, arreta bereziz aztertu behar ditugu alor horretan aplikatzen diren politikak. Hona hemen neurri interesgarri batzuk bidea jorratzen hasteko:

- Publizitate- eta etiketa-legea sortzea euskaraz editatzen direla bermatzeko.
- Lan-mundua euskalduntzeko Fundazioa sortzea, baliabide ugariak dituen eta inplikaturako 4 sektoreak bertan daudela: Enpresetako ordezkariak, Sindikal-gintza, Euskalgintza eta Administrazioa.
- Q eta ISO kalitate-agirietan euskarazko zerbitzua eskaintzea erabakigarria izatea. Gaur egun nekez eskaini lezake enpresa batek kalitatezko zerbitzua euskaraz ere eskaintzen ez badu.
- Enpresetan normalizazio-planak abiatzeko erraztasuna ematea.
- Lan Sailak eskaintzen dituen zerbitzuak euskalduntzea.
- Lan-mundua zinez euskaldundu ahal izateko, atal guzietan hizkuntza-irizpideak ezarri edo baloratzea: diru-laguntzak ematerakoan (enpresa berriak, industrialdeak, informatika, webguneak, ...), enpresa berriak sortzen laguntzerakoan, berrikuntza-prozesuak laguntzen dituztenean, etab.
- Enpresa berriak sortzen laguntzen duten erakundeetan eragitea, sorreratik enpresa euskaldunak izan daitezen bermatzea: kooperatibak, merkataritza ganberak eta abar.
- Gizarte Ekonomian euskararen erabilera handitzeko laguntzak eskaintzea.
- Industria Sailak homologatzen dituen eta zerbitzu publikoa eskaintzen duten enpresei (igogailuak, ibilgailuen azterketa teknikoa, prebentzioa...) hizkuntza-irizpideak ezartzea.

Euskara berezkoa, lehentasunezkoa eta ezagutu beharrekoa izendatzea

Gaur egun euskarak duen estatusa desorekatua da gaztelaniak duenarekiko. Hizkuntzen arteko oreka garrantzi handikoa da estatusaz ari garenean. Izan ere, gaur egun gaztelania ezagutu beharrekoa izatea eta euskarak estatus hori ez izateak, eragozpen ugari sortzeaz aparte, egin daitekeen hizkuntza-politika baldintzatu egiten du. Behin estatus hori zehaztu ondoren arkitektura juridikoa bere osoan aztertu beharko litzateke. Honako hauek erreforma pre-sazkoa beharko lukete:

- Honako lege hauek egokitzea edo sortzea:
 - Estatutua hizkuntzaren estatus berri egokia jasotzeko.
 - Euskararen legea estatus berri horretara egokitzeko.
 - Kontsumitzailearen legea kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzen ez dituzten enpresak santzio-bidez legea betearazten laguntzeko.
 - Publizitate- eta etiketa-legea sortzea produktuen informazio guztia euskaraz izan dadin bermatzeko.
 - Udalen legea udalerrri euskaldunen jarduna babesteko.
 - Hezkuntza-legea sortzea euskalduntzearen helburua bermatzeko.
 - Hauteskunde-legea hautagaiei euskararen ezagutzaren kuota ezartzeko.
 - Komunikabideei euskararen kuota ezartzeko legea.

Helduen euskalduntzearen laguntzak handitu doakotasunerako bidean

Helduak ez dira galdutako belaunaldia. Gaur egunean jokutzen dugu euskararen etorkizuna eta ondorioz, helduek zeregin garrantzitsua dute eredugarriak izan baitaitezke atzetik datozenentzat. Euskarak

Hezkuntza-sistemaren bitartez ikasteko aukera izan ez dutenentzat doakoa izan behar du eta, gainera, mota guztietako erraztasunak eman behar zaizkie hori posible izateko, batez ere, lan arloko ordu-tegiaren malgutasunari dagokionean.

Bestalde, motibazio pragmatikoak direnez helduak masiboki euskarara erakartzeko dugun biderik eraginkorrena eta horiek hizkuntza-politikak sortzen dituen erabaki estrategiko batzuk hartu beharko dira (Funtzionario izateko euskararen ezagutza ezinbestekoa izatea, Administrazioarekin harremanak dituzten enpresek euskarazko zerbitzua bermatu behar izatea, euskarazko zerbitzua bermatzea azpikontrata guztietan...) eta bereziki aztertu erabaki horiek hartu baino lehenago sektorean izango duten eragina emaitzaren arrakasta ziurtatzeko.

Kuotak hedabideetan

Eskubidezkoa da informazioa euskaraz jasotzea mota guztietako hedabideetan. Hori dela eta, erabilera kuotak ezarriko zaizkie EAEn lan egiten duten hedabide guztiei eskubideok bermatzeko bidean.

Euskararen aurrekontua gutxienez bikoiztea

- Normalizazio-prozesuak norbanakoei eta gizarte-eragileei sortzen dizkien zama eta neke ekonomikoak arintzeko zerga-kenketak ezartzea.
- Euskaingintzari enpresa kreditu finantzatuak, kreditu bignak emateko laguntzak, enplegua sortzeko laguntzak, fondo galduko kredituak, azpiegiturak sortzeko laguntzak, teknologia berriak inplementatzeko laguntzak... sortzea.
- Diru-laguntzak garaiz banatzeko konpromisoa.
- Sail guztiek euskalduntzeari dagokion diru sail berezitua izango dute, gardentasuna bermatzeko xedearekin.
- Unibertsitatea eta Lanbide Heziketaren eskaintza osorik euskalduntzea.

- Lanbide Heziketako praktikak egiten direnean euskaraz egitea ahalbidetzen duten enpresei onura fiskalak eskaintzea.

4.- ZIMENTARRIAK ETA ERRONKAK

Dokumentuaren bigarren parteak hainbat hausnarketa eskatzen du zabaltzen dituen ideia batzuen inguruan. Guri behintzat pasarte askok zer pentsatua eman digute eta hausnarketa horiek konpartitu nahiko genituzke eztabaida argitu nahian. Hona hemen:

“Herritar gehienek borondatera eta gogora egokitu behar da arian-arian gorpuzten den hizkuntza politika”

Hizkuntza-eskubideak bermatzea ez da “joko demokratikoan” kokatzen den zerbaite. Oso garbi izan behar dugu gaur egun, eskubideok sistematikoki urratzen direla eta egoera hori bukatzeko politika eraginkorrak behar direla. Dударik gabe, hartu beharreko neurriak onar daitezten populazioaren sektore handi batzuen aldetik neurrien zergatikoa ongi azaldu behar da, baina, edozein kasutan, hizkuntza-politika ardatzen duen kontzeptua eskubideen bermea da.

Bestalde, bitxia gertatzen da printzipio hau hizkuntza-politikari aplikatzea eta ez bestelako politikari. Inork ez du esaten, esate baterako, etxebizitza-politika herritar gehienek borondatearen arabera egin behar dela, edo ogasun-politika edo garraio-politika. Kasu horietan interes orokorraren aipamena egiten da. Zer da bestalde, interes orokor handiagokoa hizkuntzaren normalizazioa baino?

“Behar-beharrezkoa da gero eta jende gehiagorentzat hizkuntza erakargarri, atsegina eta naturala izatea”

Hizkuntza guztiak dira berez, atseginak eta naturalak. Inork ez du hizkuntza baten aldeko pausoa ematen halako edo bestelako hizkuntza

atsegina eta naturala delako. Erabaki horiek ikuspegi pragmatikoz hartzen ditugu, hau da gure bizitza normalean beharrezkotzat jotzen dugulako hizkuntza ezagutzea. Ikusi, bestela, ingelesaren fenomeno diogunaren adierazgarria delako. Ingelesaren alde pragmatikoa da erakargarri egiten duena, internet, turismoa, bibliografia... denak du ikuspegi praktikoa.

Euskarara, beharrezkotzat jotzen duenean, hurbilduko da herritarra eta hizkuntza gutxituaz ari garenean hizkuntza-politika eraginkorrek bakarrik lor dezake hori. Ingelesaren beharrezkotasuna induzitua da, dudarik gabe. Erabaki estrategiko askoren emaitza da, hizkuntza horri dagokionez, gaur dugun ikusmolde hori eraiki duena. Euskararekin, beraz, bide bera jorratu behar dugu, hau da, beharrezko bihurtuko duen hainbat erabaki estrategiko hartu behar dira. Horrek aldatuko ditu motibazioak.

“Gaur egun gure gizartean elebidunak, kasu askotan, uko egin behar izaten dio hizkuntza-aukera baliatzeari”

Gaizki formulatutako esaldia da. Izan ere, elebidunak ez dio inoiz uko egiten hizkuntza-aukerari beste gauza batzuen artean bi dituelako. Euskaldunak bai egin behar izaten dio uko bere euskalduntasunari, elebakarraren diktaduraren eraginez. Beldur handia diogu errealitatea deskribatzeari, izan ere, elebakarraren diktadura da arazoaren sorburua, bere ezjakintasunak behartzen gaitu euskara ez erabiltzera haren ezjakintasuna da inposizio-biderik gogorrena. Gogoratu behar dugu, XXI. mendearen hasieran oraindik ere, elebakar askoren moduak euskaldunekiko onartezinak direla eta haien jarrera zurrunik emozionalki kalte egiten digula, euskararen aldeko hautu librea erabat baldintzatuz.

“Esaten da ez dela munduan benetan elebiduna den gizarterik, argudiatzen da elebitasun simetrikoa ez dela inon gertatzen eta hori hemen ere ezinezkoa dela”. “Elebitasun simetrikoari dagokionez,

ez dakigu benetan eraiki ahalko dugun baina nahitaezkoa da posible balitz bezala jardutea”

Argudiatzen da eta gainera, aditu guztiek onartzen duten zerbait da. Elebitasun simetrikoaren aldarria alor politikoan eta ezjakin askoren ahotan soilik kokatzen da. Elebitasuna fenomeno pasakorra da, une historiko jakin batean gertatzen dena, hizkuntza bat ordezkate-prozesua jasaten ari denean. Beraz, bukaerako helburu bezala inoiz beteko ez den zerbait definitzea, ez da egokia. Elebitasun asimetrikoa aldarrikatzea ezinezkoa izango dela jakinda, ez da egokia. Beraz, hemen ere, komenigarria da helburua egoki formulatzea. Euskararen normalizazioak ekarri behar digu egoera bat, non herritar guztiek euskara duten lehentasunezko komunikazio hizkuntza eta, gainera, nahi dituzten hizkuntzak ezagutzen dituzte beren garapen pertsonalerako egokiak jotzen dituzten neurrian. Hori da normalizazioaren formulazio egoki bat.

“Ezinezkoa da euskal gizarte elebakarra”

Ezinezkoa ez da. Badira gizarte elebakarrak, beraz ez dugu arrazoirik ikusten ezinezkoa izateko. Beste kontu bat da desiragarria ote den. Argi dago ezetz, guk behintzat herritar eleaniztunez osaturiko gizarte nahi dugu, non euskara den ohiko eta lehentasunezko komunikazio hizkuntza.

“Testuinguru horretan euskara hedatzearen aldeko politika neurtu egin behar dugu, hiztun-elkartea bera ahuldu nahi ez badugu

Aldrebeskeria nabarmena da ideia hori. Gaur egun euskararen erabilerak duen arazorik handiena ezagutza-tasa urria den neurrian, nola izango da hiztun-elkartea ahultzeko bidea ezagutza unibertsalaren aldeko pausoak ematea? Gainera, helburu bezala definitu duten elebitasun simetrikoarekin borrokan dago ideia hau. Belaunaldi berria oso-osorik euskaldundu behar dira, erabili nahi dutenentzat

oztopo eta eragozpen izan ez daitezen. Inork ez luke argudiatu beharko ez dakiela, horrela bakarrik gara genezake eraginkortasunez euskarazko aho-komunikazioa. Beraz, guztiz desegokia deritzogu ideia horri.

“Onartu beharra dugu gure gizarte hau ez dela benetan elebiduna izango beste 25 urtean”

Denbora faktorea garrantzi handikoa da. Euskararen normalizazioa prozesu luzea izango bada ere, epeak definitu behar dira eta, ondorioz, hizkuntza-politikaren inguruko hausnarketa egin nahi duen dokumentu batean ez litzateke hitz egin beharko lortuko ez dugunaz, definitu beharko litzateke zer lor dezakegun datozen 25 urteotan eta ildo horretan ekarpenik ez dago. Gure ustez, ordea, ongi lan eginez gero eta hizkuntza-politika eraginkorra abiatuz gero ezagutza unibertsaletik oso gertu egon gintezke. Hitz egin dezagun bada horretaz, defini dezagun helburua eta lan egin dezagun hur bete dadin.

“Beldurrik gabe onartu behar dugu, euskararen interesetik begiratuta ez zaigula komeni hizkuntza politikaren diskurtsoa eskubideen inguruan bakarrik ardaztea, eta eskubidea dugulako eta horregatik bakarrik gaztelaniaz dagoen guztia euskaraz ere jartzen saiatzea”. **“Beldurrik gabe, onartu beharko genuke etorkizuneko gizartean ohikoa izango dela hizkuntza bakoitzak bere erabilera-eremuak izatea”**

Beldurra eta beldurraren aipamena. Ez dugu beldurrik ezer onartzeko baina, ez dugu konpartitzen ideia beste elementu batzuek ardaztu behar dutela hizkuntza-politika iradokitzen delako eta, gure ustez, behintzat, hizkuntza-eskubideen bermeak ardaztu behar du hizkuntza-politika. Eskubideak sistematikoki urratzen dira eta egoera hori bukatzeko behar dugu hizkuntza-politika, ez beste ezertarako.

“Ateak itxi behar zaizkio ildo politiko eta ideologiko jakinekin euskara lerrokatzeari”

25 urtez etengabe erabili izan den esamoldea da hau. Oso kontzeptu eztabaidagarria da, izan ere, euskararen normalizazioaren kontra dagoenaren ildo politiko ideologikoa baino hitzez alde egon baina praktikan kontra ari denaren ildo politiko eta ideologikoa kaltegarriagoa da euskararentzat. Tesi politiko desberdinetatik euskararen alde ari dena ongi ari da, edozein izanik ere duen motibazio politiko eta ideologikoa. Euskararen aldekoen motibazio ideologiko-politikoak direla beste batzuk erakartzeko oztopo pentsatzea zentzurik gabea da. Gaur egun euskararen normalizazioaren alde edozein lerrotatik lan egin daiteke, borondatea besterik ez da behar, aitzakia guztiak alde batera utzita.

Bestalde, hizkuntza politikaz ari gara, politikoek egiten dute politika eta den-denek dute beren lerroa; beraz, euskara lerrokatzea zer den ez dago batere garbi.

“Hemen beti izan ditugu maila batean edo bestean bi hizkuntza”

Gehitu beharko litzateke duela gutxi arte hizkuntza-politika bakarra, euskararen kontrakoa hain zuzen ere. Ez dugu ahaztu behar urte askotan, garai errepublikarretan eta diktatorialetan, baita lehenagoko beste aldi historiko batzuetan ere, kasu guztietan euskara desagertzea bilatzen zuen hizkuntza-politika aplikatu zaigula.

“Hizkuntza-politikak balore demokratikoak ditu oinarri eta ez bortxa eta inposizioa”, “onartezina litzateke, hizkuntza kontuetan, gauzak bortxaz egitea eta inposizioan oinarritzea, hitzunen eskubidea borondateak bakarrik segurta baitezake”

Bortxa eta inposizioa gaur egun alde bakarrean dago. Garbi utzi behar dugu ideia hau. Euskaldunak dira beren hizkuntza-eskubideak sistematikoki urratuak dituztenak, bortxaz eta inposizioz. Legez

ezartzen zaigu gaztelania ezagutu beharra eta hori ez da inposiziotzat hartzen, gure bizitzaren une askotan, etengabe gaztelania erabiltzera behartzen gaituzte eta euskarak alor askotan, inposizioz duen presentzia, hutsaren hurrengoa da. Euskaldunon eskubideak bermatu behar ditu hizkuntza-politikak eta horretarako neurri eraginkorrak behar ditugu eta horietako batzuk nahitaez izango dira inposatzaileak.

“Hizkuntza-politika malgutasunean eta progresibotasunean oinarritu behar da. Malgua, neurrikoa, eraso gisa sentitzen ez dena, beti ere integratzailea”

Dagoeneko esana dugu malgutasuna eta progresibitatearen kontzeptuak denbora faktorearekin jarri behar direla ezinbestean harremanetan; bestela, hitz hutsak dira.

“Denok ohartu behar dugu, eta onartu, eskubideak, gutxi batzuk kenduta (bizitzeko eskubidea, adibidez) ez direla modu absolutuan gertatzen”

Ez dugu garbi ikusten zergatik onartu behar dugun hori. Bizitza galtzen baduzu dena galtzen duzu eta era berean, euskalduntasuna kentzen badigute ez gara gu; beraz, dena galdu dugu, izana galdu dugu-eta.

“25 urte pasatxotan hizkuntza politikaren ildorik eta lorpenik garrantzitsuena, dudarik gabe, irakaskuntza elebiduna izan da”

Ez dago dudarik, lorpenik garrantzitsuena da; beraz, horrek bakar definitzen du nola lan egin den beste alor batzuetan. Hala ere, hezkuntza-sistemak EAEn ez du lortzen belaunaldi berriak euskalduntzea, D ereduak bi heren euskalduntzen ditu (16 urterekin B2 maila eskuratzea), B-k heren bat eta A-k inor ere ez du euskalduntzen. Unibertsitateek ez dute oraindik eskaintza euskaldundu,

Lanbide Heziketaren egoera tamalgarria da. Egoera hau ezagutuz eta kritikatzuz urte ugari eman baditugu ere, oraindik ez da sistema hori eraberritzea lortu.

“Administrazioak eskaintzen dituen askotariko zerbitzuetan hizkuntza-irizpideak ezartzea dakar, zalantzarik gabe, boluntarismo oro baztertuz eta besteren artean administrazioko langileen euskararen eskakizuna erabilerarekin uztartuz, ezinbestean”

Langileen eskubideak hizkuntza-eskubideak bermatzeko bidean muga izan dira, azken urteotan, eta proposamenean horrela izatea iradokitzen da. Administrazioak euskaraz noiz lan egingo duen definitu beharko litzateke jadanik, lanpostu guztiek izan beharko lukete derrigortasun-data, eta ez litzateke kontratatu beharko hizkuntza ofiziala den euskara ez dakien inor.

EUSKARA 21

Jasone Mendizabal

0. SARRERA

Txostena lehenengo pertsonan idatzita dago enkargua maila partikularrean egin baitzait. Edozelan eta txostenari haria nik jarri badiot ere, Topaguneako hainbat bazkide, lankide eta zuzendaritza kidek eman diote gorputza. Jarraian aurkezten den gogoeta beraz, kide hauek guztiek egindako ekarpenekin egindako elkarlanaren emaitza da.

1. OINARRIZKO TXOSTENAZ BI HITZ

Oinarrizko txostenaren inguruan gustatu zaidana:

1. Eskertzekoa da txostengileek adostutako lan bat aurkeztu izana. Ariketa eredugarria da hori.
2. Proposamen berritzaileak eta gako interesgarriak aurkitu ditut oinarrizko txostenean. Erabilera sustatzea izan du ardatz momenturo eta ikuspegi horrekin guztiz bat nator.
3. Euskararen etorkizuna euskal hiztunen borondatean eta atxikimenduari lotuta dagoen ideiarekin guztiz bat nator, beti ere borondate eta atxikimendu antolatu hori areagotzeko, laguntzeko eta sustatzeko herri erakundeek duten erantzukizuna ahaztu gabe. Euskararen aldeko atxikimendua diodanean, egunerokotasunean euskaraz

bizitzeak eta euskal hizkuntza komunitatearen iruditegiak hiztunarenagan sortzen duen eraginak, herritarrari euskal hitzuna bezala hazi eta osatzeko ematen dion aldekotasun aktiboari buruz ari naiz eta bereziki euskal hizkuntza komunitateak bere burua antolatzeke eta erakundetzeko egiten duen ahaleginaz.

4. Herri erakundeen eta gizarte ekimenaren arteko elkarlana aldarrikatzen du, nire iritzian ezinbestean bultzatu beharrekoa da hori. Are gehiago, herritarren euskararekiko atxikimendua hizkuntza politikaren ardatzetako bat izango bada, eta hala behar dela uste dut, gizarte mugimenduko elkarteak sustatzeko eginkizuna ere bere egin beharko lukete herri erakundeek.

Faltan bota izan ditudan zenbait kontu:

1. Euskararen bilakaeraren eta egungo egoeraren inguruan egiten diren hainbat baieztapen egiterakoan horiek hornituko lituzketen datu zehatzak eskaintzea.
2. Zenbait balorazio egiterakoan eta bereziki boluntarismoari erreferentzia eginez, balorazio orokorregi eta borobilegiak aurkitu ditut, horien gainean zein interpretazio egin zaila egin zaidalarik. Baloraziook adibide zehatzei lotuta argigarriagoak ziratekeen eta gaizki ulertzeak ekidindo lirarteke.
3. Zenbait alditan jomugatzat izan beharreko helburuak "euskararen interesen" baitan aurkezten dira oinarrizko txostenean, euskara pertsonengandik at edo kanpo balego bezala. Iruditzen zait euskararen interesa beti ere pertsonen baitan, herritarren interesen baitan defendatu beharra dagoela eta euskal hiztunen komunitatearen baitan bereziki.
4. Oinarrizko txostenean faltan bota dut euskal hiztunen borondatea eta atxikimendua aipatu direnetan, aipamen be-

rezia ez egin izana euskal hizkuntza komunitateak bere garapenerako daukan antolamendu eta erakundetzeari eta hauei esker eta hainbeste jenderen saiakerari esker, eguneroko zailtasunen gaintik euskaraz bizi ahal izateko egindako ahaleginari aitorpena ere faltan bota dut. Euskara bizirik badago euskal hizkuntza komunitateak, euskaldun bakoitzak egindako ahaleginagatik izan da.

5. Norbanakoek beraien borondatea aurrera eramateko eta antolatzeko gizarte ekimeneko elkarteak daude eta horien sustatzea eta bultzada subsidiarioa da herri erakundeei dagokiena. Demokrazian herri erakundeek herritarren beharrei erantzuteko betebeharra daukate eta ekimen pribatuei laguntza subsidiarioa emateko erantzukizuna. Hizkuntza politikari dagokionez ere horixe da eskatu beharrekoa herri erakundeei.
6. Bortxaz eta gehiegikeriaz mintzatu dira hainbatetan txostengileak eta beti ere euskal hiztunen komunitateari erreferentzia eginez. Uste dut ez direla egokiak aipamen horiek. Adierazpen horiekin euskal hiztunen komunitateak bortxa eta gehiegikeria erabili izan dituela pentsa daiteke, eta ez nator bat ideia horrekin, malgutasunez jokatu izan duen gizarte sektorerik egon baldin bada, euskal hiztunena izan da hori. Euskal hiztunok berriz, bortxa behin eta berriro jasaten dugu euskara erabiltzeko hautua egin eta parekoak ulertzen ez digunean.
7. Ia-euskaldunak ez dira oinarrizko txostenean aipatu ere egiten. Adibidez, euskaldunok gutxiengoa osatzen dugula aipatzean ia-euskaldunak ahaztu direlakoan nago.
8. Gure artean dauden eta gero eta gehiago egongo diren hizkuntzen eta horien hiztunen gaineko gogoeta ere faltan bota dut.

9. EAetik kanpoko euskaldunak aipatu ez izana. EAetik ezin da arautu EAetik kanporako, baina EAeko euskaldunak ezin dira ulertu EAetik kanpokoak gabe, hiztun komunitate bakarra baikara.
10. Hizkuntza Politikarako oinarri izango diren hainbat printzipio eta gogoeta orokor proposatu dira oinarrizko txostenean, hala ere horien interpretaziorako, gauzapenerako eta aplikaziorako zehaztasun gutxiegi eskaintzen ditu. Suposatzen dut geroko lana izango dela hori.

2. TXOSTENAZ ATALEZ ATAL

2.1. GAUR EGUNeko EGOERAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

2.1.1. EUSKARAREN GIZARTE-BILAKAERAZ

- Euskararen etorkizuna bermatzeko baldintzekin bat nator: legemarke egokia, hizkuntza politika eraginkorra eta baliabideak eta herritarren atxikimendua, beti ere azken hauen antolaketa eta erakundetzearen bidez.

2.1.2. ABIAPUNTU LEGALAZ

“Ba al da gaurko euskal gizartean herritar gehienek euskararen alde eman nahiko luketen pausorik eta Euskararen Legeak edo gainerako lege-arauek tratatzen duelako bertan behera erortzen denik?”

- Txostengileek botatako galdera hau egokiena den nire zantzak ditut. Akaso honako galdera egokiagoa litzateke: ba al da gaurko euskal gizartean **herritarrik euskaraz bizi ahal izateko** eman nahiko lukeen pausorik eta Euskararen Legeak edo gainerako lege-arauek tratatzen dutelako bertan behera erortzen

denik? Txostengileak herritar gehienek borondateaz ari dira, hala ere, iruditzen zait euskaradunen komunitatea komunitate gutxitua izanik galdera hau ezin dugula gehiengoaren baitan formulatu, eta gehienez euskal hizkuntza komunitateari zabaldu beharko litzaiokeela. Hori bai, euskal hizkuntza komunitatearen eskariak bizikidetzara arautan oinarritu beharko lirateke.

- Euskaldunak gutxiengoak izanik ere, gure eskubideak ukatzea ez da onargarria.
- Uste dut legeak euskara erabiltzeko eskubidea aitortzen badigu ere, eskubide horren gauzapenerako ezinbestean eman beharreko baldintza eman dadin (parekoak euskara gutxienez ulertzea) ez duela behar besteko ez babesik ez eta aitortzarik egiten. Puntu hau korapilatsua dela jabe naiz eta ez da nire asmoa inondik inora hemen esandakoarekin bat-batean herritarrak euskara ikastera behartzea, ez. Baina bai euskaradunei aitortu behar zaiela elkarbizitzarako eta gizarte kohesiorako defizitean dagoen herritar multzoa erdal elebakarrena dela. Gainera ezin da ahaztu gure herri honetan behin eta berriro malgutasunez jokatzeko euskal elebidunei tokatu zaigula eta tokatzen ari zaigula eta malgutasunez jokatzeko herritar guztiei dagokigula. Sentsibilitate handiz tratatu beharreko gaia da hau zalantzarik gabe. Erdal elebakarrak euskaraz ez jakiteko hamaika arrazoi daude, eta defizit hori ezin zaie beraien borondate ezari egotzi, ez kasu gehienetan behinik behin. Oinarritzko txostenean geroago aldarrikatzen den elebitasuna erdiesteari begira legea bi hizkuntzen ezagutza bermatzeko obligazioa jasotzera ere heldu beharko litzateke, aukera berdintasuna emango bada, beti ere arau honen aplikaziorako txostenean bertan jasota dauden progresibotasuna eta malgutasuna ardatz izanik baina helburua garbi edukita.
- Egungo errealitatea da euskaraz ez dakitenek daukagun legean oinarrituta tratatzen dutela gizarte kohesioa.

- Aurreko pasartean lege aldaketa desiragarria dela aldarrikatzen badut ere, euskara ezagutzeko betebeharra legez jasotzearekin batera (ziurrenik eta hobe lehenago) euskara jakiteak euskaldunei zein erdaldunei ekarriko dizkien onurez jabetzeko prozesu bat irekitzea ezinbestekoa izango dela uste dut.

“Kontua da, euskara den baino indartsuago ez bada, euskararen normalizazioaren aldeko jardunean gauzak aurrerago joan ez badira, gizarteak oro har mugak ezartzen dituelako dela, errealitatea baita hizkuntza politikaren abiadurari eta nondik norakoari mugak ezartzen dizkiona.”

- Ez nago ados baieztapen honekin. Uste dut euskararen normalizazioaren aldeko jardunean gauzak aurrerago joan ez badira gizarteak jarritako mugak baino beste faktore askok eragin dutela. Gehiegizkoa iruditzen zait gizarteak berak ezarritako mugei egozte euskara den baino indartsuagoa ez izatea.
- Zalantzarik ez daukat legeak bakarrik ez duela bermatzen euskararen normalizazioa, hala ere iruditzen zait hauen aplikazioan herri erakundeen erantzukizuna ezin dela ahaztu honetan guztian eta erakunde publikoek eta hauetan jarduten duten alderdi politikoek erabakitako hizkuntza politiken inguruan autokritika egin beharra daukatela baita ere. Oinarrizko txostenean geroago aipatzen den bezala hizkuntza politika etengabe ebaluatu beharra dago eta erantzukizuna herritarren borondate ezari egotzi eta bere ardurari garrantzia kentzea baino, erantzukizunez jokatzeari dagokiela erakunde publikoei. Horren harira azpimarratu nahiko nuke herritarrek gizarte mugimenduan kokatzen diren elkarteetan erakundetuta dutela beraien borondatea adierazteko tresnarik eraginkorrenetakoa. Bozen bidezkoa da tresna demokratiko nagusiena, eta printzipio demokratikoak ezin ditugu ahaztu, baina honen harira gogoeta bat egin nahi nuke. Azken 25 urteotan, oinarrizko txostenak erreferentzia egiten dion garaiari lotu guran, alderdi politikoak euskarari dagokionez herritarren eskakizunak

jaso eta bideratzeko gai izan dira? Esango nuke ezetz. Esango nuke herritarrak eta gizarte mugimenduak askoz aurreratuago egon direla zentzu horretan, eta etorkizunera begira ere bai alderdiek eta baita erakundeek onarpen eta errespetu handiagoa erakutsi beharko lieketela gizarte mugimenduan kokatzen diren aldarrikapen eta proposamenei.

- Autojustifikaziorako eta egindako lanaz gain besterik egin ez zitekeela egiazat jotzeko egindako esaldiak direla iruditzen zait. Lehenik eta behin herritar gehienei ez zaielako galdetu horren inguruan. Bestetik balizko gizarte borondateak moldatu, indartu, hauspotu edo urtu egin litezkeelako momentuko interesen arabera. Bestetik, hizkuntzaren inguruan egituratuta dagoen gizarte eremuek behin eta berriz eskatu dituztelako erantzunik izan ez dituzten aurrerapausoak. Eta azkenik errealitatea ertzaz beterik dagoelako, ez delako bakarra, eta errealitatearen zein arlo hartzen dugun, konklusioa ez delako berdina izango. Komunikabide indartsuenen ildo editorialei entzun edo euskara elkarte bateko kide bati entzun, erantzuna ezberdina izango da.
- Errealitatearen justifikazioa ateratzea Hizkuntza Politikaren aurrerapauso ezaren sustrai gisa ez da bidezkoa. Noski errealitateak abiadura eta norabidea mugatzen duela, ez da dudarik. Kontua da ea argudio horrek balio duen “euskararen normalizazioaren aldeko jardunean gauzak aurrerago joan” ez izanaren arrazoitzat. Errealitateak berak eta esperientziak erakusten digu ez dela hala, eta askotan herri-erakundeen utzikeriak, borondate faltak, balizko erreakzioei beldurrak edo interes politikoek eragin dutela hizkuntza politikaren norabide eta abiaduran denik.
- Egungo lege-marckoaren ezaugarri nagusiei buruz honako puntuak azpimarratzen dira txostenean:
 1. Euskara Euskal Herriko hizkuntza propioa da
 2. Euskara ofiziala da EAEn, gaztelania bezala

3. Herritar guztiek dute euskara eta gaztelania jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, eta herri-erakundeei dago-
kie eskubide hori bermatzea
 4. Legearen (eta hizkuntza politikaren) helburua euskara normalizatzea eta elebitasuna erdiestea da”
 5. Dibertsitate soziolinguistikoa eta progresibotasuna dira Legearen ezaugarri *nagusietarikoak*
- Ez nuke lege kontuetan indar gehiegirik jarri nahi, txostengileen oinarrizko tesiarekin bat egiten baitut, legeak bakarrik ez du bermatuko euskararen normalizazioa. Edozelan txostenean jasotzen ez diren zenbait konstatazio hona ekartzea interesgarritzat jotzen dut:
 - Euskara ofiziala da EAEn baina ez euskararen gainontzeko lurralde guztietan.
 - Euskararen ofizialtasuna Autonomi Erkidegoaren lurralde osora hedatzen dela aipatzen da oinarrizko txostenean eta gaztelaniaren ofizialtasunaren pare-parekoa dela, berdina dela dio. Gainera honako ere gehitzen da:

“... herritarren eskubideetan oinarritzen da gure Erkidegoan hizkuntza politika osoa, ez hizkuntzaren eskubideetan edota lurraldearenetan. Herritarrek, herritar guztiek, dituzte hizkuntza-eskubideak, eta, izan, guztiek berdinak dituzte”.
 - Txostenean jasotako hori egia bada ere, herritar guztiek dituzte eskubide berdinak, baina legean jasotakoaren arabera ezberdinak dira herritarren betebeharrak hizkuntza bakoitzari lotuta. Gogora ekarri beharra dago Espainiako konstituzioko hirugarren artikulua dioena:

“1. *Gaztelania da Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainol guztiek **jakin behar dute** eta erabiltzeko eskubidea dute.*
2. *Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagoz-*

kien Erkidego Autonomoetan berauen Estatutoei dagozkien eran. 3. Espainiako hizkuntza mota ezberdinen aberastasuna kultur ondare bat da eta hura babes eta begirunegarri izango da.”

- Jakina, gaztelera ezagutzeko obligazioa daukagu baina gaintzeko hizkuntza ofizialak ezagutzeko obligazioa Autonomi Erkidego bakoitzak erabakitzen duenaren baitan dago.
- Kataluniako estatutuak adibidez honakoa dio besteak beste bere 6. artikuluan:

1.Katalana da Kataluniako berezko hizkuntza. Hala, bada, bai herri administrazioetan bai Kataluniako herri-komunikabideetan katalana da usuen eta lehenen erabiltzeko hizkuntza, eta irakaskuntzan ere normalean *katalana* erabili ohi da bai komunikaziorako bai ikasteko.

2.Katalana da Kataluniako hizkuntza ofiziala. *Gaztelania ere bada, Espainiako estatuko hizkuntza ofiziala baita. Pertsona orok du bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko eskubidea, eta **Kataluniako herritarrek, biak jakiteko eskubidea eta eginbeharra**. Kataluniako botere publikoen ardurak eskubide horiek erabili ahal izateko eta eginbehar hori betetzeko beharrezko neurriak hartzea. Dena dela, 32. artikuluan ezarritakoaren arabera, ezin da bereizkeriarik egon hizkuntza bata erabili nahiz bestea erabili.*

Beraz, katalanen eskubideei ez ezik katalanera ezagutzeko eginbeharrari ere egiten dio erreferentzia estatutuak.

- Euskal Autonomi Erkidegoan berriz herritarren eskubideetan oinarritzen da legea eta horien bermea herri aginteei egozten zaie. Horrez gain, hezkuntzan euskararen ezagutza bermatu beharra ere arautzen du, “benetan erabiltzeko besteko adina menperatuta”, euskararen legeko hurrengo artikuluan ikus daitekeen bezala.

17. artikulua. Jaurlaritzak, derrigorrezko ikastaldia bukatzerakoan ikasleek, aukera berdinetan, bi hizkuntza ofizialak benetan erabiltzeko adina menperatuko dituztela ziurtatzera bideratutako

neurri guztiak hartuko ditu; halaber, euskal giroa ziurtatuko du, euskara (ikastetxeetako) barne-nahiz kanpo-jardueretan eta administrazio-ekintza eta-dokumentuetan ohiko tresna bihurtuz.

- Zalantzarik ez daukat egungo lege-markoak euskal herritarrei aitortzen dizkien eskubideak garrantzitsuak direla eta etorkizuneko belaunaldiei begira hezkuntzarekiko lege-exijentziak aukerak ematen dituela, horren gauzapenerako egun indarrean dauden eredu politikoen eraginkortasuna gora behera. Hala ere, azpimarratuko nuke herri-aginteekin harremanean azken hauek herritarrekiko dituzten betebeharrak argiak (hauen exekuzioa ez hainbeste) badira ere, herritarren arteko harremanean bizikidetzeta eta gizarte kohesioa bermatzeko elebakartasunak ez duela laguntzen eta etorkizunean elebitasun efektiboa bilatzen badugu, etorri beharko dela eguna legeak ere euskaraz jakiteko betebeharra jasoko duena, bereziki erakundeetako agintariek euskaraz jakitekoa. Besterik da gaur egun horretarako baldintzak ematen diren ala ez.

- Bestalde, legerari buruzko puntu honetan txostengileek aipatzen dituzten hurrengo ideiekin bat nator:

“... euskararen erabilera normaltzea esan nahi da, hots, euskara gizarteko eginbide guztietan normaltasunez erabiltzeko aukera izatea.”

“... **ahulenaren aldeko jokabidea garatu behar dute herri-aginteek eta gizarteak oro har**”

- Baina kezkatzen nau azpian jasotzen diren zenbait puntu demokratikoki erabaki behar direla esaten denean, erabaki demokratiko hori nola gauzatzen den. Alderdi politikoen adostasunerako gaitasunaz ari garen eta beraien esku ote dagoen edo zertaz ari garen. Uste dut ezin dela ahaztu gutxiengoaren eskubideak ere eskubide demokratikoak direla.

*“Legean argi gelditzen da hizkuntza eskubideen eragingarritasunak **progresiboa izan behar duela**. Progresiboak, ordea, ez du esan nahi mugagabe geroragarria. Bistan da euskaraz bizi nahi duenak bere hizkuntza-hautapena baliatzeko zailtasun ugari dituela gaur oraindik toki askotan. Eskubide hori egiazki nola bermatu, herritar erdaldunen eskubideekin nola uztartu eta progresibotasuna nola gauzatu horiek dira demokratikoki erabakitzekeko puntuak.”*

- Azken pasarte honetan esaten denaren harira euskal elebidunen alde esan beharko litzateke erdal hiztunen baten eskubidea inoiz zapaldua izan bada hori salbuespena izan dela, euskaldunon berezko joera, sarri ez osasuntsua, erdal elebakarren aurrean gure hizkuntza hautua beraienera makurtzea izan ohi baita.
- Legeak euskara ezagutzeko betebeharra jasotzea defendatu dut orain arte baina aukera berdintasuna bermatzeko izan liteke beste alternatibarik: Eska dezagun gaztelera ezagutzeko betebeharr juridikoarena kentzea. Badakit proposamen honen egingarritasuna zaila daukagula, baina euskara ezagutzeko betebeharra jasotzea baino askoz zuzenagoa izan liteke gaztelania ezagutu beharra ordenamendu juridikotik kentzea.
- Bukatzeko berriro diot, ez dut lege garapenean indar berezirik jarri nahi. Nik zera uste dut, euskaraz bizi nahi dugunon etorkizuna hein handi batetan (ez bakarrik) gure esku dagoela, euskara erabiliz hain zuzen ere eta euskal hiztunen komunitatea trinkotzeko elkartek sortuz, harreman sareak sortu eta elikatuz eta behar ditugun ekimenak bideratzeko gure burua antolatuz. Ekimen horiei laguntza eta babes egokia ematea herri erakundeen erantzukizuna da, aldeaz aurretik gizarte ekimenarekin adostasunetara heltzeko aukerak eskainiz eta etengabeko komunikaziorako espazioak bermatuz.

2.1.3. EUSKARAREN AURRERAKADAREN IFRENTZUA

- Atal honetan aipatzeko modukoak izan daitezkeen ondoko baieztapenak azpimarratu nahi nituzke:

“...lege-babesa... ez da euskararen etorkizuna erabat bermatzeko behar bestekoa”

“Erabilera da giltzarria, eta herritarrak dira, gara, protagonistak. ...Bizikidetzaren horretarako behar dugu euskara...”

“Euskara..., ez da komunikaziorako tresna neutro bat bakarrik. ...Badakigu euskara sinbolo bat dela, gure gizartearen izaera askotarikoaren ezaugarri behinena...”

“..., esan dezagun erabilerak lehendabizi eskatzen duen baldintza ezagutza dela, eta horretarako bide segurua da eskolarena. ...Baina erabilerak, ezagutzaz gain eta aldi berean, gutxienez beste bi baldintza ere betetzea eskatzen du: erabiltzeko borondatea eta erabiltzeko aukera. Bi faktore hauek eskolaz haratagoko faktoreak dira, eskola barruko lau hormen artean itotzen ez diren faktoreak alegia.”

“..., errealitate hori ezin da dekretuz aldatu, eta, bestetik, errealitatea hori ere badenez, ezinbestekoa zaigu euskararen hazkunde politikarekin jarraitzea bai erritmoak egokituz, kontziente izanik urte luzeetako eginkizuna dela hori, eta bai eskolatik haratago harreman-sare euskaldunak bultzatuz, euskara ahalik eta modurik naturalenean haz dadin.”

“Bi dira, hizkuntza politikaren gaineko gogoeta egiterakoan, kontuan izan beharko lirakekeen oinarriak: batetik, euskara mintzabide lez indartzea eta euskararen erabilera sendotzea eta areagotzea, eta, bestetik, hizkuntza-eskubideak errespetatzea eta errespetaraztea. Izan ere, uste baitugu hizkuntza-eskubideen ikuspegitik ez ezik **euskararen erabilera areagotzeko eta sendotzeko helburua lortzeko bidean zer egitea komeni zaigun, zer saihestea interesatzen zaigun, zer lehenestea eta zer aldi baterako bada ere bazterrean uztea komeni zaigun argitzearen ikuspegitik ere**

egin behar dugula euskararen egoeraren eta etorkizunaren gaineko gogoeta, helburu bakarra euskararen beraren interesa izanik. *Ikuspegi hori hizkuntza eskubideenaren ondoan jartzeak eragina izango luke hizkuntza politikaren lan-ildoetan eta erritmoetan.*

*“...gaur oraindik euskaratik urrun dauden herritarrek ... jakin behar **dute euskararen etorkizuna bermatzea ez dela euskal hiztunei bakarrik dagokien zerbait**, gutxiago ideologia edo joera politiko jakin batzuetakoei soilik. Jakin behar dute guztiena den ondare horren etorkizuna guztiek zerbait –eta gero eta gehiago– egiten duten neurrian baino ez dela bermatuko.”*

“...Beraz, asko da egiteke geratzen dena herri-administrazioetan ere euskararen erabilera normalizatzeko eta gehitzeko.”

“... euskara gaitasunaren eskaera (errekerimendua denean, bereziki) zuzenean lotu behar litzateke lanpostuan euskara erabiltzearekin.”

“... Estatuaren Administrazio periferikoak urteotan erakutsi duen utzikeria, harena ere bai baita Euskararen Legea betetzeko obligazioa, ... Arlo horretan, guztia dago egiteke.

Hurrengo pasarteetan berriz ñabardurak egin beharra ikusten dut:

“Gehi dezagun ez dela berez hizkuntza kamutsik, honelako hutsik ageri baldin badu, zorrotz zezaketen adina zorroztu ez dutenena dela soil-soilik errua, behiala Axularrek zioenez.”

- Egiaitak zer edo zer eduki dezake esaldiak egiten den interpretazioaren arabera, baina ez zait egokia iruditzen euskaldunen errutzat jotzea euskarak aurrera ez egin izana, dinamika horretan sartuz gero erru asko banatu beharko genituzkeelako aizkoren kamustez.

*“Euskararen etorkizuna bermatzeko bidean, seguruena, **hazkundera ahalik eta modurik naturalenean gertatzea dela uste dugu**. ... esparru formaletan ez ezik **funtzio ez-formaletan ere erabiltzea da hizkuntza barneratzeko eta elikatzeke modua**.*

*Erabileran baitatza adierazkortasuna, sentimenduak, emozioak eta naturaltasuna bera, ...**Erabilerak naturaltzen du hizkuntza, ez maitasunak, ez nahi izateak, ez jatorriasunak, ez jatorrizko hizkuntzak.***

- “Euskararen hazkundea ahalik eta modurik naturalenean” ematearekin bat banator ere, ezin uler daiteke hori inertziatzat emango denik. Naturaltasunez euskaraz mintzatzeko esparruak irabazi behar ditugu baina hori eman dadin neurri zehatzak hartuz, ez inertziatzat jotzatuz.

“...hizkuntza naturala gaztelania duten gazte elebidunak gero eta gehiago dira.”

- Hizkuntza naturala ez da kontzeptu zuzena. Dena da artifiziala, bai ama hizkuntza bai ikasitakoa, denak baitira ikasiak, batzuk lehenago eta besteak beranduago. Eta dena da naturala, ikasitako hizkuntza bat ere norberarena baita, norberak baitabil norbere hitzekin. Beste kontu bat da erraztasuna, maitasuna, adierazkortasuna... Baina naturala ez da zuzena.

“Langintza horretan ditugun mugak euskararen beraren errealitateak, euskarak gizartean duen pisuak, euskal gizartearen beraren borondate eta ahalmenak ezartzen dizkigunak dira. Horregatik da bereziki inportantea, etorkizuneko hizkuntza politika diseinatzerakoan, boluntarismoa alde batera uztea. **Militantzia beharrezkoa dugu, baina boluntarismoa ezin da izan hizkuntza politikaren oinarri, hizkuntza politika kontuetan ere ezin baita egin nahi dugun guztia** –edo batzuek nahiko genukeena edo luke tena–. Ezin esan beti boluntarismotik guztiz salbu egon garenik, baina etorkizunari begira beharrezkoa dugu errealitatearen mugak eta errealitateak bere barnean dituen arau sozial idatzi gabeak ahazten dituen boluntarismoari ateak ixtea.

“Atal oso hau pasarte bakar batean laburbiltzera jo beharko bagenu, esango genuke oso garrantzitsuak direla hizkuntza-eskubi-deak, eta egunerokoan han eta hemen egiazki errespetatu daitezkeen

*hartu beharreko neurriak hartu behar direla. **Baina eskubideen ize-
nean harturiko edozein neurri ez da berez onargarri, baldin eta
euskararen erabilera sendotzeko eta areagotzeko balio ez badu.**
Euskararen erabilera indartzea eta etengabe gehitzea izan behar du
hizkuntza politikaren oinarri nagusia, herritar gehienen atxikimendua
eta adostasuna makulutzat hartuta. Horrek eskatzen du herritarrek
euskara erabiltzeko gaitasuna izatea, euskara erabiltzeko aukerak
izatea eta euskara erabiltzeko borondatea izatea, esan nahi baita,
herritarrek euskara borondatez erabiltzea, gero eta gehiago.”*

- Azken bi pasarteetan ere ñabardurak egin beharra ikusten dut, esaten diren zenbait konturekin ados banago ere. Euskararen erabileran aurrerapauso gehiago ez emateko mugak euskal gizartearen borondate eta ahalmen faltari egozte uste dut ez dela justua (lehenago ere aipatu izan dudan modura), nahiz eta etorkizunerako gako nagusiak euskal gizartearen borondatearen baitan dagoela sinisten dudan. Uste dut euskaldunek euskara erabiltzeko lehenik eta behin aukerak izan behar dituztela eta horiek eman ezean zaila dela edozein hizkuntzari eustea. Ezin dugu ahaztu gainera legeek euskal hizkuntza komunitatearen historian zehar kontrako eragin asko eta larriak ekarri izan dizkigutela eta orain dela 25 urtera arte ezagutu ditugun legeek euskal hizkuntza komunitatea existituko ez balitz bezala jokatu dutela erakundeetan eta hezkuntzan bereziki. Euskal hiztunen komunitateak euskarari eutsiko badio, euskal komunitatearen bizi-indar etnolinguistikoan eragiten duten faktore anitzei erreparatu behar zaie, ez bakarrik gizartearen borondateari. Hizkuntza gatazka egoeratan bizi izanda hiztunak izan ditzakeen mendekotasuna eta konplexuak gainditzeko, borondateaz gain eskubideen eta legitimitatearen aitortza beharrezkoa da eta gizarte elebidun bat eraikitzeko ezinbestekoa izango da etorkizunean ere. Horiek ezean, nekez eraikiko da errespetuan oinarritutako harremanik. Euskal Legeak eta honen aplikazio egokiak hizkuntza plangintza

eraginkorren bidez alde batetik eta eskubideen aitortzak bestetik, horretan lagun dezakete, nahiz eta zalantzarik ez daukadan legearekin bakarrik ez goazela inora. Lege-babes nahikoa ez izateak berak gainera “boluntarismoaren gehiegikerietara” (txostengileen terminoak erabilia) eraman dezake gizarteko sektore bat. Zer da lehenago, lege-babes falta ala boluntarismoaren gehiegikeria, oiloa ala arrautza? Aitortzen dut “boluntarismoaz” zer interpretazio egin ez daukadala oso argi, baina badirudi, edo nik behintzat hala ulertu dut, hizkuntza eskubideen defentsa lan ardatz duen gizarte ekimenari erreferentzia egiten zaiola. Desegokia iruditzen zait oinarrizko txostenean honelako baieztapenak egitea zeri buruz ari diren zehaztu gabe, adibide zehatzak eman gabe... militantziaren eta gehiegizko boluntariotzaren arteko paralelismoak eginez, hizkuntza eskubideen aldarrikapenari lotutako guztia desegokitzen edo txartzat jotzen dela interpretatzeko bide eman dezakeelako.

- Herri-erakundeen borondatea ere aldagai bat da, eta herri-ordezkarien unean-uneko borondateak, gogoak, entzuteko gogoak, ere guztiz baldintzatzen du *“langintza hau”*. Zenbat ekimen, aurrerapauso edo plangintza ez ote dira burutu gabe gelditu herri-erakundeen galga eta laguntza falta dela bitarte? Iruditzen zait herritarrengan deskargatu nahi dela herri-ordezkariek hartu beharreko eta hartu gabeko hainbat erabaki (adibidez: euskara lan hizkuntzatzen erabili mundu politikoan, udaletxetan, aldundietan).
- Uste dut egun euskararen berreskurapenean lanean dauden erakunde eta gizarte ekimen guztiak beharrezko ditugula eta guztien erronkez eta hobetu beharreko ez gogoeta egitea dela egokiena, sektore jakin batzuetan tematu gabe, guztietan baitauek zer hobetua.
- Bukatzeko, uste dut herritarrak beraien hizkuntza eskubideen jabe izatea interesgarria dela eta herritarrek eskubide hauek ezagutu ditzaten bideak eta ekintzak antolatzeari interesa ikus-

ten diot (egia da baita ere oinarrizko txostenean kontrakorik ez dela esaten). Eskubide hauek ezagutarazteko herritarrei zuzendutako kanpaina informatibo positiboak eta eraikitzaileak eta herritarren eskubideen gauzapenerako proposamen zehatzak eta hauei loturiko baliabide, euskarri eta laguntza positiboak eskaintzea dela horretarako modu eraginkorra.

- Horra nire aldetik txostengileek idatzi dutenaz egin dudana interpretazio posible bat. “*Boluntarismoari ateak ixtea*”-ren ideiarekin bat egingo nuke, lege-babes falta salatzeke, ofizialtasuna eta hizkuntza eskubideak aldarrikatzeko **diskurtso neurtu gabeak gizarteratzeari buruz ari bagara**, honelako diskurtsoek izan baitezakete arriskurik, bereziki maximalistak badira eta horiez gain euskaraz bizitzeko argumentu erakargarriak gizarteratzeko gai ez garen heinean. Horrek guztiak izan dezakeen eraginari erreparatuz horra izan ditzakegun zenbait arrisku:
 - Herritarren pertzepzioa izan daiteke euskararen berreskurapena erakundeen baitan bakarrik dagoela eta ez beraien esku, horrek izan ditzakeen ondorio eskasekin. Beraien indarrak erakundeei eskatu beharreko aldarrikapenetara bideratzea nagusiki eta euskaraz bizitzeko erabilera esparruak irabazteari dagokionez herritarren esku dagoen egitekoea bigarren mailan gelditzea.
 - Gure hizkuntza komunitatetik gizarteratzen den mezu nagusia ezkorra eta gatatzatsua izatea. Komunitate ez erakargarria hain zuzen ere.
 - Euskaraz ez dakitenek aurkakotasun giro bat sumatzea.
- Baina eta jar gaitezen ia guztiz erdaldundutako egungo herri batetan eta irudika dezagun hango euskaldunek beraien euskararen aldeko borondatea eta atxikimendua aurrera eramateko egin beharreko lan aktiboa; aldarrikapena baino ez zaie gelditzen euskara existituko ez balitz bezala jokutzen duten erakun-

deen aurrean. Aldarrikapena beharrezkoa dugu eta horren oinarri nagusia hizkuntza eskubideetan dago, zertan bestela?

- Hortaz, hizkuntza eskubideen aldarrikapena eta lanketa interesgarritzat ez ezik beharrezkotzat jotzen dut eta hauen gizarteratzeko ekimenetan errealitateari erreparatzea, solaskide aproposa aukeratzea, komunikazio egokia eta eraikitzailea lantzea eta erabilera areagotzeko emaitzak eta aldeko borondateak irabazteko moduak ziurtatzea bilatu beharko genuke.
- Edonola, boluntarismoari kritika egitea baino (nahiz eta berriro ere aipatu ez dudala argituta ikusten zertaz ari diren zehatz-mehatz txostengileak), gizarte mugimendu antolatuak eta boluntariotzatik sortutako gizarte ekimenak euskararen garapenari egin dion ezinbesteko ekarpena azpimarratuko nuke. Euskararen egoera gaur egun duela 25-30 urte baino hobea baldin bada (bai ezagutzan eta bai erabileran ere) batez ere gizarte mugimendu horri esker izan dela esan beharra dago. Tokian tokiko boluntarioz osatutako erakundeek egin diote ekarpenik garrantzitsuena langintza honi (euskararen aldeko normalizazioari) eta hauek izan dira Euskal Herrian zehar sentiberatze mailan ere lanik handiena egin dutenak.

2.2. XXI. MENDE HASIERAKO HIZKUNTZA POLITIKAREN ZIMENTARRIAK ETA ERRONKA

2.2.1. HIZKUNTZAREN ERABILERA, HAREN OSASUN-EGOERAREN ADIERAZGARRI

- Zalantzarik ez daukat euskararen erabilera dela haren osasun egoeraren adierazgarri behinena. Hori dela eta euskaraz bizitzea erabaki duten herritarren espazioak zaindu behar dira lehentasunez, daudela hauek eremu euskaldunetan, hain euskaldunak ez direnetan edota oso erdaldundutakoetan.

- Euskararen babesleku diren eremu euskaldunetako euskal hiztunak, euskal hizkuntza komunitatearen bizi-indar etnolinguistikoarentzat hauspoak dira eta bereziki zaindu beharreko eremuak dira hauek. Herri euskaldunak ezin dira irabazitzat jo eta ahanzturan utzi, hauen bizi-indar etnolinguistikoa elikatu ezik galera prozesuan sartzeko arriskua baitute. Herri haue-
tan babes instituzional ekonomiko eta politikoa ez ezik, herriko bizi-
tza kulturala eta hedabideak euskaraz eskaintzeak berebizi-
ziko garrantzia izango du eta herritarren motibazioan eragiteko
formula berriak landu beharko dira, euskal hizkuntza komunitate-
tearen identitateari buruzko pertzepzio baikorra indartze aldera.
Gogoeta berezia eskatuko luke honelako herrietan etorkinen
etorrerak euskararen erabileran duen eraginak. Kulturartekota-
sunaren aberasgarritasuna oinarri hartuta egin beharko diegu
harrera egokia kanpotik etorritakoei eta arreta berezia eskaini
haur eta gazteen euskalduntze prozesuei, hauetan laguntzeko
programa eraginkorrak martxan jarri.
- Euskaldunen kopurua murriztagoa den eremuetan herritarrek
euskaraz mintzatzeko irabazi dituzten espazioak zaintzen eta
etorkizunean euskaraz bizi ahal izateko eraiki beharko dituzten
erabilera aukerak areagotzen jarri beharko da indarra, pauso
pauso gizarte esparru guztietara zabaltzeko ahalegina eginez.
Maila eta esparru guztietan erabiltzen ez den hizkuntza, gaixorik
dagoen hizkuntza komunitate baten seinale baita. Hortaz, es-
pazioak irabaztean, pertsonen hurbileko (geografiko zein afekti-
boa) esparruetan euskaraz modu naturalean aritzeko aukerak
eskaini beharko dira, sormena eta kultura euskaraz bizitzeko
aukerak eskaini, eta era berean euskal hiztunen komunitatea
euskarazko hedabide masiboen bidez ikusarazi, haur eta gaz-
teen aisialdirako aukerak euskaraz antolatu, ostalaritzan, merka-
taritzan eta elkartegintzan euskaraz aritzeko programak eten-
gabe bultzatu, euskaraz mintzatzeko zailtasuna dutenei honen

praktikarako programak eskura jarri, haur eta gaztetxoentzat erreferente nagusi diren gurasoak eta helduak euskaraz mintza daitezzen programak martxan jarri alde batetik eta bestetik sortzaile, artista, kirolari eta abar eredugarriak beraien eskura jarri (honetan, garrantzia berezia dute hedabideetan ordu oro agertzen diren pertsona erreferentzialek, eredu modura duten funtzioagatik; ildo honetan, alderdi politikoek ere hausnarketa sakona egin beharko lukete, eskaintzen duten eredia zein den aztertuz, hizkuntzaren erabileran eredugarri izan beharko lirarteke eta).

- Azkenik, zonalde erdaldunetan sakabanaturik bizi diren euskaldunek euskaraz aritzeko eta euskal hizkuntza komunitatea trinkotzeko bilguneak eta harreman sare euskaldunak beharko dituzte lehentasunez. Ezin ditugu ahaztu herri hauetan euskaldundutako horrenbeste haur eta gazte, gehienetan etxetik euskararik edan ez dutenak edota etxeko hizkuntza gaztelera dutenak. Gazte hauen aisialdian euskarazko eskaintza erakargarriak eta kontsumorako aisialdiko produktu euskaldunak eskaintzea ezinbestekoa da. Bestalde, euskaldundu diren helduentzat mintzapraktika programak, euskarazko kultur eskaintza erakargarriak eta tokiko euskarazko hedabideen zabalkundearen onurak bereziki azpimarratuko nituzke.
- Egoera soziolinguistikoaren araberrako banaketa simplea egin dut goian eta bakoitzean zenbait ekimen aipatu ditut, har daitezela horiek adibide gisa, ez baitut esan nahi eremu euskaldunetan mintzapraktika programek ez dutela lekurik, zalantzarik ez badutela, edota kulturartekotasunaren aberastasuna beste oso euskaldunak ez diren eremuetan landu behar ez denik. Adierazi nahi dudana zera da, eremu guztietan daukagula zereginik, ez daudela lehenengo eta bigarren mailako eragin esparruak eta tokian tokiko errealitatetik abiatuta hartu beharreko neurriak ondo planifikatu beharko ditugula. Euskaraz bizi den eta

bizi nahi duen euskal hizkuntza komunitate osoa hartu beharko dugu kontutan eta arreta berezia eskaini baita ere hiriburuetan komunitate honek bizi duen errealitateari.

- Indar berezia jarri nahi dut euskal hiztunen komunitatetik euskararen erabileran eragiteko herriz herri antolatzen diren elkarteetan, hauek betetzen duten funtzioa euskararen garapenerako berme direlako alde batetik eta herri agintearen akuilu bestetik. Plangintzak plangintza, gobernuak proposatzen dituen politikek lurraldez lurralde eta herriz herri harrera maila ezberdinak dituzte. Harrera eta inplementazio ezberdinak izatea tokiko errealitatera egokitzea den heinean ona litzateke hori. Baina herri honetan nahi baino gehiagotan gertatzen zaigu tokian tokiko politikoaren sentiberatasun, interes edota prestakuntza faltagatik proposatzen diren politika orokor horiek ez dutela isla errealik izaten herriz herriko erakundeetako hizkuntza plangintza eta programatan eta horien gauzapenerako jartzen diren baliabideetan. Horren harira euskal hiztunen komunitatea elkarrekin antolatzeak akuilu lana egiten du eta programa zehatzen antolaketarako eta jarraipenerako bermea ere badira. Uste dut ezin dela ahaztu gizarte ekimena erakunde publikoen aurretik joan dela gizarte gaietan historian zehar eta euskararena ez da ezberdina. Euskara Elkarteek euskararen erabileraren mesedetan sortutako ekimenen aniztasuna eta aberastasuna ukaezina da (25 urte dira mugimendua sortu zela, beti ere erabilera xedetzat izan duen mugimendua), gerora etorri dira proiektuok plangintza ofizialetan onartzea, hala eman den kasuetan.
- Euskararen presentzia (ezagutza eta erabilera) txikiago den eremuetan, Arabako herri askotan, Bizkaiko zenbait eskualdetan eta baita Nafarroa eta iparraldekoetan ere zeintzuk dira herri-erakundeek eskaintzen dituzten hizkuntza politikarako neurriak? EBPN ez da toki askotara heltzen eta zenbaitetara helduta ere udaletako itzulpen zerbitzuetatik haratago ezer gutxi

gehiago eskaintzen dute. Toki hauetan guztietan euskaraz egiten den apurra bertako herritarren borondatean eta bertako gizarte ekimeneko lanean oinarrituta dago. Administrazioak onartu beharko luke eta sustatu gizarte ekimenaren antolaketa lana eta hauen funtzioa ordezkatzen baino, hauen lana eta aberastasuna subsidiarioki laguntzen jarri beharko lukete indarra. Zenbat herritako EBPN diseinatu dira bertako euskaldunek antolatutako gizarte ekimenarekin adostasunik bilatu gabe? Nola eskatu gero plan horiekiko atxikimendua?

- Aurrekoaren harira garrantzitsua den gogoeta bat ekarri nahi dut hona. Hizkuntza politika diseinatzea herri aginteen egitekoa dela diote txostengileek, baina betearazpena noren egitekoa da? ez al da gizarte ekimenaren egitekoa behar dituen neurriak eta plangintzak aurrera ateratzea eta herri aginteen egitekoa ekimen hauek subsidiarioki laguntzea? zein funtzio aitortzen zaio erakunde mota bakoitzari? onartzen al dute egungo erakunde publikoek gizarte ekimenaren lana? Industriari begira esate baterako edota hezkuntzari begira ere, administrazioak diseinatzen ditu bere industria eta hezkuntza politikak, baina horien gauzatzea ekimen pribatuen esku dago eta administrazioaren lana ekimen pribatuaren lana laguntzea da. Zergatik ez du eske ma honek euskararentzat funtzionatzen? Non dago arazoa?
- Euskal hiztunen komunitatearen beharretatik abiatuta Euskara Elkartek sortutako ekimen, produktu eta programatik haratago, euskaldunen artean sortzen diren harremanak, auzolanean aritzeko gizarte aberastasuna, ekintza eta gogoeta prozesu parte hartzaileen ekarpena, sormenerako eta berrikuntzarako euskaldunei eskaintzen dizkieten aukerak, proiektuak sortze bidean komunitate honek bizi duen motibazioaren balio erantsia, herriko beste elkarteekiko eta herritarrekiko eraikitzen dituzten harreman sareak eta elkarlanerako adostasunak, euskal hiztunen komunitatearen aniztasuna zaintzeko eta sustatzeko egiten

du ten ahalegina, udal ordezkari eta politikariek in euskararen erabileran aurrera pausuak emateko egiten du ten akuilu lana eta elkarlana..., lan hori guztia ordezkari ezina da eta euskararen erabileran eragin biderkatzailea duela esatera ausartzen naiz. Erakunde publikoek eta politikariek badute berezko joera bat gizarte ekimena kontrolatzeko eta kontrolpean ez du tena baztertu eta ordezkatzeko. Uste dut hori akats ikaragarria dela eta zalantzarik ez daukat gizarte ekimenak orokorrean eta erabilerari lotuta Euskara Elkartek egiten du ten lana bereziki, ezin duela administrazioak bere egin edota zerbitzu enpresa baten kontratazioarekin ordezkatu. Galera gehiegizkoa litzateke. Euskara Elkartek izaera mistoa daukate, profesionalak eta boluntarioak biltzen dituzte, sustapen lana eta zerbitzu eskaintza bideratzen du te, baina ezin ahaztu daiteke hauen atzean eta oinarrian euskaraz bizi nahi du en herriko euskal hiztunen komunitatearen parte konprometituenetakoa dagoela eta horrek bultzada berezia ematen diola euskararen normalizazioari.

- Zerk dauka eragin handiagoa euskararen erabileran, udaletxeak antolatutako euskal kantari baten kontzertuak ala elkarte batetan bildutako euskaldun gazte talde batek bere ekimenez eta udalaren laguntzarekin antolatutako kontzertu berak? Zerk izango du epe luzera euskararen erabileran eragin handiagoa, zerbitzuen kudeaketan aditu den enpresa pribatu batek euskara hutsez kudeatzen du en ludoteka zerbitzuak, ala Euskara Elkarte batek kudeatzen du ena, beti ere kontuan hartuta bere funtzioagatik hurrekiko harremanak ez ezik haien gaztaroan ere jarraipena egitea eta haiekiko erreferente nagusi diren gurasoengan eragiten ere saiatuko direla elkartean? Bere funtzioaren baitan eta bere izaeragatik bakarrik ere badu balio erantsirik Euskara Elkartek.

2.2.2. XEDEAK: GIZARTEAN EZBERDINTASUNAK OREKATZEA, GIZARTEAREN KOHESIOA INDARTZEA ETA BIZIKIDETZA AREAGOTZEKO URRATSAK BIZKORTZEA

*“Nekez aurkitu dezake euskal gizarteak bere buruari jartzeko helburu egokiagorik ezberdintasun gutxiagoko, bizikidetasun orekatuago eta sendoagoko jendartea lortzea bera baino, hori baita gero eta libreago izateko bidea. Helburu horien barnean kokatzen dugu guk euskararen auzia ere. **Euskararen auzia** ez da, gure iritzian, euskararen arazoa, **gure hizkuntzen arteko bizikidetasunaren arazoa** baizik. Euskararen auzia ez da, beraz, euskarak kezkatzen gaituenon edo euskaltzale garenon kontua bakarrik, euskal herritar guztien, kolore politiko batzuetako zein besteetako herritar guztien, euskaltzaleen eta euskaltzale ez direnen arteko bizikidetasunean eragiten baitu.*

“Izan ere, den-denok jarri beharko genizkioke geure buruari honako helburu hauek: hizkuntzen arteko ezberdintasun sozialak pixkanaka-pixkanaka baztertzea, hizkuntzak erabiltzeko aukera berdintasunerantz bidea egitea eta egiazko hizkuntza-askatasuna erakitzea. Horrela, bada, bere oinarri nagusien artean honako bi zutabe hauek bederen izan behar lituzke: batetik, norbanako bakoitzaren hizkuntza-aukera erabat errespetatzea; bestetik, hizkuntza –zeinahi hizkuntza– baliatzeko askotariko erabilera-aukerak bermatzea;”

- Guztiz bat nator txostengileek proposatzen duten bizikidetasuna landu beharrari buruz, egia baita euskara herritar guztiona dela, euskaldun izan ala ez izan. Euskal hizkuntza komunitatearen bizi-indar etnolinguistikoa indartzekotan bizikidetzan oinarritu beharko da eta bide horretan ezin izango da galtzailerik egon. Herritar guztiak izan beharko dira irabazle. Edozelan uste dut euskararen auzia, gure hizkuntzen arteko bizikidetasunaren arazoa baino, herritarren bizikidetasunaren arazoa dela, hizkuntza hautu ezberdinak egiten dituzten herritarren arteko harremanen baitan ematen dena. Zehaztasun honi garrantzia ematen diot

ezin baikara euskarari buruz aritu pertsonongatik at dagoen zer-baiti buruz bezala, auzia pertsonen arteko bizikidetzan dagoela azpimarratu beharra dago. Pertsonen arteko komunikazioan eta harremanean ematen da hizkuntza baten aldeko hautua eta hautu hori askatasun osoz egin eta gauzatzera heldu beharko ginateke etorkizuneko gizarte orekatu eta aske batetan, egoera hori edozein herritarrentzat edozein hizkuntza erabiltzea auke-ratzen duelarik eta besteak ulertuko dion ziurtasun eta lasai-tasunarekin. Zoritxarrez gaur egun oraindik, euskararen auzia euskaldunon eta euskarak arduratzen gaituenon auzia da bai-na. Erdaldun askok euskararik izango ez balitz bezala bizi da, beraz, hizkuntza politikaren zereginetako bat izango da, euskararen normalizaziotik guztiz kanpo dauden euskal herritarrek ere kontu horretan beraiek zer esana eta zer egina, bietatik du-tela. Abiapuntu okerra da esatea guztion kontua dela. Guztion kontua beharko luke, baina oraindik orain ez da.

- Bestalde askatasun hau ezin da borondate orokor zehaztuga-been baitan bakarrik lortu, gizarte ekimenak eta herri erakun-deek badute zereginik, bizikidetzat horretarako baldintzak sor-tuz, aukera askatasuna benetakoa izan dadin. Ezin da ahaztu oraindik ere erakunde askok gaztelera hutsez funtzionatzen du-tela euskal hizkuntza komunitatea existituko ez balitz bezala.
- Zalantzarik ez daukat euskara herritar guztien ondarea dela, euskaldun izan ala ez. Hala ere, uste dut gizarte eleanizdun ba-tetarantz aurrerapausoak emango badira pertsoneri eta pertsona arteko harremaneri erreparatu beharko diegula bereziki eta baita hizkuntza komunitateen arteko harremaneri ere. Uste dut hizkun-tza komunitate ezberdinen arteko harremanak estutu beharko direla etorkizunean, ezin baitugu ahaztu gurean badirela gazte-leraz mintzatzen direnak ez ezik, gailegoa beraien ama hizkun-tza dutenak, katalanera eta gero eta gehiago munduko bestelako hizkuntzak ere. Eta planteatu beharko litzateke hizkuntza guzti

horien (100 arte kontatu ditu Ikuspegi erakundeak) onarpena eta aitortpena nola bideratu behar den herri-erakunde publikoetatik. Bizikidetza osasuntsu baterako hizkuntza komunitateen arteko ezagutzan eta guztion bizi-iraupenerako adostasunetara eramango gaituzten aitortza eta adostasunetara heltzeko lana egin beharko dugu. Zeregin horretan gizarte ekimenak lan interesgarria egin lezake.

- Gizarte kohesioaren inguruan, bestalde, uste dut Euskara Elkar- teek betetzen duten bizikidetzarako ahalegina bereziki aipagarria dela: antolatzen dituzten ekimenen irekitasunagatik, tokian tokiko errealitatea eta aniztasuna kontuan hartzen dutelako, tokiko hedabideen bidez bereziki euskaldun bat dagoen familia guztietara heltzeko bokazioa dutelako eta euskal hiztunen komunitatea ikusgai egiteko ariketa erreala egiten dutelako, herriko beste elkarte eta erakundeekin elkarlanean aritzeko bokazioa praktikatzan dutelako, euskararen aitzakian gizarte arloan egiten duten ekarpena ordezka ezina delako, auzolanaren bidez, elkartegintzaren baloreetan sakonduz, auto-antolakuntzaren pedagogia hedatuz eta herriko beharrei euskaraz erantzuteko duten berezko bokazioa praktikan jarritz.

2.2.3. ABIABURU: ELEBAKARTASUNA GAINDITUZ, ELEANIZTASUNA ZAINTzea ETA SUSTATZEA

*“Baina hizkuntza-askatasunaren eta hizkuntza-erabilera aukera berdintasunaren alde, euskara eta gaztelaniaren arteko berdintasun sozialaren alde modu positiboan eta aktiboan, zuhurtasunez eta malgutasunez, baina etengabe, lan egingo badugu, **nahitaezkoa da elebitasun orekatua eta aukera-berdintzailea benetan posible balitz bezala jardutea**, hori helburu duen hizkuntza politika malgu eta errealista egitea. Bestela galga jarriko genioke guztion bultzada behar duen prozesuari.”*

- Guztiz bat nator txostengileek goiko pasartean esaten dutenarekin. Hala ere, eta hizkuntzen egoera orekatua ez dela kontuan hartuta (aukera berdintasunik ez, erabilera eremu guztietara zabaltzeko trabak,...) oreka bilatzeko helbururako bide horretan, euskara hegemonikoa eta nagusi den gune eta funtzioak babestea oso garrantzitsua da. Soziolinguistikaren ikuspegitik garrantzia berezia duten ingurune eta funtzioak dira hauek eta erakunde publikoen aldetik babesgune modura kontuan hartuak eta baloratuak izan beharko lirateke. Bereziki aipatzekoak dira udalerrri eta eskualde euskaldunak (biztanleen %80tik gora euskaldunak direnak) eta baita ere haur eta gazteentzako aisialdiko eskaintza (gaur egun hau ez da babesgunetzat onartzen, baina haur eta gazteen artean euskararen ezagutza hainbestekoa denean, babesten hasi beharreko esparrua dela deritzot) edo kultur eskaintza.

2.2.4. BEHARREZKOA DA ERREALITATEA KONTUAN HARTZEA ETA GEHIEGIZKO BOLUNTARISMOARI ATEA IXTEA ERE

*“...Euskara zabaltzeko nahia euskara indartzeko onuragarria izan badaiteke ere, oso kontuan hartu behar dugu euskal hiztun-erkidegoak eskatutako guztiari ezin diola aurre egin. Ikuspegi horretan sakonduz, euskal hiztunerkidegoa indartu nahi badugu, **ezin dugu neurririk gabe bultzatu euskara hedatzeko nahia (kuantitatiboa), besteak beste, halako politika batek hiztunen ahulezia kualitatiboak areagotuko lituzkeelako (ereduari, zuzentasunari eta kalitateari dagokienez) eta euskarak etorkizunaren aurrean dituen arriskuak bistaratuko. Testuinguru horretan euskara hedatzearen aldeko politika neurtu egin behar dugu, hiztun-elkartea bera ahuldu nahi ez badugu.**”*

- *Euskara hedatzea neurririk gabe, zer esan nahi du horrek?. Hiztunen ahulezia kualitatiboa ematen dute txostengileek arrazoi gisa euskara neurririk gabe hedatzearen ondorio gisa. Printzi-*

pioz neurririk gabeko ezer ez da ona, denak behar du bere neurria, baina txostengileek horrekin zer esan nahi duten ulertzea da kostatzen zaidana. Behar baino gehiago hedatzea euskalduntzen den jendea eremu erdaldunetan adibidez? Ez dakit nondik heldu baieztapen horri baina printzipioz ez nago ados, nahiz eta neurrigabeko ezer ez zaidan egoki iruditzen.

- Hizkuntzaren kalitatearen murrizketa kuantitatiboki asko zabal-tzearekin lotzea oso baieztapen eztabaidagarria iruditzen zait. Zeren izenean, nola eta nork neurtzen du kalitate hori? Kalitatezko hizkuntza erabiltzen dena dela daukagu premisatzat eta beraz, euskararen ezagutza eta erabilera ahalik eta gehien zabalitzeak euskararen eragin positiboa besterik ez duela izango pentsatzen dut.
- Ez dut ikusten harremanik hedapenaren eta hiztun-elkartea ahultzearen artean. Beste kontu bat da hedatu berria den hiztun-elkartearen esparrua ez dela izango guztiz osotua ereduari, zuzentasunari eta kalitateari begira, eta osotze prozesuan egongo dela, eta osotzen lagundu behar zaiola, baina ahuldu? Inondik inora ere. Indartu egingo da noski. Jadanik eraturik dagoen hiztun komunitateak etorri-berriak elikatu (eta kontrara) egin beharko ditu, baina noiztik arnas berriak ahultzen du gorputza?

“Hizkuntza indarberritzeko kontuetan, “nahi izatea da ahal izatea” printzipioak ez digu balio, ez dira ezta ere behar bestekoak –beharrezkoak eta lagungarriak gertatu arren– aginduak eta arauak.”

- Nahi izatea eta ahal izatea ez da gauza bera. Baina nahi izatea beharrezkoa dugu aurrera egingo badugu. Euskaraz bizitzeko nahia eta borondatea beharrezkoak ditugu herritarren aldetik eta bereziki nahi horien ondorioz herritarrok antolatu eta erakundetzea. Gizarte sozialak herri erakundeek gainetik egon behar du eta gizarte sozialeko erakundeek ere beraien erantzukizunari heldu behar diote. Administrazioaren lana berriz gizarte ekime-

nari sostengu subsidiarioa ematen ardaztu beharko litzateke, komunitate honek euskaraz bizitzeko daukan nahiari erantzun ahal izateko.

- Hizkuntza indarberritzeko kontuetan aginduak eta arauak laungarri badira ere ez dira nahikoak, horretan zalantzarik ez daukat. Herritarrek hainbeste aldi eta modutan agertutako borondatea da ardatza.

“...Izan ere, hainbat faktorek behartzen gaituzte euskal hiztunen euskarazko jarduna sendotzen laguntzera, hona hemen, besteak beste, faktore horietako batzuk: euskal hiztunak oraindik ere gutxiengoa dira,...”

- Jaurlaritzak argitaratutako 2001eko III. mapa soziolinguistikoaren arabera, euskaldunak % 32,3 dira, ia euskaldunak edo elebidun hartzaileak % 18,2 eta gainontzekoak % 49,6. Hori kontuan hartuta euskal hiztunak euskaraz hitz egiten dutenak badira, egia da gutxiengoa direla, baina elebidun-hartzaileak kontuan hartzen baditugu eta zalantzarik ez daukat hauek ere euskaldunak direla, orduan euskal hizkuntza komunitatea osatzen duten herritarrak erdia baino gehiago dira.

“...beldurrik gabe onartu behar dugu, euskararen interesetik begiratuta ez zaigula komeni hizkuntza politikaren diskurtsoa eskubideen inguruan bakarrik ardaztea, eta “eskubidea dugulako eta horregatik bakarrik” gaztelaniaz dagoen guztia euskaraz ere jartzen saiatzea.”

- Ez dut dekretuen eragin miresgarrietan sinisten eta ez dut uste gure hizkuntza politika hizkuntza eskubideetan bakarrik ardaztu behar denik. Nork eskatzen du hori? Uste dut hizkuntza eskubideak berezkoak ditugula eta horiek errespetatuak izan daitezten lan egin behar dela. Horretarako zein bide jarraitu? Uste dut Euskal Herrian badaukagula lanik gure hizkuntza eskubideak errespetatzen ez direnean egoera hauek salatzeke, hor

daude Behatokia eta Elebide (bi behar ditugu?) eta zalantzarik ez daukat lan garrantzitsua egiten dutela. Bestalde, herritarrak beraien hizkuntza eskubideen inguruan informatzeari ikusten diot interesik eta bereziki kontsumitzailearen ikuspegitik eskubide horien gauzapenerako tresnak, euskarriak eta proposamen zehatzak eskaintzea garrantzitsua da. Besterik da hori bakarrik egin behar dugunik, edota, euskal hizkuntza komunitatetik gizarteratzen ditugun mezu eta diskurtsoak hizkuntza eskubideetan oinarrituta egon behar direnik. Horrekin ez nengoke ados.

- Bat nator, bestalde, errealitatea kontuan hartu beharraz eta garenetik izan nahi dugunera heltzeko planifikazioa beharrezko dugun ideiaz. Baliabideak eta energiak, biak mugatuak ditugu eta oso ondo neurtu behar dugu euskararen normalizazio bidean eman beharreko urratsak.
- Badugu errealitate bat oso kontuan hartzekoa dena, euskal hizkuntza komunitatearen identitatearen pertzepzioa nahikoa baiko-rra eta indartsua ez dela euskara erabiltzeko jarrerari behar beste eusteko, euskaraz bizitzearen prestigioa behar bestekoa ez dela. Aurreiritzi askok oraindik funtzionatzen dutela, bai euskaldunok gure buruaz dauzkagun usteetan eta bai euskara kanpotik ikusten dutenen ikuspegietan. Gehienbat azken hauengan. Pedagogia asko dago egiteke. Uste dut euskararen erabilera sustatzeko definitzen den hizkuntza politikaren baitan antolatzen diren ekimenetatik pertzepzio hori prestigiatzeko eta hobetzeko lan egin beharra daukagula eta horixe da hain zuzen ere urte luzeetan gizar-terte ekimena egiten ari dena. Horretarako euskarazko jardueren erakargarritasuna eta gozamina landu, herritarren esparru afektiboetan eragiteko hurbiltasuna baliatu, euskara naturaltasunez bizitzeko aisialdiko aukerak antolatu, euskara modernitatearekin lotzeko ahaleginak egin, euskara teknologia berrietan eta interneten zabaldu, euskarazko sorkuntza lan berritzaileak bultzatu, publizitatea euskaldundu, euskarazko hedabideak hedatu eta ugari-

tu eta beharko dugu baita ere euskara botere guneetara hedatu, erakunde, politikari eta enpresetara.

- Ekintzen bidez komunikatzen dugunaz gain esplizituki adierazten duguna ere bereziki zaindu beharra daukagu, komunikabideetan euskarari eta euskal hizkuntza komunitateari lotutako komunikazioak zelan agertzen diren, euskara sustatzeko kanpainatan erabiltzen ditugun mezu eta ereduak egokiak diren, hizkuntza gatazka egoeratan norbanakoek baliatzen ditugun errekurtsio eta argumentuak eraginkorrak diren, baliatzen ditugun euskarriak eta estetikak kalitatezkoak eta zainduak diren,... Horietarako zer mezu eta diskurtso mota lehenetsi beharko genukeen? Nire ustez, mezu positiboak behar ditugu, asertibitatean oinarrituak, eraikitzaileak, gizarte kohesioan lagungarri direnak, hurbilekoak, borondateak irabazteko pentsatuak, euskararen erabilgarritasuna eta euskal hizkuntza komunitatearen aberastasuna eta erakargarritasuna islatzen dutenak, helburuen baitako hartzaileak aintzakotzat hartzen dituzten mezuak eta euskararen aldeko ekimenak herritar guztientzat onuragarritzat jotzen dituztenak. Honelako mezu nahikoak gizarteratzen ditugu? Ezezkoan nago.
- Lehentasunez komunikatu beharrekoaz aritu naiz eta aipamenen bat egin nahi nuke komunikatu beharko ez genukeenaz. Ez zaigu komeni gure diskurtsoa mezu negatiboetan eta maximalistetan ardaztea, euskal hizkuntza komunitatearen pertzepzioa horixe izatera eraman baikaitzake horrek, negatiboa hain zuzen, ez desiragarri eta ez erakargarria. Hizkuntza portaera identitate etnolinguistikoarekin lotzen ei da (Henry Tajfelen teoria) eta teoria horren arabera norberaren taldeko (euskal hizkuntza komunitateko) partaidetza adieraziko da batzuetan, eta beste batzuetan kontrakoa, hots, beste talde batean (erdal hizkuntza komunitatean) integratzeko gogoia. Hizkuntza komunitate baten bizi-indar subjektiboan pertsonen usteek eta sinismenik badute garrantzirik eta uste horiek portaera asmoetan (euskara erabili ala ez) gau-

zatzen dira. Euskal hizkuntza komunitatearen kanpo zein barne pertzepzioa ezkorra bada komunitate honen bizi-indarra galtzen irtetzen da eta horrekin batera baita euskararen erabilera ere.

- Bestalde, gizarte ekimenari badagokio gizartean identifikatzen dituen hutsuneak betetzeko behar diren neurriak exijitzea eta hori euskarari lotuta ere legitimoa eta beharrezkoa da.

2.2.5. EUSKARA DENONA ETA DENONTZAT

- Euskara denona da eta denontzat. Ados. Hizkuntzak mundu guztiaren ondare dira, denontzat aberastasuna eta hizkuntza bat galtzen den bakoitzean gizateria osoak galtzen du zerbait, aniztasuna pobretu egiten da. Dena dela, horrelako aipamen orokorrekin denok bat etorri gaitzkeen arren, azpian dauden egitateak ez lirateke ahaztu behar: hizkuntzak hiztun komunitateak bizi dituzte, bakoitzak bereak. Euskararen kasuan ere, antzeko zerbait esan daiteke: euskara denona da, baina euskara euskal hiztun komunitateak bizi du. Euskara mendetan zehar bizirik mantendu duena euskal hiztunen multzoa izan da, ez zehaztugabeko gizateria unibertsal batek; euskara garatu, eguneratu eta biziberritu baldin bada hori euskal hiztunei esker izan da eta aurrerantzean ere horrela izango da. Honekin ez dugu esan nahi euskalduna izan ez arren euskarari ekarpen ikaragarria egin dioten euskaltzaleen ahalegina kontuan hartu behar ez denik (kontuan hartu eta eskertu), baina batez ere euskara ikasi, euskara erabili eta euskara bizi dutenei esker da euskara gaur egun dena. Beraz, denona eta denontzat bai, baina euskaldunona besteena baino apur bat gehiago.

2.2.6. HIZKUNTZA PROPIOARI AITORTZA ZOR ZAIO

“Gizartearen zeregina da, honenbestez, hizkuntzak aberastasun bezala ikustea, eta aberastasun horren gainean ahalik eta gizarterik

baketsuena eraikitzen saiatzea. Aberastasun hori bultzatzeak esan nahi du, besteren artean, baldintzak sortu behar direla euskara ere erdararen pare, ahal dela, gara dadin, eta, gaztelaniak bezala, erabilia izateko egiazko aukerak izan ditzan.”

“Honen guztiaren harira, hizkuntza garatzeko baliabideak eta erabilera gauzatzeko esparruak zaindu, sustatu eta sortuko dituen hizkuntza politika beharko genuke.”

- Ados.

2.2.7. DEMOKRAZIAREN PRINTZIPIOETAN OINARRITU BEHAR DA HIZKUNTZA POLITIKA

“Edozein modutan ere, hizkuntza politika ez litzateke demokratikoa izango, ezagutzen ez duenari ezagutzeko aukera emango ez bali. Horretarako, ezagutza sustatu beharko litzateke. Horrez gain, hizkuntzen arteko ezberdintasun egoera orekatzeko, hizkuntza politikak zehatza ere izan behar du, hizkuntza errealitatean eragiten duena. Hitz gutxitan esanda: gehiegikeriarik gabea izan behar du hizkuntza politikak, gizartearen kohesio-bilatzailerik, baina ezin izan liteke deserosotasunik gabea.”

- Atal honetan aipatzen den puntu batetik abiatu behar da, adostasuna agertuz. Hizkuntza politika egoerarik zailenean dagoena babesteko izan behar da, ahulena babesteko.
- Bortxak eta gehiegikeriak ez dira onak, horretan zalantzarik ez daukat, baina txostengileek ondo dioten moduan edozein aldaketa prozesuk deserosotasuna dakar.
- Gizarteak eskatzen duenaren isla izan beharko lukete politikariek defenditzen dituzten politikak, baina zintzoki zalantza handiak ditut sarri hori horrela gertatzen denik. Demokratikoa ez den sistema hobeagorik ezin aurkeztu eta daukagun onena horixe da, horregatik, demokratikoki baina gizarte ekimenarekin adostasunez egin beharko da lan; hizkuntza komunitate gutxitu honen

errealitatea sarri ikusezina suertatzen da eta gizarte osoaren borondatean oinarritu behar garen honetan, euskal hiztunen komunitateak beti atzean gelditzeko aukera guztiak izango baititu bestela. Honetarako irtenbiderik ezean, demokraziaren arauak onartu besterik ez zaigu gelditzen eta susmoa dut, gurditik tiratzea hain zuzen ere euskal hizkuntza komunitateko herritarroi egitea tokatzen zaigula, ez daukagula beste biderik eta horrela izan dela eta izaten jarraitu beharko duela etorkizunean ere. Gure hizkuntza komunitatearen etorkizuna hiztunon esku, gure borondatearen esku dago hein handi batetan eta baita gizar-teari ikusgai bihurtzea ere. Gure hizkuntza hautuetan euskarari utsiz, gure artean erakundetuta gure beharrak agerraraziz, nahiak azalduz, espazioak eraikiz eta beharrezkoa denean dagokiguna exijituz. Hori guztia, beti ere gizarte osoaren aberas-tasunerako, guztiok irabazteko eta kohesioan eta bizikidetzan aurrerapausoak emateko. Zeregin horretan ere herri erakundeei euskal hizkuntza komunitatearen eskariei erantzutea eta laguntza ematea legokieke.

- c) Elebitasun (gutxienez) pasiboaren hedapenaren bidez, hedabideen bidez eta zabalkunde-lanaren bidez euskal herritar erdaldunek euskal munduaren jabe-kide egin beharra dago, herritar euskaldunok Euskal Herriko erdal munduaz jabetzen garen bezala. Zubigintza beharrezkoa dugu honetan ere, eta guztiok egin beharko dugu zerbait elkar ezagutu eta ulertzearen mesedean, baina ez litza-teke inor mindu beharko esango bagenu euskarari eta euskal munduei bizkar emanda bizi direnak direla pauso gehixeago eman beharko lituzketenak, euskarara hurbiltzeko erabakia eurei baitagokie.
- “...euskarari eta euskal munduei bizkar emanda bizi direnak direla pauso gehixeago eman beharko lituzketenak, euskarara hurbiltzeko erabakia eurei baitagokie.” Zalantzarik ez daukat

euskaraz ez dakienak ikastea erabakitzen badu, erabiltzen ez duenak erabiltzen hasteko erabakia hartzen badu, euskaraz jakin gabe bere seme-alabak euskaldun izatea erabakitzen badu eta horretarako euskal ereduaren eskolaratzea ez ezik bestelako neurriak hartzen baditu, egoera hauek bizi dituzten pertsona hauek itzeleko esfortzua egiten dutela. Uste dut esfortzu hauek guztiak txalogarriak, eskertzekoak eta ezinbesteko ditugula.

- Gauza bera gertatzen da jende euskaldunarekin oso euskaldunak diren inguruetan. Euskara ikasi dutenei meriturik kendu gabe, neurri handi batean euskaraz bizi direnek gaztelania ikasteko egiten duten esfortzua ere aitortu beharko litzaieke. Ingurune oso euskaldunetan ez da erraza gaztelania ikastea eta hauek ere itzeleko esfortzua egiten dute. Ahalegin hori aitortu ez ezik eskertu ere egin beharko litzateke.
- Edozelan, zubigintzaz gabiltzalarik, zubirik indartsuena euskaldunok euskararen erabilerari eustea eta zubia igarotzeko gozoz daudenei laguntza ematea dela eta zeregin horretan herri erakundeek eta gizarte ekimenak euskal hizkuntza komunitateari bereziki eskaini beharko lioke babesa.
 - d) Azkenaldian, bestelako lurraldeetatik datozen pertsonen etorrera indartu delarik, areagotu beharra dago gizarte-kohesioan, aukera berdintasunean, integrazioan (ez-asimilazioan), eta abar areagotzeko egiten ari garen ahalegina, besteak beste, irakaskuntza elebidunerako aukerak ziurtatuz eta metodo egokiak bilatuz, plangintza sistematikoak eginez, harrera-egitasmoak garabidean jarri eta orokortuz, eta abar.
- Etorkinentzat irakaskuntza elebidunerako aukerak ziurtatu behar direla esaten denean, derrigorrezko irakaskuntza prozesuaren ondoren ikasleak elebidunak (gaztelaraz eta euskaraz) edo eleanitzak hemengo bi hizkuntza ofizialez gain beraien ama hiz-

kuntzaren jabe izango direla ulertzen dut. Gutxienez hala izan beharko litzatekeela uste dut benetako aukera berdintasuna emango bada etorkinentzat. Bestelako eskubideen izenean haur eta gazte etorkinei euskararen ezagutza ukatzea akats izugarria litzateke eta ukazio horrek ekarriko zukeen gizarte ereduari buruz gogoeta egin beharko litzatekeela uste dut. Etorkin gazte-
txoentzat euskalduntzeko errefortzu programa bereziak bermatu beharko lirateke eta nola edo hala euren jatorrizko hizkuntzari (eta gehiago hizkuntz gutxitua bada) aitortpena eman behar zaio hezkuntza sisteman berezi eta hezkuntza sistematik kanpo ere.

2.2.8. NORBANAKOAREN BORONDATEA IZAN BEHAR DU OINARRI HIZKUNTZA POLITIKAK

“Borondatea ez da ongi konpontzen bortxarekin. Politikaren ondorioa bada nor edo nor halabeharrez eta ezinbestean hizkuntza bat ikastera eta erabiltzera bultzatzea, zerbaitek huts egiten du. Euskara bultzatu behar da, euskal hiztunek bere hizkuntza erabil dezaten erraztasunak emanez, ez da dudarik horretan, eta erdarak egunero duen eragin handia nolabait ere berdindu behar da beste bide batzuk erabiliz. Honek berdin balio du administrazioaren zereginean edo enpresa pribatuetan, hauek ere bere gain hartu beharko bailukete politika honetan laguntzea.”

- Bortxaz eta inor halabeharrez hizkuntza bat ikastera eta erabiltzera bultzatzeaz mintzatzen dira txostengileak. Honelakoak gertatzen dira? Egia esateko ez zait egokia iruditzen bortxaz honela aritze hau adibide zehatzik eman gabe. Egia ez al da beste aldeetik euskara erabiltzea erabaki duenak bortxa bizi duela euskaraz ez dakienaren aldetik?
- Norbanakoen borondatea izango da izatekotan gure hizkuntza komunitatearen biziraupenaren bultzada emango duena. Hala ere, administrazioan edota enpresatan bortxaz aritzea gehiegizkoa iruditzen zait. Esango nuke langileen eskubideez

ari bagara bortxa ez dela inoiz eman ez administrazioan ezta enpresa pribatuan ere. Uste dut gizartean ematen diren hainbat aldaketa eta garapen bideetan lanpostu askotan ematen den birziklapen prozesuetan kokatu beharko litzatekeela euskararena, informatikarekin, atzerriko hizkuntzekin edo bestelako prestakuntza edukiekin gertatzen den bezala. Langileak bestelako motibaziorik izan ezean, hor kokatu beharko luke euskara ikasteko edo erabiltzeko eskakizuna. Besterik da honelako egoerez egin ohi den erabilpen interesatua.

2.2.9. PROGRESIBOA, MALGUA ETA NEURRIKOA IZAN BEHAR DU HIZKUNTZA POLITIKAK

“Hizkuntza politika malgutasunean eta progresibotasunean oinarritu behar da. Malgua, neurrikoa, eraso gisa sentitzen ez dena, beti ere integratzailea.”

“...egiazko askatasuna, puntu honi dagokionez, elebidunak diren hiztunek bakarrik dute, gehienen kasua bestelakoa baita: ezagutzen duten hizkuntza bakarra erabiltzeko ezinbesteko beharra.”

“...hizkuntza politikak askatasunean oinarritua bai, baina, hautatzeko askatasun txikiena duen hizkuntzaren aldekoa izan behar du. Komunikazio-hizkuntza diferenteak daudenean, ukipen egoeran ditugunean hizkuntza nagusia eta gutxitutakoa, nagusia erabiltzea ez litzateke askea, ezartzailea baizik gutxituarenganako.”

- Progresiboa, malgua, neurrikoa eta integratzailea izan behar du politikak, baina baita ausarta ere; deserosotasun puntua behar du, halabeharrez.
- Egiazko askatasuna izatekotan elebidunak diren hiztunek bakarrik dute eta bi hizkuntzen jabe egin ahala askatasunean irabazten da. Dena dela, askatasuna ez da pertsonala bakarrik, aske sentitzeko parekoak askatasuna baliatzeko aukera eman behar dizu beraz, aske-askea ez da inor, parekoak ez badu askatasun hori bermatzen.

“... hizkuntza politikak ahalik eta gutxien baldintzatu beharko luke herritarren askatasuna. Borondatean oinarritzetik indarrean, edo indarkerian, oinarritzera pasatuz gero gertatuko litzateke hori.”

- Ez dut uste hizkuntza politikaren oinarriak lantzeko testuinguru honetan indarkeria aipatzea inorentzat mesedegarri denik. Euskal hizkuntza komunitatetik indarkeria ematen dela interpreta-tzera eramaten gaitu aipamen honek eta uste dut hori ez dela onargarria, hizkuntza komunitateren batetik malgutasuna eta egoerara egokitzea egon baldin bada gizarte elebidun honetan, hori euskaldunon hizkuntza komunitatetik izan da, zalantzarik gabe. Askatasunaz ari gara, edozein dela ere norbanakoak egi-ten duen hizkuntza hautua. Utz dezagun hor gaia.

2.2.10. EGIN DAITEKEENAREN ETA EZIN EGIN DENAREN ARTEAN MUGITU BEHAR DU HIZKUNTZA POLITIKAK, KALITATEA ZAINDUZ AHAL DEN NEURRIAN

- Hizkuntza politikak ezin die modu berean eragin errealitate ezberdinetan bizi diren herritarrei, horrekin ados nago. Tokian tokiko egoera soziolinguistikoa kontuan hartu behar da, per-sona bakoitzaren lanpostuaren arabera honek herritarrengan izan dezakeen eragina eta beste hamaika faktore. Horretarako hizkuntza plangintzak eta ematen dizkigun tresnak baliatu be-harko ditugu eta tokian tokiko eta eragin esparru bakoitzeko errealitatearen eta euskal hizkuntza komunitatearen egoera eta bizi-indarra izan beharko ditugu oinarri aurrera begirako neu-riak zehazteko. Baina horietan guztietan etorkizuneko ikuspe-giaz jokatu beharko dugu, orain erabakitzen diren politikak ez daitezen izan etorkizunean mugatzaile. Zentzu horretan ausart jokatu beharko genuke.
- Errealitate ezberdinetara egokitzea ez litzateke ulertu behar le-hen mailako eta bigarren mailako eragin esparruak, herritar tal-

deak, ingurune soziolinguistikoak daudenik. Uste dut bakoitzari berea eman behar zaiola eta ikuspegi horretatik lan egin.

“Bestetik, guztion zeregina da euskararen erabilera aberatsa bultzatzea, eta kalitatea zaintzea, baina beharbada hiztun kopurua haztearen eta belaunaldi berrietara hedatzearen ondorioz hizkuntzak puntu honetan bidesaria ordaindu beharko du.”

- Euskararen erabilera aberatsa eta kalitatezkoa bultzatu beharra dago eta egia da eskola bidez emandako euskararen ezagutzaren hedapen zabalak eragin negatiboa ere ekarri diola euskararen kalitateari. Edozelan uste dut euskararen hedapenari mugak jartzen baino, euskararen kalitatea hobetzeko neurriak hartzen jarri beharko genituzkeela indarrak. Horretarako proposamen zehatzak egiten dira “Euskararen kalitatea, zertaz ari garen eta zertarako” txostenean, horra batzuk:
- Euskararen egokitasuna sustatzeko giroa sortu behar da hizkuntza ikasketa eta erabilpenaren hobekuntzari lotutako plangintzatan.
- Euskararen erabilpenerako aukerak bermatu: euskarazko zerbitzuak eskaini eta euskarazko produktuen kontsumoa sustatu.
- Haur-gazteen adinaren arabera helburuak jorratuko dituzten ikastetxeetako hizkuntza normalizazio plangintzak hedatu eta sistematizatu, esku hartzen duten eragile guztiak aintzakotzat hartuz, erabiltzen den materialeko euskararen egokitasuna landuz eta ikastorduetako eta ikastorduetatik kanpoko erabilera zainduz.
- Hedabideetan jorratzen diren sailen arabera hizkerak erabaki, bereziki haur eta gazteei zuzenduriko kultur eta komunikazio produkzioan.
- Hedabideetarako haur eta gazte hizkera eta erreperitorioak landu, sistematizatu eta zabaldu.

- Iragarle euskaldunen eta batez ere erakundeen publizitatean euskararen presentzia egokia landu.
- Haur eta gazteen euskarazko produktuak eta zerbitzuak eskuragarri eta erakargarri egin.
- Teknologia berrietan euskararen sarbidea bermatu.
- Herri/eskualdeko hizkuntz ondarea jaso eta erabilgarri ipini, erreperitorioak lantzeko baliabide interesgarri gisa.
- Euskal herriko zonalde euskaldun eta erdaldunetako gazteen arteko harremanak ugaltu.
- **Eskola-orduz kanpoko jardueren euskalduntze programak** bultzatu eta horietara egokituriko erreperitorioak lantzea, **hizkera ez-formalak eta afektiboak lantzeko esparrurik interesgarrien eta eraginkorrenetakoa** hauxe delarik; are gehiago kontuan izanik berezko lagunarteetara iristea oso zaila dela, herri txikietan ez ezik.
- Azpimarratu nahiko nuke “Euskararen kalitatea, zertaz ari garen eta zertarako” txostenean espresuki nabarmentzen dela aisialdia euskalduntzeko programek haur eta gazteen hizkera ez-formala eta afektiboa lantzeko duen eraginkortasuna. Hemen kokatuko nituzke adibidez Euskara Elkartetatik antolatzen diren aisialdi ekintzak, eta hauekin lotura zuzena duen kultur arloko eskaintza ere. Azpimarratu nahi nituzke baita ere aisialdian kokatzen diren eta gazte zein helduek parte hartzen duten mintzapraktika egitasmoak, zeintzuetan harreman afektiboek garrantzia handia hartzen duten eta euskara praktikatzeko helburuaz dabilzan partaideei tokian tokiko ereduak eskaintzeko aukera ere ematen duten. Kalitateari dagokionez interes berezia izango luke hezitzaileei edota mintzapraktika egitasmoetan parte hartzen duten hiztun osoei euskara egokia eta aberatsa erabil dezaten

eta bereziki gazte hizkerari lotutako ereduak heda ditzaten erre-
kurtoak eta programak eskaintzea. Horren adibide izan daiteke
Ttakunek eta Urtxintxak sortutako “Lagun arteko hizkerarekin
jolasean” programa.

2.2.11. HERRITARREN ELEBITASUNA BULTZATUKO DUEN HIZKUNTZA POLITIKA. IRAKASKUNTZAREN GARRANTZIA HELBURU HORREN BIDEAN

- Irakaskuntza elebidunaren bidez elebitasun pertsonala heda-
tzeko lortutakoa oso garrantzitsua izan dela aitortuta, egun inda-
rrean dauden eredu ezberdinen emaitzen jabe izan behar gara
eta eredu bakoitzaren arabera gazteen hizkuntza gaitasunari
lotuta jaso diren emaitzak oso gogoan izan.
- Ikasleen komunikazio gaitasun ahalik eta hoberena bermatze
aldera, tokian tokiko errealitateetara egokituko den hezkuntza
eredua beharko dugulakoan nago baina bereziki eskolan egin-
dako esfortzuak alferrik galdu ez daitezen, ezinbestekoa izango
da hauen osagarri izango diren eskolaz kanpoko programa eta
zerbitzu osagarriak eta euskara erabiltzeko aisialdiko eskaintza
erakargarriak antolatzea.

*“Hari berari tiraka, eskolan landu den hizkuntza-erregis-
troak zernahirako nagusitzeak hiztun berrien adierazkortasun-
gaitasunean ere eragin du. Era berean, hiztunen adierazkortasuna-
ri eta egokitasunari bainoago gramatika arauak baliatzeari eman
zaio askotan lehentasuna, eta horrek hiztunaren komunikazio¹⁷
egintzen arrakastan eragina izan du. Euskaraz hitz egiteko orduan
hedatu den gramatikakeriaren murrontzak euskara erabiltzeko
aukerak murriztu egin ditu. Oso zabaldua dago hiztunen artean hiz-
kuntza zuzena ez erabiltzeko beldurra, beldurrak zalantza sortzen
du eta zalantzak paralizazioa. Horrekin hausteko, leku egin behar*

zaio arau-hausteari, lasaitasunez hitz egiteari, gainetik autoritate linguistikoaren arnasa sentitu gabe.”

- Goikoarekin ados egonik, arau-hausteari eta adierazkortasun-gaitasunean eragiteari begira aisialdiko ekintzatan daukagu aukera paregabea, askatasun espazioak diren heinean, arau-haustea errazagoa delako eta egungo eskola eredueta komunikazio gaitasunari oraindik ere oso leku eta denbora gutxi eskaintzen zaiolako.
- Ahozotasuna lantzeari garrantzia berezia eman behar zaio, horrek ematen baitu jartotasunez aritzeko gaitasuna. Aisialdia da horretarako aukera aproposena, baina irakaskuntzan ere lekua behar du. Aisialdia eta irakaskuntzaren arteko zubiak eraiki behar dira.
- Eremu euskaldunak (bai gune fisikoak eta baita eremu funtzionalak) berariaz eta lehenatasunez zaindu beharko lirateke, bertako hizkuntza-erregistroak zaintzeko eta hedatzeko.

“Herritarren elebitasuna bultzatzeko bidean, irakaskuntza arautu eta derrigorrezkoaz gain, garrantzi handia izango du helduen euskalduntzeak ere. Komeniko da jarduera hori herritarren hizkuntza-beharrizan aldakorretara egokitua eta herritarren aldian aldiko hizkuntza premiei kalitatez eta malgutasunez erantzungo die-na izatea. Horrekin guztiarekin batera, lan munduan bezala informazioaren eta komunikazioaren teknologietan, nola baita ere hedabideetan, euskararen erabilera sustatzea izan beharko du helburu edozein hizkuntza politikak.”

- Hedabideetan euskararen erabilera sustatzeari buruz euskara hutsezko hedabideak behar ditugula argitu beharra dago eta ez hedabide elebidunak. Baieztapen hau egiteko Aitor Zuberogoi-tiak 2003an idatzitako doktoretza tesiari (“Euskararen presentzia gaur egungo prentsa elebidun abertzalean”) egingo diot

erreferentzia eta bere lanaren ondorioen ataletik ateratako zenbait pasarte ekarriko ditut gogora:

- o “Esan dezagun berriro: mundu globalizatu honetan osasuntsu iraungo badu, hil ala biziko du euskal hizkuntza-komunitateak euskarazko komunikazio-esparrua osatzea; eta esparru horrek euskara hutsezkoa behar du izan, eta hizkuntza-funtzio guztiak bere baitan hartuko dituen zirkuitu osoa eduki behar du oinarrian. (...) Egon ere, hortxe dago auzi honen gakoa: Sanchez Carrionek iradoki bezala, ibilbide oso hori osatzera jo ezean, hizkuntza gutxituaren kanpo-funtzioetatik sartzen hasiko litzateke hizkuntza inbaditzailea, harik eta barne-funtzioak ordezkatu arte, elebitasuna, jada esana dugun moduan, ez baita egoera finkoa, hizkuntza biren arteko ordezkatzeko-prozesuaren fase jakina baizik (eta, onenean ere, ordezkatzeko-prozesua eskema diglosiko batekin apur bat galgatzea lortuz gero, eskema horretan hizkuntza bat beti izango da ezinbesteko hizkuntza, bestea hizkuntza baztergarria izatera kondenaturik egongo den bitartean). ”
- o “(...) logikak berak argi eta garbi erakusten du euskarazko komunikazio-esparrua euskarazko hedabideak indartuta sendotzen dela, eta ez hedabide elebidun diglosikoak sortuta/sustatuta.(...) ”
- o “(...) Hau da, hedabide elebidun diglosikoen hautuak baduela logikarik: izan ere, haientzat ahalik eta gehien saltzea baita lehen mailako kontua, euskararena bigarren mailako afera dela. Euskal hiztunen komunitateari, ordea, logika horrek ez dio balio: komunitate horrentzat euskarak behar du izan lehen mailako kontu, baldin eta euskarak zein komunitateak berak iraungo badute. Hortaz, ez ausaz hedabide diglosikoei (haiek euren intere-

sak dituztelako) baina bai euskal hiztunen komunitateari gogorarazi behar zaio nola euskarak hala komunitateak berak osasuntsu bizi gura badute baitezpadako dutela euskara hutsezko komunikazio esparrua, eta horretarako funtsezko direla bai euskarazko hedabideak bai hedabide horiek kontsumituko dituen masa kritikoa. Eta, bistan denez, hori ez da bermatzen hedabideetan (ohartuki zein oharkabeen) erdaren aldeko diglosia potentziatuta.”

- o “Ezaugarri horiek lituzkeen euskarazko komunikazio-esparrua eraikitza bideratu beharrean, prentsa elebidun diglosikoa zurkaiztera bideratzen diren ahalegin oro, euskal komunikazio-esparruaren eraikuntza oztopenen ari da, zeharka bada ere. Eta kontua ez da inoren aurka jotzea, trinkotu beharreko kalitatezko komunikazio-esparru baten alde egitea baizik; (...) Beraz, eta honenbestez lan honen ondorio nagusira ailegatu gara, gure hizkuntza osasuntsu biziko bada, datozen urteotan euskara hutsezko kalitatezko komunikazio-esparru autozentratu erakargarria eraikitza bideratu beharko dugu gure energia guztia, hori baita uneotan euskarak begi bistan daukan desafio nagusia.”
- Euskarazko hedabideen inguruan gainera badago kontuan hartu beharreko faktore garrantzitsu bat, hedabideon hedapena hain zuzen ere. Jakina da nahiko genituzkeenak baino kontsumitzaile gutxiago ditugula euskarazko hedabideetan eta euskarazko komunikabideak euskaldunok behar dugun informazio eta entretenimendu beharrari erantzutea ez ezik, euskal hizkuntza komunitateak gizartean ikusgai egiteko dugun tresna garrantzitsu bat ere badela, gizarte kohesioan funtzio garrantzitsua betetzen duena. Komunitate honetako “nukleo” inplikatuenean dugu kontsumitzaile kopururik handiena baina “periferiara” heldu

beharra da egungo erronka garrantzitsuenetarikoa eta adituen artean helburu onartua. Zentzu horretan argigarriak dira esku artean ditugun kontsumitzaileen azken datuak: ETB1ek 163.000 ikus-entzule ditu, Euskadi Irratiak 84.000 entzule, Hitzak 78.000 irakurle, Berriak 62.000 eta Euskadi Gazteak 59.000 entzule. Nire datuen arabera Topagunean federatutako tokiko aldizkariak 263.000 irakurletik gora dituzte eta hauetako askorentzat euskaraz irakurtzen duten prentsa bakarra da tokiko aldizkaria. **Interes orokorreko informazioa jorratzen duten hurbileko argitalpenak gutxienez euskaldun bat dagoen familia guztietara hedatzearen estrategia sustatu beharrekoa dela deritzot.**

- Euskararen erabilera aurrerapausoak emateko, gizarte eleantiz batetan kokatzen diren irakaskuntzako erronkei aurre egin beharko zaie, herritarren beharrei egokitutako helduen euskalduntze-alfabetatze eskaintza egin beharko da, lan-munduko erabilera programak hedatu eta hauetan sakondu beharko dugu eta euskarazko hedabideak ugaritu eta hedatu beharko dira. Horrez gain, bereziki **erabilera askeko guneetan, aisialdian, kulturgintzan, sormeneko esparruetan, interneten, hurbileko harreman sareetan...** eragitean ikusten dut indar berezia jarri beharra.

2.2.12. HERRITARREN PROTAGONISMOA EZ EZIK HERRI-ERAKUNDEEN AITZINDARITZA BARNEBILDUKO DUEN HIZKUNTZA POLITIKA

“Dena ez dago herritarren borondatearen esku uzterik, herri-erakundearen aitzindaritza ere ezinbestekoa da, baldin ezberdintasunak orekatzeko moduan paratuko badira; inor baztertu gabe, euskararen erabilera gertatzeko erabilera-eremuak indartu, eskuratu eta hedatuko badira; ahulena denak –gure kasuan, euskarak–biziberritzeko egiazko aukerak eskueran izango baditu. Ez dago beraz, zoriak zer ekarriko pasiboki jarduterik, izan ere, herritarren borondatea eta

herri-erakundeak eskuz esku joan behar dute hizkuntza kontuetan, baldin eta zedarritu ditugun helburuetara iritsiko bagara.”

- Dena ez dago herritarren borondatearen esku uzterik, herri-erakundeen aitzindaritza ere ezinbestekoa da, baina eta dena ez dago herri-erakundeen esku uzterik, herritarren borondate antolatuaren eta gizarte ekimenaren bultzada ere ezinbestekoa da eta gizarte ekimena bizirik izatea herri-erakundeen erantzukizuna ere bada.

“Herritarrek eskubidea dute hizkuntza ofizialetan –batean zein bestean– artatuak izan daitezen, eta herritarren eskakizun horri ganoraz erantzutea da herri-administrazioen obligazioa. Alabaina, herriadministrazioak ezin muga daitezke herritarren eskabideei erantzute hutsera; herri-administrazioek, askotariko herritar eta erakundeak bezala, hizkuntzaren normalizaziorantz hurreratzeko subjektu eta eragile izan behar dute. Honek, besteak beste, administrazioak eskaintzen dituen askotariko zerbitzuetan hizkuntza-irizpideak ezartzea dakar, zalantzarik gabe, boluntarismo oro baztertuz eta, besteren artean, administrazioako langileen euskararen eskakizuna erabilerarekin uztartuz, ezinbestean.”

- Herri-administrazioetan euskararen erabilerarako jauzia ere eman beharraz guztiz bat egiten dut txostengileekin.
- Herritarren eskabideak hizkuntza eskubideei lotutako eskakizunetara mugatzen direla interpretatzeko bidea ematen du pasarte honek. Zalantzarik ez daukat herri-administrazioek hizkuntzaren normalizaziorantz hurreratzeko subjektu eta eragile izan behar dutela. Baina herritarrek ere euskararen erabileran aurrerapausoak emateko badituzte bestelako mekanismoak, herri-erakundeek eskaintzen ez dieten zerbitzu, programa edo bestelako erabilerak programak proposatzeko edota horiek guztiek beraiek propio sortzeko. Horretan eredu eraikitzaile eta eraginkorrak dira Euskara Elkarteak eta herritarren borondatea

oinarri izanda, boluntarismotzat ulertu daitekeenetik urruti izaten dira elkarteotatik bideratzen diren ekimenak. Herritarren atxikimendua bilatzen den balore nagusietako bat dela aipatzen dute txostengileek behin eta berriro, eta uste dut euskararen erabile-rarekiko atxikimenduaren adierazle ezin adierazgarriagoa dela herrietako euskal hizkuntza komunitateak herriz herri erakundetzea beraien beharrei erantzuteko bide eraikitzaileak antolatuz. Herri-erakundeenaren osagarria da Euskara Elkarteena eta lehendabizikoei dagokie elkarteena lan aberasgarria eta bizia aitortzea eta elkarteok lagundu eta sustatzea. Euskara Elkarteena eraikitzailea den bezala, lehenago ere aipatutak moduan deserosotasuna ere sortu ahal diete elkarteok herri-erakundeei. Beharrezko denean herri-erakundeei bestelako neurriak eta exijentzia egitea ere badagokie elkartei eta honetan guztian elkarren arteko errespetua eta adostasunetara heltzeko borondatea beharrezkoak izango dira bien aldetik. Horren harira, erakunde bien arteko konfiantzazko harremanetan oinarritzea funtsezkoa izango da.

2.2.13. ERAKUNDE PUBLIKOEN ETA PRIBATUEN JARDUNAREN ARTEKO OSAGARRITASUNA ARDATZ HARTU BEHAR DU HIZKUNTZA POLITIKAK

“Euskararen alde egitea ez da bakarrik erakunde publikoei dagoen lana, guztion zeregina baizik. Alde horretatik, ezin da ahaztu erakunde pribatuek ere badutela hemen lanik. Nolanahi ere, kome-ni da esatea, inork bere erantzukizunari bizkar eman ez diezaion, gizarte demokratiko batean herritarren mandatua eta ordezkaritza duten erakunde publikoei dagokiela hizkuntza politika definitzea eta garabidean jartzea.

Hortik aurrera, besteren artean, herritarrek hizkuntzarekiko duten atxikimendua sendotzeko asmoz, jardun pribatua edota gizarte-ekimena indartzea eta haien ekarpenak bideratzea ere ga-

rrantzi handikoa da, beti ere herri-aginteen diseinaturiko hizkuntza politikaren osagarri gisa.

Horrela, bada, erakunde mota bakoitzaren egitekoei eta ardurei bizkar eman gabe, egiteko horien eraginkortasunaren mese-dean beharrezkoa da hizkuntza politikaren garapenean askotariko erakundeen eta elkarten arteko elkarlana sustatzea.”

1. Erakunde publikoei dagokie hizkuntza politika definitzea eta garabidean jartzea eta baita ere herritarren borondateari erreparatzea, gizarte ekimeneko proposamenak aztertuz eta ahal den neurrian horiek aurrera eramateko elkarlanean arituz. Erakunde publikoei dagokie hizkuntza politika definitzea, baina ez dagokie gizarte ekimena ordezkatzeta, alderantziz gizarte ekimena subsidiarioki laguntzea dagokie.
2. Gizarte ekimenari dagokio gizarteko hutsuneei erantzuna emateko antolatzea eta behar den tokian hutsune horiek estaltzeko neurriak eta ekimenak antolatzea eta horiek aurrera ateratzeko behar diren eskakizunak bideratzea. Herritarrek hizkuntzarekiko duten atxikimendua maila partikularrean ez ezik maila kolektiboan ere ematen da eta elkarteetan erakundetuz euskararen erabilerarako behar dituzten ekimenak aurrera eramatea eta aldarrikapenak plazaratzea, gizarte demokratiko baten bizitasunaren eta aberastasunaren adierazle dira.
3. Herri erakundeek aberastasun gisa hartu beharko lituzkete gizarte mugimenduko erakundeak, herriko bizitasunean balio erantsi gisa. Euskararen erabilera indartzeko lanean herri-erakundeen osagarri ez ezik, ekimen berriak sortzeko bide erakusle ere izan dira eta izango direla esango nuke.

3. ONDORIOAK

1. Euskara bizirik badago euskal hizkuntza komunitateak, euskaldunek, egindako ahaleginagatik izan da. Aitorpen hori ezinbesteko oinarria da.
2. Legeak bakarrik ez du euskal hizkuntza komunitatea indartuko baina aukera berdintasuna bermatzen dituzten legeak beharrezko ditugu.
3. Euskal hizkuntza komunitatearen bizi-indar etnolinguitikoa indartzeko biderik eraginkorrenak laburbiltzekotan lau lan ardatz azpimarratuko nituzke:
 - Eskola (eskola diodanean euskaltegiak ere barne kontsideratzen ditut) bidezko euskalduntzea.
 - Gizarte esparru guztietan euskara erabiltzeko aukerak sortzea indar berezia jarriz erabilera askeko guneetan (aisialdian). Hemen kokatzen ditut baita ere kontsumorako produktuak, ekoizpenak eta hauen hedapena.
 - Erreferentzialak diren instituzio eta botere-guneetan (hedabideak, politikariak, erakundeak, enpresak...) euskararen erabilera bermatzea.
 - Euskal hizkuntza komunitatearen pertzepzio baikorra sortuko duten mezu eta diskurtsoak gizarteratzea.
4. Gizarte mugimenduaren garrantzia eta beharra azpimarratu nahi ditut eta uste dut beharrezkoa dela gizarte ekimenean kokatzen diren eta euskararen alde diharduten erakunde ezberdinei banan-banan erreparatzea eta "euskalgintza"-tzat ezagutzen den erakunde multzo horretan bakoitzaren funtzioaz eta lanaz aritzea. Euskaldunen nahia eta atxi-

kimenduari buruz mintzatzen dira oinarrizko txostenean eta norbanakoaren garrantzia kendu gabe azpimarratu nahiko nuke norbanakoek badituztela mekanismoak beraien nahia bideratzeko eta mekanismo horietako indartsuena bere burua antolatzen gauzatzen da. Gizarte ekimeneko erakunde bakoitza gizartean dagoen behar jakin bati (euskararen sustapenarekin lotuta noski) erantzuteko antolatzen da eta hortik abiatuta bideratzen ditu bere ekimenak. Horiexek dira hain zuzen ere administrazioak kontuan hartu beharreko solaskideak eta horren sostengu izango den hizkuntza politika diseinatzea dagokio administrazioari. Zentzu horretan administrazioaren eta eragile bakoitzaren artean adostasunetara heltzeko ariketa egin beharra dago etengabe. Ez naiz aspertuko errepikatzen: administrazioak euskal hizkuntza komunitatea hartu behar du ardatz eta gizarte ekimenari laguntza subsidiarioa emateko helburuaz diseinatu behar du hizkuntza politika.

5. Nik Topagunea eta Euskara Elkarteek mugimendua eza gutzen dut gertutik eta euskararen erabilerari dagokionez gizarteko hutsuneei erantzuteko bi lan ardatz nagusi dituzte martxan: euskaraz aritzeko aukera berriak sortzeko guneak eta zerbitzuak antolatzea eta tokian tokiko euskal hizkuntza komunitateko boluntariora euskararen alde antolatzea. Lan ardatz hauek epe luzerako dira eta elkarteek administrazioarekin elkarlanean aritzeko duten borondatea argia da eta herriz herri garatzen da. Euskara Elkarteek eta hauen ekimenek administrazioaren aldetik epe luzerako laguntzak behar dituzte, hitzarmen bidez adostu beharrekoak. Ez al da posible administrazioaren eta euskara elkarteek arteko protokolo bat adostea non bakoitzaren funtzioak elkarri aitortzen zaizkion? Posible eta beharrezkoa delakoan nago.

6. Aurrekoarekin lotuta, ez al da posible administrazioaren eta euskara sustatzea helburu duen gizarte ekimeneko erakunde bakoitzarekin banan banako eztabaida prozesuak ireki eta protokolo bat adostea, non bakoitzaren funtzioak elkarri aitortzen zaizkion eta elkarlanerako hitzarmen esparruak adosten diren? Posible eta beharrezkoa delakoan nago.

“XXI. MENDE HASIERARAKO HIZKUNTZA POLITIKAREN OINARRIAK” IZENeko TXOSTENARI EGINDAKO EKARPENAK

Mertxe Mugika

1.- SARRERA

Itxaropenez eta ilusioz baina, era berean, kezkatu-rik idatzitako hausnarketa da irakurleak aurkituko duena hemendik aurrerako lerroetan. Itxaropenez eta ilusioz, duela 25 urte euskararen legea onartu zenetik gaur egunera egindako lan guztia ez delako alferrik izan, eta lan horri esker euskararen egoerak hobera egin duelako; baina kezkatu-rik, oraindik ere bidea luzea delako eta askok eta askok euskararen normalizazioa erabat lortuta dagoela pentsatzen duelako.

Lerro hauek, euskararen normalizazioaren alde lanean ari den batek Euskara Aholku Batzordeak kaleratu berri duen “XXI. mende hasierarako Hizkuntza Politikaren Oinarriak” izeneko txostenari egin nahi dion ekarpena baino ez dira.

Uka ezina da sekulako ahalegina egin dela urteotan euskararen alde. Goian aipaturiko txostenak horrela dakar hitzez hitz: *“Herri-aginteen eskutik eta gidaritzapean, gizarte-ekimeneko eragile ugarien bultzadaz, euskal gizarteak inoiz ez bezalako indarrak jarri ditu urteotan euskara biziberritzeko lanetan: euskal herritarrek, batzuek aktiboki eta beste batzuek pasiboki, baina guztiek jarrera positiboz, ahalbidetu dituzte euskararen geroa bermatzeko garatu izan diren egitura, diru-hornidura, plangintza eta sustapen-ekimen ugariak, oso neurri nabarmenean hezkuntzan”*.

Zalantza daukat, ordea, hori horrela izan den. Herri-aginteak herri-ekimene-
n atzetik joan direlakoan nago, gizarte-ekimeneko

eragileak izan direlarik abiadura handiagoa eman diotenak euskara biziberritzeko lanari. Nik neuk hoberen ezagutzen dudan arloaren adibidea jarriko dut: Helduen Euskalduntze Alfabetatzea. Hasteko, Helduen Euskalduntze Alfabetatzea orain dela 25 urte baino lehenago hasi zen. Herri-aginteeek euskararen alde baino kontra egiten zuteneko garaian hasi zen, eta hori ukatzea, gure jardunaren bilakaera historikoa hankamotz erakusteaz gain, bidegabekeria litzateke sasoi hartan euskararen alde jokoan gogoia baino gehiago jarri zuten horiekin guztiekin. Uste dut horren inguruko autokritika egiteko ordua ere badela. Zorionez, gaur egungo egoera hobetzen badoa ere, urteak eta urteak izan dira lanean baldintza txarrean igarotakoak. Milaka eta milaka euskal herritarrek ikasi dute euskara euskaltegietan; asko izan dira eta bere ibilbide profesionala helduen euskararen irakaskuntzan eman dutenak lau txanpon txikiren truke, eta, nire ustez, zor handia dago sektore honekin. Halaber, euskaltegiek paper garrantzitsua izan dute administrazioa euskalduntzeko orduan, izan ere, euskaldundu diren administrazioko langileek euskaltegietan lortu dute. Honi guztiari onarpen soziala eskaintzeko une egokia da, beraz, oraingo hau.

Bestalde, lar baieztapen biribila iruditzen zait esatea euskal herritar guztiek jarrera positiboz ahalbidetu dutela euskararen geroa. Pentsatzen dut hainbat herritar dagoela euskarari bizkar emanda bizi dena, oso eroso bizi ere. Horiek guztiak euskararen ingurura erakartzea eta euskaraz bizi nahi dugunok benetako aukerak izatea dira konpondu beharreko auziak. Hori nola bermatuko den guztion artean adostu beharrekoa da, jakina, baina, alde zurretik, helburua horixe dela argi utzita eta elkarbizitza ziurtatzeko ezinbestekoa dela ere aitortuta.

Sarrera hau amaitzeko, testu osoan zehar agertuko diren aipamenak EAERI dagozkiola esan beharra dago, eta zera azpimarratu: Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan izandako bilakaera oso bestelakoa izan da, oraindik Euskara ofiziala ere ez delarik; segu-

ruenik, euskararen ofizialtasuna lurralde osoan erreala denean, oso lerro ezberdinak idatziko dira!

2.- GAUR EGUNGO EGOERAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Soziolinguistika adituek esaten duten bezala, hiru aldagai nagusi behar dira edozein hizkuntza normalizatzeko:

1. Lege marko egokia.
2. Hizkuntza Politika eraginkorra eta baliabideak.
3. Herritarren atxikimendua eta hizkuntzaren aldeko jarrera.

EAEEn hiru faktoreon uztardura gertatu da neurri batean; eta, horri esker, gaur egungo egoera orain dela 25 urtekoa baino dezentete hobea da. Hala ere, aurrerakada horrek hausnarketa sakona behar du, etorkizunera begirako urratsak diseinatzen hasi baino lehen. Azter ditzagun, bada, goiko hiru aldagai horiek, banan-banan.

2. 1.- LEGE MARKO EGOKIA

Legearen arabera, euskal herritar guztiok euskara eta gaztelania jakiteko eta erabiltzeko eskubidea dugu. Baina legeak bi hizkuntzei trataera bera eman arren, aplikatzeko orduan urraketa legalak jazozen dira euskaldunon eskubideen kaltetan. Argiago ikusteko, bi adibide jarriko ditut:

- 2007ko martxoan EAEko Auzitegi Nagusiak Azpeitiko Udalaren Euskara Ordenantzak baliogabetu zituen, euskara inposatu eta gaztelania baztertu egiten zituela argudiatuta. Azpeitian biztanleen % 90ek euskara erabiltzen dute, eta, ordenantzen arabera, euskara da bertako hizkuntza. Horren harira, epailea gainerako bizilagunez arduratu zen, gaztelaniaz mintzatu nahi duten horietaz, alegia. Guztiz ulergarria zatekeen gaztelania baztertuta

geratuko balitz, baina denok dakigu hori ez dela horrela. Izan ere, euskaraz dakigunok gaztelaniaz ere badakigu, beraz, gaztelaniaz bakarrik dakien horrek Azpeitiko Udalean bere hizkuntzan tratatua izateko eskubidea bermatuta dauka. Alderantziz denean, gauza bera gertatzen da? Ezetz uste dut.

- Jaioberriak euskaraz erregistratzeko oztopoak eta debekuak. 2007ko abenduan sartu zuten euskaraz lehenengoz ume jaioberri bat Aretxabaletako Erregistro Zibilean. Horretarako, haatik, liburu berezi bat estreinatu behar izan zuten, ordura arte EAEko Erregistroetako liburu ofizialak gaztelaniaz soilik zeuden eta. Harrezkero, inskripzio gehiago izan dira euskaraz, baina gurasoek behin baino gehiagotan izan dituzte trabak tramitazioa behar bezala egiteko.

Beraz, legeak eskubidea onartu egiten du, baina gero betiko dikotomian erortzen gara; eskubidea bai, baina betearazi behar denean arazoak hasten dira. Hizkuntza biak maila berean ez dauden bitartean horrelakoak nonahi eta noiznahi ikusiko ditugu.

Hau bideratzeko argi-izpirik bilatuta, ostera, bada bidegabeko egoera honi nolabaiteko irtenbidea eman ahal dion zirrikitu legalik: Kataluniako Estatutuak 6. artikuluko bigarren puntuan jasotzen duena, esaterako:

6. artikulua. Berezko hizkuntza eta hizkuntza ofizialak.

1. Katalana da Kataluniako berezko hizkuntza. Hala, bada, bai herri administrazioetan bai Kataluniako herri-komunikabideetan katalana da usuen eta lehenen erabiltzeko hizkuntza, eta irakaskuntzan ere normalean katalana erabili ohi da bai komunikaziorako bai ikasteko.
2. **Katalana da Kataluniako hizkuntza ofiziala. Gaztelania ere bada, Espainiako Estatuko hizkuntza ofiziala**

baita. Pertsona orok du bi hizkuntza ofizialak erabilizteko eskubidea, eta Kataluniako herritarrek, biak jakiteko eskubidea eta eginbeharra. Kataluniako botere publikoen ardura da eskubide horiek erabili ahal izateko eta eginbehar hori betetzeko beharrezko neurriak hartzea. Dena dela, 32. artikuluan ezarritakoaren arabera, ezin da bereizkeriarik egon hizkuntza bata erabiliz nahiz bestea erabiliz.

3. *Generalitatearen* eta Estatuaren ardura da egin beharreko ekintzak egitea, Europar Batasunean katalanaren ofizialtasuna aitor dezaten eta kulturaren edo hizkuntzen arloko nazioarteko organismoetan eta nazioarteko tratuetan katalana ager dadin eta katalana erabil dezaten.

2.2.- HIZKUNTZA POLITIKA ERAGINKORRA ETA BALIABIDEAK

Edozein Hizkuntza Politikak ahulen dagoen hizkuntza biziberritzeari begira egon behar du. Euskararen Legea onartu zenetik abian jarritakoa aztertzen hasita, hona hemen nire ekarpenak:

A. Euskararen erabilera arlo publikoan

Legearen arabera, administrazioek hizkuntza bien erabilera bermatu behar dute. Asmo horrekin ezarri ziren lanpostuen araberako hizkuntza eskakizun edo “perfilak”. Horrek, halabeharrez, langile asko euskara-maila jakinen bat frogatzera behartu zuen eta, horretarako hainbat izan dira euskara ikasi behar izan dutenak. Nago euskara ikasi behar izatea “trauma” handia izan dela horietako askorentzat. Agian, Helduen Euskararen irakaskuntzan ari garenok geure euskaltegietan ikasle izan ditugun funtzionarioak euskalduntzeko lanaren inguruan hausnarketa egin beharko dugu, baina egia da inoiz ez dela lotu ikasi beharrekoa egin beharreko lanarekin. Zentzu horretan, uste dut oso gutxitan hartu dela Euskara lan tresna bezala. Eta

horri epe jakin batean maila bat eskuratu beharra dagoela gehitzen badiogu, erraz ulertu ahal dugu batzuegan sortu den etsipena. Honekin ez dut inondik inora justifikatu nahi handik eta hemendik esaten ari den guztia, euskaraz jakitea bakoitzaren espezialitatea baino gehiago baloratzen dela, esaterako, edota euskaraz jakitea inposaketa dela. Nire ustetan, administrazioan lan egiten duen orok euskara jakin eta erabili behar du. Hori horrela izan dadin, epeak eta egoera soziolinguistikoak kontuan hartuko dira, baina helburuak hizkuntza biak ondo ezagutzea izan behar du. Are gehiago, funtzionario horietako askok eta askok euskara ofiziala den administrazio batean lan egiteagatik lan orduetan liberazioa izan dute, euskara ikasteko bere poltsikotik dirutza ordaindu behar izan duten beste milaka eta milaka helduren aldean. Hemen hutsune nabarmena ikusten dut motibazio mailan eta erabilera zirkuituak bultzatzean. Ikasitakoa erabiltzeko da, eta ez da nahikoa landu euskarak herri-tarrekiko zerbitzua hobetzeko eskaintzen duen aukera. Horretarako erabilera aukerak zabaldu behar dira; tokian tokiko erabilera planak landu, tutoretzak ipini, euskaldun zirkuituak identifikatu...

Bada beste alor bat erdi ezkatututa geratzen dena; erakunde "erdi publikoak" deritzenei dagokiena. Horietan euskararen erabilera sarri askotan paisaia linguistikoan geratzen da: hortik aurrera, ezer gutxi. Ohikoa izaten da Euskalduna Jauregira joan eta bertako langileengana euskaraz zuzenduta erantzuna gaztelaniaz jasotzea. Horrelako erakundeetan erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatzeko irizpideak ezarri beharko liriateke. Hauetan ere erabilerari begirako helburuak markatu behar dira, herritar guztiei zerbitzu ego-kia (bezeroak hautatutako hizkuntzan, besteak beste) ziurtatzeko; hemen ere planak behar dira, erabilerarako oztopo diren hutsuneak betetzeko.

Bestalde, lotsagarria iruditzen zait gaur egun, oraindik ere, EAEko edozein erakunde publikotako ordezkari izateko aurkezten den pertsona batek hizkuntza ofizialetako bat ez jakitea, euskara, alegia. Horrek mesede gutxi egiten dio Euskararen Legeari eta,

zer esanik ez, Euskararen normalizazioari. Oraindino sarri askotan gertatzen dira horrelakoak, eta, okerrago dena, normaltasun osoz hartzen dira. Ez al du honek erakusten hainbestetan aipatzen den euskararekiko aldeketasun hori irudian bai baina ekintzetan ez dela betetzen?

B. Euskararen erabilera arlo pribatuan

Arlo horretan euskararen erabilera bakoitzaren borondatearen baitan uzten da. Azken urteetan euskararen erabilera sustatzen ari da hainbat esparrutan, hala nola, esparru sozio-ekonomikoan eta aisialdian; baina egiten ari diren pausoak oso txikiak dira. Nire aburuz, bestelako neurriak behar dira, borondatean bakarrik gertatu ez direnak. Adibidez, administrazio publikoek zerbitzu baten esleipena egiten dutenean, euskara erabiltzeak eta ezagutzeak balio erantsia izan beharko lukete. Niri sarritan gertatu zaidana jarriko dut adibide daukagun egoera ilustratzeko. Nik *Bizkaibus* erabiltzen dut lanerako joan-etorriak egiteko. *Bizkaibus*, Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzua da, kanpo kontratazioaren bidez esleitzen dena. Autobusean dagoen hizkuntz irizpide bakarra errotulazioaren gainekoa da; hortik aurrera gidariaren araberakoa da, eta gehienetan gaztelania hutsean ematen da zerbitzu guztia. Benetan uste dut erraza dela gutxieneko batzuk ziurtatzea: agurrak, lau zenbaki eta irratia erabilera, esaterako (euskarazko irratia kateak badirela konturatuko balira, bederen!). Erabilera normalizatu nahi badugu, horrelakoetan ere eragin beharra dago eta ez dena norbanakoen borondatean utzi, gauza bat baita bezeroak zer aukeratuko duen, eta beste bat zerbitzua ematen duenak bermatu beharrekoa. Zerbitzuetako langile guztiak hizkuntzaren biderkatzaileak dira; estrategikoa da, beraz, arlo hau lantzea eta bermatzea. Horretarako ezinbestekoa da administrazioak bideak jorratzea.

Azalera handiko guneak oso giltzarri garrantzitsua dira une honetan. Gehien bat zona erdaldunetan daude kokatuta, eta euskararen presentzia kartel elebidunetan amaitzen da sarri askotan.

Gune hauetan jendetza batzen da, eta askok aisialdiaren zati handi bat bertan ematen dute. Pentsa hauentzat zer presentzia duen euskarak bere egunerokotasunean. Ea Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Dekretua ezartzen denean, bederen, bat baino gehiago ohar-tzen den euskara existitzen dela.

Lan munduak ere aipamenik behar duelakoan nago. Nahiz eta apurka-apurka euskara lan tresna moduan ikusten hasi garen, oraindik arrotza da euskararen erabilera arlo horretan. Gainera, mundu globalizatu honetan, non barrura baino kanpora begira gauden, askoz ere indartsuagoak dira beste hizkuntza batzuk (ingelesa, frantsesa, gaztelania edota txinera bera ere). Euskara balio erantsi moduan hartu behar da eta euskarak merkatuan kotizazioa baduela konturatu behar dira lan munduko kudeatzaileak. Horren adibide gisa, duela gutxi egunkarian irakurritako gutun batean azaltzen zena: idazleak adierazten zuen Euskal Herriko produktuak erosteko ohitura zuen batek bertoko ekoizle jakin baten gaiak hartzeari utziko ziola; izan ere, kaxan 10 hizkuntzatan agertzen zen informazioa, baina euskaraz ez. Horrelakoak jende gehiagok eta gehiagotan egingo bagenitu, euskarak presentzia eta prestigio handiagoa izango luke eta guztion eskubideak bermatuz gertuago geundeke. Bezeroek zeregina duten arren, administrazioak alor honetan ere gutxieneko batzuk markatu behar ditu. Inork ulertuko luke produktuen etiketak eta azalpenak gaztelaniaz ez egotea? Ezezkoan nago.

C. Euskararen erabilera irakaskuntzan

Ez dago dudarik Hezkuntzak euskararen normalizazioan izan duen eragina handia izan dela. Hori bai, duela 25 urte hartutako erabaki estrategikoak, zeinaren arabera umeengan oinarritu baitzen herri honen euskalduntzea, hankamotz utzi du euskararen berreskurapena. Umeek egunean, batez beste, 6 ordu pasatzen dituzte ikastetxean. Denbora horretan, hautatutako ereduaren arabera, euskara gehiago edo gutxiago ikasi, entzun eta erabil dezakete. Eskola orduetatik kanpo zein hizkuntzatan bizi diren datza gakoa, ordea. Hainbat

familiatan etxeko hizkuntza euskara da; horrelako egoeretan ez da arazorik sortzen, ikerketa guztiek baieztatzen baitute etxeko transmisioa dela bide emankorrena hizkuntzen normalizaziorako. Hala, baldintza biak betetzen direnean eraginkortasuna biderkatu egiten dela ondorioztatu dute askotan adituek. Baina, tamalez, ez da hori egoerarik hedatuena. Argi dago, beraz, eskoletan egin den euskararen aldeko apustua beharrezkoa eta onuragarria izanagatik ez dela nahikoa, eta ezin dela bakarra izan. Behar zuen garaian Helduen Euskalduntze Alfabetatzeari ez zitzaion garrantzirik eman, eta gerora ohartu gara arlo hau estrategikoa dela. Halere, honi buelta emateko ahalegina ikusten da eta benetan estrategikotzat hartu beharrezkoa du administrazioak, herritarrek ere horrela ikus dezaten.

Ikastetxeetan ezagutza asko indartu bada ere, erabilera ez, ordea. Berriro neure esperientziatik abiatuko naiz. Ama hizkuntza euskara dut, baina ikasketa-prozesua gaztelaniaz egin nuen (euskara ikasgai moduan neukan). Hori bai, ikastetxeko patioan eta ikastetxetik kanpo euskaraz hitz egiten nuen lagunekin. Gaur egun, inguruko umeen artean, neure herrian, ez dut horrelakorik ikusten, herri euskaldun batean bizi banaiz ere. Ume txikiek erabiltzen dute euskara, baina nerabeen artean gaztelania da nagusi. Zein da arazoa? Ez dugula erabilera bultzatzen asmatu. Arestian esandakoa berresten dut: eskolaz kanpoko guztiak eragina dauka, eta umeek zer ikusi, hura egin: nagusiek, euskaraz ikasi arren, ez dute euskaraz egiten. Zelan eman buelta errealitate horri? Gaur egun badira gurasoak kontzientziatzeko egitasmoak eta bide horretan egiteko franko dagoela argi dago, baina beti heldu behar zaio ekiteko, laguntzeko eta motibatzeko bideari. Egin daitekeela eta egin beharra dagoela uztartu behar dira.

Hezkuntza Ereduen inguruan zabaltzen ari den eztabaidak ere kezka sortu dit; hain zuzen, une honetan gaztelaniaren aldeko aldarriak entzuten eta irakurtzen ditudanean, denboran atzera egiten ari garela iruditzen zait. Denok jakin badakigu gaztelania ez dagoela auzitan eta inor gutxik duela arazorik hizkuntza horretan

moldatzeko; bai, oster, euskaraz egiteko. Hizkuntz eskubideak aipatzen dituzte, baina hizkuntz politika dago jokoan. Eta hizkuntza baino gehiago, politika. Beldurra eragin nahi dute, beldurrak aurrera egiten uzten ez duelako. Horregatik, guk beldurrik gabe jokatu behar dugu; beldurrak eta konplexuak ez gaitzatela lot. Ados nago Hezkuntza Sailak planteatzen duenarekin: euskara erabiltzeko hizkuntza izan behar da. Ereduen inguruan ere eztabaida emankorra sustatu dela dirudi, eta argi geratu behar du euskara ezagutzea eta erabiltzeko aukera izatea belaunaldi berrien eskubidea dela. Euskaldun izatea balio gehigarria dela zabaldu behar dugu: denok lortu beharreko balioa, aukera berdintasuna bermatuko duen faktorea.

D. Euskararen erabilera hedabideetan

Duela 25 urte pentsaezina zen telebista edota irrati euskaldunik izango zenik. Horretan, gutxienez, bata zein bestea aukeratu dezakegu. Baina, hautatzeko orduan, zerekin egiten dugu topo? Inpresioa dut Euskal Telebistaren euskarazko kateak, hezkuntzan egin zen bezala, umeei soilik zuzendutako eredia bultzatzen duela, txikitatik euskaraz ikusten ohituz gero, helduak direnean bide horretatik joko dutelakoan. Honezkero ohartuta gaude ez dela horrela izaten. Izan ere, hainbeste telebista kate aukeran izanik, hizkuntza ez da aukeraketarako irizpide nagusia. Horrek etorkizunerako hausnarke-ta sakona eskatzen du, are gehiago kable bidezko telebistak egungo hedabideen mapa errotik aldatu eta aukera berriak eskainiko dizkigula aintzat hartzen badugu. Irratiari dagokionez, hedabideen alorrean eta euskararen erabileran eta zabalkundean, euskarazko kateen aitzindaritzak eta lanak aparteko errekonozimendua behar du, bereziki udal irratiek eta irrati libreek Euskal Herri osoan eta, are nabarmenago, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan egin dutenagatik. Irrati publiko nazionalari behar duen zabalkundea eman eta gainontzekoen adinako kalitatea bermatzeaz gaiz, herri eta eskualde mailakoei ere onarpena eta bultzada eman behar zaizkie, herritarrengandik gertukoena izanik eskaintzen dituzten aukerak direla eta.

Prentsa idatziaren gainean, azpimarratu behar da euskarazko egunkari bakarra dagoela, beste hizkuntzetakoen artean. Argi antzematen dut nabarmen txikia dela arlo honetako presentzia kioskoetan eta, hiriburuetan dohainik banatzen diren egunkarien hedadura ikusita, galdutako esparrua dela esatera ausartuko nintzateke. Baina, "irradi txikiekin" gertatzen den bezala, aspalditik lanean ari diren tokiko hedabideek berebiziko garrantzia dute, komunikatzeko hurbileko tresna baitira euskararen berreskurapenaren aldeko lanean. Aipagarria da zentzu honetan herri aldizkariak eta, oraintsuago, HITZAK eta antzeko ekimenek bere herriko berriak euskaraz jaso nahi dituen euskaldunari zein euskara ikasten ari denari egiten dioten ekarpena.

Bestalde, prentsari orokorrari gagozkiolarik, aipagarria da erdal hedabide batzuek euskararen kontrako mezuak zabaltzen dihardutela ikustea, gorago aipatu dudan ereduaren auziarekin, esaterako. Mezu ezkorrek dira, Osakidetzan, Hezkuntzan eta beste hainbat tokitan ematen den zerbitzuaren kaltetan euskara bestelako jakintzen aurrean lehenesten dela, inposaketa dagoela eta horrelako argudio faltsuak darabiltzatenak. Uste dut lelo horiei buelta eman behar diegula eta Euskalgintzan ari garenon artean artikulatu behar dugula mezu positiboa, baikorra. Hemen ez da ezer indarrez ezartzen, guztiona den hizkuntza erabiltzeko aukera aldarrikatu besterik ez dugu egiten. Gure jarduna positiboa, erakargarria izan behar da, argi baitut mezu ezkorrek ez diotela mesede egiten euskarari.

E. Euskararen erabilera aisialdian

Aisialdia dugu beste esparru garrantzitsu bat euskararen normalizazioa neurtzeko orduan. Arlo horretan nabarmena izan da aurreapausoa, baina inflexio puntu batean gaudela iruditzen zait. Hasteko, esan behar da aisialdia ulertzeko era asko aldatu dela azken urteotan. Teknologia berrien iraultzak eta bizi kalitatean gertaturiko bilakaera handiak zeresan handia daukate eraldaketa honetan.

Egunkarietan edozein asteburutako agendan begiratzuz gero, aisialdirako eskaintza handia eta askotarikoa dela ikusiko dugu. Zo-

rionez, euskarazko hainbat aukera ere aurkituko ditugu, baina, gaztelaniaz dagoenarekin alderatuta, zorigaitza gurea! Gaztelaniazkoa askoz ere ugariagoa da. Gainera, tokian tokiko agenda aztertuz gero, lurralde euskaldunetan euskarazkoa nagusia da, baina herri erdaldunetan, euskaraz ezer gutxi aurkituko dugu, edo ezer ere ez. Orduan, betiko galdera datorkit burura: ez dago euskarazko eskaintzarik euskaldun gutxi dagoelako, ala eskaintza kudeatzen dutenek aintzat hartzen ez dutelako? Hausnarketarako beste puntu bat dela iruditzen zait, baina aipa dezadan, bertan euskararen presentzia hutsala izan arren, Barakaldon Donostian beste euskaldun dagoela. Gai honetan badago beste kontu bat aztertu beharrekoa; euskarazko eskaintza eta euskarazko lanak ikustera hurbiltzen den lagun kopurua, hain zuzen ere. Berrito ere neure eskarmentutik abiatuta, esan behar dut behin baino gehiagotan joan naizela euskaraz ekoiztutako antzerki emanaldiak ikustera eta oso ikusle gutxi topatu dudala aretoan. Zergatik gertatzen da hori? Ez gaudelako ohituta antzerkia edota beste ikuskizunak euskaraz ikusten? Sarritan euskararen aldeko militantziarekin lotzen ditugulako, akaso: euskalduna naiz; euskaraz emanaldia dago, beraz, nahiz eta kalitate urrikoa izan, joan egin beharko dut. Ene iritziz, naturaltasunez hartu behar dugu euskarazko eskaintza oro; produktu duinak eta erakargarriak daude eta horiek ere kontuan hartu behar dituzte kultur programazioaz arduratzen direnek. Dagokien arduraren bereganatu behar dute eta programatzeko irizpideetan euskarari dagokion lekua eman, izan Ataunen edo Sestaon. Hortaz, toki administrazio guztietan egin behar dira pausoak; eta horretarako kuotak jarri behar dira, gutxienekoak bermatu, euskarazko zerbitzu eta ekimenei prestigioa eman...

Bestalde, Sarean euskararen presentzia gero eta handiagoa da. Honek guztiak balio izan du euskara lau haizetara zabaltzeko, baina era berean, hizkuntza nagusien erabilera areagotu egin da, eta mundu horretako kode nagusia ingelesa da. Arlo guztietatik euskarazko aukeren berri eman beharra dago eta haietara iristeko bideak erraztu.

F. Euskararen erabilera kulturgintzan

Euskarak eta Kulturak lerro batzuk merezi dituztelakoan nago. Inoiz izan ez duen bezalako sustapena duen arloa da orain; dirulaguntzak daude liburugintzarako, antzerkirako, pelikulak euskaraz egin ahal izateko (KIMUAK egitasmoa, esate baterako)... Baina, zein da horien merkatu hedapena? Batek baino gehiagok esango du nahikoa dela, gaur egun merkatu horrek oro har bizi duen gainbehera kontuan hartzen badugu. Nik neuk hainbat arlo baikortasunez ikusten ditut, adibidez liburugintzan; euskaraz liburu asko idazten da eta sarri askotan ez ditugu euskaraz daudelako bakarrik erosten, eta hori pozgarria da.

Beste kontu bat da zinema. Apustu polita egin da eta azken urteetan, gutxienez, urtean pelikula bat ekoizteko ahalegina gauzatu da. Bestelakoa da, ordea, zinema aretoetan izan duen oihartzuna: euskarazko filmak areto gutxitan egoten dira ikusgai eta gainera, denbora laburrerako. Arlo askotan gertatzen den bezala, diruak agintzen du, eta, emaitzarik ikusten ez bada, zirkuitutik kendu eta kito.

3.- HERRITARREN ATXIKIMENDUA ETA HIZKUNTZAREN ALDEKO JARRERA

Edozein inkesta egitean, gehiengoaren erantzuna izaten da euskararen alde daudela: milaka dira beraien seme-alabak euskarazko eredueta matrikulatzen dituzten gurasoak; urtero 40.000 heldu inguru hurbiltzen dira euskaltegietara eta, batez beste, egunean bi orduz aritzen dira euskara ikasten. Hori guztia ikusita, edozeinek esango luke herritarren euskararekiko atxikimendua eta jarrera ezin hobekak direla. Eta horrela da euskal herritar gehienek kasuan. Non dago, beraz, arazoa? Badira aldekotasun eta atxikimendu osoa izanagatik euskara ikasi edota erabiltzeko tenorea heltzen denean pauso hori ematen ez dutenak, eta horrexegatik gaztelania erabiltzera behartzen gaituzte euskaldunok. Sarritan, ezagutza faltagatik

jazotzen da hori, eta txarrena da ez dirudiela euskararen aldeko jarrerara duten horiek sekula euskara serio ikasten hasiko direnik (“Ez daukat astirik, seme-alabek ikasiko dute eta horrekin nahikoa”). Horiez gain, badira, besterik gabe, euskara ezertarako balio ez duen hizkuntza dela pentsatzen dutenak.

Milaka dira euskararen aldeko ekintzetan parte hartzen dutenak. Erronka asko atera da aurrera milaka euskaltzalek emandako sostengu moral eta ekonomikoari esker, eta horiei guztiei, lerro hauen bitartez, zera esan gura diet: mila esker bihotz-bihotzez!. Horrelakoek gaur egun behar-beharrezkoak izaten jarraitzen dute, tamalez. Kezka handiena, baina, euskara behar beste ez entzuteak sorrarazten dit, hizkuntza batek hiztunak behar dituelako irauteko.

Orain artekoa irakurri eta gero, norbaitek pentsa dezake nire ustez euskarak aurrera baino atzera egin duela. Nire asmoa bestelakoa da: egindako bideari begiratu behar diogu baina ezin gara hor geratu, ez iraganari ez orainari so. Aurrera begiratu behar dugu. Uste dut euskarak hiztun asko irabazi dituela, gure hizkuntza gero eta toki gehiagotara hedatzen ari dela, baina erabilera ez doa abiadura berean. Hausnarketarako unea da beraz; indarrak hartu eta hurrengo erronka erabilera indartzea da, ahaztu gabe ezagutzen sakontzea eta ez erlaxatzea ezinbestekoak ditugula. Euskararekiko benetako atxikimendua suspertuko da bizitzako esparru guztietan euskara inolako arazo barik erabiltzen denean.

HIZKUNTZA POLITIKAREN ERRONKAK

Datozen urteetako Hizkuntza Politikaren oinarriak jartzeko orduan, kontuan hartu behar dira orain arte egindakoak. Ez da lan erraza eta sarri askotan adostasuna aipatzen bada ere, nik, egia esan, ez dakit zeintzuk diren adostasun hori lortzeko jarraitu behar diren bideak; izan ere, Euskal Herrian hiru hizkuntza daude, eta ez maila berean. Beraz, egin beharreko lehen gauza hirurak status berean jartzea da. Horretarako zehaztu behar diren epeak desberdinak izango dira egoera soziolinguistikoaren arabera, baina helburua, bakarra. Ho-

rrela behar luke, behintzat. Adunan zein Guardian, bietan hizkuntza biak ezein motako arazo barik erabiltzea da nire ametsa. Orduan bai hitz egin genezake gizarte elebidunari buruz! Bitartean orain bezala arituko gara, euskaraz bizi nahi eta ezin.

Erabilera da, beraz, erronka nagusia. Baina ez gaitezen engaina: ezagutza da gakoa, ezagutzen ez den hizkuntza nekez erabili ahal delako. Zeregin horretan bi ardatz argi ditugu, batera eta, zergatik ez, elkar eragiteko moduan landu behar direnak: hezkuntza eta helduen euskalduntze alfabetatzea. Euskararen ezagutzaren bidetik, hizkuntzaren erabilera eta hizkuntzaren kalitatea sustatu behar dira. Euskara ikasteko nahia eta beharra eragin eta euskaltegiak ikaslez bete. Horrez gain, Hezkuntzako irakasleek euskara maila jaso dutela eta erraztasun eta naturaltasun osoz erabiltzen dutela bermatu behar da, horretarako behar diren neurriak oro hartuz.

Jendarteari euskara ikasteko laguntza ematea ezinbestekoa da. Arlo horretan beste pausu batzuk eman behar dira: barnetegietara joateko nahiz ikastaro trinkoak egiteko erraztasunak emanez, adibidez. Administrazioa euskalduntzeko zabaldu dira horrelako bideak, baina bide horiek gizarte osoari ipini behar zaizkio eskura.

Bestalde, euskaltegietak curriculumetan kontuan hartu behar da euskararen erabilera gauzatzeko erraztasunak eta tresnak ematea. Zentzu honetan, praktika egitasmoak bultzatzeko plangintza orokorrago batera jo beharko dugu; euskaldun sareak indartzera, baina betiere “getthoaren” arriskuan jausi gabe.

Horretaz aparte, euskara identifikazio soziokulturalaren elementua da eta berau irekia eta erakargarria izan behar da; egunetik egunera garatu beharrekoa hezkuntza eredu egoki batekin. Hezkuntza eredu erakargarri eta ireki horrek, gurasoek seme-alabak euskal eruedetan sartu nahi izatea ahalbidetzeaz gain, gurasoak eurak euskara ikastera bultzatu behar lituzke, motibazioa afektiboaren bidetik. Gainera, gisa horretako identifikazioak, irekia eta erakargarria izango bada, egunetik egunera hazten ari den etorkin kopuruari erreparatu behar dio, euskarara erakarri eta eredu euskaldunetan

integra daitezen; ez ditzagun eredu erdaldunetan marjina. Ume horien gurasoei, etorkin helduei, motibazio estra eta erraztasunak eman behar dizkiegu helduen euskalduntze orokorreko taldeetan sar daitezen. Oraingo euskaltegiko ikasleak dira geroko euskaldunak, ikastetxetako ikasleak diren bezainbat.

Baina heldu guztiak ez dira guraso, eta euskara ikasteko go-goia den-denei piztu behar diegu, horretarako hainbat modu erabiliz. Izan ere, gizartea benetan elebiduna izan dadin, ezinbestekoa da gaztetan ikasi ez duten guztiek zerbait ikastea nagusiagoak direnean. Honekin esan nahi dut, besterik ez bada, gutxienez elebitasun pasiboa bermatu behar dutela ezer ez dakiten horiek. Gaur eta hemen, helburua ez da jendarte osoa Euskalduntzeko 3. mailaren jabe izatea, baina bai, sikiera, 1. mailara heltzea eta elkarrizketa arrunt batean edota bizitzako beste zenbait harremanetan euskaraz zuzendu eta ezer ez jakitea oztopo ez izatea; erdarara pasatu behar ez izatea, alegia. Eta egoera horretara heltzeko erdal eledunak dira mugitu eta konpromisoa hartu behar dutenak, euskaraz dakigunok ez baikara oztopo gizarte elebiduna edo eleanitza egituratzeko orduan.

Bestetik, helduen artean badago beste multzo bat: euskara etxetik ekarri arren, idazteko eta irakurtzeko zailtasunak dituztenek osatutakoa; egoera horrek beldurra sortzen die eta, horrenbestez, gaztelaniara jotzen dute. Talde honetaz zera esan nahi dut: Alfabetatze hitzak duen konnotazio txarrari buelta eman beharko litzaiokeela eta aukera erakargarri moduan azaldu. Horrelako estrategia batek euskararen erabilerari onura handia ekarriko lioke, izan ere, euskaradunak normalizazioan protagonismoa erakutsi behar du, ez ikusle hutsa izan.

Aurrera jarraituz, bada beste gai bat hausnarketa sakona eskatzen duena: gazte euskaldunek gaztelania erabiltzea. Txosten hau idazteko garaian bi egoera bizitzea egokitu zait eta bietan nerabeak egon dira tartean. Bata, 3. maila egiazatzeko azterketa egunekoa. Egun horretan BEC aretoan 1.800 euskara ikasle batu ziren, EGAREN

parekoa den maila egiaztatzeko; guztiak euskaltegietan matrikulatuta. Bada, nire harridura eta samindurarako, zenbait gazteren artean erdara zen nagusi. Bigarren egoera, aurtengo Ibilaldian, zenbait gaztetxo, "Gora Euskadi" txanoa soinean, erdaraz lasai asko! Zer bait txarto egiten ari gara, gazte horiek euskara, ingelesa bezalaxe, gainditzeko ikasgaitzat hartu badute edota euskararen aldeko egun bat egun pasa bezala baino jotzen ez badute. Hil ala biziko gaia da. Nerabeek euskararen erabileraren inguruan erreferentziak behar dituzte, beraientzat euskaraz hitz egitea ez da erakargarria ezagutza bermatuta baitute. Hausnarketa sakona egin eta egoera horri buelta emateko erabakiak hartzeko unea heldu da.

Ildo berean, hedabideek ere izugarrizko garrantzia eta ardu-
ra dute hizkuntzaren normalizazioan. Ondo dago euskara hutsean jarduten duten aldizkari, egunkari, irrati eta telebista kateak izatea. Baina horrela euskaldun osoengana baino ez dira iristen. Hori ere, jakina, beharrezkoa da, baina, nire ustez, izugarrizko inportantzia dauka hedabideetan, gaztelerarekin batera, euskara ere agertzeak, bi hizkuntzak elkarrekin bizitzeak, hain zuzen. Adibidez, euskal hiztun batek esandakoak ETB2n ere euskaraz ager daitezela (nahi badute, azpitoluekin), ez diezaiotela gazteleraz gauza bera esanaraz; ETB2n, irrati kateetan, aldizkarietan, egunkarietan... guztietan euskarak lekua izan dezala eta Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntzak batera ager daitezela.

Administrazio Orokorra eta Tokian Tokiko Administrazioetan euskara lan hizkuntza izango dela ziurtatzeko epeak jarri behar dira, baita epe bakoitzari dagozkion helburuak egoera sozio-linguistiko desberdinen arabera jarri ere. Horretarako, euskaraz ez dakiten langile guztiak euskalduntzeko denbora-mugak ipini behar dira eta horrela izango dela segurtatu. Bestalde, ezinbestekoa iruditzen zait langile berriek euskara ezagutzeko betebeharra, nahiz eta argi dudan erabaki hau batek baino gehiagok inposizio bezala hartuko duela. Zaila omen da euskara ikasten ibili ondoren lanera joan eta eguneroko jarduna euskaraz egitea! Jakina, horretara ohitu

arte esfortzu handiagoa egin behar da; baina ez al da berdin gertatzen dena delako ikasketak burutu eta lehenengo lanean ikasitakoa praktikan jartzean?

Arlo honen barruan udalerrri euskaldunak bereziki babeste-ko bideak landu behar direlakoan nago, duten egoera soziolinguistikoa eusteko batetik, eta multzo horretan gero eta udalerrri gehiago sar dadin bestetik.

Arlo sozio-ekonomikoa euskalduntzea eta euskara normaltasun osoz erabiltzea ohikoa izatea lortu behar da. Datuei erreparatzen badiegu, 700.000 euskal hiztun inguru bizi gara Euskal Autonomi Erkidegoan, eta horien kopururik handiena, 25 eta 35 urte bitartean dago. Horrek esan nahi du euskal hiztun gehienak ikasketak bukatu eta lehen pausoak egiten ari direla lan-munduan, eta hurrengo 30-40 urteetan zortzi bat ordu emango dituztela egunero lantokian. Gainera, horiek izango dira hurrengo belaunaldiaren gurasoak eta, ondorioz, hizkuntza transmisioa bermatuko dutenak.

Gauzak horrela, eta enpresei ere herritarrei bezala euskararekiko erantzukizuna aitortu behar zaienez, zilegi deritzot nolabaiteko pentsaera-aldaketa izan eta hizkuntzen kudeaketari ere errepara diezaiotela eskatzeari. Aurrerapauso handia litzateke hizkuntzaren irizpidea ere aintzat hartzea errotulazioa aldatzerakoan, ohiko komunikazioa idazterakoan, edo jendearekiko harreman gehien dituzten lanpostuetarako langile berriak kontratatzerakoan.

Euskara normalizatzeari eta prestigioa emateari begira, arduradun politikoek ere dagokien erantzukizuna onartu behar dute. Jendartean pisu handia duten eragileak dira, eta, iritzi sortzaile diren neurrian, ezinbestean elebidunak izan beharko liriateke; beraz, alderdi politikoek haien burua euskalduntzeko epeak zehaztea komenigarria da oso. Helburua lortu bitartean, kuota sistema ezartzearen aldekoa naiz. Honen haritik tira eginez, "pertsona eredugarrien" mapa osatuko nuke: kirolariak, kantariak, idazleak, artistak... hauetako asko euskaldunak dira eta jendearekin hartu-eman handia

dute. Izaten dituzten hartu-eman horietan euskarak tokitxo bat izango balu, erabilerak asko irabaziko luke.

Euskara normalizatzeko, euskara bizitzako arlo guztietan “normaltasun” osoz erabiltzen den hizkuntza dela antzeman behar du herritarrak. Sarritan, euskararen inguruan gizartean zabaldutako kontzeptuak ezkorrak izaten dira: ikasteko zaila da, hizkuntza zaharra da, ez du gazteentzako hizkerarik, politikari lotutako gaia, ez du ezertarako balio... Kontzeptu hauek deuseztatu behar dira, berriak zabaldu eta horiekin identifikatu: euskara ikastea erreza da, milaka lagunek lortu dute, mundu berri bat zabaltzen zaizu, euskarak gauza askotarako balio du, egin beharreko esfortzua ez da alferrikakoa, irabazteko asko dago... Horretarako komunikazio-kanpaina eraginkorrek asko lagun dezakete.

Eta nola ez, baliabideak, diru baliabideak zein giza baliabideak; behar beharrezkoak dira euskararen normalizazioan. Diru inbertsioak egin behar dira euskararen aldeko prozesuak azkartzeko, beharrezko zerbitzuak bermatzeko, eskaintzaren kalitatea handitzeko, aditu profesionalak prestatzeko eta prestigioa emateko, sensibilizazio kanpainak egiteko, bestela iristerik izango ez genukeen alor estrategiko eta espezifikoetara iristeko... Berriro Helduen Euskalduntze Alfabetatzea aipatuz, ezinbestekoa da arlo hau baliabidez hornitzea, gero eta prestatuago dauden profesionalen ihesa geldiarazteko. Horrekin batera, Helduen Euskalduntze Alfabetatze sektoreari merezi duen prestigioa onartu behar zaio.

Eta Helduen Euskalduntze Alfabetatzeari prestigioa eta status egoki bat emate aldera, premiazkoa da Unibertsitatearekin sarrak uztartzea. Ez bakarrik horretarako beren-beregi egokitutako ikasketa lerroren bat bideratuz, baizik eta, ikerketari bidea irekita, metodologiaren garapen egokirako eta hizkuntza ikasteko moduen egokitasunak aztertu eta horretan hobetzeko bideak zabalduz.

Azken hausnarketa bat: azkenaldi honetan behin baino gehiagotan pentsatu izan dut Jaurilaritzan Industria, Hezkuntza, Barne Saila edota Osakidetza dauden moduan Euskara saila ere egon be-

harko litzatekeela. Norbaitek pentsa dezake ez dela beharrezkoa, Kultura barruan gaur egun dagoen eran ondo dagoela; eta agian horrela da. Baina pentsa dezagun: gizonak eta emakumeak legez berdina gara, teorian legeak bermatzen du bion artean berezitasunik ez egotea, baina errealitatean denok dakigu ez dela horrela. Hori konpontzearen, Berdintasunaren Ministerioa sortu berri du Zapatero Espainiako Presidenteak. Batzuen ustez, guztiz beharrezkoa; beste batzuentzat, ordea, ez horrenbeste. Niretzat kontuan hartzekoa da, eta, lehen esan dudan legez, Euskararen Normalizaziorako beste akuilu bat izan daiteke, euskarak transbertsalitatea behar du eta.

Esandako guztiari amaiera emateko hitz bat aipatu nahi dut, besterik ez: elkarlana. Ezer gutxi egingo dugu, asmo hutsalak izango dira euskararen alde egin beharrekoak, nork bere aldetik eginez gero. Nork bere esparruan baina aldamenekoari begiratuz, elkarri lagunduz jardun behar dugu. Horrela lortuko dugu Euskara guztiontzat eta guztion ondasuna izatea; zaindu eta bultzatu behar den ondarea izan dadin lortu behar dugu. Euskal hiztunak ez direnak ikastera eta erabiltzera motibatuak izan daitezela, eta euskal hiztunek erabili dezatela, egoera normala bihur dadila euskararentzat. Jalgi hadi, euskara, Euskal Herriko kale eta plaza guztietara!

XXI. MENDE HASIERARAKO HIZKUNTZA POLITIKAZ BURUTAPENA

Tomas Uribeetxebarria Maiztegi

SARRERA

*XXI. mende hasierarako hizkuntza politikaren oinarriak*¹ izenburua duen txostena, azpigitulu bezala *Euskara, XXI. mendeko hizkuntza bizia, egunerokoa eta noranahikoa* dakarrena, astiro eta kontua hartuz irakurri ondoren, irakurleari begietara lehenengo ematen diona aurreko hizkuntza politikari egiten zaion kritika da. Lorpenak aipatu bezain arin, aldiro aldiro, politika haren ifrentzuak eta astunagoak ere ekartzen dira.

Besterik esaten bada ere, indarra batez ere kritikan jartzen da, oker egindakoetan edo hain ongi egin ez direnetan. Eta hori jaso dute egunkariek ere aurkezpen egun beretik:

“Los expertos hacen un duro diagnóstico de la situación del euskera. Reconocen los avances que se han registrado en los últimos 25 años, pero destacan sin medias tintas los errores cometidos”.²

“El documento base de Euskera 21 es muy crítico. Señala abiertamente que la ecuación que equipara el conocimiento del euskera a su utilización ha fallado.

¿Tan mal se ha llevado a cabo la euskaldunización?”³

1 Hemendik aurrera *Dokumentua* bezala aipatuko da.

2 Marta Fdez. Vallejo, “La política lingüística a debate”, *El Correo*, 30/4/08.

3 Concha Lagok Alberto López Basagureni egindako elkarrizketa: “La política lingüística, a debate”, *DEIA*, 17/5/08

Ezinbestean izango da, noski, horrela jokatu beharra edozein politika aldatu nahi izanez gero. Eta horrela ulertu behar da hasierako adierazpena:

“Euskararen egoerari begiratuta, argi-ilunak ikusten ditugu gure gizartean. Nolanahi ere, hogeita bost urteotan urraturiko bidearen ondotik, argiuneak dira nagusi, euskararen gaurko egoerak ez baitu zerikusirik ordukoarekin. Baina ilunguneak ere hor dira, eta horiei buruz hitz egin behar dugu”⁴

Baina, hori onartuta ere, gogorregia gertatzen da behin eta berriz aurreko politikari eta orduan ezarritako helburuei eta hartutako erabakiei egiten zaien kritika. Eta kaltegarria ere bai euskararentzat, batez ere ongi oinarritutako kritika izango ez balitz.

Egia da HPSk jarritako puntuari eta zabaldutako bideari jarraitzen diola dokumentuak⁵, baina adituek ez daukate zergatik onartu besterik gabe, arrazoen analisisirik gabe, alde zuzenetik ezarritako puntuak.

Eta, azkenik, eman daitezkeen azalpenak gora behera, benetan faltan ikusten dira ongi egin direnak kontutan hartzea. Aipatu baino ez dira egiten zerrenda batean. Ez dut esan nahi azterketa zehatzetan sartu behar zenik, edo *Euskararen Legearen* eta ondoren etorri zen arau-multzoen emaitzen eta ondorioen neurketetan, baina, edozein kritika nahiz autokritika bermez eta zuzentasunez egin nahi bada eta ondorioak ongi atera nahi badira, ezinbesteko baldintza da ongi egina zertan datzan jakitea eta horren emaitzak ikustea, ona izan denari eta oraino ona izaten jarraitzen duenari eusteko, eta eutsiz, denboraren iraganak eska ditzakeen eguneratzeak egiteko.

Laburrean, dokumentuan ezer gutxi dago han edo hemen aipatzen ez denik, baina zuzenean eta zeharbidez transmititzen den mezu nagusia, agian, proposatzen diren oinarriena baino indartsuago jasotzen dena, orain arteko hizkuntza politikaren hutsegitearena

4 *Dokumentua*, ‘Sarrera’, 21. or.

5 *Dokumentua*, ‘Sarrera’, 18. or., eta aipatzen den puntua, 18-19 or.

da. Eta hori da lehenbizi eta beste ezeren aurretik garbitu beharko litzatekeena.

EUSKARA INDARBERRITZEKO HIZKUNTZA POLITIKAREN PARADOXAK

Eztabaida gizarteratu - Adostasuna - Kontsentsua - Bizikidetza

Euskararen Legeak adostasun zabala lortu zuen bere garaian, eta hori aipatzen da, eta azpimarratu ere, dokumentuan, baina testuiguruan gutxietsi edo ahanzi egingo balitz bezala gertatzen da:

“...aztergai guztien artean bada bat berebiziko garrantziaz plaza publikoan egon beharko lukeena, [...]: euskararen kontua, euskara gure artean indartzeko eta osasuntsuago egitearen aldeko hizkuntza politikaren gaineko eztabaida etengabea, hain zuzen ere. Euskara guztiona bada, guztiok izan beharko genuke zeresanik horretan, eta esaten duguna lau haizeetara zabaltzeko [...]. Baina uste dugu, nolana ere, euskararen inguruan kritikarako esparrua handitu beharra daukagula”⁶.

“Euskararen erabileraren mesedean indarberritu beharrekotzat jotzen dugu adostasunak politika arloan ez ezik gizartearen luze-zabalean era amasa hartzen duen adostasun politiko-soziala izan behar du”.⁷

Adostasun horren helburu nagusia euskal gizartearen bizikidetza delarik, hizkuntza politikaren eztabaida norbanakoen mailaraino hedatuz lortuko omen da adostasuna. Baina zalantzan jarri beharko litzateke hori. Ez dirudi politiken lerro nagusiak herri osora zabaltzea egoki jotzen denik oro har. Are gutxiago hizkuntzen arteko

6 *Dokumentua*, ‘Sarrera’, 17-18 or.

7 *Dokumentua*, ‘Sarrera’ 21-22 or.

politikarenak. Belgikara begiratzea aski genuke horretaz ohartzeko. Hala ere, ez dago inora begiratu beharrik hizkuntzen eztabaida plaza publikora atereaz gauzak okerrera joko dutela jakiteko eta bizikidetza kaltetua ateratzeko. Eta ez, hain zuzen ere, alde batekoak, elebidunak esan nahi baita, itxiagoak izan daitezkeelako. Erabat alderantziz gertatzen dela esan daiteke. Ez dago hezkuntzako *curriculum*aren inguruan sortu den iskanbila ikusi besterik: Espainia osoan gaztelaniaren jazargoaren salaketa, hemen bertan sortu den eztabaidaren garratza, eta beti euskararen kalterakoa. Hizkuntza politikaz aritzen denean euskararen politikaz aritzen da, eta esperientziak erakusten du eztabaida kalera ateratzeak ez duela inolako mesederik euskararentzat. Elebakarren eskubideen aldeko eskubideen exigentziek mila aldiz oihartzun handiago eta interesatuagoa eragiten dute, elebidunen arrazoiak baino.

Euskaldunak aspalditik daude adostuak. Inork ez du arazorik jartzen gaztelera ikasteko. Ez dago euskaldunei aurpegiratzerik adostasun faltaren errua, eta, gutxiago, pentsatzerik erru hori onartuz komunitatearen bizikidetza hobeki lortuko litzatekeenik. Kontutan hartu behar dira euskara urrutitik ere ikusi nahi ez dutenak, euskal kulturari muzin egiten diotenak, herri honetako bizitzatik erabat kanpo bizi direnak.

Hori da arazoa: euskaldunak beti kontu ikaragarri ibili behar du bere hizkuntza defendatzeko; aurka daudenek, berriz, ez dute erreparo txikienik euren iritzi banatzaileak aldarrikatu eta ahoberoki lau haizeetara hedatzeko, irudiz eurei egiten zaien zapalkuntza suharki salatzen. Baina hemen esango balitz euskaldunen adostasuna bost axola zaiela, hori ez litzateke ongi hartuko; eta oraino makurrago, eurena inposatzeko duten erreparo faltaz hitz erdi esango balitz.

Adostasuna, kontsentsua, bizikidetza, kontzeptu ederrak dira, baina esateko errazagoak erdiesteko baino. Ez da zail horien beharrezana onartzea gizarteko zernahitarako, zer esanik ere ez gizarte elebidunean hizkuntza politika ezartzeko, eta, agian, areago gizarte

honi eta euskarari dagokiona bada politika hori. Jokatu ere tentuz jokatu izan da komunitate honetan euskararen inguruan ari izan denetan. Kasu honetan ere dokumentua bera da lehena elebakarren eskubideei eusten, elebakarren adostasuna lortzeko nortzuek egokitu beharko luketen iradokitzen duena, horien adostasunik gabe ezer egitea kaltegarritzat aitortzen duena. Alderantzikorik, berriz, ez da sekula gertatu.

Begiramen handiz jokatu, bai, baina ez plazara atera hizkuntza politikaren eztabaida. Alde batetik, entzun behar izaten diren gehiegikeriek ez baitute neurririk izaten, eta, bestetik, ez litzaiokeelako mesede txikienik jarraituko ez euskarari, ez hizkuntza politikari, ez gizartearen bizikidetzari. Gaia sutsuegia da jendartera eramateko. Atera bada atera da, eta sortu den iskanbila ez da txikia izan, baina ea, kalte handiegirik ekarri gabe, itxurak gordetzeko behinik behin balio duen. Alderdi politikoen arteko adostasuna behar da eta horrekin izan beharko luke aski, duela hogeita bost urte lortu zenaren ereduari jarraituz.

Kaleratu behar dena euskararen erabilerari benetan mesede egin dakiokiena da, erabilera bultzatzen lagun dezakeena, eta ez euskararen irudia itsusteko eta kaltetzeko bidea eman dezakeenik.

Erabilera

Orain arteko politikaren emaitzen kritika, batez ere euskararen erabileran datza. Horren ondorioz, hizkuntza politika berriaren ardatza ere erabilera da:

“Euskararen erabilera areagotzea eta sendotzea da guk nahi duguna, eta helburu horren kariaz ulertzen dugu esku artean dugun gogoeta hau”.⁸

Aitortza horren azpian, testuinguruan, aurreko hizkuntza politikari egozten zaion euskararen erabileraren garapen murrizta, edo, okerrago zatekeena, haren urritzea.

8 *Dokumentua* 2.3., 33. or.

“Izan ere, egia izanik lehen baino gehiago egiten dela euskaraz eta milaka euskal hiztun irabazi ditugula, galdetu beharko genioke geure buruari lehen baino askoz gehiago egiten ote duten euskaraz euskal hiztunek beren artean”.⁹

“Bistan da eskolan, administrazioan, hedabideetan, interneten [...], ikaragarri ugairitu dela euskararen presentzia, baina lagunarteko giroan, familian, harreman-sare ez formaletan, kaleko bizitza sozialean edo lantokiko jarduera arruntean, lehen baino askoz gehiago egiten dugu euskaraz?”.¹⁰

“Goraka ote doaz, eta zein neurritan, euskarazko produktuen irakurleak eta ikus-entzuleak?”¹¹

“Gaur eguneko euskal hiztunok euskaraz adierazkortasun handiagoa ala txikiagoa ote daukagu?”¹²

Ezin daitezke galdera erretorikoak hain arinki egin, justu galdetzen denaren kontrakoaren edo alderdi txarrenaren onarpena suposatzen baitute. Ez daturik eskuan, ez beste oinarri egiaztagarririk, han-hemengo berriketak eta norberaren begiaren zolitasuna izan ezik. Eta irizpide hori bermatzeko daturik balitz ere, aurreneko galdera emaitza edo ondorio horien arrazoiei buruzkoa izan beharko litzateke. Testuan zenbait arrazoi iradokitzen dira, baina indartu baino ez dute egiten irakurlearengan euskararen erabilera urritu egin denaren sentimendua. Hamahiru bat orrialde hartzen ditu “Euskararen aurrerakadaren ifrentzua” azpiatalak. Halaxe, singularrean, aurrerakadaren handiaren ifrentzua erabileran baitletza:

“Inoiz ez bezalako lege-babesa eta sustapena du euskarak, eta hori beharrezkoa du, baina ez da euskararen etorkizuna erabat bermatzeko behar bestekoa, legeak ez baitu, ezin baitu berez bermatu eta

⁹ *Dokumentua* 2.3., 33-34. or.

¹⁰ *Dokumentua* 2.3., 34. or.

¹¹ *Dokumentua* 2.3., 34. or.

¹² *Dokumentua* 2.3., 34. or.

ziurtatu euskararen erabilera. Inoiz baino baliabide eta diru gehiago jarri dira [...] baina ez da euskararen etorkizuna erabat ziurtatua, diruak ez baitu berez euskara noranahikoa egiten. Non dago, orduan, gakoa?”¹³

Eta jarraian erantzuna:

“Erabilera da giltzarria eta herritarrak dira, gara, protagonistak”¹⁴.

Eta beheraxeago:

“onartu beharko dugu agian zenbaitetan atzera egin dugula”.¹⁵

Erabilerari ematen zaion errepasoan ez da birlarik zutik uzten. Begi bistan gelditzen dira hor aditzera ematen denaren arintasun eta ahultasuna, iritzi hutsak baitira, eta ez euskararen eta bere irudiaren onerako hauek ere.

HEZKUNTZA

Azken aldi honetan, unibertsitate aurreko hezkuntzan sartu nahi diren, edo nahi izan diren, aldaketak euskararen irakaskuntzaren inguruan nahikoa eztabaida eta zarata sortu dute. Aldaketa askoz ere gehiago sartzan ari da Hezkuntza Saila euskararen irakaskuntzaz gain, baina horiek ez dute azots handirik eragiten. Dokumentuak ere aurrena hezkuntzari heltzen dio, behar bada errazagoa baitaiteke hezkuntzaren gainera botatzea zernahi erru:

“Urteotako ibilbideak agerian utzi du euskararen biziberritzea ezin dela osorik eskolaren kontu utzi [...]. Berari dagokiona eskatu behar zaio eskolari: beldur gara, ordea, zenbait kasutan eman duena eta ematen duena hobe badezake ere, kasu askotan, eman dezakeena baino gehiago eskatu diogula”¹⁶.

¹³ *Dokumentua* 2-3, 31-32 or.

¹⁴ *Dokumentua* 2-3, 32 or.

¹⁵ *Dokumentua* 2-3, 32 or.

¹⁶ *Dokumentua* 2-3, 34-35. or.

Zenbait faktore aipatu ondoren, denak egiak izan daitezkeenak, baina denak eztabaidagarriak direnak, ondorioak ateratzen ditu bat batean. Ez nolana hikoak, alafede, larriak baizik:

“Ondorioz, onartu beharko dugu, guztientzako jarritako gutxieneko hizkuntza-helburu orokorrak apalak izatea eta ikastegi ezberdinetako hizkuntza-emaizak gutxieneko orokorretik gora ezberdinak izatea tokiz toki. Bestela, hizkuntza eta hezkuntza, biak atera litezke kaltetuak”.¹⁷

Bistakoa da esaldi hauen azpian kritika ikaragarria ezkutatzen dela orain arteko hezkuntzan erabiliriko hizkuntza politikarena, eta dudarik gabe ikastolena ere, ikastolak baitira hizkuntza helbururik altuenak dituztenak eta, oro har, helburu berdintsuak nahiz hemengo nahiz hangoak izan. Eta, lehen esan bezala, ez da ezer funtsezkotan oinarritzen. Ez dago horrelako ondorio orokorra abalaten duen daturik.

Alderantziz direla esan behar da. Hogeita bost urte hauetan eta lehenagotik ere, ikastolek, eta D ereduan ibili diren eskolek, oro har, emaitza onak izan dituzte formazioan, emaitza homologatuak eta beste edozein tokitako eskolenekin parekagarriak. ELGE-ko hezkuntza kalitateari buruzko PISA Informean euskarazko irakaskuntzaren emaitzak onak dira, eta Espainiako batez bestekoen gainetik daude eta Europakoenetik ere. Hori lortu ezinezkoa zatekeen, hizkuntza, euskara, alegia, gaizki menderatu izan balute.

Ez da, beraz, bidezko euskararen irakaskuntzak, eskola-ikastoletan, emaitzak txarrak izan dituela zuzenean edo zeharbidez iradokitze hutsa ere. Urte askotan ikusi da hizkuntzen irakaskuntzan zer gertatu den luzaro. Has gaitezen –hegoaldean, noski– frantse-saren irakaskuntzaz, jarrai dezagun ingelesarenaz edo beste edozein hizkuntza modernoz, eta, azkenik, nahi balitz, hel geniezaioke gazteleraren irakaskuntzari berari ere. Zer gertatu da hogeita bost

17 *Dokumentua 2-3, 35. or.*

urte hauetan kanpoko hizkuntzekin sekulako porrot borobilena izan ez bada? Honetarako ere ez dago datu kontrastaturik, baina badakigu ez dagoela herri honetako jendeek seme-alabak atzerrira bidaltzen eralgi dituzten diruen konturik ateratzeko biderik, hainbesteokoak baitira.

Azkenean, eleaniztasuna sartu da eskoletan, hau da eskolak hizkuntza horietan izatea, eta hori oso ontzat jo da. Euskararekin, berriz, hizkuntza ofizial biak ikasteko metodo horren beraren aurka atera dira, Konstituzioa eta ez dakit ze eskubide Espainia osoaren aurrean astinduz. Eta, harira itzuliz, euskararen irakaskuntzaren emaitzak ere oso onak dira baita gazteleraren irakaskuntzari dagokionez ere, gaztelerazko irakur-ulerketan, ELGE-ko PISA Informean, Espainiako batezbestekoaren arras gaintetik gelditu baitira.

Faktore ugari aipatzen dira hor, baina ez euskararen erabilera urria arrazoitze alde. Ez dauka horrek zentzurik, egia bada ere ikasleen ingurugiro osoa izan behar duela begien aurrean eskolak, baina ez helburuak murrizteko besterik gabe, hezkuntzaren bilakabide eta garapena komenigarritzat ikusten den urratsez eramateko baizik. Hori eskola guziek egiten dute bakoitzak bere neurrian, helburuak kuestionatzen hasi gabe eta, are gutxiago, mailaz jaisten.

Eta euskararen ezagutzari dagokionez, ikasi egin dute euskaraz, euskara nonahi erabiltzeko gai dira, eta, erabili ere, erabiltzen dute. Hori onartzen da dokumentuan:

“Eskolaren ekarpena ikaragarria izan da euskarak egin duen aurreakada egin ahal izan dezan”.¹⁸

Baina, bide batez, beste arrazoirik eskaintzen bada ere, gehiegi lotzen dela eskolarekin dirudi euskararen ezagutzaren eta erabileraren hazkunderen arteko diferentzia. Gauzarik seguruena da eskolari esker bereziki gehitu eta indartu dela herri askotan, eta hirietan ere, euskararen presentzia. Eskola horietatik atera direnei

18 *Dokumentua 2-3*, 35. or.

esker egiten da euskaraz zenbait leihatiletan, eskola horietatik atera direnei esker dago hainbeste ikasle beste maila batzuetan euskaraz ikasten, eskola horietatik atera direnei esker euskal irakasleak gehitu dira nonahi, sendagile euskaldunak, abokatu euskaldunak..., eta horiei esker egiten da euskaraz han eta hemen. Baita kalean eta etxeetan ere. Baita Bilbon ere, eredurik hoberena izan ezin daitekeen arren Bilbo. Hala eta guztiz ere, nahi eta uste zen baino txikiagoa dela euskararen presentzia hori? Bai, noski, baina horren analisiak beste bideren bat hartu beharko luke.

Eta erabileraren arazoaz jarraituz, ezin aipatu gabe utzi ikasleek ikasgelatik kanpo gazteleraz egiten dutenarena, nahiz unibertsitate aurreko ikasketetan, nahiz unibertsitatean bertan ere. Horrek beste analisi bat eskatzen du. Hori euskararen irakaskuntzaz at gertatzen da; areago: irakaskuntzak hain emaitza onak ematen dituen arren gertatzen da. Eta orain 25 urte ere hori bera gertatzen zen eskola askotan, ikastoletan ere, tokian tokien arabera gehienbat. Baina ehuneko berrogeita hamabiak euskaraz egin zituzten unibertsitatera sartzeko probak 2007an, eta urte berean ehuneko berrogeita bostek ikasketak euskaraz egitea eskatu zuen. Hori bai dela datu esanguratsua.

Eskoletan gertatzen den hori ulertzeko gizartean gertatzen denera begiratzea hobe litzateke. Batez ere gazteleraren alimaleko presiogatik, eta dokumentuan hainbeste aldiz aipatzen den jendearen atxikimendu eskasiagatik. Begiratu Bizkaiko zenbait herritara, herri euskaldun petoetara, eta ez gazteen artean bakarrik, nagusien eta zaharren artean ere bai. Duela hogeitaz gora da gaztele-rarako joera nabarmen hori, eta hori bai beharko litzatekeela neurtu, erantzunak zenbatuz ez ezik, erantzunen kalitate eta egiazko balioa ere neurtuz baizik. Eta horretan, bai, guztiz bat nator dokumentuak aparra bezala gaineratzen duen beharrarekin. Euskara galtzen bada, euskaldunek eskuetatik ura bezala irristen utziz galduko da, eta gordeko bada, presio ikaragarri horiek garaituz gorde beharko

da. Hori ere jarraitzen da testutik, baina hainbeste kautela eta atxiki-menduri begira egonez gero, euskararenak egin du.

Azpiatal honekin amaitzeko, ondorio eta laburpen bezala, hezkuntzaren garrantzia azpimarratu beharko litzateke, eman dituen emaitza bikainak aitortu, eta, hezkuntza den heinean, etengabe egokitu beharra ere berdin, denborek, ikasleek, interesek eta egoera desberdinek eragin handia dutelako hezkuntza-lanean eta ikasleen formazioan. Oraindik dirauten ereduaren eztabaida mahai gainean dago, batez ere eredu soil edo beherengoenaren ingurukoa, baina Hezkuntza Sailaren asmotan ez da besterik dokumentu honetan ere zuzenean eta zeharbidez esaten dena baizik: irakaskuntza egokitu egin behar dela egoera ezberdinetara eta ikasleen-familien nahieta-
ra ere. Baina ez helburuen maila apalduz, hizkuntza bien ezagutza maila ona eta parekagarria lortzera joz baizik.

ADMINISTRAZIOAN

Azpiatal honen barruan, euskararen erabilera arruntean, beraz, administrazioaren egoera ere sartzen da. Izan duen aurrerakada onartuz, ba omen du honek ere ifrentzurik: batetik, norberaren eskubideak zapalduak ikusi dituzten langileen artean eta, bestetik, eskaintzen den zerbitzuan ez delako lortu behar adinako zerbitzu errespetutsua euskaraz mintzatzen direnekin. Bi alderdi horietarik, langileen eskubideenean zentratzen da arrazoiketa batik bat. *Euskararen Legeak* horretan ez du ezer kritikagarririk, garbia eta zuhurra baita:

“Horretarako, behar daitezen neurriak hartuko dira eta eskubide honen erabilpena arian-arian –“de forma progresiva”– bermatzeko beharrezko gerta daitezen eskuarteak ebatziko”¹⁹.

“Lege honen 6garren artikuluan aitortzen diren eskubideak egiteratu daitezen, herri-agintariek Euskal Herri-Arduralaritzari atxikitako

19 Euskararen Legea, 6. Art.

lanariak arian-arian euskalduntzeko xedezko neurriak hartuko dituzte”.

“Herri-agintariak erabakiko dute zein lantokitarako izango den beharrezko bi hizkuntzak jakitea”.²⁰

Dokumentuan dio, administrazioko langileen postuetarako, euskara gaitasunaren balorazioa hertsiki loturik egon beharko lirartekeen bi elementu hauekin egin beharko litzatekeela: “herritarren hizkuntza-eskubidea bermatzea” eta “euskararen erabilera bultzatzea”. Eta jarraian, ilunsko bada ere, gaitzetsi egiten da balorazioa gaitasun tituluaz bereziki lotzea eta “gutxi, oso gutxi, lanean erabiltzearekin”. Hizkuntza profila bakarrik eskatuz, ezer gutxi omen du euskarak irabazteko:

“Bistan da hori bakarrik eginda edo nagusiki horrela jardunez, euskarak aldeko gutxi irabazten duela herri-langileen artean, eta, aldiz, zenbait langile euskaratik uxatzeko arriskua nabarmena”.²¹

Ulertu dudanez, profilak eta tituluak postuek eskatzen duten euskararen erabilera-beharren arabera izan behar direla esaten du. Eta hau ere ulertu dut, agian oker banago ere: ezer ez dela eskatu behar postuak ez badu zerikusirik giza harremanekin eta, beraz, hizkuntzaren erabilerarekin.

Galdera da, ez baita zeharo garbi ikusten, beste edozein lanposturako tituluak, gaitasun-agiria edo zerbait objektiboa behar den edo ez. Ez gara Mediterraneoan deskubritzen hasiko, mundu guztian eta edozein hizkuntzetan zerbait objektiboa eskatzen baita hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko. Eta askoz ere eragozpen eta partzialkeria salaketa gutxiago gertatzen da horrela, alderantziz jokaturata baino. Bestalde, linboan bizi ote garen galde daiteke uste bada euskararen normalizazioa kezarik gabe lortuko dela eta euskara erabili nahi dutenen eskubideak egiaz errespetatuko direla, betiko itxurakeriak

²⁰ Euskararen Legea, 14 Art., 1 eta 2.

²¹ *Dokumentua*, 2-3, 40. or.

jasaten jarraitu gabe. Kexak, gehienetan, ez dira arrazoizkoak eta, amaitu ere, ez dira sekula amaituko, ez behinik behin jakin beharreko hizkuntza bakarra gaztelera dela pentsatzen den bitartean. Hori lotua dago, besteak beste, A ereduaren defentsa sutsuarekin, eta gaztelaren gailentasunarekin, eta eskatzen den elebitasuna ulertzeko ikusten den ezintasunarekin. Gaineratu horri euren lanpostua tartean egon litekeela, eta atera kontuak. Mingarri gerta badaiteke ere, dokumentuan bertan hartzen den postura ikuspegi tamalgarri horren adierazgarri bat gehiago dela esan daiteke.

Areago ere bai, hizkuntza eskakizunaren politika hori kontu handiz eta larregiz ere eraman dela, eta hemen ezer balego aztertzeorik, hain zuzen ere herritarren hizkuntza eskubideak nola errespetatu diren eta errespetatzen diren, euskal mintzatzaileenak, noski, gaztelera mintzatzaileenak ongi zainduak eta errespetatuak baitaude. Itsu al gaude ez ikusteko zenbait leihatila ofizialetan, Eusko Jaurlaritzako bulego nagusietan, besteak beste, gaztelera dela nagusi! Euskaraz egin eta erantzuna erdaraz. Norbera lotsaz eta gorri, eta langilea patxada ederrean.

Beraz, dokumentuak bete-betean egiten du huts horretan. Oso beharrezkoa da ongi betetzea progresibotasuna, “arian-arian” dio Euskararen Legeak, baina ezertan kale egiten bada, euskaldunen hizkuntza-eskubideak bermatzen izan da, eta ez dago elebakarren ikuspegira trepetxu guziekin pasatu beharrik.

FAMILIA

Ez dago asko esan beharrik, egiten diren burutapenak Hizkuntza-Politikarekin zuzeneko zerikusi handirik ez dutela onartzea izan ezik.

Ondorioak

Ez dago azken ondorioak komentatu gabe uzterik. Hemen ere, honddarrea, kritikaren sastakai sakona dago, esaldi orokor eta eztabai-dagarrietan oinarritua:

“Langintza horretan ditugun mugak euskararen beraren errealitateak, euskarak gizartean duen pisuak, euskal gizartearen beraren borondate eta ahalmena ezartzen dizkigunak dira”.²²

Nork erabaki du horiek direla hizkuntza politikak dituen mugak, horrela euskararen eta euskaldunon bizkarretara jaurtiz erantzukizuna eta gertatzen zaigunaren azalpena? Ez al da arrazoi agerikoagorik euskararen egoera hobeki azal dezakeenik? Hona zein iradokitzen den:

“Horregatik da bereziki inportantea [...], boluntarismoa alde batera uztea [...], boluntarismoa ezin da izan hizkuntza politikaren oinarri”²³.

XXI. MENDE HASIERAKO HIZKUNTZA POLITIKAREN ZIMENTARRIAK ETA ERRONKAK

Duda daiteke hirugarren kapitulua ez ote den, gehienbat, aurrekoaren errepikapena. Agian, aurrekoa honen oinarria da, edo oinarritzat hartzen da, eta horregatik irudi lezake errepikatu egiten direla han esanak, baina horrela ulertu badute, honek askoz ere laburragoa beharko lukeela dirudi, hizkuntza politikaren paradoxak deituak eta gaur eguneko egoeraren ezaugarriak luze eta zehatz aztertuak baitaude.

Izan ere, politika horrek errealitatera egokitu beharra duela esanez hasten da atala. Adostasun sendo eta eztabaidaezina, kualetatiboa, lortu behar duela, helburuak eta mugak ongi zehaztuko dituen. Eta honek aurrekoaren bisa dirudien arren, irakurlea kolokan jartzen duena jarraian dioena izan da:

“Alabaina, bide horretan (hizkuntza politikan, alegia) urratsak egin aurretik, komenigarria da, gure ustez, Euskararen Legeak ezarri zi-

²² *Dokumentua*, 2-3, 43. or.

²³ *Dokumentua*, 2-3, 43. or.

tuen habe haiei buruz gogoeta egitea, hausnarketa sakontzea eta zenbait gaizkiulertu argitzea”²⁴.

Eta, hemen ere gaizkiulerturik gerta ez dadin, zehazten da:

“Bidenabar, elkarrizketaren bidez aurreratu beharko da zein irizpide, oinarri eta printzipio diratekeen gaur-biharretako adostasunerako baliagarri”²⁵.

Lehen eginak ez al dira egoeraren nahi adinako gogoeta eta hausnarketa? Eta horren ondorioa dirudiena ere lehen aski garbi gelditu dela esan liteke:

“Euskara hizkuntza bizia, adierazkortasun handikoa, jarduera formaletan ez ezik jarduera ez-formaletan ere naturaltasunez eta atseginez gero eta jende gehiagok erabiliko duen hizkuntza noranahikoa izatea da helburuetan helburu. [...]. Erabilera areagotzea da, beraz, xedea, erabileran baitago etorkizunaren giltzarria”²⁶.

Dena den, honetaz ere arrazoiketak ez du erraz izango euskararen ikuspegitik errealitatea begiratzen duen edonor konbentzitzen. Zertara dator elebitasun simetrikoaz edo euskara hutseko elebakartasunaren aldeko postura itxiaz esaten dena?²⁷. Ez bata eta ez bestea, horiek ez dira euskaldun elebidunek defendatzen dituzten posturak, baina testuinguruak euskaldunenak bailira tratatzen ditu. Hemen inor badago, eta badago pila galanta, gaztelera bakarraren aldeko jendea da eta, beraz, elebitasun simetrikoaren edo ez simetrikoaren aurkakoa. Euskara dutenak ama-hizkuntza, denak, dira elebidunak eta hori ez da froga txarra elebitasun simetrikoaren asmakizunaz argudiatzen dutenen aurka, edo elebakartasun itxiaren, nahiz irekiaren, berdin da, salaketa deusezteko. Aurretik ere gauza bera adierazi izan da hitzen artean:

²⁴ *Dokumentua*, 3, 46. or.

²⁵ *Dokumentua*, 3, 46. or., (3. atalaren sarrerakoan).

²⁶ *Dokumentua*, 3, 47. or.

²⁷ *Dokumentua*, 3, 50-51 or.

“Horrek garamatza euskara –erabilera-aukera gutxien ditue-
na– indartzera; baina ez ezeren kontra, ez hemengoa den eta gu
geu aberasten gaituen beste hizkuntzaren kontra –gaztelaniaren
kontra, alegia–, haren ondoan baizik, baina, hori bai, gero eta bien
arteko aukera-berdintasun handiagoan”²⁸.

Euskaldun elebidunek aitortu eta argitu behar dute hori, alder-
di guzietarik gaindituak aurkitzen diren gazteleragatik? Eta iparral-
dean frantsesarengatik? Nola esan behar dugu ez gaudela erderen
aurka, ez gaztelaniaren ez frantsesaren aurka? Hori ez bada, zer da
elebiduna izatea gure lurretan! Benetan gogorra da, eta ulertezina
ere, beti euskaldun elebidunak bere burua azalpenak eman beha-
rrean ikustea. Edozein ekintza hartzen dutela ere, beti *baina*-ka ibili
beharrean agertzen. Horrek esan nahi du gazteleradun elebakarra-
ren ikuspegia errazegi onartu eta jasotzen dela testu honetan.

Hizkuntza politikarako ez dira euskaldun elebidunak arazo.
Kontu larregi ere hartzen dute euren esanetan, zer esanik ez hiz-
kuntza eskubideen eskaeretan. Hemen erabiltzen diren erreparaoak
irrigarri gelditzen dira besteen hizkuntza politikaren parean. Bost
axola beraiei hizkuntza politika, beraiena izan ezean: “Todos los
españoles tienen el deber de conocerla”, eta deklarazio horretan
oinarrituz euskarari buruzko ezer onartzera ukatzen dira. Eta ez
zaie gaizki joan inposizioa, ez oraingoa eta ez aurreko inposaketa
basatia²⁹, euskara nabarmen jaitsiarazi dutelako, galtzeko arrisku
beltzean ipiniz, eta erdara guztiz hedatu delako Euskal Herrian.
Aspalditxotik, ez da euskaldun hutsik gelditzen. Elebakar bakarrak
gazteleradunak dira. Eta, iraingarriago gertatzen dena, beraiek bor-
txatutako elebitasuna baliatzen dute hemengo edozein hizkuntza-
-politika erasotzeko eta euren egoera eta hizkuntza hatz eta atzapar
defendatzeko.

²⁸ *Dokumentua*, 3, 49. or

²⁹ Zazpi urteko haurrei zumearekin –*xibita* Oiñatin– negu gogorrean iztertxoak ongi
berotuz lagunekin eta anai-arrebekin kalean euskaraz egitearren.

Azkenik, boluntarismoa³⁰ baliatzea eta horretatik ateratzen diren ondorioak ere ez dira mesedegarriak euskararentzat. Zati honetan zuzenean hitz egiten da euskarari buruz, euskarari buruz bakarrik esan nahi dut, baina beti, ikuspegia, borondatea, agian, hobe, positiboa dela onartuz ere, euskararen ahulezia, euskal hiztunen ahulezia kualitatiboak, euskarak etorkizunaren aurrean dituen arriskuak eta abar, hiru orrialde luzetan azpimarratuz³¹. Zertarako? Hizkuntza politikan zuhurtasunez aritzeko, euskara hedatzearen aldeko politika neurtua, hau da, mugatua, eta, testuinguruan, oraingoa baino muga-tuagoa eragiteko, hiztun-elkartea bera ahuldu nahi ez badugu.

Hitz hori, boluntarismoa esan nahi baita, ez litzateke hemen erabili behar. Aipatu beharra ikusiko balitz, aipatu behin eta kito. Baina ez boluntarismoaren gaitzespenean hizkuntza politika oinarritu. Bide horretatik abiatuz, orain arte lortu ez den edozein helburu ere, zabarkeria hutsez gehienbat, besterik gabe bazter daiteke errua boluntarismotzat joz. Ez dirudi arrazoizko, boluntarismoa inbokatuz, hainbeste muga jarri dakiokenik euskararen politikari.

Esanak esan, badira atalki honetan irizpide eta aholku aprobetxagarriak, batez ere azkeneko hiru paragrafoetan, baina horiek justifikatzeko ez dago boluntarismorik aipatu beharrik. Egia esan, boluntarismoaren aipamena erabat kenduko nuke, ez baitzaie inondik inora egokitzen ez orain arteko hizkuntza politikari ez eta euskararen aldekoari bereziki ere. Eta, noski, ez duelako batere mesederik ekartzen eta bai, aldiz, kalterako ikuspegiak sorrarazten.

LABURPEN GISA

1. Hizkuntza politikarako ezartzen diren oinarriak: demokrazia, adostasuna, eskubideen berdintasuna eta abar; hel-

30 *Boluntarismo* hitzak gaztelerako erabileratik datorkion esanahi ezezkorra du berez erabilera arruntean, adierazi nahi baitu ez dela bururik izan lortu nahi den edozein helburu ahalmenen gainetik gelditzen denean. Hemen, testuinguruak indartu baino ez du egiten esanahi hori.

31 *Dokumentua*, 51-53 or.

buru orokorrak: hala nola, bizikidetzak, jendeen atxikimendua eta abar; eta zehatzagoak, euskararen erabilera ardatz bezala hartuz, denak dira onargarriak, baina hizkuntza politika bera zuzenago eta bere izatean aurkeztuz, hainbeste azalpen, argitasun, justifikazio eta amore ematen jardun gabe, alde zuzenetik ia barkamen eske bagenbiltza bezala. Ez dagoelako horretarako batere arrazoirik.

2. *Euskararen Legearen* eta urte hauetako euskararen bilakabidearen irudi positiboagoa eta egia hobeki erantzuten diona eskaini. Beraz, askoz ere arreta handiago jarri oker eginak edo oker irudituak azaltzean eta, beraz, zuzendu beharrekotzat jotzen direnetan, ez dadin gizartera zabandu euskarari, edo euskal hiztunei edo, esan bezala, 25 urte hauetako hizkuntza politikari, edo denei batera egotz dakiekeela edozein erru.
3. Adostasuna, errespetua, berdintasuna..., denak dira behar beharrezkoak, eta aipatu beharrezkoak. Baina horietarik ezer faltako balitz, ez litzateke euskaragatik ez eta euskaldunengatik, hurbileko hizkuntzek hartzen dituzten eskubideengatik eta horien hiztun elebakarrek baliatzen dituztenengatik baizik. Beraz, pertsonen eskubideak errespetatzea beharrezkoa da, eta, ahal de neurrian, baita ohiko bihurtu diren egoerak kontutan hartzea ere. Baina ez da alegeraki ontzat eman behar beti elebakarren lan-eskubideak direla hizkuntza politikarekin zapaltzen direnak, ez dadin, ustekabearen eta borondaterik hoberenaz, hizkuntza politikaren perspektiba erabat aldatu, eta euskararen muintotik hartzen dena izan beharrean, aurrekoen mendi gainetikora bihurtu. Hizkuntza politika bat baino gehiago baitira gure lurrean.
4. Ez dago behin eta berriz aipatzen ibili beharrik ahulenari laguntzea dela demokraziaren legea. Euskararen historia

latzegia izan da, hitz egiten hasi aurretik beti demokrazia aldarrikatu beharra edukitzeko, bide batez euskara beraren ahulezia alderdi guzietara hedatzen ibiltzeko.

5. Hezkuntza ez litzateke hizkuntza politika berrian sartu behar, ez behinik behin erabileraren ikuspegitik hartuta. Hezkuntzak baditu bere arazoak eta bere garapena, eta hori bere osotasunean ikusi behar da. Beraz, hezkuntzarena berariazko arauz zuzendu behar da, hizkuntza politikarako lege berririk aterako balitz ere. Euskararen erabilera arrunta, hots, ikasgeletatik kanpokoa, ez da hezkuntzaren ondorio, arazo askoz ere zabalago eta sakonago baten kokatzen den errealitatea baizik, tokiz toki ezberdin agertzen dena, bestalde.
6. Hizkuntza politika berritzea ongi letorke, berritzeak bizitasuna lekarkeelako berekin. Halere, *Euskararen Legea*, oraindik baliagarria dena, bere hartan eutsi ahal da. Lege on bat da, alderdi guziak kontutan hartzen dituen, eta hizkuntza politika berritua ere bideratu eta onar dezakeena. Eta adostasun handia eta kualifikatua lortu zuena.
7. Hizkuntza politikaren eztabaida gizarteratzea ez da mesedegarriztat hartzen politika on bat burutzeko. Mila kontzesio egin nahi bazaizkie elebitasunaren aurka daudenei, bide hobegorik ez da aurkituko. Errealitatea hainbeste aipatzen denez gero, errealitatea alderdi horrek ere osatzen du. Beraz, batez ere euskal Legebiltzarrean mamitu eta lortu beharko litzateke adostasun hori, eta ikusteko dago aurrekoaren adinakoa lortuko duen.
8. Eta, azkenik, dokumentu zehatzago eta garbiago bat lortu beharko litzateke. Dokumentu honetan ez da erraz iritzi garbirik ateratzerik, bat azkenean zorabiatu egiten baita hitz eta ideia berdintsuei hainbeste jira eta bira eragiten.

Behar bada, ez zen hain dokumentu luzearen beharrik, eskaintzen diren ideiak ez direlako, berez, ezezagunak ez eta, berriztat jo daitezkeen kasutan, aditzera emateko zailak ere. Testu ongi bateratuaren gotortasuna falta zaio-la irudi du.

EUSKARA XXI. MENDEAN: IKUSTEN DEN HIZKUNTZA, ENTZUTEN DAKIENA

Ana Urkiza

1. Aitzin hitzak: entzutearen balioa.
2. Oinarrizko txostena: ideia nagusiak.
 - Adostasuna
 - Euskara, euskal herritarron ondare erkidea
 - Borondatea
 - Salbatzailerik ez
3. Garabidean: txostenean jasotzen ez diren zenbait puntu
 - Hizkuntza politikaren norabidea: norabide bakarra.
 - Hizkuntza politikaren begia: 360°.
 - “Bestearen” ikuspegia
4. Etorkizunean: etorkizunerako len-lerro hainbat
 - Komunikazioa: oinarria.
 - Alderdi politiko guztien oniritzia eta inplikazioa
 - Komunikazioa eta publizitatea euskaraz, mesedez.
 - Diskurtsoa: turismoa eta kultura garaikidea.
 - Euskararen CRMa

1. AITZIN HITZAK: ENTZUTEAREN BALIOA

Lehenbizi, eskerrak eman eta zoriondu egin nahi nuke HPS ekimen hau abian jartzeagatik, hau da, euskara eztabaidagai izango den foro ireki hau antolatzeagatik, zeinetan herritar orok parte hartzeko eta bere ikuspuntua eskaintzeko aukera izango duen.

Inon ezer garrantzitsurik badago, hori, entzutea dela esan daiteke; entzuteko aukerak jartzea eta entzuna izateko bidea izatea. Entzuteak, besteak beste, bi onura baitakarkizki: batetik, entzuten duenak, bestearen berri izan ahal du, ikasi ahal du eta, beraz, okerrak zuzendu ahal ditu eta ikuspegi zabalago baten jabe egiteko aukera du. Bestetik, entzuten duenak, entzuna denari, errespetua erakusten dio eta honek, errespetatua sentitzean, errazago parte hartzen du, lehenago integratzen da eta ekarpenak egiteko gogoz janzten da.

Euskara gaiaren inguruan, “eztabaidagunea”, “irekitasuna”, “integrazioa”, “errespetua” edo “ekarpena” bezalako hitzak aipatzea, jadanik, aurrerapauso handia iruditzen zait.

2. OINARRIZKO TXOSTENA: IDEIA NAGUSIAK

Oinarrizko txostenaren laburpen gisa edo, esaldi hau jasoko nuke: *“sekulako ahalegina egin da azken hamarkadotan euskararen alde. Herri-aginteen eskutik eta gidaritzapean, gizarte-ekimeneko eragile ugarien bultzadaz, euskal gizartean inoiz ez bezalako indarrak jarri dira urteotan euskara biziberritzeko lanetan”.*

Ahalegina eta egindako bidea ikaragarria izan da, ezbairik gabe, baina etorkizunera begira, oinarrizko txostenean aipatzen diren ideia nagusiak lau hauek direla azpimarratuko nituzke:

1. **ADOSTASUNA:** “Adostasuna” behar dela aipatzen da behin eta berriz txostenean zehar. *“Adostasuna delako hizkuntza politika orok behar-beharrezkoa duen sostengu nagusia, aldi berean demokratikoa eta eraginkorra izan nahi badu. Euskararen erabileraren mesedean indarberritu beharrekotzat jotzen dugu adostasunak politika arloan ez ezik gizartearen luze-zabalean ere arnasa hartzen duen adostasun politiko-soziala izan behar du. Izan ere, gure gizarteko hizkuntzen arteko bizikidetzaren auzia baita euskararen auzia. Bizikidetzeta demokratikoak ororen gainetik **“bizikideen adostasuna” behar du oinarri.** Horregatik, euskararen*

erabilera indartu eta areagotzeko bidea egiteko makulu nagusia norbanakoen euskararekiko atxikimendua eta gizarte osoaren bultzada eta babesa direlako dugu, hain zuzen ere, nahitaezkoa euskararen aldeko adostasun politiko-sozial ahalik eta zabalena berreraiki eta etengabe elikatzea. Zenbat eta adostasun politiko-sozial handiagoa, orduan eta ziurrago gordeko ditugu osasunbidean euskara eta hizkuntzen arteko bizikidetza”.

Idea honek bi egitate indartzen edo bi zalantza uxatzen ditu:

- a. Euskara inposizioz ezartzearena edo ezarri beharrena.
- b. Euskararen gainean batzuok beste askok baino eskubide gehiago izatearena.

Euskararen gainean hartuko diren erabakiak guztiongandik onartuak, konpartituak eta errespetatuak izan behar dira. Prozesu hau zenbat eta zabalagoa izan, are eta integratzaileagoa izango da.

2. EUSKARA, EUSKAL HERRITARRON ONDARE ERKIDEA

DA: *“Euskara Euskal Herriko hizkuntza propioa da, ez gure hizkuntza bakarrik delako, gurea bakarrik delako baizik. Euskararen auzia ez da euskal hiztunen arazoa bakarrik, ezta ideologia jakin batekoena soilik. Bi hizkuntza ofizial dituen gizarte honetan, zenbat eta berdinkideago izan biak, orduan eta sendoagoa izango da **hizkuntza bien arteko bizikidetza**, eta, ondorioz, herritarren artekoa. Euskara ofiziala da EAEn, gaztelania bezala: **herritarren hizkuntza-askatasuna da irizpide nagusia”**.*

Idea hau indartzea ezinbestekotzat jotzen dut: euskara gurea bakarrik dela, “gu” horren baitan euskal herritar oro gaudela eta euskal herritar ororen ondarea dela euskara. Idea hau, oinarritzkoena eta bateratzaileena izanagatik, ez dago hedatua, ez dago horrela jasoa eta onartua. Gainontzeko herrialdeengandik bereizten eta herri bezala batzen gaituen oinarria dela edo eta izan litekeela onartzera ez gara heldu.

Ideia honekin batera, integrazioarena jaso behar da baita: “*erdal mundua euskal munduari bizkar emanda bizi da*”. Ez nuke esango, ordea, bizkar emanda bizi denik; bizkarra ematen duenak, gutxienez, aurrean zer daukan ikusi, gustatu ez eta buelta ematen baitu. Kasu honetan, aurrean duguna ikustera ere ez garela iristen esango nuke, aldi berean bi mundu paralelo biziko bagenu bezala (honek ez du esan nahi biak batera eta erritmo berean garatzen direnik, elkarren artean inolako interakziorik gabeko ibilbidea egiten doazela baizik).

Euskararen inguruan, gutxienez, beste hiru mundu eratu dira, honako ezaugarri bereizgarri hauek oinarri: joera edo ikuspegi politikoa, status soziala eta euskal kulturaren (kulturgintzaren) definizio eta kontzeptualizazioa.

Euskarak, bada, hiru hesi handi hauek gainditu beharko ditu, paraleloan bizi diren bi mundu horien artean behar den interaktibitatea eta elkar ulertze-ezagutzea bermatzeko.

“*Herritar erdaldunak euskal munduaren jabekide egin beharra dago*” baina, horretarako, bi munduen elkar ezagutza sustatu egin behar da eta erdal munduari erakargarri egin behar zaio euskal mundua; orain arte ezagutu gabeko jantzi apaintzen jakin beharko dugu euskal mundu hori arestian aipatu hiru hesiak gainditzeko.

3. **BORONDATEA:** “*Etorkizunari begira, ezinbesteko hiru baldintza nagusi behar dira: euskara erabiltzeko gaitasuna izatea; euskara erabiltzeko aukerak izatea; eta euskara **erabiltzeko borondatea izatea**. Beste era batera aztertuta, ditugun mugak hauek dira: euskararen beraren errealitatea; euskarak gizartean duen pisua; eta euskal gizarte osoaren **borondate eta ahalmena**. **Euskararen erabilera indartzea eta etengabe gehitzea izan behar du hizkuntza politikaren oinarri nagusia, herritar gehienek atxikimendua eta adostasuna makulutzat hartuta. Hiztunen eskubidea borondateak bakarrik segurta dezake***”.

Eta nola lortzen edo sustatzen da borondatea? Horra hor, kokka. Borondatea sustatzeko, honako ideia hauek hartu behar dira kontuan:

- 3.1. Euskara erakargarria egin behar da
- 3.2. Euskara atsegina eta erraza egin behar da
- 3.3. Euskarak balioa duela erakutsi behar da
- 3.4. Aberasgarria dela konbentzitu behar da
- 3.5. **Euskara erabiltzea norbere aukera izan behar da.** Hizkuntza hautatzerakoan, aukera hori norberak egiten duela sentitu behar da. **Erabakia libreki hartzeak dauka indarra** (ez inposatua izateak, ez goi instantzietatik eragindako arau edo betebeharra delako).
- 3.6. **Etorkizunarekin lotu behar da:** teknologia berriekin, kultura garaikidearekin, zerbitzuekin, turismoarekin...

4. SALBATZAILERIK EZ: euskarak ez du salbatzailerik behar.

“Euskararen biziberritze prozesuaren arrakasta bermatzeko nahitaez gertatu behar diren faktoreak hauek dira: lege-marko egokia, hizkuntza politika eraginkorra eta baliabideak, eta herritarren atxikimendua eta hizkuntzaren aldeko jarrera eta konpromisoa. Baina hiritarren borondatea ez da boluntarismoa, ez eta boluntarismo hau hizkuntza politikaren oinarri. Euskara denona da eta denontzat, lerrokatze politiko eta ideologikoen gainetik. Euskararen etorkizuna ere denona da eta denontzat. Ateak itxi behar zaizkio ildo politiko eta ideologiko jakinekin euskara lerrokatzeari. Euskararen geroa ez da euskaltzaleen kontua bakarrik, euskara guztion ondarea denez, guztiok, baita euskaltzale sentitzen ez direnek ere, hartu beharko genuke eginkizun propiotzat gizartean eta gizabanakoen artean euskarari arnasa emateko.

Erakunde publikoei dagokie hizkuntza politika definitzea eta garabidean jartzea. Herritarren atxikimendua sendotzeko, garrantzi handikoa da jardun pribatua edota gizarte-ekimena indartzea

eta haien ekarpenak bideratzea, beti ere, herri-aginteen diseinaturiko hizkuntza politikaren osagarri gisa”.

Borondatea ona da baina ez edozein preziotan; ez da euskarak behar duen oinarria, ez eta sostengu nahitaezkoa edo bakarra ere. Euskararen etorkizuna eta salbamena batzuen esku dagoela ulertu izan dugu maiz eta salbatzaileen paper horretan desegokiak diren ekimenak, printzipioak eta lan-lerroak ireki izan dira. Euskarak, bada, ez du salbatzailerik behar, lege-markoa, hizkuntza-politika eta herritarren atxikimendua eta hizkuntzaren aldeko jarrera eta konpromisoa baizik. Salbatzaileen lanak, herritar batzuen atxikimendua lortzen baitu baina ez guztiona. Salbatzaileen lana, urte batzuetan justifikatua egon ahal izan bada ere, gaur egun, bestelakoak dira euskara salbatzeko egin beharreko lanaren ezaugarriak.

3. GARABIDEAN: TXOSTENEAN JASOTZEN EZ DIREN ZENBAIT KONTU

1. HIZKUNTZA POLITIKAREN NORABIDEA: NORABIDE BAKARRA. Euskara denona eta denontzako da, eta euskarak denon premia dauka. Zenbat eta laguntza gehiago, zenbat eta konpromiso handiago, zenbat eta kontzientzia gehiago, zenbat eta partehartze handiagoa, askeagoa eta zabalagoa, are eta hobeto. Eta zenbat eta kritika gehiago, kritika positiboa bada, bederen, are eta hobeto.

Kritikaren ondoren, hala ere, kontsentsoa behar da. Kritikak, laguntzak, konpromisoak, partehartzeak eta kontzientziak ezin du zatitzailea izan, ezin du euskararen inguruan posizionamendu ezberdinak hartzeko balio. **Euskarak hizkuntza politika sendo eta eraginkor bat eta bakarra behar du.** Beraz, euskarak ezin du plan bat baino gehiago izan: nazio mailan bat, probintzia mailan beste bat, herri mailan hirugarrena... Indarrak eta hartzaileari helarazten zaizkion mezuak bat egin behar dira: hau da, sinergiak

profitatu eta mezua bateratu. Euskarak guztion lanaren beharra du baina bakoitzak norabide ezberdin batean lan egiten badugu, lagundu baino areago, kontrako efektua sortzen du.

2. HIZKUNTZA POLITIKAREN BEGIA: 360°. Hizkuntza politika eta euskara planak zehazterakoan, areago oinarritu izan gara euskararen egoera defendatu ahal izateko (hau da, hizkuntza gutxiuaren aldeko) politikak markatzen eta euskaradunen eskubideak defendatuko dituzten ekimenak aurrera ateratzen. Eta hala beharko zuen, segur aski, garai bakoitzak egiteko modu batzuk eskatzen edo agintzen baititu.

Baina euskarak aurrera egingo badu, lege-markoa, hizkuntza-politika egokia eta herritarren konpromisoa behar du, hau da, herritar guztien konpromisoa, euskara guztiona baita. Beraz, euskara guztiona bada, euskararen gainean hartuko diren erabakiak eta hartutako erabakien gainean egingo diren komunikazioetan ere, **erdal hitzuna helburuko hartzaile eta aktoretzat izan behar da**. Erdal hitzuna prozesuan integratuta izan behar dugu, bai hausnarketak egiterakoan, bai politikak zehazterakoan, bai komunikazio kanpainak diseinatzekoan, zein estrategiak definitzerakoan, hau da, erdal hitzunak ere erabakiak hartzen diren mahai horretan egon behar du, **erabakia “berea” ere ba dela** sentitu dezan, **konpromisoa “berea” ere ba dela** konturatu dadin. Borondatea tankera eta momentu horretan erakusten badu, prozesua, helburuak eta **bidea “berea” ere ba dela** sentituko du.

3. BESTEAREN IKUSPEGIA: komunikazioaren munduan ikasten den lehenengo gaia, komunikazio prozesuan parte hartzen duten aktoreak dira. Hala nola, emisorea (edo mezua bidaltzen duena), mezua (esaten dena), hartzailea (mezua jasotzen duena), kanala (zeren bidez adierazten edo komunikatzen den) kodea eta testuingurua. Komunikazioa efektiboa izango bada, aldagai hauek guztiak oso ondo menperatu behar dira. Bidean, kanalaren, kodifikazioaren eta mezuaren inguruan zarata eta

distortsio ugarirekin topo egin dezakegu; baita emisorearen eta hartzailearen artean ere, baina, hasteko, gutxienez, denak kontuan hartu beharrekoak.

Komunikazioaren bigarren urrezko erregela honakoa da: hartzailea ondo identifikatzea, hau da, mezua, nori helarazi nahi diogun ondo jakitea.

Eta hauxe hirugarren erregela: hartzaile bakoitzari mezu bakarra egokitu behar zaiola. Ez da komenigarria hartzaile bat baino gehiagori mezu bat helaraztea, horrela eginez gero, haue-tako inork ere ez baitu mezua beretzako denik sumatuko. Eta ez da egokia hartzaile bati edo bakoitzari mezu bat baino gehiago helaraztea ere, bestela, bata bestearen aldamenean jarritako mezu ezberdinek, indarra galtzen baitute, elkarri indarra jaten baitiote.

Baina hau guztia kontuan hartuta ere, bada beste kontzeptu bat komunikazioan berebiziko garrantzia duena eta hauxe da: komunikazioa ez da emisoreak informatzea, baizik eta informatu ondoren hartzaileari esateko duena jaso eta, bien artean, halako erretroelikatze prozesu bat egituratzea. Beste era batera esanda, elkar elikatze prozesua edo hartuemana behar du egon, bestela, ez baita komunikazioa.

Bada, gatozen gaira. Gaur artean diseinatutako eta abian jarritako hizkuntza politikak eta euskara planek Euskal Herriko hartzaile guztiak izan al ditu kontuan? Euskal herritarren hartzaileen maparik egin al du? Igorritako mezuak hartzaileen maparen arabera egin al dira? Entzun al diegu hartzaile mota ezberdin horiei guztiei? Ba al dakigu hartzaile horien beharrak, kezkek, sentimenduak... zeintzuk diren? Aztertu al dugu orain arte egin dako eta abian jarritako hizkuntza politika, euskara planen eta komunikazio kanpainen inguruan zer iritzi daukaten? Hizkuntza politika, euskara plan eta komunikazio plan hauek zer nolako eragina izan dute?

Funtsezkoa da, edozein ekimenen aurrean, “bestearen” ikuspegi kontuan hartzea, erabaki behar den horretan integratzea, eta bere ahotsa ezagutzea. Bestela, publikoaren edo hartzailearen zati handi bat, *de facto*, kanpoan uzten ariko gara eta kanpoan uzten baditugu, edo eta ez baditugu ezagutzen, ez dira integratuta sentituko; beraiei ez dagokien mundu bat eraikitzen ibiliko gara eta gure mezuak ez zaizkie helduko.

Euskararen inguruko komunikazio kanpainen efektibitateaz kezkatuta eta hauek hartzailearengan izan zezaketen eragin ezberdintasuna aztertu nahian, 2007-2008 ikasturtean, Deustuko unibertsitateko komunikazioko ikasleekin (21-22 urteko neska-mutilekin) egindako ikerketa lan txiki batean, hizkuntza politikaren eta euskararen erabileraren inguruko kasu praktiko baten azterketan jasotako erantzunak honakoak izan ziren:

Planteatutako arazoa: azken urteotan egindako bide luzearen ondoren eta bitarte guzti horretan helarazi diren mezu guztiak, arrazoiak eta atxikimendurako dei edo komunikazio guztiak kontuan hartuta, **zergatik ez du euskal herritar gehiengoak euskara “bera” sentitzen?**

Erantzunak:

1. **Euskara bultzatzen, berenganatzen eta monopolizatzen dutenen ideiekin bat ez datozelako.** “Batetik, euskara bazuena dela dirudi eta ez guztiona. Bestetik, euskara eurena dela diotenen ideologia ez da guztiona”.
2. **Euskararen inguruan eraikitzen den mundua ez delako eurena.** Hau da, euskararen inguruan kultura, politika eta gizartegintza eredu zehatz bat egituratzen da eta egiteko modu horiekin ez da euskal gizarte osoa identifikatzen.
3. **Euskararen inguruko kanpainek beti lelo bera darabilte, estilo bera, eta hartzaile bera dute helburu.** Hartzaile horiek ez gara “gu”. Lelo horiek ez doaz “gurekin”.

Erantzun hauetatik, honako lehen interpretazioa edo irakurketa egin liteke:

1. **Euskara “batzuona” bakarrik dela erakusten dugu**, eta ez guztiona.
2. **Euskara, kultura, gizartea, politika egiteko modu edo eredu batekin lotzen da** eta, euskarak kolore jakin bat daukan bitartean ez dugu alderdi eta sentsibilitate guztien arteko kontsentsoa eta konpromisoa lortzerik izango.
3. Euskararen inguruan egiten diren **komunikazio kanpainak ez dira eraginkorrak** ez leloagatik, ez mezuagatik, ez hartzaileagatik (hauen artean, hartzaile garrantzitsu bat, gazteriarena litzateke).
4. Termino hauetan egindako **kanpainek, bultzatze deialdi edo sustapenak, berak, herritarron arteko banaketa dakarte**.

4. ETORKIZUNEAN: ETORKIZUNERAKO LAN-LERRO HAINBAT

HELBURUA: EUSKARA “IKUSI” EGIN BEHAR DA

Euskararen erabilera areagotzeko, euskararen prestigioa hobetzeko, euskara normalizatzeko... euskara existitzen dela erakutsi behar dugu, aldamenean sentiarazi behar dugu, bere presentzia nonahi erakutsi... **Euskara “ikusi” egin behar da.**

Horretarako, hona hemen etorkizunera begira, kontuan izan beharko liratekeen hainbat aspektu:

1. KOMUNIKAZIOA: OINARRIA

Euskararen inguruko komunikazio politikak kanpaina edo komunikabide klasikoetatik haratago joan behar du. Gainontzeko azpisektore guztien politiken oinarria izan behar du: teknologia berriena, telekomunikazioena, ondare kulturalarena, hezkuntzarena, zinemagintzarena, egunkariena, irratiena, telebistarena... eta baita

hizkuntza politikarena. **Kultura eta komunikazio politikak batera joan behar dute.**

Komunikazio digital eta globalizatuaren garai honetan, kanpainak edo komunikazio ahaleginak ezin dira zatikatuak edo banan-banaka diseinatuak izan, hau da, orain hizkuntzarentzako, gero hezkuntzarentzako, hurrengo ikerkuntzarentzako, edo argitaletxeentzako, esan musikarentzako, zein museoentzako... Ekinbide hauek guztiak bateratu egin behar dira kultura eta komunikazio politika integratu batean. Sektore hauen guztien artean dauden sinergiak profitatu behar dira, eta bateratu; hizkuntzak guztien oinarria behar du izan, eta integraltasun horretatik garatuko den diskurtsoak hizkuntzari berari lagunduko dio. Marko orokor honetan **hizkuntza politikak modu transbertsalean jokatu beharko du**, gainontzeko politika guztietan eraginez eta guztiak bateratuz.

Bestela, hizkuntza politika batek ez du eraginik izango:

1. Hizkuntzaren erabilera ez bada zabaltzen, hau da, administrazio publikoa, hezkuntza eta komunikabideez gain, teknologia berrietan oinarritutako industrian lehen hizkuntza izatera helduko ez bada: internet, telekomunikazioak, multimedia industria...
2. Kultur ekinbide guztien oinarria ez bada, bere transbertsialitatean: bestela, ekinbide bakoitza independentea da eta ahaleginak/sinergiak ez dira aprobetxatzen.
3. Egiten diren ekimen guztiek kanpo proiektiorik ez badute.
4. Ekinbideak alderdien interesen eta egutegietatik at ez badaude.
5. Komunikazioaren ikuspegitik ikerketa soziologikorik ez badago: gizartearen, enpresen eta erakundeen beharrak, ahultasunak eta erabilerak, komunikazioaren ikuspegitik ezagutu behar dira.
6. Hizkuntza normalkuntza derrigorrezkoa bada: izaera promozionala izan behar du, prestigiozkoa, eta hizkuntzaren

bidez adierazten diren gainontzeko aspektu/anbito guztien oinarria eta babesa izan behar du hizkuntzak.

Beraz, hau guztia kontuan izanda, aurrerantzean diseinatu den komunikazio kanpainak “globala” behar du izan, izenaren bere ezaguera guztian. Esan nahi baita:

1. **Transbertsala izan beharko du**, hau da, gainontzeko politika guztien oinarria, ez hizkuntza politikarena bakarrik.
2. **Kanpaina bakarra** izango da: hizkuntza politikaren inguruan kanpaina bat bakarra antolatu behar da euskal lurralde osoan. Kanpaina horrek azpi mezu ugari izan ditzake baina mezu bakoitzak helburuko hartzaille jakin bat izango du eta Euskal Herri osoan hartzaille profil jakin bateko guztiek mezu bera jasoko dute. Hau da, ihes egin behar zaio HPSetik, Foru Aldundietako Kultura Sailetatik, Udaletxeetako Euskara Zerbitzuetatik eta ekimen pribatutik eragiten diren hainbat eta hainbat kanpaina eta mezu ezberdin igortzeari, garai ezberdinetan, hartzaille berdinei (normalean) zuzenduak, ekimenaren ebaluaziorik gabe (askotan)...

Komunikazio estrategia orokor, bakar eta eraginkor bat diseinatu behar da, helburu jakin batekin eta hartzaille ezberdinak zeintzuk diren, non dauden, nola sentitzen duten eta zer jasotzeko prest egongo liratekeen ondo aztertuta. Oinarri hau landu ondoren, hartzaille bakoitzari zer mezu helarazi behar zaion pentsatu behar da, eta ondotik, kanpaina “globala” antolatu. Eta garrantzitsuena, beharbada: mezu hori, euskal lurralde osoan nola kanalizatu behar den zehaztu eta ondo lotu behar da, **egun dugun sare osoa (erakunde publikoak zein pribatuak) bateratuz eta koordinatuz**. Bateratze eta koordinazio lan hau gabe, ezinezkoa izango zaigu kanpaina bakar hori diseinatzea eta hain ongi ezagutzera heldu garen hartzaille

horrengana behar duen sentsibiltate eta egokitasunez heltzea. Behin eta berriro, gure hurbilketa zabartzeko zorian egon gintezke. Eta hau, guztiok ulertu beharrekoa aspektua da.

Kanpaina globalaren helburua, gizarte osoari helaraztea eta gizarte osoa inplikatzeko da. Batez ere, gazteak.

Honetarako, 3 sektore nagusi geneuzkake lan egiteko:

1. Euskararen inguruan edo **euskarari balio positiboak** erantsi behar zaizkio.
2. Kanpotik datozenak euskara ikastera bultzatu eta kontzientziatu behar dira.
3. **Euskal hiztunei beren rola zein garrantzitsua den jakinarazi behar zaie**, hau da, hizkuntzaren erabilera maila eta prestigioa igotzea guztion esku dagoela.

Kanpainak mundu ororengana heldu behar du, eta gauza naturala izan behar du, egunerokoa, eta ez inposatua. Kanpaina honek edonork ulertzeko modukoa izan behar du, edonork parte hartzeko modukoa eta **alderdi politiko guztiek onartu, babestu eta bultzatu behar dute**.

Bestalde, sentsibilizatzea helburu izango duen **kanpaina honen freskoa eta berria izan behar du, kutsu, itxura eta eragin instituzional orotik urrun**.

ALDERDI POLITIKO GUZTIEN ONIRITZIA ETA INPLIKAZIOA

Euskara batzuona dela bakarrik erakutsi baldin badugu eta guztiona dela erakutsi eta sinestarazi behar baldin badugu, lehenik eta behin, erreferentziazkoak diren erakunde eta pertsonengan islatu behar da ideia hau. Hau da, alderdi politiko guztiengan. Alderdi politiko guztien helburu gorenaren artean, programa eta politikoen diskurtsoetan presente egon behar du ideia honek. Alderdi guztien adostasuna

lortzeaz gain, alderdi guztientzako defendatu beharreko diskurtsoa behar du izan. Gai transbertsala dela erakutsi behar zaie, oinarrizkoa, edozein programa politikoren gainetik doana, eta ezin dela hizkuntzaren gainean politika egin.

Euskal herritarrek, edozein delarik ere bere iritzi politikoa, bere erreferentzia politikoei euskara denona dela esaten diotela sumatu behar du, eta euskararen erabileraren aldeko kanpaina alderdi eta politiko guztiek onartutakoa eta babesten duten proiektua dela. Komunikazio kanpaina kolore guztiek defendatu behar dute eta kanpainaren kanalizazioan guztiek behar dute egon aktore gisa.

Politikariek gain, kanpaina global honetako beste aktore garrantzitsuak pertsona publikoak lirateke. Pertsona publikoek ere, iritzi liderrek, gizartean erreferente direnek, arrazoiak arrazoi, euskararen gaian ere erreferente direla ikustea lagungarri litzateke.

KOMUNIKAZIOA ETA PUBLIZITATEA, EUSKARAZ, MESEDEZ

Euskaraz sortu behar da. Hau da, mezua eraginkorra izango bada, euskaraz pentsatua, moldatua eta egituratua izan behar da. Euskaraz sortua. Zeren eta euskara bultzatu nahi badugu, euskararen erabileraren garrantziaz konbentzitu nahi badugu eta erakusten badugu, lehenengo erdaraz pentsatu eta gero ideiak itzuli egiten direla, bada, mesede flakoa egiten diogu mezuari: euskaraz hedatzen den mezua ezin da itzulpena edo bigarren mailakoa izan. Bestela, euskarari, hasieratik bertatik, garrantzia eta gatza kentzen ari baikara.

Gainera, sormen ahalmenaren arabera, hizkuntza izan liteke, baita, mezua dekodetzeko eta mezuaren gainean interesa pizteko gakoa. Hau da, emisio bat baino gehiago izango lituzketen kanpainak euskaraz diseinatzeko eta jakinmina sortarazteko gai izan behar harko genuke eta, gero, azalpenak eta kodeak bi hizkuntzatan eskaini. Baina ekintza sortzaileari lagunduko dion hizkuntza, lehenbizi,

euskara izan dadila. Horrela bakarrik erakutsiko dugu hizkuntzaren erreferentzialtasuna eta balioa.

DISKURTSOA

Euskaraz bakarrik eskain eta bizi daitezkeen munduak eraiki behar dira, edo eta, euskaraz eskainita, hizkuntza ez dena ulermenerako arazo izango. Euskara bakarra delako eta gurea, guztiona, delako. Ezberdintasun, abantaila, berezitasun, sentsazio eta unibertso guztiak kontuan hartuta.

Diskurtso hori eraikitzeko bi bidaide nagusi izan genitzake:

Turismoa

Kanpora zein barrura begira gurea dena “saltzeko” daukagun modurik erraz edo eta eraginkorrena da. Turistek baloratzen dituzten aspektuei lotu behar zaie euskara eta lehenetsi euskararen presentzia eta balioa. Plazerezkoa den ekimenari lotutako hizkuntza errazago eta modu naturalago batean sartzen baita. Hori izan liteke politikarik eraginkorrenetakoa eta, gainera, komunikazio horren gaineko eragile nagusiak gu geu izan gaitezke.

Artea

Lengoaia ezberdinen bateratzea, elkarbizitza, ulermena eta onarpena sustatuko dituzten ekimen eta **diskurtso kulturalak egituratu behar dira**. Supra-hizkuntza objektibo eta euskal herritar guztiok identifikatuko eta onartuko duguna. **Kulturaren, oro har, eta euskal kulturaren sinbiosi moderno**a. Guggenheim, Artium, Tabakalera, eta abarrek diskurtso bateratu hau sortzen lagundu beharko lukete.

CRMa (Customer Relationship Management)

Gizakiok behar askotarikoak ditugu baina, horien artean, badaude batzuk, oinarrikoak direnak. Errekonozimenduaren mundua da

horietako bat; errekonozimendua alde afektibotik ulertuta, gertutasunetik, ulermenetik, entzutetik, eta bat egitetik.

Arestian aipatu dugu, euskal herritarrari konpromisoa eskatu behar zaiola, euskara guztiona dela jakinarazi behar zaiola eta sinistu behar duela, eta konbentzimendu horren gainean, euskara indartzeko duen erantzukizunaren berri eman behar zaiola, eta erantzukizun horren berri izanik, konpromisoa hartu behar duela, berekiko eta bere inguruko kideekiko.

Eta hau guztia zeren truke? Ez da esan nahi konprometituko den euskal herritar bakoitzarentzako sari bat egon behar duenik, ez, bederen, sari ekonomiko edo materialik baina... eta sari emozionalik? Zerbait irabazi beharko dugu, guztiok ere, esfortzu horrengatik, hala?

Saria, bestalde, beti ere, bukaeran ematen edo lortzen den zerbait bezala ulertu ohi dugu baina saria bidean edo prozesuan ere lor daiteke. Eta saria, izan liteke **euskal herritarrengana hurbiltzeko kanala edo metodoa bera.**

Beste era batera esanda: euskal enpresa askok argi izan du Euskal Herri osoko bezeria lortu ahal izateko, bakoitzarengana heldu beharra zutela. Eta denbora hartu dute, medioak jarri dituzte, eta lortu dute.

Hartzailearengana zuzenean heldu eta banan-banako segimendua egin ahal izateko metodo eta kudeaketa sistemaz ari gara. Hau da, euskararen kasuan ere, gaur egun hain ezaguna den kontrol eta kudeaketa erreminta CRMa behar dugu: banan-banan gerturatu behar gatzazkio euskal herritar bakoitzari.

CRMa enpresaren zerebelo komertzial elektronikoa da. Enpresaren burua dela diote batzuek, bihotza besteek. Zalantzarik gabe, enpresaren erdigunea da. Bertan gordetzen eta zaintzen dira bezeroen datuak: pertsonalak eta profesionalak, gustuei eta ohiturei buruzkoak, baita lehiakidearekiko duten harreman motaren gainekoak ere.

Datu hauek, enpresaren saltzaileen esku jartzen dira bezeroengana eta bezero ez direnengana hurbildu eta nola agitu behar duten jakin dezaten: zeintzuk produktu edo zerbitzu eskaini ahal dituzten, noiz, nola, zenbatero, eta baita, bezeroarekin berriro noiz, nola eta zertarako jarri ahal izango duten harremanetan jakiteko. Enpresak izan ditzakeen milaka bezeroren jarraipen pertsonalizatua egiteko aukera ematen du, beraz, CRMak.

Bezeroaren jarraipenaz gain, saltzailearen lanarena egiteko erraztasunak ere ematen ditu, ordea. Lanabes aparta dela esan liteke enpresarentzat (kontrolerako), saltzailearentzat (kudeaketarako), eta batez ere, bezeroarentzako. Bezeroak ulertuko baitu, delako enpresa edo erakundeak beregan interesa duela eta enpresak demostratuko baitio, egiten dion jarraipena pertsonalizatua dela. Hau da, beregan pentsatutako eskaintza egiten diola.

*Euskarak ere, bada, halako zerbait behar duelakoan nago. Behar-bada, orain arteko politikak eta kanpainak orokorregiak izan dira eta orokorrean aritzeak, maiz, norbanakoak mintzea dakar. **Hiztunak, ordea, banan-banan irabazi behar dira** eta ezin da bakar bat bera ere galtzea ameti. **Euskararen erabilera sustatzeko erabilitako metodoek hizkuntza maitatzea lortu behar dute eta ez kontrakoa.***

*Enpresak bezeroka eraikitzen diren bezala, **euskarak ere, banaka erakarri behar ditu hiztunak eta hiztun potentzialak, bakoitza banan-banan ezagutuz eta bakoitzarekiko harremana oroz gain mimatuz.***

Deia, 2007-04-23

Bakoitzaz kontaktzen dugula esan behar dugu, bakoitza dela garrantzitsua, hain garrantzitsua ezen bakoitzaren egoeraz arduratu nahi dugula. Bere kezka, behar, ezintasun eta abarrak entzungo ditugu eta konpromisoa, banaka-banaka erauzi behar da. Eta, ondotik, konpromiso horrekiko segimendua egin behar da, enpresek

egiten duten bezala. Bezeroak (barkatu, euskal herritarrak) ezagutu eta fidelizatu egin behar ditugu. Eta bezeroek (barkatu, euskal herritarrek) fideltasun horretaz harro sentitu behar dute. Marka (barkatu, euskara) ezagutu, errekonozitu eta maitatu behar dugu. Markak (barkatu, euskarak) identifikatzeko balio behar digu. Eta kontsumitzea (barkatu, erabiltzea) erakargarri egin behar zaigu, eroso eta erraza.

Euskara ez al da, bada, saldu beharreko eta erakargarria den gure produktua (barkatu, gure hizkuntza)?

Laburbilduz:

Komunikazioaren ikuspegitik, beraz, XXI. mendeko hizkuntza politikaren oinarriak hauexek lirateke:

1. Hizkuntza eta komunikazio politika izatea gainontzeko politika ororen oinarria, oinarri transbertsala.
2. Oinarri transbertsal hori, hau da, hizkuntza politika eta komunikazio politika alderdi politiko guztiek onartua eta defendatua izatea. Gizartean, euskal herritar ororen aurrean, erreferente gisa agertzea, horrela, euskal herritar orok sinets dezan "guztiona" dela euskara.
3. Komunikazio kanpaina orokor bakarra diseinatzea, eta indar ezberdin guztiak, publikoak zein pribatuak, denak, kanpaina orokor horren aterkipean koordinatzea. Euskal herritarrari mezu bakar bat helaraztea.
4. Komunikazio oro euskaraz sortzea eta ez alderantziz. Eta euskarazko komunikazioari/publizitateari lehentasuna ematea.
5. Euskal herritar guztiak identifikatuko diren diskurtsoa eraikitzea, batez ere, kanpo proiektioari begira. Diskurtso honek lengoia neutro bat edo hainbaten arteko uztardura hartu beharko du oinarri, modernoa eta berria izan-

go dena. Bateragarria kultura, ideologia eta sentsibiltate guztiekin.

6. Euskal herritar oroenganako hurbilpena pertsonalizatua izatea eta herritar bakoitzarekin hitzartutako konpromisoari banan-banakako segimendua egitea. Hau da, euskararekin, fidelizazio prozesuaren kudeaketa erreminta eta prozesua abian jartzea.

IKUSI eta ENTZUN, oinarrian. **Euskarak leku orotan “ikus-ten” den hizkuntza behar du izan**; ikusgarritasunean irabazi behar dugu. Eta bestetik, entzuten den eta **entzuten dakien hizkuntza behar du izan**. Sentsibiltate oro kontuan hartu eta guztiak bilbatuko eta onartuko dituen.

OINARRIZKO TXOSTENA IRAKURRI ONDOKO ZENBAIT OHAR

Mikel Zalbide

I.- SARRERAKOAK

HPSren ekimenez lantaldeak HP21 izenez prestatu duen txostena komentatzen du idazki labur honek. Gehienez hogei orrialdetan errenditza eskatu zaigu iritzi-emaileoi, eta horretan saiatu naiz ahaleginean. Hasieran idatzitako hainbat puntu kanpoan utzi ditut, hori dela medio. Sarrerako azala eta bibliografia-orria alde batera uzten bada, mandatua ondo samar bete dudalakoan nago. Gatozen, besterik gabe, harira.

I.1.- Esker-ematea

Eskerrak eman nahi dizkiot Hizkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Baztarrikari, lehenik eta behin, euskararen egoeraz eta geroaz giza arteko eztabaida lasaia eratzea erabaki izanagatik. Eskerrak ematen dizkiot, orobat, oinarrizko txostenaz iritzia emateko aukera eskaini didalako. Askatasun osoa ziurtatu du hasiera-hasieratik, nork geure iritzia aparteko eragozpenik gabe eman ahal izateko. Biziki eskertzen da jokabide hori.

Eskerrak eman nahi dizkiot, era berean, Erramun Osa zuzendariari. Eztabaida-lanerako prozedura tentuz bideratu du otsailetik hona, batez ere iritzi-emaileon ekarpen-bidea adosteko orduan: noiz-nola parte hartu beharko dugun, eta noraino, alde zuzenetik zehazten asko lagundu du. Badakit albo-kontua dela hori, zenbait aldetatik. Albo-kontuek ere bere pisua izan ohi dute ordea giza arteko jarduera zabaletan, eta zor zaien begiruneaz hartzekoak dira beti.

Eskerrik asko eta zorionak, azkenik, oinarrizko txostena zirriborratu, eztabaidatu, adostu, prestatu eta guztion esku jarri duen lantaldeari. Lan ederra egin du: aspaldi honetan herri-aginteetatik jaso den dokumenturik baliagarrienetarikoa paratu digute egileek. HPStik azken hamar bat urtean (EBPNez geroztik) jasotakoen artean zabalena da hau perspektibaz, diagnostikoz zehatzena eta proposamenez umotuena. Iritzi diferenteen eta, are, kontrajarrien bateratze-saiorik gabe ezin izan da lan hori egin. Itsuenak ere ikus dezake, itsuarena egin nahi ez badu, oinarrizko txosten hau prestatu duten taldekideak ez direla gizarte-ikuspegiz gogaide, ez eta hizkuntza-plangintzaren edo glotopolitikaren esparru korapilatsuan irizkide hertsia. Doble meritu du, horrexegatik, bateratze-saio horrek. Eskerrik asko zazpioi. Hemen ere, bestetan bezala, *nori berea da gizalegea*.

I.2.- Balio-irizpen globala

Irakurri dut txostena; hartu dut astia, testu osoa bizpahiru aldiz irakurtzeko eta kontu nagusiak (nire ustez nagusiak) puntuz puntu analizatzeko. Azpimarratu ere egin dut han-hemen, ohiko moduan, hainbat hitz-multzo eta zenbait pasarte. Azpimarratzeko gelditu zait dokumentua, burutik burura: zerbaiten seinale izango ahal da hori ere, paper-kontuak zikintzeko dudan ohitura zaharraren oroigarri beti-batekoaz gainera!

Dokumentuaren argi-ilunak iruditzen zaizkidanak izango ditut, beraz, aipagai: testuan irakurri dudanetik zer gustatu zaidan eta, batez ere, zerk asebate ez nauen, eta zergatik, azaltzen saiatuko naiz. Bigarrenetik lehenengotik baino ugariago izango da oharrotan, seguruenik. Ez da hori harrizkoa. Laudorio otzana ez baina kritika zehatza eskatu zaigu berrogei iritzi-emailei: aurrera egiteko eta, ahal den heinean, adostasun zabala bilatzeko balio izango lukeen ohar-bilduma kritikoa. Horretan saiatu naiz batez ere, eta horrexegatik eskaini diet testuaren ahuldade ustezkoei lekurik zabalena.

Argi azaldu nahi dut, gerora gabe, dokumentua gustura irakurri dudala. Gustura irakurri dut eta, hainbat alorretan, bere mamiaz dudan iritzia positiboa da. Han-hemen (kasu honetan *hemen*, herri-aginteen esfera instituzionalean) sortu ohi den beste hainbat dokumenturen aldean badu oraingo honek, hala iruditzen zait behintzat, kopeta zutik duela jendaurrera agertzeko motiborik aski. Ez da *pro domo* hutsean ari, halakorik falta ez bazaio ere tartean. Irakurleari eragiten edo pizten dizkion desadostasunak, ñabardura hutsezkoak zein pisuzkoak, banaka eta ordena logiko samarrean agertzeko parada eskaintzen du gainera: funtsezko adostasunak identifikatzen hasteko oinarrikeri ere badu, azkenik, bere gibel-errietan. Ez dira gutxi, bata zein bestea. Hoberik duenak erakuts beza.

Kanpoko azaletik hasiko naiz, mamiari heldu aurretik, iritzia ematen: idazkera kontutik. Ez da huskeria, gure arteko idazlan askoren prestaera moldea, bere *modus operandi* nagusia, hurbiletik ezagutzen duen edonorentzat. Ondo idatzitako lana da eskuartean duguna: taxuz eratua eta atentzio handiz landua¹. Testu txukuna eta egokia eskaini digu lantaldeak. Gehienetan irakurtzea tokatzen zaizkigun dokumentuak baino hagitz landuagoa eta, aldi berean, euskaldun alfabetatu orok probetxuz irakurtzeko modukoa. Dokumentu zaindu, landu eta fresko itxurako baten aurrean gaude. Gure idazlan askoren zurruntasuna zenbaterainokoa izan ohi den kontuan hartuz, ez da ezaugarri hori ere alde batera uztekoa².

1 Euskarazko testua osorik irakurri dut; bi aldiz ere bai, zenbait kasutan. Gaztelaniazkoa, aldiz, zatika irakurri dut, eta ez osorik. Oro har, euskarazkoaren parekoa iruditu zait erdarazkoa. "Pareko" izateak ez du esan nahi, halere, idazkuntza biak zeharo berdinak direnik. Nahita ere ezin izaten da, askotan, halakorik egin: gauza bera al da, testuinguru guztietan, erdarazko vasco eta euskarazko euskaldun? Ezetz esango nuke. Ez diezaiozun inori eska, hemen eta orain egin ezin litekeenik.

2 Mekanografiatzko eta bestelako zuzenkizun-oharrik egin dut halere, han-hemen: ofiziokoa izaki, nonbait, eta ezin tentalditik ihes egin. Gutxi dira halako oharrak, zinez. Aparte bidaliko ditut, kontuan hartu nahi badira.

I.3.-Oharren egitura

Hizkuntza-politikaren oinarriak ditu *Oinarrizko Txostenak* ardatz, eta oinarri horiek ditugu iritzi-emaileok aztergai. Oinarri bila aritzea dagokigu beraz, oraingoan. Logika baten haritik jardun nahi nuke bilaketa horretan, itzulinguru aspergarriekin inor atsekabetu gabe. Betiko galdera-hirukotearekin has gaitezke, hizkuntza-politikaren oinarriak argitzen. Hots, honako hiru galderokin:

- a) *non gaude EAEn, hizkuntza kontuan?*,
- b) *nora joan nahi dugu begien bistako etorkizunean?, eta*
- c) *zein da horretarako bide egokiena?*

Horietan zentra gaitezke, hortaz, gure iritzia emateko orduan: ezinbesteko galderak dira hiru horiek, hemen eta nonahi, hizkuntza-politikaz ari garenean. Ezinbestekoak dira orain ere, 1978-82 epean bezala. Zentzu osoa zuen galdera-hirukote horrek orain dela 25 edo 30 urte, euskalgintza instituzionalaren abiaburu hartan. Orain, ordea, motx gelditzen da. Funtsezkoak ditugu orain ere hiru galdera horiek: ezinbestekoak. Baina ez dira aski. Besterik ere galdetu behar diogu orain geure buruari, nagitasun intelektualaren lozorro epelean kulunkaturik jardun nahi ez badugu. Honako beste hiru galderok ere egin beharra dago orain, mende berriaren hasiera honetan:

- d) Orduan (1978-82 epean) adostutako norabidearen eta helburuen argitan zertan asmatu da, eta zertan huts egin? Zertan aurrera egin dugu eta zertan atzera?,
- e) zergatik egin dugu gauza batzuetan aurrera, zergatik lehengo egoera bertsuan gaude beste zenbait puntutan, eta zergatik egin dugu besteetan atzera?, eta
- f) goazen bidetik, nora goaz?

Hasieran ez genuen konparazio-puntu argirik; estrapolatzeko aurrekari sendorik ere ez. Ez zuen beraz zentzu handirik, beste hiru galdera hauek egitea: ez zuten erantzunik. Orain bai: gustukoa izan zein ez, galdera horiek badute erantzuna. Ez gara konforme egongo, agian, galdera horiei urliak edo sandiak ematen dizkien erantzu-

nekin. Erantzunik badute, ordea, galdera horiek. Badute erantzunik eta erantzun horiek funtsezkoak dira EAeko hizkuntza-politikari itxurazko oinarriak eskaini ahal izateko. Litekeenaren eta ezin denaren arteko mugak zuhurkiago bereizten laguntzen dute erantzunok, begien bistako etorkizun-aukera posibleak doiago identifikatzen eta etorkizuneko eszenario posible bakoitzaren on-gaitzak zehazkiago baloratzen. Bete-beteen sartzekoak dira hortaz beste hiru galderok ere, aurrera begirako hizkuntza-politikaren oinarriak arrazoi bidez argitu edota ahalik eta heldu-leku objektiboenez adostu nahi badira. Ahuldade nabarmenaren seinale litzateke, hemen eta orain, beste hiru galderoi ez erantzutea. Are seinale okerragoa genuke, galdera bera formulatu ere ez egitea.

Sei galderak kontuan hartu dira, zorionez, azterkizun dugun txostenean. Heldutasun-seinale da hori, eta hala adieraztea komeni da hasiera honetan bertan. Aurreko zenbait dokumenturen aldean aurrera egin da puntu horretan³. Eztabaida egituratua baldin badugu amets, eta ez geure golkoan ditugun amets-beldur-irriken jaulkitze trumiltsua edota lehentasun programatikoen azalpen hutsa, mesede baizik ezin egin dezake eztabaida egituratuago horrek. Azterbideok banan-banan aukeratuz eratuko dut, hortaz, nire ohar-bilduma labur hau. Aspalditxo honetan baterako eta besterako darabildan eskeumatik abiatuz, eta dokumentu honen beharretara egokituz, ondoko hiru galdera multzo hauen haritik jardungo dut beraz:

- a) zer gertatu da euskara-erdarekin, azken mende-laurdenean? Zer motibok (zer motibo-sortak) eragin du euskara-erdaren bilakaera hori?
- b) zein da euskara-erdaren egungo egoera? Goazen bidetik nora goaz, hizkuntza kontuan?

3 Sei galderak ez dira Oinarrizko Txostenean neurri berean landu. Horietariko zenbait landu-arin gelditu da. Landu-arin eta, irakurketa pausatua batek besterik azaltzen ez badu, han-hemen zatikatuegi. Lastima da, uste baino gauza gehiago argituko bailituzke azterbide landu-arin horrek.

- c) Nora joan nahi genuke? Zer egin behar da, begiz jotako helburu horretara iristeko? Zein da horretarako bide zurrerena, eraginkorrena, hoberrera?

Gatozen beraz, besterik gabe, hiru galdera horiei txostenak eman dizkien galderak banan-banan komentatzera.

II.- ZER GERTATU DA EUSKARA-ERDAREKIN, AZKEN MENDE-LAUDENEAN? ZERGATIK?

Aipagai dugun dokumentuak badu ikuspegi bikoitz horren osagai sendoa: bai ikuspegi zinetikoaren planteamendu zuzena (bilakaera horren emaitzak ebaluatu beharra integratuz⁴), eta bai azterbide dinamikoarena (“zergatik” galderari emandako hainbat erantzun sartzen da hemen). Berri samarra da jokabide hori gure artean, perspektiba instituzionalari dagokionez. Berri samarra eta aurrez aurre landua: azpialal osoa eskaintzen dio *Oinarrizko Txostenak* bilakaeraren gaiari⁵. Txostenean zehar barreiaturik ageri da, azkenik, zergatikoen azalpen-saioa. Norbaitek pentsa dezake alferlana dela galdera horiei erantzuten saiatzea. Aurrera begirako lana dela hizkuntza-politikaren oinarriak zehaztea eta, beraz, aurrera begirako perspektiba horretara mugatu behar genukeela gogoeta-lana. Okerra da ikuspegi hori: gure arteko arazo larrienetako bat, aurrera begirako oinarriak adosteko orduan, geroan ez baina lehenean dago. Hizkuntza-politikaren alorrean mende-laurden honetan egin den lana, lan horrek sortu dituen argi-ilunezko emaitzak eta emaitza

4 Horra bere hitzak: “geure buruari ahalegin hori aitortzearekin batera galdetu behar diogu (...) ahalegin horrek espero zitezkeen emaitzak eman ote dituen eta emaitza guztiak egokiak izan ote diren”. Beste hau ere irakur liteke bertan, aurreraxeago: “onartu beharko dugu agian zenbaitetan atzera ere egin dugula, eta onartu beharko dugu hobe izango zela, agian, urteotan guztiotan egindako zenbait gauza beste modu batera egin izan bagenu”.

5 Ikus bertako 2.1. puntua: “euskararen gizarte-bilakaeraz”. Azpialal horretatik kanpora ere maiz ageri dira ikuspegi zinetiko edo ebolutiboaren oihartzun-printzak.

horiek diren bezalakoak zergatik izan diren, horiek dira gure arteko desadostasun-puntu nagusietakoak. Oso beharrezkoa da, beraz, atzera begirako gogoeta-lan hori. Leku zabala eskainiko diot, horrexegatik, irizpen-txosten honetan.

Has gaitezen errazenetik: azterbide zinetikotik. Zer dio dokumentuak euskara-erdaren azken mende-laurdeneko bilakaeraz? Txostengileen ustez zertan egin du euskarak aurrera, zertan dirau bere hartan eta zertan ari da atzera? Aski perspektiba definitua du oinarrizko txostenak, euskararen bilakaerari dagokionez. Bere hitzetan esateko, **“hogeita bost urteotan** urratu bidearen ondotik, **argiuneak dira nagusi**, euskararen gaurko egoerak ez baitu zerikusirik ordukoarekin” (...) “25-30 urteko ikuspuntuan bistan da **aurrera egin duela nabarmen euskarak**. Argi-ilunak tarteko, **ordukoa baino erruz hobea da gure hizkuntzaren gaurko egoera**”. Baikorra da, beste hitzetan esanik, oinarrizko txostena. Arrazoi al dute txostengileek euskarak EAEn oro har aurrera egin duela diotenean? Arrazoi al dute, bereziki, euskarak zertan (zer jardun-esparrutan, zer harreman-saretan eta zer eginbeharretan) aurrera egin duen, eta zer neurritan, azaltzeko orduan? Gauza batzuetan argi dago baietz: bete-betean asmatu dute. Besteetan ez dago argi kontuak hala direnik, edota argi samar dago bestela direla kontuak. Azal dezadan zergatik.

II.1.– Adostasun-puntuak

Hizkuntza-politikak azken hamarkadotan izan duen bilakaera lau zutabetan oinarritu du txostenak: oraingo lege-markoa (Konstituzioa eta Autonomia Estatutua) lehengoa baino euskal-maiteagoa da, herritarren atxikimendua funtsezko euskarria eta indar-emallea izan da, gizarte-ekimeneko elkarteek eta enpresek ahalegin ohargarria egin dute benetan eta, azkenik, herri-erakundeen aitzindaritzza eta konpromisoa ere hor egon da. Konforme nago, oro har, txostenaren gogoeta-bide laukoitz horrekin. Ñabardura asko erantsi ahal izango litzaioke goiko eskema horri, baina nekez esan liteke egia ez denik. Lau elementu horiek osatu dute, funtsean, azken mende-

-laurdeneko euskalgintzaren bizkarrezurra. Horiek izan dira mahaia-
ren lau hankak. Joera handia dago, egungo egunean, lau hanka
horietariko bat edo beste gutxiesteko edo isiltzeko. Horrela, adibi-
dez, herritarren atxikimendu euskaltzale hori berezkoa ez baina in-
duzitua izan da, zenbaiten ustez. Induzitua, legez bortxatua izan ez
denean. Beraz ez da kontuan hartu behar. Gero eta ozenago ageri
da ikuspegi hori, adibidez, eskola-munduko hiru ereduak izan duten
bilakaera balioesteko orduan: A ereduak behera egin badu hirita-
rrei hartarako aukerarik eman ez zaielako izan omen da. EAEko
lege-markoak euskara indarberritzearen alde ageri duen izaera eta
marko horren ildotik herri-aginteez egin duten ekarpena, bestalde,
isildu edo gutxietsi egin izan da (orain ere halatsu egiten du zenbai-
tek) gure arteko joera jakin baten altzotik. Egin dena gutxiegi omen
da, markoaren berezko mugengatik besteak beste, eta egin denean
ere herri-ekimenaren bultzadagatik izan omen da sarri baino sarria-
go. Arrazoi-parterik ez zaie, seguruenik, ikuspegi biei falta. Ez bata
eta ez bestea dira ordea, ene ustez, balioespen orekatuak: markoa
ez da *laissez-faire* modukoa, are gutxiago euskal-etsaia, eta herri-
-aginteez hizkuntza-normalkuntzaren motore, ez gogoz kontrako
amor-emaile, izan dira hainbat alorretan. Komeni da beraz, arrazoi
bi horiengatik, txostenak zuzen dioen hori berariaz azpimarratzea.
Honako puntuok, bederen, gogoangarriak dira alde horretatik:

- a) Lege-marko berria, aurrekoa baino nabarmenkiro euskal-
-maiteagoa da. Zuzen dabil txostena, honako hau dioe-
nean: “Lege-marko berriak, aurrekoak ez bezala, euskara
babestea eta indarberritzea bere berezko xede du. Eus-
kadiko hizkuntza politikaren marko legalak Espainiako
Konstituzioan du abiapuntua, Autonomia Estatutuan du
oinarria, Euskararen Legean du bizkarrezurra eta Lege
horren garapenerako arautegi zabalak –lege sektorialez,
dekretuz eta aginduz beteriko arautegiak– osatzen du
corpusa. (..) Aurrerakada hori gertatzea ezinezkoa izango
litzateke lege-marko egokirik gabe, hizkuntza-eskubideak

aitortzen dituen eta herri-erakundeak garatzen ari diren hizkuntza politika aktiboak garatzeko bidea irekitzen duen lege-markorik gabe. (..) Gaur eguneko egoera juridikoa nahiko ongi azaldua dago, ene ustez: “lege-markoaren oinarri nagusiak ondoko hauek dira: batetik, herritarrei hizkuntza-eskubideak aitortzen zaizkie, eta herri-erakundeetara betebeharrak ezartzen zaizkie herritarrei aitorturiko hizkuntza-eskubideak eguneroko bizitzan egiazki errespetatuak eta baliatuak izan daitezten; bestetik, progresibotasuna, ezinezkoa delako guztia goizetik gauera betetzea, are gutxiago Euskadiko errealitate soziolinguistikoa ez baita homogenea; eta, azkenik, normalizatorako legeria, zeina ez baita neutrala, ez da laissez-faire printzipioaren jarraitzaile, euskararen erabilera normalizatzea eta gizarte elebiduna eraikitzea ditu helburu”.

- b) Herritarren protagonismoa, aldakuntzen eragile edo erabaki demokratikoen onartzaile moduan, nabarmena izan da egiazki. Txostenak ongi dioenez “ezinezkoa zatekeen euskarak eman duen aurrerakada ematea, herritarren atxikimendurik izan ez balitz. (..) Euskal herritarrek, batzuek aktiboki eta beste batzuek pasiboki, baina guztiek jarrera positiboz, ahalbidetu dituzte euskararen geroa bermatzeko garatu izan diren egitura, diru-hornidura, plangintza eta sustapen-ekimen ugariak, oso neurri nabarmenean hezkuntzan”. Bistan da atxikimendu sozial horiek, gaine-rako guztiak bestela, ez direla vacuum sozio-politikoan eta instituzionalean gertatzen. Korrelazio-loturak eta, zenbaitetan, kausa-ondorio loturak ezartzea posible izan liteke herritarren eragile-onartzaile izaera nagusiaren eta bestelako prozedura politiko-instituzionalen artean. Lotura horiek posible izateak ez du, ordea, gertatu dena gertatu izana ezabatzen. Gertaera puntualak alde batera uzten badira inor gutxi behartu da mende-laurden honetan

hizkuntza-politikaren alorrean, eta inor behartu denean errazago behartu dira euskarazko zerbitzu-eskatzaileak erdarazkoak baino. Hemerrotekak hor daude, gai hori objektiboki errebisatu nahi duenarentzat.

- c) Herri-aginteen eta gizarte-ekimenezko eragileen edo hantemengo euskaltzale ugarien arteko uztardura ez da baxterre lan erraza izan (puntu hori isilpean uzten du txostenak, inor ez mintzeko asmoz agian), baina funtzionatu egin du hainbatean. Zuzen ari da horretan txostena: "aurrerakada hori gertatzea ezinezkoa izango litzateke (...) herri-erakundeen aitzindaritzza eta konpromisorik gabe. (...) Aurrerakada hori gertatu da, halaber, euskara sustatzeko lanetan diharduten gizarte-ekimeneko elkarte eta enpresen ahalegin bikainari esker, eta, jakina, hainbat eta hainbat euskaltzaleren lan jarraitu eta aberatsari esker. (...) Herri-aginteen eskutik eta gidaritzapean, gizarte-ekimeneko eragile ugarien bultzadaz, euskal gizarteak inoiz ez bezalako indarrak jarri ditu urteotan euskara biziberritzeko lanetan". Egunen batean, behar den zehaztasunez eta ikuspegi globalaz, oraindainokoan baino sakonago landu beharko da gai hori: bere emaitzak argigarri izan litezke, gure arteko hainbat eten-urradura eta gaitzerizko hobeto ulertzeko.

II.2.– Desadostasun-puntuak. Azterbide konparati-boaren ahuldadeak

Beste zenbait baieztapenekin, aldiz, ez nago konforme. Zertan oinarritzen dira txostengileak, euskararen oraingo egoera ordukoa baino hobea dela esateko? Zergatik diote osasun-egoerak hobera egin duela? Ondoko sei motibo hauengatik, besteak beste:

- a) "Urteotan izan dugun aurrerapauso sendo eta garrantzitsuenetakoa familia transmisioari dagokiona da. EAEn dagoeneko eten da belaunez belauneko familia transmisioan gertatzen zen etendura

- b) "Milaka hiztun berri irabazi ditu euskarak 25 urteotan. Duela 25 urte, adin zaharrekoen artean biltzen ziren gehienik euskal hiztunak, eta gutxienik gazte, gaztetxo eta haurren artean. Gaur, hori justu alderantziz gertatzen da, euskararen mesedean gertatu ere".
- c) "Guraso gehienen gogoia da euren seme-alabek derrigorezko hezkuntzako ikasketak euskaraz egitea, eta gogo hori bete dezakete eta asebetetzen dute. Euskara ikasi nahi duten helduek, berriz, eskura daukate euskara ikasteko aukera".
- d) "Lehen ez bezala "egunkaria eta aldizkariak irakur ditzakegu euskaraz, telebistak eta irratiak ikus eta entzun ditzakegu euskaraz".
- e) "Gora egin du itzulpengintzak eta kultura ekoizpenak, oro har (..)Euskal literaturak, esate baterako, inoiz izan ez duen maila lortu du".
- f) "Poetak aipatu zuen harako euskara noranahiko hura biziberritu egin da urteotan, eta are noranahikoago izatera iritsi da, ezbairik gabe".

Aski kontsiderazio diferenteak dira goiko sei horiek, edukiz eta izaeraz. Diferenteak, orobat, garrantziaz edo eragin-indarrez. Diferenteak, azkenik, benetako balio-indarrez. Baieztapen bat benetakoa izan liteke, baina eragin-indar ahulekoa. Beste bat garrantzi handikoa izan liteke, eragin-indar handikoa, baina egiazkoa den ala ez frogatu gabe (dokumentu-oinarri sendorik gabe) egon eta, hortaz, balio-indar ahulekoa izan. Zaila da, horregatik guztiagatik, goiko sei baieztapen horiei baiezko edo ezezko biribilik ematea. Horretan saiatzea eskatzen zaigu, ordea, ohargileoi. Gatozen beraz harira.

Urruti samar hegaldatu beharko badugu ere, has gaitezen formulazio teorikoetatik. Zein parametro dira nagusi teoria soziolinguistikoa, hizkuntza batek osasunez hobera egin duela, bere horretan dirauela edo okertzen ari dela esateko? Ez dago modelo teorikorik,

espezialista guztiek erabateko adostasunez onarturik eta galdera horri aurrez aurre erantzuteko balio osoa duenik. Mundu zabalean hizkuntzen (batez ere ahuldutako hizkuntzen) gizarte-dimentsioa lantzen duen komunitate zientifikoaren konstrukzio teorikoetan ez dut halakorik ezagutzen. Are gutxiago dago halakorik gure artean, gizarte-interes kontrajarrien uretan igeri egin behar izaten duen zurrubilo bihurri honetan: gutako batzuentzat aurrerapen argia dena balio apaleko bilakaera da beste zenbaitentzat. Kontuz ibili behar dugu, hortaz, edonork onar dezakeen ondorio eztabaidaezinen jabe garela uste izatearekin: iritzi-emaileok ez gaude arrisku horretatik txostengileak baino libreago.

Edozein argudiok ere ez du ordea indar bera, mundu zabaleko espezialistentzat. Ahuldutako hizkuntzen gizarte-dimentsioa lantzerakoan dena ez da, teoria hutsean ere, enfasi edo iritzi-kontu. Badira gutxienezko parametroak, gurea bezalako hiztun-elkarte elebidunen osasun-aztertzaile informatuek beti ere oso kontuan hartu ohi dituztenak. Eztabaida-lana esparru akademikoan zentratzeko orduan badira elementuak, komunitate zientifikoak baliagarri eta beharrezko kontsideratzen dituenak oro har: hiztun-elkarte elebidun horrek zenbat hiztun duen, hiztun horiek zer adinetakoak diren eta zein neurritan aurrez aurreko interakzio sendoan bizi diren, interakzio hori zein hizkuntzatan mamitzen duten jardun-esparru eta harreman-sare jakinetan (bere A hizkuntza propioan edo kontestualki nagusi den B hizkuntzan), hiztun-talde horien autorregulazio soziokulturalerako ahalmena eta jarduna eta beraien talde-nortasuna zaindu ahal izateko eskueran duten oinarri instituzionala. Aparteko garrantzia aitortu ohi zaio normalean, osasun-analisi horietan, hizkuntza bien konpartimentazio moldeari⁶: hiztun-elkartearen espazio fisiko-territorialean

6 Are zorrotzago hartu ohi da hainbatetan kontua. A eta B hizkuntzen artean konpartimentaziorik badagoen ala ez eta, egotekotan, zenbateko zurruntasuna ageri duen: hori ere berariazko aztergai izaten da sarri, gurea bezalako hiztun-herrien osasun-neurketa objektiboenetan.

eta sozio-funtzionalean mintzajardun osoaren⁷ zein zati bideratzen den erabat edo nagusiki A hizkuntzan, eta zein zati erabat edo nagusiki B-n. Gauza bat dago argi, nolana ere, mundu zabaleko aditu gehienek azalpenetan: hizkuntzaren **erabilerak** definitzen du lehenik eta behin, ez **ezagutzak** edo **iritzi-jarreerek**, hiztun-elkarte elebidunen osasun-egoera. Funtsezkoak dira beste parametro horiek ere. Alborra ezinak, inolako dudarik gabe. Baina erabileran dago, funtsaren funtsean, osasunaren korapiloa. Korapilo hori askatu gabe ez dago aurrera egiterik. Horri erreparatu behar zaio beraz ezinbestean, gainerako faktoreak alboratu gabe, hiztun-elkarte batek osasunez aurrera edo atzera egin duen epaitzeko orduan.

Teoria soziolinguistikoa bere horretan utz dezagun une batez, eta gatozen gure egoeraren analisi praktikora. Zentra gaitezen euskara-erdaren erabilera-moldeetan gertatzen ari diren aldakuntzetan. Lehen baino jende gehiagok egiten al du orain euskaraz? Lehen baino gehiago egiten al da euskaraz, bereziki, etxean eta kalean, lanean eta astialdian? Zaharrek egiten al dute euskaraz, batez ere, edota berdintsu mintzo dira guztiak, zahar eta gazte? Mintzajardun arruntaren belaunez belauneko katea eten egin al da, edota bizirik al dirau eta, are, indarberriturik ageri al da gazteen artean? Gatozen ahozkotik idatzizkora: lehen baino gehiago irakurtzen al da orain euskaraz? Nork irakurtzen du, eta zer? Lehen baino gehiago idazten al da? Formazio akademikoak, status sozio-ekonomikoak eta jarduera profesionalez non koka litezke nagusiki euskaldun aktiboak? Galdera horiek, eta horien antzekoak, ezinbestekoak ditugu euskararen erabilerak aurrera egin duen ala ez jakiteko: hots, euskarak non (noren artean) aurrera egin duen, eta non atzera, identifikatzeko. Erantzun horiek ditugu, bakarrak izan gabe ere, osasun-egoeraren oinarrizko iragarleak. Gero, jakina, funtsezko beste dimentsioei ere atentzio handiz erreparatu beharko zaie: lehen baino hiztun gar-

7 Sensu lato darabilt, hemen, mintzajardunaren kontzeptua: hitzezkoa eta idatzizkoa (irakurketa barne) biak hartzen ditu kontuan.

biagoak eta hitz-etorri handiagokoak al dira oraingo euskaldunak? Irakurle eta idazle trebeagoak al dira euskaraz? Lehen baino euskaltzaleago al da jendea, oro har, egungo egunean? Funtsekoak dira puntu horiek ere, “euskaldun” edo “euskal hiztun” etiketaren pean oso konstelazio psikolinguistiko diferenteko errealitateak egon baitaitezke jasoak.

Beste mila gauzarekin ere jardun dezakegu osasun kontuak astintzen, probetxu handiko ondorioak atereaz hainbatean. Puntu horiek argitu gabe ez dut uste, ordea, euskararen osasunari buruzko atzera-aurrerak behar bezala epaitzerik dagoenik. Saia gaitezen hortaz, goiko elementuok gogoan ditugula, txostengileek euskararen osasun-hobetzea azaltzeko eskaini dituzten sei motiboak gaingiroki aztertzen eta zertxobait komentatzen.

II.2.1.– “URTEOTAN IZAN DUGUN AURRERAPAUSO SENDO ETA GARRANTZITSUENETAKOA FAMILIA TRANSMISIOARI DAGOKIONA DA. EAEN DAGOENEKO ETEN DA BELAUNEZ BELAUNEKO FAMILIA TRANSMISIOAN GERTATZEN ZEN ETENDURA”

Funtsezko puntua da hau. Hiltzeko arriskuan dagoen hizkuntza batek belaunez belauneko transmisioa segurtatu behar du, lehenik eta behin. Etxean eta familian oinarritzen da transmisio hori lehen-lehenik, auzoa eta kale-bizitza hurbila bide-lagun dituela eta eskola, une batetik aurrera, osagarri sendo. Zuzen jokatu du txostenak, hortaz, familia-giroko transmisioa oso kontuan hartzerakoan. Asmatu al du etxe-giroko mintzajardunak izandako eboluzioa zehazterakoan? Ez nago seguru. Etxeko eta familiako hizkuntza-transmisioaz txostenean esaten denak badu parte bat egiazkoa, erraz konproba litekeena eta garrantzi handia duena. Bere osoan hartuta zalantzazkoa da, ordea, goiko baieztapen hori. Nahiago nuke gauzak horrela (baieztapen horrek dioen bezala) balira, baina bere osoan hartuta ez dut uste horrela direnik. Eskueran ditugun datuen eta egunero bizi dugun esperientziaren argitan nekez egin dezakegu hain baieztapen biribilik: “urteotan, Euskadiko Autonomia Erkidegoan euska-

raren bilakaera prozesuan izan dugun aurrerapauso sendo eta garrantzitsuenetakoa familia transmisioari dagokiona da. Urteak eman ditugu belaunez belauneko euskararen familia transmisioa bermatu gabe, galerak galeraren ondoan. Nafarroan oraindik ere ez dago bermatua, eta Iparraldean etengabea da galera. **EAEn dagoeneko eten da belaunez belauneko familia transmisioan gertatzen zen etendura**". Zertan oinarritzen gara hori esateko? Non daude datuak, belaunez belauneko odol-galtze linguistikoari etxe-giroan fretoa jarri zaiola bermatzen dutenak? Nire datuek, bere ahul-mugatuan ere, ez diote halakorik. Ez naiz bakarra, gainera, horretan. Ez al dio *Oinarrizko Txostenak* berak, handik gutxira, honako beste hau: "Guraso euskaldunek bere egin dute (..) euskara ondorengoei transmititzearen ardura. Horrek ere, ordea, badu bere ifrentzua. Umeei euskara etxean lehen urteetan irakatsi arren, eskolan euskara irakatsi arren, **askok eta askok gero etxean ohikotasunez erabiltzen duten hizkuntza gaztelania da.**" Zer transmisio familiarrez ari gara hortaz hizketan, etxean ohikotasunez erabiltzen den hizkuntza gaztelania baldin bada?

Belaunez belauneko hizkuntza-transmisio arrunta, menderik mende han-hemen ezagutu izan dena, osabetezkoa da: transmisio betea, etxeko eta kaleko, lagunarteko eta lan-munduko mintzajardun bizi arruntaren beharrak asetzeko balio duena; beste hizkuntza baten makulurik gabe jarduteko behar adina soporte kontzeptual, emotibo eta operatibo eskaintzen duena; haserretzeko eta txisteak kontatzeko, amari lausenguz hau-hori eskatzeko eta semeari harako hura zorrotz agintzeko, amets egiteko eta bihotzeko lagunari maiteminezko hitzak jaulkitzeko beregaintasun zabala eskaintzen duen hizkuntza-transmisioa. Transmisio betea, gizaki gehienon jardun-esparru eta harreman-sare arruntetan eta eguneroko esparru barrenkoi-intimoenetan lasai eta naharo jarduteko aukera eskaini ohi duena. Frenatu al da, benetan, belaunez belauneko familia-transmisioan gertatzen ari zen mintzagaitasun betearen eten hori? Transmisio betea eskaintzen al dute egungo familia euskaldunek, guztiek edo gehienek?

Erantzuna begien bistan dugu: ez. Eskueran ditugun datuen argitan ezin esan liteke, mintzagaitasun betearen transmisio-galera eten egin denik. Transmisio modu bat segurtaturik ageri da oro har, familia euskaldunetan. Egia da datu demolinguistikoek transmisio-maila altua iradokitzen dutela halako familietan. Datu horiek ez dira ordea aski, beren hutsean, etxeko mintzajardunean galerarik gertatzen ari den ala ez zehazteko. Transmisioaren huts-betea ezin da, hemen eta orain, soil-soilik kontsiderazio demolinguistikoen argitan erabaki: zentsuaren eta inkesten arabera guraso euskaldunez osaturiko zenbat etxetan euskaraz egiten den jakitea ez da horretarako aski. Euskaraz egiten omen den etxe horietan *zenbat* hitz egiten den hizkuntza horretan, norekin egiten den, zertaz eta zertarako, funtsezko galderak dira orobat. Erantzun arteza eskatzen dute galdera horiek, etxe-giroko mintzajardunaren belaunez belaunezko galerari alto eman zaion ala ez erabaki ahal izateko. Zenbatekoaz gainera nork norekin, zertaz eta zertarako egiten duen jakin behar da. Osotasun horrek markatzen du etxeko hizkuntza. Osotasun horren azken balantzeak, ez bost urtean behingo inkestan edo zentsu-galdetegian ematen den erantzun tipifikatuak, definitzen du etxeko transmisioaren huts-betea.

Gai garrantzitsua darabil txostenak puntu horretan: ahuldutako hizkuntzen osasun-egoera neurtzeko adituek eskueran izan ohi duten neurgailurik garrantzitsuenetako bat. Kontuak ez dira behar bezain zuzen atera ordea⁸. Transmisio partziala dugu, ez betea,

8 Haurrak txikiak diren artean "Ander, hartu berokia", "zer nahi duzu, bihotza?", "kontuz ibili jolastokian, Ane" eta antzekoak maiz esatea, seme-alabak B edo D ereduko eskolara bidaltzea eta familia osoarekin bidaia luze samarra egin behar dugunean autoan euskal pailazoen musika jartzea gauza bat da. Besterik da aldiz aste-egun buruzurrian eta aste-bukaera osoan, jatorduan eta goiz-arratsetan, oheratzerakoan eta telebista aurrean, lagunekiko jardun arruntean, periodikoak dakarren notizia komentatzerakoan eta lantokiko azken txistea kontatzean, igogailuan gindoazela bosgarrenekoak argiaren garestitzeaz esandakoa aipatzean, Anderri motozikletarik oraingoz ez diogula erosiko eta Aneri berandu-beranduenik goizeko ordubi t'erdietarako etxean izan behar duela jakinaraztean,... horretan guztian etxeko hizkuntza nagusia euskara izatea. Oso bestelako kontua da hori. Oso bestelakoa eta

egungo familia euskaldun askotan nagusi. Hori da egia, txostenak beste puntu batean aski era objektiboan jasorik duena. Hori horrela izanik, alferrik da familiako odol-galtze linguistikoari freno jarri zaiola ondorioztatzea. Datu demolinguistiko kuantitatiboetan fidaturik errazegi gaindituztat eman dugu gehienok, ez txosten honek bakarrik, belaunez belauneko hizkuntza-jarraipenaren hil ala biziko arriskua. Sinpleegi planteatu ditugu kontuak, etxe barneko harreman-sareen konplexutasuna, seme-alaben mintzajardunaren izaera dinamikoa eta bertako harreman-sareen *high-multiplexity* izaera⁹ alde batera utziz. Errepaso on bat behar du, horregatik, *Oinarrizko Txostenaren* argudio-bideak: egiari zintzoki kasu egin nahi bazaio, ezin dugu funtsezko puntu horretan deskuidorik izan. Besterik nahiago bage-nu ere askok, ezin hain borobil esan dezakegu EAEn dagoeneko eten egin denik belaunez belauneko familia-transmisioan gertatzen ari zen etendura. Odol-galtzeak aurrera dirau, hainbatean: hala dio euskaldun askoren eguneroko esperientzia pertsonalak; halatsu dio beste zenbait jakin-iturrik ere¹⁰.

II.2.2.– “MILAKA HIZTUN BERRI IRABAZI DITU EUSKARAK 25 URTEOTAN”

Egia da hori. Egia handia eta euskaltzaleontzat pozgarria, gutako hainbatek errazegi ahanzten badu ere. Europako hiztun-herri txiki gehienen ondoan bilakaera positiboa izan du EAeko euskal hiztun-elkarteak. Lehen baino hiztun gehiagok daki orain euskaraz, eta hiztun horien zenbait ezaugarrik (adinak, adibidez) aldeko bilakaera

oso garrantzitsua, seme-alabak koskortuz doazen heinean bereziki. Lapiko horretan egosten da etxeko hizkuntza, ez bost edo hamar urtean behin zentsoko papera betetzerakoan ematen den erantzun hotz eta sinplifikatua. Demolinguistikazko azalpen estatistikoak eta azterlanak ez da gutxiestea komeni, zenbaitek errazegi egin ohi duenez: balio handia dute, beren esparruan eta beren neurrian. Baina egiaren zatitxo bat erakusten dute datu horiek, ez egia osoa.

9 Ikus, esate baterako, A. L. Milroy-ren “Social Networks”.

10 Ikus esate baterako, laster argitaratzekoa den nire *Euskararen Legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa*.

izan du perspektiba soziolinguistikotik. Txostenak berak argi dioenez “duela 25 urte, adin zaharrekoen artean biltzen ziren gehienik euskal hiztunak, eta gutxienik gazte, gaztetxo eta haurren artean. Gaur, hori justu alderantziz gertatzen da, euskararen mesedean gertatu ere”. Aurreko puntuak belaunez belauneko transmisioa zuen jomuga, oraingo honek berriz euskaldun-jendearen zabalkunde demografikoa: Lehen baino gehiago gara, gertaera bi horien laguntzaz, egungo egunean euskaraz egin dezakegunak.

Betikora goaz ordea: euskaraz egiteko gai izatea gauza bat da; euskaraz ondo eta erraz egiteko gai izatea, aldiz, bestea; eta benetan euskaraz egitea, azkenik, oso bestea. Bistan da kausa-efektu moduko bat ezar daitekeela, hipotesi moduan, lehen gertakariaren eta azkenaren artean. Euskaraz ez dakienarekin oso zaila da euskaraz egitea. Alboan duzunak euskaraz ikasi badu edo umetatik euskaraz baldin badaki, errazago (estatistikoki probableago) da lehenago edo beranduago euskaraz egitea. Egiaren erdia erakusten du ordea hipotesi horrek. A hiztunak eta B solaskideak euskaraz egingo badute beharrezko baldintza da A eta B euskaldun izatea, baina ez da aski. Beste faktore asko gertatu behar dute tartean, aldeko konbinazioa eratuz. Tarteko faktoreok garrantzi handikoak dira, euskaraz egin ahal izateko aurrebaldintza hura euskarazko mintzajardun bizi bilaka dadin. Hitzunen hizkuntza-gaitasun egokia da, txostenak berak beste nonbait argi azaltzen duenez, tarteko faktore horietariko bat. Euskaraz ezinean ari denarekin errazago egiten dugu gehienok, bai solaskidearen amorez eta bai geure garun-belarrien neke-aringarri, euskaraz bezain ongi dakigun erdaraz. Ez da hori ordea, urrundik ere, euskaraz jakitetik euskaraz egitera dagoen langa bakarra. Luzeegi ez jardutearren diogun txostenak arrazoiz apuntatzen duen aurrebaldintza horri albo-baldintza askotxo erantsi behar zaiola praktikan.

Labur bilduz: egia al da “milaka hiztun berri irabazi ditu(ela) euskarak 25 urteotan”? Bai, egia dio txostenak baldin eta *hiztun* hitzarekin “euskaraz dakiena” esan nahi badugu. Ez dago horren pareko baieztapenik egiterik, aldiz, *hiztun* hitzarekin “euskaraz egiten

duena” esan nahi bada. Euskaraz egiten dutenak etxean, kalean, lanean eta astialdian ez dira neurri berean ugaritu. Ez neurri berean eta ez, zenbait esparrutan, inola. Gogoan izan dezagun azkenik, berriro ere, erabilerak adierazten duela beste ezerk baino artezago hizkuntzaren osasunak hobera egin duen ala ez.

II.2.3.– “GURASO GEHIENEN GOGOIA DA EUREN SEME-ALABEK DERRIGORREZKO HEZKUNTZAKO IKASKETAK EUSKARAZ EGITEA, ETA GOGO HORI BETE DEZAKETE ETA ASEBETETZEN DUTE. EUSKARA IKASI NAHI DUTEN HELDUEK, BERRIZ, ESKURA DAUKATE EUSKARA IKASTEKO AUKERA”

Sendoagoa da, dudarik gabe, txostenak puntu horretan hezkuntza kontuaz dioena. Bere lekua irabazi du euskarak, eguneroko jardunean, hezkuntza-munduan. Hanka-sartze ugari eta baldintzapen askorekin bada ere, hori da euskarak mende-laurden honetan egin duen aurrerakadaren frogantzarik argiena: euskaraz ikasi eta irakatsi egiten da gaur, EAEn eta Nafarroa zaharrean¹¹. Hor dago diferentzia: batean (irradi-telebistetan, administrazioan,..) **egin liteke** gutxi-asko; bestean (hezkuntzan) **egin egiten da**. Mila iruzkin eta mila matiz-ñabardura erants diezazkiokegu gai horri, baina ez dago dudarik: erabileraren aldetik aurrera egin da esparru horretan¹². Hori da mende-laurden honetako aldaketa sakona, zenbait aldetatik *iraultza* ere esan litekeena: lehen erdara jaun eta jabe zen esparruan aurrera egin du euskarak, eta erdarari nagusitzen ari zaio ikasle-kopuruz, irakasleen jardun-orduez eta eskola barruko bizitza arautuari dagokion heinean. Zuzen dabil horretan txostena¹³.

11 Baita, ondotoz maila apalagoan izan arren, ipar Euskal herrian ere.

12 Iruzkin eta matiz-ñabardura horien berri jakin nahi duenak laster izango du eskuera, Euskararen Erabilera Normaltzeko legearen mende-laurdena dela-eta prestatua dudana txosten monografikoa. Euskaltzaindiak berandu gabe argitara ematekoa du.

13 Zenbaitek errazegi estrapolatu ohi ditu datu horiek, eta hurrengo belaunaldia heldu-arora iristean euskararen osasunak eskolaren eragin hori dela medio gorakada nabarmena izango dela ondorioztatzen du.

Zuzen dabil baina, aldi berean, aurrerapauso horren benetako neurria ez da begien bistatik galdu behar. Haur batek edo gazte batek, D ereduko eskolan dabilen urteetan, iratzarririk dagoen orduen %14 inguru egiten du euskarazko ingurumen formalean¹⁴. Ordu horietan ere irakaslearen azalpenak entzuten edo testu-liburutik irakurtzen pasatzen du denbora gehiena, ez bere kasa idazten eta ez, batez ere, hitz egiten. Are gutxiago, eta funtsezkoa da hori, eguneko mintzaira lasai informalean jarduten du halakoetan bere ikaskideekin. Eskolak bere hutsez eskain dezakeena mugatua da hortaz: mugatua kopuruz eta mugatua, batez ere, kalitatez, ikasleen euskara-mailaz. Mintzagaitasun apala eta hizkuntzaren erabilera jorria ez dira, berez, erabateko etsai. Dakigun ingeles apurrarekin moldatu behar izaten dugu parra-parra, hitzez eta idatziz, ingurumen-baldintzek hala exijitzeen dutenean. Ingurumen-baldintzek halako beharkizunik ezartzen ez digutenean, aldiz, errazenerako isuria gailendu ohi zaigu nabarmenki: euskaraz edo gaztelaniaz egiten dugu gehienok, ez ingelesez.

Argia eta zuzena da, horretan, txostena. Ongi dioenez mintzagaitasun apalak, gure arteko erdal-elebidun gero eta ugariagoen artean hain ezaguna den euskarazko mintzagaitasun partzialak, oso ondorio nabarmena du harreman-sare informal gehienaren zerr-nolakoan. Mintzaira molde informalean aje-gabezia nabarmenak dituzte eskola-ume eta gazte askok: baita etxetik euskalduntzat hartu ohi diren neska-mutil askok ere. Puntu kritikoa da hizkera-molde informalaren alorreko gabezia hori. Ikaskideari txistea graziaz konstatzen jakiteko edota irakaslearen azken pasadizoaz irribarre jolas-tiaz txutxu-mutxuka jarduteko euskaldun trebeagoa izan behar da, hainbatean, oxigenoaren propietateak euskaraz azaltzeko edo Axularrek zer liburu idatzi zuen esateko baino. Funtsezkoa da txostenak hiztun askoren hitz-etorrian ageri den naturaltasun faltaz dioena,

14 B eredukoek %14 inguru, eta A-koek % 3 inguru. Horretaz guztiaz informazio gehiago nahi duenak ikus beza Zalbide 1991.

Egin duen baino gehiago horretan sakondu izanak ere ez ziokeen txostenari, seguruenik, kalterik egingo. Are gutxiago hitz-etorri horren gainbehera eguneroko harreman-sare arrunten, barrenkoi-intimoen galerarekin lotzen asmatuko balu. Gaitzaren muinetik oso hurbil genbiltzake guztiok, halakorik azaltzean. Muga-eragozpen horiek guztiak eta gehiago egia izanik ere, zuzen dabil txostena eskola munduan egin den aurrerapena, eta gurasoen borondateak (aktibo-eragileak edo onarpenezkoak) horretan izan duen garrantzia azpimarratzean.

II.2.4.– “EGUNKARIA ETA ALDIZKARIAK IRAKUR DITZAKEGU EUSKARAZ, TELEBISTAK ETA IRRATIAK IKUS ETA ENTZUN DITZAKEGU EUSKARAZ”.

Ez dago dudarik lehen baino aukera hobeak ditugula egungo egunean, euskarazko komunikabideez baliatzeko. Ikuspegi horretatik zuzen dio txostenak: “egunkaria eta aldizkariak irakur **ditzakegu** euskaraz, telebistak eta irratiak ikus eta entzun **ditzakegu** euskaraz”. Bai, egia da hori. Galdera bestea da ordea: egunkaria eta aldizkariak irakurtzen al **ditugu** euskaraz, telebistak eta irratiak ikusten eta entzuten al **ditugu** euskaraz? Zenbatek ikusten, entzuten eta irakurtzen ditugu? Txostenaren **ditzakegu** horiek ahulak dira, zenbaitetan alferrikakoak, benetako **dituguren** galbahetik pasa artean. Lastima da nahasketa kontzeptual hori, txostenak berak argi aitortua baitauka beste nonbait erabileraren giltzarri-izaera: “badakigu (...) erabilera dela hizkuntzaren balioaren benetako neurgailua”. Teorian argi onartzen dena¹⁵ lastima da aplikazio-une konkretura iristean alde batera utzi izana eta benetan argitu beharrekoa argudio-oinarri

15 “egia izanik lehen baino gehiago egiten dela euskaraz eta milaka euskal hiztun irabazi ditugula, galdetu beharko genioke geure buruari lehen baino askoz gehiago egiten ote duten euskaraz euskal hiztunek beren artean”. “Lagunarteko giroan, familian, harreman-sare ez formaletan, kaleko bizitza sozialean edo lantokiko jarduera arruntean, lehen baino askoz gehiago egiten ote dugu euskaraz?”

sendorik gabe argituztat ematea. Egia diote txostengileek, lehen egin ezin zena orain egin litekeela diotenean. Baina balio-indar ahuleko egia da hori, ordea. Lehen egiten ez zena egiten al da orain? Hori da galdera, erantzun orekatuaren zain dagoena. Kultura alorreko informeek zer diote horretaz? Ez ote da egia ezer gutxi aurreratu dela alor horretan?

II.2.5.– “GORA EGIN DU ITZULPENGINTZAK ETA KULTURA EKOIZPENAK, ORO HAR. POETAK AIPATU ZUEN HARAKO EUSKARA NORANAHIKO HURA BIZIBERRITU EGIN DA URTEOTAN, ETA ARE NORANAHIKOAGO IZATERA IRITSI DA, EZBAIRIK GABE. EUSKAL LITERATURAK, ESATE BATERAKO, INOIZ IZAN EZ DUEN MAILA LORTU DU”

Aurreko puntuan esandakotik ez dabil hain urrun, partez, puntu honetan ageri dena. Egia da lehen baino askoz itzulpen gehiago (erdatik euskarara batez ere) egiten dela orain. Zuzen dabil, orobat, kultura-ekoizpena (euskarazko literatura bereziki, ez hainbeste musika edo antzerkia) hazi egin dela esatean. Zer ondorio dute hazkunde bi horiek, ordea, euskararen osasun-hobekuntzan? Goazen atalez atal: has gaitezen itzulpen kontuarekin.

- a) *“Gora egin du itzulpengintzak”*. Lan delikatua da itzulpena: ondo egingo bada espezializazio-maila altua eta lan-baldintza egokiak eskatzen dituena. Dударik ez dago itzulpen-teknikak garapen handia izan duela gure artean, azken berrogei urtean. Itzultzaile handiak eta jantziak ditugu gaur egun, ez dago dudarik: itzultzaile handiak, jantziak eta trebeak. Erdatik euskararako itzulpen zenbaitek aparteko profesionaltasuna ageri du; maisu-lan argirik ez da falta tartean. Bada horren erakuskari ederrik hainbat literatura– eta filosofia-obratan. Baita unibertsitate alorreko liburuetan edo ikus-entzunezko prestaera erakargarrietan ere. Baina ez ginen horretaz ari, euskararen osasunaz baizik: euskarak lehen baino osasun hobea duela frogatu

nahirik, itzulpengintzak gora egin duela esaten digu txostenak. Ba al dago ordea kausa-ondorio argirik, bataren eta bestearen artean? Estatu Batuetan eta Ingalaterran inon baino itzulpen gehiago egiten al da ingelesera, literaturan zein teknologia alorrean, eta horregatik al dago ingelesa hain osasun onean, puntaren puntan? Espainiako administrazio zentralean EAEn baino itzulpen gehiago egiten al da (gaztelaniara), eta horregatik al dago gaztelania, administrazio alorrean eta gainerakoan, euskara baino osasun hobean? Bistan dago ezetz, batean zein bestean: ingelesa hain osasun onean baldin badago mundu zaballean, eta gaztelania Espainian zein Hispanoamerikan, ez da justu-justu ingelesera edo gaztelaniara itzulpen asko egiten delako. Kausa-efektuzko lotura horiek sinpleegiak dira oro har, askotan ahulegiak eta zenbaitetan kontraesan hutsezkoak. Ez dago dudarik itzulpengintzak gure artean gora egin duela kopuruz eta, horri eskerrak, lehen euskaraz irakurri edo ikusi ezin zen hainbat txosten, aldizkari ofizial, jakintza-gai, irakurgai, ikasliburu, leku-izen eta film euskaraz jaso dezakegula orain. Euskararen osasunean itzulpen horiek izan duten (are: izan dezaket) inpaktua aztertzeke dago ordea¹⁶. Goiko esaldi hori baino gogoeta xeheagoa eskatzen du itzulpengintzak, euskara indarberritzeko langintzan izan duen lekua eta balio-indarra gano-raz zehaztu ahal izateko.

16 Arrazoizkoa dirudi esatea, lehen hurbilketa moduan, euskal itzulpengintza hori euskarak esparru formal-ofizialean eta, oro har, plano idatzian egin duen aurrerapen baten seinale, eragile edo oihartzun dela eta aurrerapen horrek, neurri batean edo bestean, euskarak plano sinbolikoan irabazitako aitormen soziala islatzen duela. Zail da, aldiz, hortik aurrerako baieztapen sendorik egitea. Landu-arin dago, bereziki, itzulpen-lanen benetako kontsumoaren azterketa soziolinguistikorik: zer neurritan kontsumitzen dira, esate baterako, EHHAKo eta gainerako aldizkari ofizialeko euskal itzulpenak? Zer neurritan erabiltzen dira oinarri gisa Administrazioako langileen eta agintarien artean?

b) “Euskal literaturak inoiz izan ez duen maila lortu du”.

Gatozen kultura-ekoizpenera. Demagun, eta ez da gutxi ematea, egia dela goiko baieztapen hori: demagun gora egin duela euskal literaturak, kopuruz eta kalitatez, eta goraldi horri eskerrak inoiz ez bezalako erpina jo duela. Garbi al dago ordea, alor honetan ere, literaturak inoiz ez bezalako maila lortu izanaren eta euskarak lehen baino osasun hobea izatearen kausa-efektuzko lotura? Zertan oinarritzen gara lotura hori, besterik gabe, egiazkotzat emateko? Inportantea da, jakina, kultura-ekoizpenaren kontua: William F. Mackey batek, esate baterako, kultura-ekoizpenarekin lotu zuen (besteak beste) hizkuntza baten erakarmena (eta, horrenbestez, bere bizi-kemena) 1976ko bere eredu famatuan¹⁷. Ez ekoizpen-zifra absolutuekin harelere, zifra erlatiboekin baizik. Hala egin beharko genuke guk ere, hortaz: zenbat eleberri sortzen da euskaraz, eta zenbat gaztelaniaz, frantsesez edo ingelesez? Zenbat orain, hizkuntza bakoitzean, eta zenbat lehen? Baliteke arrazoi izatea txostenak, kontuak horrela ikusita: aztertu egin beharko litzateke ordea, epaia eman aurretik.

Kalitatez ere euskal literaturak gora egin dugula asumituz, gatozen hurrengo puntura: zer pisu dute kalitatezko literatura-lanek ahuldutako hizkuntza indarberritzeko orduan? Erantzuna, teoria soziolinguistiko landuenaren argitan, badakigu zein den: literatura onaren berezko ahalmena, ahuldutako hizkuntza indarberritzeko, ez da oso handia. Ez, inola ere, Finlandiako Rosenröt-ek Kalevala idatzituzuen edo Okzitaniako Mistral-ek Mireio argitara zuenean uste zen bezalakoa. Ezta Orixeri *Euskaldunak* idazteko mandatu-gonbita egin zitzaionean, gutako askok, Mokoroa “Ibar” tarteko¹⁸, uste zuen adinakoa. Garai bateko itxaropen kontuak asko epeldu dira Heinz

¹⁷ Bilinguisme et contact des langues. Paris: Klincksieck.

¹⁸ Ikus 1936ko bere Genio y Lengua.

Kloss-en 1952ko hastapen-lanaz geroztik¹⁹. Azalpen soziolinguistikoei dagokienez inor gutxik onartuko luke gaur, bereziki, literatura-lanketa *Zweckprosa*-ren garapena baino garrantzitsuagoa denik hizkuntza-normalkuntzaren ikuspegitik²⁰. Are gehiago: teoria hutsaz gainera han-hemengo ebidentzia enpirikoa oso da gai horretan nabarmena. Nobel saridunik ere tartean duen *jiddish*-a gainbehera bizian doa Estatu Batuetako judu ilustratu literaturazaleen artean: ezer gutxitarako balio die judu horiei *jiddish*-ezko literaturgintzak etxea eta kalea, lagunartea eta ohiko harreman-sare arruntak gesalduz eta indargabetuz joan zaizkielarik eta ingeleserako *language shift* edo mintzaldaketa luze-zabal hedatu delarik beraien artean. Aldiz *jiddish* hizkuntzari New York-en eta bestetan bizirik, hainbatean bizirik²¹, eusten diotenak ultraortodoxoak dira batez ere: erlijio-esparruaz aparteko *jiddish*-ezko literatura-lanak (Nobel saridunak barne) irakurtzetik urrutien daudenak justu-justu. Beste plaza batean jokatzeko da nagusiki, literaturaren balioa hutsaren parekoa ez bada ere, ahuldutako hizkuntzaren indarberritzea: hiztun arruntaren etxean eta lagunartean, kale-bizitza hurbilean eta oro har, lan-munduak eta aisialdi antolatutako gero eta garrantzi handiagoa duelarik, harreman-sare ohikoenetan. Eguneroko mintzoa nabarmen ahultzen denean, helduen artean bakantzen eta gazteen artean galtzen, alferrik dira literaturazko Nobel sariak: bata ezin du bestea berdindu.

Jiddish-en kasua munduan bakarra (bakarretakoa) dela esan dezake norbaitek. Bakarra dela eta, beraz, kasu horretatik ezin dela ondorio jeneralik atera. Demagun, eta ez da gutxi ematea hori ere, arrazoi duela halakorik dioenean. Demagun literatura-lan garaiak hor gelditzen direla betiko eta, gaur ez bada bihar, belaunaldi berrien gozagarri eta, horrenbestez, hizkuntza horren balio-indargarri gertatuko direla. Zer belaunaldiz ari gara ordea orduan ere? Han-

19 Kloss, Heinz, 1952: *Die Entwicklung neuer germanischer Kultursprachen*. München, Pohl

20 Kontua sakonxeago aztertu nahi duenak ikus, esate baterako, Zalbide 2002

21 Ikus Joshua A. Fishman-en 2001eko *Can threatened languages be saved?*

-hemengo unibertsitateetan bihar edo etzi *jiddish* hizkuntzaz eta *jiddish* kulturaz *master*-en bat emango edo ikasiko duten espezialistez? Aldizkari espezializaturen batean beren artikulu jakintsuak elkarri azalduko dizkioten *jiddish*-adituez? Espezialista horiek gutxiegi dira kopuruz, eta harreman-sarek elkarrengandik urrunegi egon ohi dira, hiztun-elkarte trinko, bizi eta beregainik eratzeko.

Garrantzizkoa izanik ere goi-mailako literatura-ekoizpen hori, besterik da ahuldutako hizkuntza indarberritze aldera literatura horrek izan dezakeen garrantzia. Ekoizpena baino gehiago kontsumoa da, zinez eta benaz, kontuan izan behar dugun datua hizkuntzaren osasuna neurtzerakoan. Eguneroko mintzajardun arruntean behe-ra baldin badator hiztun-elkartea, gero eta gutxiagok egiten badu *jiddish*-ez etxean eta lagunartean, esango didazue zer goraldi espe-ro litekeen *jiddish*-ezko literatura-lanen kontsumo aldetik. Ingelesera itzulitako *jiddish*-ezko literatura-lan bikainak kontsumituko dira gero ere, gutxi asko. Kontsumo horrek ingelesa indartuko du ordea batez ere, ez *jiddish*-a. Ez al da halakorik gertatzen hasi, dagoeneko, euskarazko literatura-lan hoberenekin ere? *Hizkuntza-prestigioaren* hasierako kontzeptua, Uriel Weinreich-ek 1953an definitu zuen moduan²², aspaldixodanik kuestionaturik dago. Ikus, esate baterako, Fishman 1982.

II.2.6.– “POETAK AIPATU ZUEN HARAKO EUSKARA NORANAHIKO HURA BIZIBERRITU EGIN DA URTEOTAN, ETA ARE NORANAHIKOAGO IZATERA IRITSI DA, EZBAIRIK GABE

Aurreko puntuak delikatuak dira berez, eta eztabaida askotxoren iturburu gerta litezke. Oraingo puntu honetan, aldiz, guztion edo gehienon iritziak bat etorri ohi dira sarri: etxe-zulorako eta meza nagusirako, taberna-zokoan bertsotan zirika jarduteko eta ganadua gobernatzeko balio zuen hizkuntza larrekua noranahiko bihurtu dugu. Berdin balio du orain, lehengo L funtzio horietan jarduteaz gainera,

²² Ikus bere *Languages in Contact*.

Elhuyar aldizkarian fisika kuantikoaz idazteko edo Kutzaren Gari-bai kaleko egoitza nagusian goi-mailako finantza-exekutiboei urteko balantzea euskaraz (hots: ele bietan) agertzeko. Horra Lizardi handiaren ametsa, azkenik, egia bihurturik. Ez osorik, jakina, erdararen makuluz eusten baitio bere buruari H esparru gehienetan zutik, baina bai sinbolikoki eta, horrenbestez, egiazki posible dela aditzera emateko heinean. H funtzioetan euskaraz gehiago egiten ez bada ez da “hizkuntzak berez hartarako balio ez duelako, orain arte hartarako aukerarik izan ez delako eta esparru horretaz urratsez urrats jabetzen ari garelako” baizik. Ikusmolde horretara bildu da Oinarrizko Txostena ere: “*euskara noranahiko hura biziberritu egin da urteotan, eta are noranahikoago izatera iritsi da*”.

Horrela al dira kontuak, benetan? Bai eta ez. Egia da, alde batetik, txostenak dioena: lehen ez bezala doktore-tesiak egite eta aurkezten dira orain euskaraz, unibertsitate mailako ikerlanik ere egiten da hizkuntza horretan, Ajuria Enetik euskara ederrean egiten ditu Jaurlearitzaren bozemaileak bere agerraldiak, telebistan eta irrati-tietan bada esatari handirik, garai bateko sermoi entzutetsuen pareko edo hortik gorako azalpen landuak euskara batu noranahikoan eskaintzen dituenik. Aurrera egin da, dudarik gabe, jardun-esparru eta harreman-sare horretan eta beste hainbatetan: ehunka eta milaka euskal irakasle ditugu orain EAEko eskola publiko eta kontzertatuetan, beren jardun profesionala (honetaz eta hartaz: geologiaz eta filosofiaz, termodinamikaz eta fisika kuantikoaz, historiaz eta soziologiaz) ikasleen begi-belarrietara helarazten dutenak. Ez dago dudarik: *Oinarrizko Txostenak* dioen moduan “euskara noranahiko hura biziberritu egin da urteotan, eta are noranahikoago izatera iritsi da”. Hori hala da,... hein batean. Zenbateraino da hori, izan ere, egia? EAEko bi milioi bizilagunetatik, edo bertako 700.000 euskaldun ingurutik, zenbatek jarduten du H funtzio horietan euskaraz? Zer maiztasunez jarduten du horrela, eta zenbatekin? Bere elkarrekin komunikatiboaren erreperitorio osoaren zer proportziotan? Benetako maiztasuna eta trinkotasuna kontuan izanik, zenbateko

osasan-indarra eransten dio H mailako mintzajardun horrek euskarari, egungo eguneko EAEn?

Gutxitan aipatzen den puntu zentralaren aurrean gaude. Gutxitan aipatzen den eta, halere, euskararen luzera begirako hil ala biziko perspektiban lehen mailako auzigaia plazaratzen duen puntu baten aurrean. Labur bilduz, bi kontu ari gara hor planteatzen:

- a) Batetik konstatazio gordina, inor gutxik onartzen duena eta, halere, eguna baino argiago egon behar lukeena: noranahiko bihurtze horren azpian dena ez da aurrerabidea. Diglosiarik gabe gelditzen ari zaigu euskara, gure begien aurrean, eta diglosiarik gabeko elebitasuna bietako baten atariko da hemen: gaztelaniaren edota euskararen galararen atariko da. Gauza batzuetarako erabiltzen zen euskara lehen, eta beste batzuetarako erdara. Oinarri sozial sendoa zuen konpartimentazio sozio-funtzional horrek, ez hitzun elebidun bakan batzuen inplikazio biografiko sotila. Iraupen luzeko gertakaria zen, gainera, funtzio-banaketa hori: belaunez belaun transmititzen zen konpartimentazio molde hori, funtsezko banaketa burubikoari bere horretan eutsiz. Bukatu da konpartimentazio soziofuntzional jeneralizatu eta iraupen luzekoa. Hitz teknikoetan esanik, bukatu da diglosia: “euskara noranahiko hura biziberritu egin da urteotan, eta are noranahikoago izatera iritsi da”. Pozik gaude, harro ere bai, diglosia *gainditu* izanagatik. Denerako edo ia denerako balio du orain euskarak.
- b) Bestetik, ebaluazioa: noranahikoago izatera iritsi da euskara, benetan? Denerako edo ia denerako balio al du orain praktikan, ez teorian? Horrela al dira kontuak, justu--justu? Ez. Denerako edo ia denerako balio duena, orain eta hemen, gaztelania da. Goian azaldutako konpartimentazio-galera hori alde bietakoa izan da, ez alde bakarrekoa. Konpartimentazio soziofuntzionala galdu ahala hedatu

egin da gaztelania: arnaguneetan²³ euskaraz bideratu ohi ziren gizarte-bizitzaren esparru informal-intimoetara zabaldu da, batez ere, gaztelania. Hori dela-eta, lehen debeku zituen esparru gehienak, guztiak ez bada, irabazten jarraitu du gaztelaniak mende-laurden honetan. Lehen baino ahulduago utzi du konpartimentazio-galera horrek euskara, eta lehen baino indartsuago gaztelania. Etorkizunean, konpartimentazio territorial, soziofuntzional edo misto berri bat eratzen, ezartzen eta egonkortzen ez bada, hizkuntza bietan indartsuena bihurtuko da hiztun-elkarte elebidun honen (zer esanik ez bertako elebakarren: hots, bertako gehiengoaren) jaun eta jabe.

Errazegi “gainditu” uste ohi dugu diglosia. Ez gara jabetzen diglosia horrek mantendu gaituela bizirik hainbat mendez, aski egoera buru-makurrean izanik ere. Horrek mantendu gaituela bizirik eta, non eta euskara funtzio guztietan edo gehienetan jaun eta jabe izango den etorkizun kolektiborik eskuratzen ez den han-hemen, konpartimentaziorik gabe okerrera, ez hohera, egingo duela euskararen osasunak. Zerbait segurua baldin bada hizkuntza-soziologiaren esparruan, horixe da segurua. Harrigarria da gertakari horri zein atentzio txikia eskaintzen diogun eta, are, euskara noranahiko bihurtu izanaz zein erraz harrotzen garen. Abantaila argiak ditu euskararen zabal-kuntza soziofuntzionalak, menderik mende bere-bereak izan dituen jardun-esparruei bere horretan eusten badie: ohiko esparruei eta harreman-sareei bere horretan eusten ez badie, alferrik-edo dugu H mailako funtzioetara hegaldatzen saiatzea. Belaunez belauneko hizkuntza-transmisioaren muin-gune eta oinarri ditugun familia eta auzoa, hurbileko kale-bizitza eta lan-esparru arrunta gabe nekez bizirik iraun dezake, hemen eta orain, gurea bezalako hizkuntza ahulak. Aho biko ezpata da, horregatik, “euskara noranahiko bihurtu” behar-raren *slogana*. Argitzen duena baino gehiago ere bada, zenbaitetan,

23 *Arnaguneen* definizioaz ikus, besteak beste, Zalbide (2001 eta 2008)

estaltzen duena: zer irabazten dugu, demagun, Donostiako zinemaldian filmen % 25, %33 edo %50 euskaraz ikusteko aukera ematearekin baldin eta, aldi berean, hiriburuaren gerri-bueltako, Beterri osoko eta are Probintzia gehieneko azken arnaguneak hizkuntza-irizpide minimorik gabeko urbanizazioz erdalduntzen baditugu? Nor etorriko da Kursaalera film horiek euskaraz ikustera: etxean eta auzoan, kallean eta lantegian euskaraz baino usuago eta erosoago erdaraz ari dena? Zer lehentasun modu dugu hori? Non dago hor euskararen osasun-hobekuntzaren balantze orekatua?

Labur bilduz: zuzen eta, hainbat alorretan, gordin azaltzen du txostenak euskararen mende-laurden honetako bilakaera. Zertan aurrera egin duen, eta zertan ez, ongi xehakutzen du halakoetan. Hel-dutasun-giroan egindakoak dira bertako hainbat ohar, konstatazio eta uste-iritzi. Baliozko lana da, hortaz, azterbide zinetikoaren ikuspegitik. Ez nau betetzen, halere, bertako zenbait baieztapenek. Ahulak iruditzen zaizkit hainbatetan, eta aho bikoak besteetan, bertako kontsiderazio batzuk. Ez da ebidentzia enpiriko handirik eskaintzen, batetik, lortu diren emaitzak materialki hala direla sinetsi ahal izateko. Ematen diren azalpenak, beste zenbaitetan, egiazkoak izanik ere balio-indar ahulekoak dira neurtu nahi dena (euskararen osasunak hobera edo okerrera egin duen, zertan eta zenbat) behar bezala neurtzeko. Kezka modu horiek azaltzen saiatu naiz bilakaeraren pasarte honetan.

III.- ZEIN DA EUSKARA-ERDAREN EGUNGO EGOERA? GOAZEN BIDETIK NORA GOAZ, HIZKUNTZA KONTUAN?

Labur jardungo dut atal honetan eta hurrengoan, nahi eta behar baino luzeago baitoa dagoeneko nire irizpen-txostena. Mende-laurdeneko bilakaera azaltzerakoan, inplizituki bada ere, oraingo egoeraren hainbat azalpen eskaini dira: bai *Oinarrizko Txostenean*, eta bai txostenari egin dizkiodan aldeko zein erreparozko oharretan. Han esandakoak ez naiz beraz errepikatzen hasiko. Ezer berririk erantsi nahirik, ondoko puntuotan zentratuko naiz oraingoan.

III.1.– Adostasun-puntuak

Zuzenak iruditzen zaizkit, oro har, *Oinarrizko Txostenak* han-hemen aditzera ematen duen hainbat kontsiderazio. Ikus ditzagun horietariko bi, nire ustez nagusiak:

III.1.1.– EUSKALDUN BERRIAK EDOTA, AGIAN ZEHATZAGO, ERDAL-ELEBIDUNAK UGARITZEN ARI DIRA²⁴.

Euskal-elebidunak ez dirudi ugaritzen ari direnik eta, azkenik, euskaldun elebakarrik ez dago bospasei urtetik gorakoetan. Ez dago eta ez da egongo, begien bistako etorkizunean. Puntu garrantzitsua da hori, kontuak ondo atera nahi baditugu. Euskaldunen kopurua gora doa baldin eta *euskaldun* hitzarekin gutxi-asko euskaraz dakien pertsona adierazi nahi badugu. Euskaraz ongi dakiena eta sarri egiten duena adierazi nahi badugu, aldiz, ez.

III.1.2.– EUSKALDUN-JENDEA KALEAN BIZI DA²⁵

Zuzenago esanik, kalean batzuek (gero eta gehiago) eta kale-giroan guztiak edo ia guztiak: Zeraingo puntan bizi dena ez da orain dela berrogei urteko leku apartean bizi, aski modernitatearen zurrunbiloan txertaturik baizik. Kalean bizi izateak ondorio jakinak ditu be-

24 Honela dio txostenak, zuzen eta argi: “Gaur egun, aurreko garaietan ez bezala, pertsona elebidun gazteen artean, gero eta gehiago dira lehen hizkuntza euskara izan ez dutenak; beste era batera esanda, jatorrizko hizkuntza, hizkuntza naturala gaztelania duten gazte elebidunak gero eta gehiago dira”.

25 Txostenaren puntu sendoetako bat da, ene ustez, ondoko baieztapena: “Bestalde, gaur egun, aurreko garaietan ez bezala, elebidunen bi heren hirietan edo herri handietan bizi dira, hots, erdaldun elebakar gehienak kontzentratzen diren tokietan eta eguneroko bizitzan euskaraz naturaltasunez jarduteko aukera gutxiago dituzten udalerrietan. Jakina denez, hizkuntza baten erabileran neurri erabakigarrian eragiten duten bi faktore, honako hauek dira: hiztunaren hurbileko dentsitate demolinguistikoa, batetik, eta hiztunak hizkuntza horretan komunikatzeko duen gaitasun erlatiboa, bestetik. Kontuan hartzen badugu hiztun hori ez dela elebakarra eta, gainera, kasu askotan bigarrena duela erabili dezan nahi dugun hizkuntza, erraz ohartuko gara faktoreon eragina erabatekoa izaten dela”.

rekin: harreman-sare inbertsonal, ireki, modernitate supraetnikora makurtuagoetan jardutera bultzatzen du, euskal hiztun aktiboen arteko dentsitatea eta harreman-sare sendoa ahultzen. Hots, gero ea zailagoa gertatzen zaie euskaldunei beste euskaldunekin ingurumen horretan euskaraz jardutea, eta gero eta errazagoa (hainbatean ezinbestekoa) erdaldunekin edo erdal-elebidun erdaraz ari izatea. Zaildu egiten du horrek, erraztu ordez, euskarazko bizimodua etxetik kanpora atera orduko. Baita etxe barruan ere, lagunartea eta komunikabideak nagusiki erdarazkoak diren heinean. Alferrik dira horretan, jakina, lantu-jotzeak eta negar-malkoak: modernoak izan nahi dugu, kosta ahala kosta, euskaldun gehienok, eta beraz ingurumen zail horretan eratu behar dugu gure bizi-itxaropenezko gizarte-moldaera. Ongi dago txostenak horretan jakitun egin izanak guztiok.

III.2.– Desadostasun-puntua

Azalpen guztietan ez nator bat, txostenak dioenarekin. Iritzi diferentekoa naiz, esate baterako, euskarak administrazioan duen erabilera moldeaz bertan esaten denarekin. Honela dio *Oinarrizko Txostenak*: “Gaur egun, arazoak arazo, administrazioko hizkuntza ere bada euskara, inoiz ez bezala izan ere gainera”. Administrazio-esparruaz esaten den hori ez da, inondik ere, txostenaren diagnostikorik erakargarriena. Urrun gelditzen da baieztapen hori administrazio autonomia barrutik ondo samar ezagutzen dugunon eguneroko praktikatik. Ez dut uste gainerako administrazio-atalak, bestalde, autonomikoa baino euskaldunago direnik. Argazki desenfokatua eskaintzen du horretan txostenak: hori onenean.

Erdaraz funtzionatzen duen administrazioa dugu EAEkoa, hamarretik bederatzietan²⁶. Hori da oinarri-oinarrizko egia, doku-

26 Epaia are larriagoa da, zenbait kasutan hutsetik sortu dugulako organoa *erdaldun*, ele biko administrazio-atala sortzeko kandidatu euskaldunen falta nekez izan zitekeelarik motiboa. Hanka-punttaka pasa ohi gara funtsezko gertakari horretatik, gauzari bere neurria eta garrantzia aitortu gabe.

mentuak behar bezala jasotzen eta agertzen ez duena. Egia gordin horren aurrean alferrik dira txosteneko gogoetok: "aurrerapausoak aurrerapauso, esan beharra dago, gaur oraindik hainbat direla herri-administrazioak herritarrari inolako deserosotasunik eragin gabe modurik naturalenean euskaraz artatzeko zailtasunak eta ezintasunak dituztenak. Gainera, gaur egun, oraindik ere administrazio asko dira euskara ere, gaztelaniaren pare, pixkanaka administrazioetako lan-hizkuntza izan dadin neurririk hartu edo plangintzarik egin ez dutenak". Kontua ez da hori, funtsaren funtsean: mende-laurdenean milaka lan-postu sortu dira; hainbat lan-posturi euskarazko hizkuntza-eskakizuna erantsi zaio legez, une batetik aurrera. Saio ohargarriak egin eta egiten dira, azkenik, beratako langileak euskalduntzeko edota, oro har, euskaraz lan egin ahal izan dezaten prestatzeko. Administrazioko lan-postuen %90ek edo gehiagok erdaraz funtzionatzen du ordea: beti edo nagusiki erdaraz, hitzez eta, bereziki, idatziz. Diagnostiko horren balorazio zehatza falta da *Oinarrizko Txostenean*. Zergatik gertatzen da euskararen desageretze hori? Demagun zenbait hipotesi xume:

- a) Agintarien hizkuntzaz baliatzen direlako funtzionarioak eta agintariek, oro har, erdaraz dihardutelako;
- b) Funtzionario gehienak erdaldun elebakarrak edo erdialebidunak direlako hainbat administrazio-ataletan;
- c) Administrazio-hizkuntza estandarizatu gabe dagoelako euskaraz. *Estandarizatzea* bere jatorrizko adiera zaballean ematen da hemen: kodea sortu eta finkaturik izatea; hartaz baliatuko den xede-multzoak gogoko izatea, ikasia izatea eta *de facto* erabiltzea;
- d) Euskaraz datorren herritarrak erdaraz ere badakielako euskaraz bezain ondo (hobeto ez bada), eta euskaltzale militantea ez baldin bada gero eta errazago konformatzen delako erdaraz egiten dion zerbitzari publikoarekin; eta
- e) Aurreko faktore horien konbinazioa.

Esplikazio posibleak asko izan litezke noski; goiko hipotesi horiek ez dira lehen apunteak baizik. Hipotesiak hipotesi, hori da ordea eskuartean dugun administrazioa, partez oinordetzan jaso eta partez guk geuk sortua. Badakit erdarazko moldaera nagusi horri itzulpenak eta itzulpen-ondokoak erantsi behar zaizkiola gero, koadroa konpletoa izango bada: zeharo gauza bi dira, ordea, aurrez aurreko jarduera administratibo bizia batetik, eta (normalean dokumentu idatzien) zenbait ondoriotarako itzulpen ofiziala bestetik. Berrikustapen lasaia zor zaio, horregatik guztiagatik, euskara EAEko administrazioaren kohizkuntza bihurturik egotearen kontu horri. Mila bider bihurriagoa da historia.

III.3.- Goazen bidetik nora goaz, hizkuntza kontuan?

Landu-arin gelditu da puntu hau *Oinarrizko Txostenean*. Funtsezko galdera da, ordea. Bide onetik doanak ez du bidez aldatu beharrik ikusten: ez erabat, ziaboga larria eginez, eta ez partez. Alto egin baldin badu HPSk, eta zer hobetua badagokeela esanaz abiatu baldin badu txostena, seinale da oso bide onetik ez goazena. Lastima da, alde horretatik, puntu hau hain gaintetik pasa izana. Uste baino emaitza hobek emango lituzke galdera horren erantzunak.

Orain hogeita bost urte inguru abian jarritako ofizialtasun bikoitzeko markoak atsekabe bat baino gehiago sortzen du egungo egunean. Zenbaiten ustez urrutiegi eraman dira kontuak, eta herri-dirua itxuratxarki xahutzeaz gainera kalte nabarmenak egin zaizkio hainbat herritar erdalduni. Bide horrek arriskuan jar dezake, gainera, estatu-nazioaren osaera bateratua eta, beraz, fretoa jarri behar zaio era batera edo bestera. Hainbaten ustean, aldiz, oso bestelakoak dira arazoak: martxan jarritako lege-markoa ahulegia gertatu da begiz jotako helburuak eskuratzeko: ez ditu helburu haiek lortu eta, okerrago dena, ezin lor ditzake etorkizunean ere. Gauza bat dago horretan guztian argi: iritzi-sortzaile batzuen eta besteen ustez, aski leku diferentera goaz. Egungo modeloa, hori dela-eta, istilu-iturri da hainbatean.

Ba al dago modurik, gatazka horretan murgildu eta bando baten bozemaile bihurtu gabe, "nora goaz?" galderari dokumentazio-oinarri seguru samarrez erantzuten saiatzeko? Puntu batzuetan bai, ene ustez. Horrela:

- a) Gaztelaniak ez dauka arriskurik txikiena, gure bizidena osoan eta gure seme-alabenean, EAEko gizarte-bizitzatik desagertzeko. Indartsu dago goi-mailako esparru formaletan, jaun eta jabe esparru publikoan eta euskara nagusi zen eskualde zenbaitetan nabarmen indartzen ari da eguneroko bizimoduak hain bereak dituen harreman-sare informal, intimoetan. Eskola da, nolabait ere, arau nagusi horretatik aldentzen den esparru bakarra. Komunikabideetan eta idatzizko zein ikus-entzuzko kultura-ekoizpenen kontsumoan, aldiz, oso leku periferikoa dauka euskarak: euskarazko komunikabideak D eredukotzat hartuko bagenitu konbentzionalki, eta erdarazkoak A eredukotzat, erdibidekoak-edo B eredukotzat hartuz, eskolarekin inolako loturarik ez duen banaketa-koadroa eskainiko liguke eguneroko egunkari-aldizkari-irradi-telebisten kontsumo-balantze globalak: ez al du oraindik inork halakorik egin, gure errealitatea termino konparatiboetan zehazten saiatzeko? Mereziluke. Hutsaren hurrengo lekua zuen euskarak lehen eta orain, mende-laurdenaren ondoan, % 5era ozta-ozta iristen da hainbat esparrutan²⁷. Euskararen mendekotasun hori *factum* bat da, euskaltzaleok zein euskal detraktoreek hain erraz ahaztu behar ez genukeena. Gehiegikeria itxuragabea da, egoera horretan, gaztelania gure artean galtzeko arriskuan dela esatea.

27 Ikus, esate baterako, euskal liburuen erosketaz edo kontsumoaz berrikitan argitara eman den informea. Mila hitz korapilatsuk baino argiago azaltzun du informe horrek, aski zifra gordinenez, egungo errealitatea.

- b) Euskal arnasmuneak ahultzen ari dira, oro har. Arnasmune batzuek ongi eusten diote beren jatorrasun etnolinguistikoari, eta modernitatearen beharkizunei era autorregulatu zabaltzen diete atea, kultura zaharra eta berria modu berezian oratuz eta, horrela, hurrengo belaunaldiaren jarraipena segurtatuz. Beste zenbait arnasmunetan ez da horrela, ordea: aspaldidaniko gainbeherak bere hartan dirau.
- c) Kale-giroan, horren guztiaren ordainetan, euskara-erdaren bateratze-gune berria indartzen ari da. Ez da azken orduko joera, joan den mendearen 60ko hamarkadatik hedatuz joan dena. Aukera ederra izan liteke hori, bien arteko konpartimentazio-molderik eratzen, zabaltzen eta egonkortzen asmatzen bada. Eginkizun dago hori, ordea, oraingoz.

IV.– NORA JOAN NAHI GENUKE? ZER EGIN BEHAR DA, BEGIZ JOTAKO HELBURU HORRETARA IRISTEKO? ZEIN DA HORRETARAKO BIDE ZUHURRENA, ERAGINKORRENA, HOBERENA?

Azalpen ugariak eman ditu Oinarrizko Txostenak galdera hauen haririk. Puntuz puntu ikusiko ditugu hiru galderoi dagozkien planteamenduak. Has gaitezen lehenengoarekin.

IV.1.– Nora joan nahi genuke?

Oso aberatsa da oinarrizko txostena, “nora joan nahi genuke?” galderari erantzuteko orduan. Konforme nago bertako baieztapen askotxorekin. Ez nago ados, aldiz, beste zenbaitekin. Labur-labur esanik, luzeegi bainabil orriz dagoeneko, ondoko atal hauetara bilduko ditut nire adostasunak eta desadostasunak.

IV.1.1.– ADOSTASUN-PUNTUAK

- a) Arrazoizkoa da euskarari bizitasuna opa izatea, lehenik eta behin: euskara ederra baino inportanteagoa da hiztu-

nen ezpain-lumei darien euskara nolanahikoa. Zuzen dabil horretan txostena: “Euskara hizkuntza bizia, adierazkortasun handikoa, jarduera formaletan ez ezik jarduera ez-formaletan ere naturaltasunez eta atseginez gero eta jende gehiagok erabiliko duen hizkuntza noranahikoa izatea da helburuetan helburu. Jakina da ez dugula mu-seorako objektutzat nahi, baina inola ere ez genuke nahi ikasgeletako lau hornei jositako hizkuntza izatea;

- b)** Arrisku nagusia ez datorkio euskarari goi-mailako funtzioetan hain leku mehar-periferikoa izatetik, eguneroko mintzajarduna arruntaren jardun-esparru eta harreman-sareetan “bere lekua” galtzetik baizik. Txostenak ongi dioenez, “biziko bada, kalean hartu dezake eta hartu behar du arnasa euskarak; zerbitzu publikoetan bai, ez da horretaz zalantzarik, baina oso bereziki lagunartean, familiako harremanetan, Interneten, lan munduan, aisialdian eta hedabideetan ikusi nahi dugu indartsu”
- c)** Oso zuhurra da, bereziki, txostenak pasarte gogoangarri batean dioena: “beldurrik gabe onartu beharko genuke etorkizuneko gizartean ohikoa izango dela hizkuntza bakoitzak bere erabilera-eremuak edukitzea, batzuetan bat izango da nagusi eta beste batzuetan bestea, lurralde batetik bestera egoera diferenteak gertatzea, eta abar. Hobe da era horretako testuinguru ireki eta nahasi baterako euskara indartzeko estrategiak bultzatzea, guztia berdintzearen boluntarismoan erortzea eta indarrak ahitzea baino”. Funtsezko puntua da hori. Txostenak beste ekarpenik berekin ez balu ere, baluke aparteko garrantzirik arazo nagusia argi aipatzera ausartu izanagatik. Hori baita, halakorik onartu nahi izaten ez badugu ere sarri, euskararen bene-benetako erronka. Euskara-erdarak hemen izango dira etorkizunean, euskara bizirik ateratzen bada, eta beraz hizkuntza bakoitzak espazio fisiko-terri-

torialaren, sozio-funtzionalaren edo bien zati bana bere mende izan beharko duela onartu beharko dugu. Hots, hizkuntza bien (eta, beste maila batean, ingelesaren) konpartimentazio egonkor samar bat diseinatu, gizartean adostu, inplementatu eta egonkortu beharra daukagula. Beste hitzetan esanik, eta hori esatearekin inor gutxi poz-tuko dudala ongi aski badakit ere, diglosiazko formulazio berri bat hil ala biziko eginkizuna dugu. Hori gabe jai du euskarak, hasi berria den mende honetan. Behar-beharrezkoa dugu konpartimentazio hori, handiak txikia jango ez badu. Bilaketa horretan xahutu behar genuke hortaz gure indar intelektualaren eta adostasun-bilaketaren parte nagusia, euskararen etorkizuna baldin badugu kezka-gai eta amets. Euskaldunok eta euskaltzaleok gara diglosia molde berri horren beharrenik, besterik uste badugu ere. Premia larriko beharra da hori, gainera: denbora gure kontra doa. Funtsean bat natorren eta lehendik zehaztu samarra dudana bidetik doa txostenaren atal hau ere: “Inguruabar horretan sakonduz, hizkuntza-erkidegoak kontuan, berariazko trataera diseinatzea eta garatzea garrantzi handikoa da, besteak beste, euskaraz nagusiki jarduten duten eremuetan-eta haren ezagutza eta erabilera indartuz, trinkotuz eta berariaz lehenetsiz”.

d) luze-zabaleko adostasun berri bat bilatu beharra.

Apurturik daude, aspaldi samarretik, 1982ko adostasun esplizituak eta implizituak. Berri batzuen premia benetakoa da, etengabeko konfrontazioan bizi nahi ez badugu. Konforme nago txostenaren pasarte honekin: “Euskararen erabileraren mesedean indarberritu beharrekotzat jotzen dugun adostasunak politika arloan ez ezik gizartearen luze-zabalean ere arnasa hartzen duen adostasun politiko-soziala izan behar du. Izan ere, gure gizarteko hizkuntzen arteko bizikidetzaren auzia baita euskararen auzia,

eta hain zuzen ere horrexegatik da begien bistakoa euskararen normalizazioa gu guztion bizikidetzaren muinean xertatzen den faktoreetarikoa dela. Euskararen oraina eta etorkizuna sendo bermatzeak euskal gizartearen bizikidetzaren hobetzea lekarke berarekin, ezbairik gabe. Bizikidetzaren demokratikoak ororen gainetik “bizikideen adostasuna” behar du oinarri”. Konforme nago, baina beldur naiz horretan, beste zenbait puntutan bezala, asko direla besterik uste dutenak. Hor dago zailtasuna. Txostenak argi dioenez, “Herritarron bizikidetzaren orekatua, aberatsa eta sendoa eraikitzea da edozein gizarte aurreratu eta demokratikoren helburu nagusia”. Beste hau ere erantsi behar zaio ordea adierazpen horri, gure egoera konkretua gogoan izan nahi bada: aniztasunean, ez uniformetasunean, eraiki nahi da hemengo bizikidetzaren eta hori, geure burua engainatu nahi ez badugu, lan zaila da benetan. Bi motiborengatik da lan hori bereziki zaila: helburua bera erabat konpartitua ez delako, batetik. Bestetik, berriz, asmoa zeharo konpartitua balitz ere hartarako bidea nola egin behar den inon esana (are gutxiago praktika konkretuan frogatua) ez dagoelako. Zailtasunak zailtasun, ideiarekin bat nator.

IV.1.2.– DESADOSTASUN-PUNTUAK

Badira txostenean, han-hemen, ondo ulertu ez ditudan helburu-proposamenak. Eta bada tartean, azkenik, desegokia iruditzen zaidanik. Horien berri eman nahi dut hemen, ahalik eta laburren.

a) “Hizkuntza-askatasun”aren izaera iluna.

Iluna da, teknikoki, intuitiboki argia dirudien termino hori. Iluna da hemen eta iluna edo ezezaguna, itxuraz, hemendik kanpora ere. *Linguistic freedom* edo antzeko terminorik ez dut soziolinguistikazko entziklopedia eta hiztegiengan aurkitu. *Language pluralism* bai, jaki-

na: besterik da hori, ordea, txostenak dioena aintzakotzat hartu nahi bada behintzat. “Hizkuntza-askatasun”aren alde egiten du txostenak, hizkuntza-aniztasunaren alde egiteaz gainera. Zer da askatasun hori, ordea? Nahi dugun solaskidearekin nahi dugun hizkuntzan jardutea? Horrela balitz kontua, ondorio larria atera beharko genuke: Logroñoeko biztanle gehienek ez daukate inolako hezkuntza-askatasunik; gaztelaniaz bakarrik dakitenez, ezingo lukete Logroñoeko biztanle elebakarrekin beren gogozko hizkuntzan (demagun frantsesez, alemanez, polakoaz, suedieraz, grekoaz, japonieraz,...) jardun. Munduko hiztun elebakarrak, hortaz, inolako askatasunik gabeak liriateke alde horretatik. Horiek liriateke hizkuntza-askatasunik gabeenak. Portugesak, esate baterako, arras egoera tristean, ia inolako hizkuntza-askatasunik gabe, leudeke. Askatasun-faltak eraginik, hizkuntza-burrukaren erdigune liriateke herrialdeok: hain leudeke askatasun apurrik gabe!

Horrela al dira kontuak? Ez: herrialde horietan ez dago hizkuntza-istilurik; bai aldiz, gutxi-asko, Belgikan eta Kanadan, Gales-en eta gure artean. Nola liteke justu herrialde elebakar horiek izatea hizkuntza-istilurik gutxien ageri dutenak munduan, horiek baldin badira hizkuntza-askatasunik gutxien dutenak? Erantzuna bistan dago: hizkuntza-askatasunaren kontuak ez dira horrela. Itxuragabe-keria da hizkuntza-askatasunaren goiko formulazio hori. A hizkuntza egiten den herrian jaio, hazi eta bizi den hiztunak ez du aparteko askatasun-faltarik sumatzen bere bizian, herri horretako hiztunekin “A hizkuntzan egitera beharturik” dagoelako. Aitzitik: naturala, ego-kia eta erosoia (normalean aukerarik erosoena) iruditu ohi zaio hizkuntza horretan, munduko bost mila hizkuntza ingurutik justu-justu horretan, egitea. A hizkuntza egiten den herritik B hizkuntza egiten den beste herriren batera joatean sentitzen du herritar horrek, sentitzekotan, eragozpen-muga eta nolabaiteko moztadea. B herrira joatean edo, gero eta sarriago, bere herrian bertan *Language of Wider Communication* batean jardutea eskatzen duen harreman-sare batera (adibidez *internet*-era, ingelesezko telebista-kate batera, eta abar) konektatzen denean.

“Hizkuntza-askatasun”aren kontzeptua, ongi definitzen ez bada, istilu-iturri etengabea bihur liteke. Kontu handiz ibili behar dugu, hortaz, *ad hoc* sorturiko kontzeptu horrekin. Zer da funtsean hizkuntza-askatasuna, gurean bezala hizkuntza ofizial bi dituzten eta hirugarren bat (ingelesa) LWC gisa bere sarbidea egiten ari den hiztun-herri elebidunetan? Nola definitzen da hizkuntza-askatasun hori, hemen eta orain? Balio ote digu horretarako txostenaren ondoko pasarteok?: “Den-denok jarri beharko genizkioke geure buruari honako helburu hauek: hizkuntzen arteko ezberdintasun sozialak pixkanaka-pixkanaka baztertzea, hizkuntzak erabiltzeko aukera berdintasunerantz bidea egitea eta egiazko hizkuntza-askatasuna eraikitzea”.

Dakidan neurrian, “egiazko hizkuntza-askatasun” delako hori ez da, bere osoan hartuta, inon esistitzen. Ez da esistitzen praktikan eta, teorian bertan, azken muturrera eramaten badugu bateraezina da gorago aipatu den konpartimentazio soziofuntzionalarekin. Honako hau ere ez da egia: “Hizkuntzen artean ezberdintasun sozial gutxiago eta berdintasun handiagoa daukagun neurrian, bi hizkuntzen erabilera-aukeren artean berdintasun handiagoa lortzen dugun neurrian, gutariko inork ez dio berak aukeraturiko hizkuntza erabiltzeari uko egin beharrik izango”. Gizarteak ez du, dakigun neurrian, horrela funtzionatzen: hori da guztia.

Nahastu egin dira hor kontuak, seguruenik, plano jurilinguistikoaren eta plano soziolinguistikoaren artean. Lehenengoak, McRae-k aspaldi azaldutako bidetik (McRae 1975, 1983, 1986, 1997 eta abar), *the principle of territoriality and the principle of personality arteko dikotomia* du abiaburu eta formulazio bakoitzaren ongaitzak zehaztu nahi izaten du. Argi dago *the principle of personality* delakoan oinarritzen dela nagusiki (ez erabat) gure lege-markoa. Lege-marko hori gauza bat da, ordea, eta etorkizunerako hobetsiko genukeen harreman modua bestea. Azaldua dut, behin eta berriro, norbanako irizpidearen aldeko naizela gure kasuan: lurralde-irizpidea baino egokiagoa iruditzen zait hemen eta orain, euskara indarberritu nahi badugu batetik eta erdal gehiengoa Prokustes-en oha-

tzean etzanarazi nahi ez bada bestetik. Gauza bat da hori, ordea, eta inolako konpartimentazio-irizpide territorialik edo soziofuntzionalik gabeko *free-market* linguistikoa bideragarri dela uste izatea. Egokia da lehenengoa, tresna juridiko gisa. Ezinezkoa da bigarrena, mintzajardunaren luze-zabaleko gizarte-moldaera gisa.

b) Elebitasunaren argi-itzalak

Garrantzitsua da eta, aldi berean, zalantzazkoa txostenak, aurreko puntuan iragarritako bidetik, ondoko pasarte honetan dioena: “egiazki elebiduna izango den euskal gizartea eraikitzeke pausoak ematea izan behar du hizkuntza politikak helburu. Esaten da ez dela munduan benetan elebiduna den gizarterik, argudiatzen da elebitasun simetrikoa ez dela inon gertatzen eta hori hemen ere ezinezkoa dela; azken batean, bi eratako mezuak plazaratu ohi dira elebitasunari argi eta garbi “ez” edo “bai, baina ez” esaten diotenak: euskara jendarteko harremanetarako hizkuntza bakarra izango duen Euskal Herria proposatzen dute batzuek, eta euskara beti eta betiko gaztelania hegemonikoa baino ahulagoa eta maila apalagokoa izango duen Euskal Herria iradokitzen dute beste batzuek. (..) Elebitasun simetrikoari dagokionez, ez dakigu benetan eraiki ahaliko dugun eta gaurko belaunaldiok ezagutu ahal izango dugun halako elebitasunik euskal gizartean. Baina hizkuntza-askatasunaren eta hizkuntza-erabilera aukera berdintasunaren alde, euskara eta gaztelaniaren arteko berdintasun sozialaren alde modu positiboan eta aktiboan, zuhurtasunez eta malgutasunez, baina etengabe, lan egingo badugu, nahitaezkoa da elebitasun orekatua eta aukera-berdintzailea benetan posible balitz bezala jardutea, hori helburu duen hizkuntza politika malgu eta errealista egitea. Bestela galga jarriko genioke guztion bultzada behar duen prozesuari.”

Parez pareko elebitasunaren konstrukzio jurilinguistikoa beharrezkoa dugu, bizi garen gizartean bizi izanik, hainbat eginkizunetarako. Horren aldekoa naiz aspaldidanik, eta lehengo lepotik dut orain ere burua. Tresna egokia da hori EAErako: hoberik ez dut

ezagutzen, helburu argia eta malgutasun zabala uztartu behar diren gurea bezalako gizarte ireki, plural eta dinamiko baterako. Hoberik aurkitzen ez den artean indarrean dagoenari (eta hainbatean funtzionatzen duenari) eustea izango da, beraz, zentzuzko bidea. Erreminta egokia da konstrukzio hori, eta hala aitortzea komeni da.

Parez pareko elebitasun hori ezin da, ordea, hizkuntza-politikaren oinarriak eztabaidatzean bere helburuak definitzeko elementu zentral izan: ez du hartarako ahalmenik. Hizkuntza-soziologiaren printzipio oinarritzkoen ahulezia da, berriro ere, txostenaren pasarte honetan gehien faltan botatzen dena. Gizarte-dimentsioa du, ezinbestean, eskuartean dugun elebitasunak. Gizarte baten helburuak definitzeko orduan ezin gaitezke, horregatik, elebitasunaren atributu indibidual hutsetan gera. Jendartean dabiltzan hizkuntza bi ez dira norbanako isolatuen askatasun-aukera hutsen ondorio, mintzajardunaren giza arteko moldaerak berekin dakarren ele biko ekoizpena baizik. Ez nau asetzen, alde horretatik, guztia norbanako hiztunaren aukera-askatasunera bideratzen duen formula hori. Logroñon bertan jaio, hazi eta bizi diren hiztunek beraien artean polako, ketxuaz, turkieraz edo galesez egiten ez badute ez da, inola ere, beren hizkuntza-askatasunaz baliaturik (aurtengoz) gaztelaniaz egitea erabaki dutelako. Besterik da kontua: gizarte-urek hartara bulkatzen dituztelako ikasi eta egiten dute gaztelaniaz, hamarretik hamarrek. Sozializazioa eta akulturazioa ez dira gutako inorentzat kontzeptu ezezagunak: prozesu soziokultural horien altzoan xertatzen da mintzajardunaren giza arteko moldaera ere. Horrek definitzen du leku jakineko eta solaskide jakinarekiko mintzamoldea. Moldaera horretara biltzen gara hiztunok, hamarretik bederatzietan baino gehiagotan. Fishman-en hitzetan esateko, *people speak biligually or monolingually because of their long and intricate involvement in establishments that require such language(s)*²⁸.

28 Buruz ari naiz, orijinala ez baitaukat eskueran.

LABUR BILDUZ

Hizkuntza-askatasunaren eredu orbangabea aski baldintzatua dago: erabat Logroñon, eta aski den adinako neurrian EAEn bertan. Solaskideak euskaraz ez badaki ez duzu harekin euskaraz egiteko askatasunik; solaskide hori bera, zu zeu edo biok erdal-elebidunak baldin bazarete erdarara jo beharrean gerta zaitezke gainera, besterik nahi izanik ere, komunikazioaren mesedean. Harreman-sare irekietan jardutea eskatzen du biziak, lan-munduak eta goi-ikasketak: euskara bezalako hizkuntzek sarbide mugatua dute, ezinbestean, harreman-sare horietan. Sarbide mugatua dute gaur eta mugatua izango dute begien bistako etorkizunean ere. Oinarrizko gertakari horiek, eta horien pareko beste zenbait baldintzapen basiko, ezin dira norbanakoaren hizkuntza-askatasunaren mantupe lausoga-bean ezkutatu. Bere lekua zor zaio norbanakoari, hizkuntza kontuan: hiztuna da hizkuntzaren etengabeko jasotzaile, kodetzaile, birmaoldatzaile, sortzaile eta belaunez belauneko transmititzaile. Zenbaitek errazegi ahazten duen zentraltasuna du norbanakoak, eguneroko mintzajardun arruntaren moldaeran. Litekeen biderik labankorrena aukeratuko genuke, ordea, mintzajardunaren giza arteko moldaerarik existitzen ez dela eta guztia norbanako hiztun isolatuen hautapen hutsezko mintzamoldea dela aditzera emango bagenu. Seinale txarra genuke hori: mende-laurdeneko ibilia alferrik egin dugun seinale, orenen buru.

Ez dut uste, zinez eta benaz, mende-laurdeneko ibilaldi nekoso eta itxaropentsua, plangintza esplizituz eta inizatiba intuitiboz oraturiko ibilaldi hau alferlana izan denik. Mila okasio eder galdu ditugu bidean, egia da hori: batzuetan egin behar zena egin ez delako, beste batzuetan egin behar ez zena egin delako edo beste batzuetan, azkenik, egin behar zena gaizki egin delako. Bidea egin dugu ordea, guztiok: hori da egia. Orduan entenditzeko gai ez ginen arriskuez, bestek eragindakoez eta guk geuk geure buruari ezartzen dizkiogunez, jakitun izan behar genuke orain. Jakitun izan eta kontuan hartu.

Atzeak erakusten baitu aurrea nola dantzatu. Hizkuntzaren norbanako izaeraz gainera ezinbestekoa da, horregatik, hizkuntzaren gizarte-dimentsioa ere bere osoan aintzakotzat hartzea. Hiztun-taldeak eta hiztun-elkarteak dira, ez hiztun isolatu bakanak, hizkuntzaren erreferente azkenak. Horien autorregulazio soziokulturaleko ahalmenak, gogoak eta aukerak erabakitzen du hizkuntzaren geroa.

IV.2.– Zer egin behar da, begiz jotako helburu horretara iristeko? Zein da horretarako bide zuhurrena, eraginkorrena, hobereena?

Konforme nago, oro har, txostenak alor horretan azpimarratzen dituen lau punturekin. Horien berri emango dut, labur-labur, irizpen-txosten honi amaiera emateko.

IV.2.1.– HIZKUNTZA-ESKUBIDEEN DISKURTSOA NEURRIZ KANPO USTIATZEAREN ARRISKUA

Bat nator, funtsean, ideia honekin: “Beldurrik gabe onartu behar dugu, euskararen interesetik begiratuta ez zaigula komeni hizkuntza politikaren diskurtsoa eskubideen inguruan bakarrik ardaztea, eta “eskubidea dugulako eta horregatik bakarrik” gaztelaniaz dagoen guztia euskaraz ere jartzen saiatzea. (...) oso garrantzitsuak dira hizkuntza-eskubideak (...) baina eskubideen izenean harturiko edozein neurri ez da berez onargarri, baldin eta euskararen erabilera sendotzeko eta areagotzeko balio ez badu”. Behar-beharrezkoa dugu bertako jardue-
ra (batez ere jarduera instituzionala, baina ez hura bakarrik) jurilinguistikazko formulazio sendoetan oinarritzea. Bertako tirabira guztiak legea eskuan hartu eta “nire eskubidea urraturik dago puntu honetan” oihukatuz lau haizetara ez gara urruti iritsiko.

IV.2.2.– ESKOLAREN ZEREGINA AHULDUTAKO HIZKUNTZA INDAR-BERRITZEKO ORDUAN

Konforme nago, hurbiletik ezagutzen nauten guztiek ongi dakitenez, Oinarritzko Txostenaren argudio-bide honekin: “Urteotako ibilbideak

agerian utzi du euskararen biziberritzea ezin dela osorik eskolaren kontu utzi, euskararen erabilera gizarte-bizitzan indarberritzea ez baita eskola-kontua, ez behintzat hori bakarrik. “Eskola euskalduntzearekin, eta neurri apalagoan bada ere euskal irrati eta telebista publikoa edukitzearekin, ondorengo belaunaldiek behin-betikoz salbatuko dute euskara”: hori uste izan du 80ko hamarkadako belaunaldiak, eta uste horren gainean eraiki da urteotan hizkuntza politikari eman zaion bultzada emateko beharrezko izan den adostasuna. Uste horrek, ordea, erdia ustel du. Berari dagokiona eskatu behar zaio eskolari; beldur gara, ordea, zenbait kasutan eman duena eta ematen duena hobe badezake ere, kasu askotan, eman dezakeena baino gehiago eskatu diogula. Ikasleek eskura dezaketen euskara-gaitasun neurria ez dago bakarrik irakasleen hizkuntza-prestakuntzaren eta hizkuntza ereduaren esku. Faktore ugari dira ikaslearen euskara-gaitasunean eragiten dutenak, eta eskolaren esku ez daudenak: hala nola, esate baterako, gurasoen eta familiako hizkuntza, udalerriko egoera soziolinguistikoa, ikaslearen harreman-sare natural ez formaletako hizkuntza, ikaslearen aisialdirako jarduerak eta askotariko baliabideetako hizkuntza, eta abar. Hizkuntza-eredu berak emaitza diferenteak emango ditu, nahitaez, gune euskaldunetan eta gune erdaldunetan”. Urteak daramat ideia horiek azaltzen eta esplikatzen. Ez daukat, hortaz, luzaz horretan pausatu beharrik. Jakin ere badakit, urteetako ibiliaren poderioz, gauzak lasai hartzen eta txukun esplikatzen direnean ia edonork onartzen duela eskolaren indarberritze-ahalmen mugatu hori. Galdera bakarria egingo dut hortaz, eskola kontuari amaiera emateko, borondate oneko irakurleen argigarri: nola liteke oinarrizko ideia hori hain zabal onartzen badugu gero, aplikazio-garaian, sarri asko horren antipodetan ibiltzea? Zer ari zaigu gertatzen?

IV.2.3.– BIZIBERRITZE-PROZESUAREN FAKTOREAK

Honela dio *Oinarrizko Txostenak*, gai horri zein perspektibatatik heldu nahi zaion azaltzeko orduan: “Soziolinguistikaren etxean onarpen

zabala duen printzipioaren arabera, ondorengo hirurok dira hizkuntza baten –edozein hizkuntzaren– biziberritze prozesuaren arrakasta bermatzeko nahitaez gertatu behar diren faktoreak: lege-marko egokia, hizkuntza normalkuntza ahalbidetzeko behar bestekoa izango dena; hizkuntza politika eraginkorra eta baliabideak; herritarren atxikimendua eta hizkuntzaren aldeko jarrera eta konpromisoa”. Ez dakit Soziolinguistikaren etxean onarpen zabala duen ala ez printzipio horrek. Aztertua dudan neurri mugatuan ez nintzateke hainbat esatera ausartuko. Ez zaizkit batere printzipio desegokiak iruditzen, ordea. Mundu zabalerako printzipio baliagarriak izan zein izan ez, *hemen* eta *orain* arrazoizko hizkuntza-politika aplikatzeko orduan zentzuzkoak iruditzen zaizkit hiru elementu horiek: batetik lege-marko egokia, bestetik hizkuntza-politika eraginkorra eta, azkenik, herritarren atxikimendua eta konpromisoa. Hiru elementu horietariko lehenena, hirugarrena edo biak kontuan izan gabe egin dira (eta halatsu egiten dira egungo egunean ere, dakigun neurrian) mundu zabaleko hizkuntza-politika asko. Hala egin eta egiten da, batez ere, *unifying, state building language* direlakoan aldeko hainbat hizkuntza-politika. Inork ezin esango du, jakina, politika horiek arrakastatsuek izan ez direnik hainbatean. Gurean bezalako gizarteetan ezin da ordea, kontuak atzekoz aurrera aterako ez bazaizkigu, lehenengo eta hirugarren elementu argirik gabeko hizkuntza-politkarik egin.

V.– AZKEN GOGOETA

Uste baino luzexeago atera bazait ere irizpena, saiatu naiz *Oinarrizko Txostenak* dioenera mugatzen eta, alde zein kontra, deigarrienak gertatu zaizkidan pasarteetan zentratzen. Puntuz puntuko azalpenak freskotasunean galtzen du sarri, egia da hori. Zuhaitzen ugariak begien bistatik ezkutatzen digu oihana. Irizpen-txostena da hau, ordea, ez idazlan beregaina. Ez da oihan baten azalpen-saioa beraz. Lantaldeak prestatuturiko dokumentuaren argi-mutil izan nahi du soil-soilik, eta zeregin horretarako lagungarri hobea izan liteke puntuz puntuko azalpena.

Hasieran esan dudanez lan ederra egin du taldeak. Zer pentsatua ematen du eta, ororen gain, buruan ditugun kezkek, konbentzimenduak, duda-mudak eta eskarmentu-printzak beste hainbaten uste-aburuekin bateratzen saiatzeko aukera eskaintzen du. Ez da hori bera, ondo pentsatzen jarrita, bizpahiru hilabeteon emaitza ezdeusena.

Suerte ona opa diet txostengileei, jasoko dituzten iritzi-ekarpenak bateratu, erkatu, bakandu eta balioetsi ondoan azken bertsioa prestatzeko saioari begira. Guztion mesederako izan dadila beren ahalegina. Badugu guztiok ere kontuok patxadaz, aparteko presarik baina geroko geroaren iheslekurako tentaziorik ere gabe, tratatzeko premia. Ea oraingo saioak bere fruitua ematen duen, eta gai hauen gainean lasaiago, elkarren .adiago eta aurrera begirako adostasun-formulen zaleago bihurtzen gaituen. Hala biz.

BIBLIOGRAFIA

- Fishman, Joshua A. 1982: *Sociología del Lenguaje*. Madrid, Cátedra.
- 2001: *Can threatened language be saved? Reversing Language Shift revisited: a 21st century perspective*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Kloss, Heinz, 1952: *Die Entwicklung neuer germanischer Kultursprachen*. München, Pohl
- Mackey, William F. 1976: *Bilingualism et contact des langues*. Paris: Klincksieck.
- McRae, Kenneth 1975: "The principle of territoriality and the principle of personality in Multilingual States", in *International Journal of the Sociology of Language*, nº4, págs. 33-54.
- 1983: *Conflict and Compromise in Multilingual Societies: Switzerland*. Waterloo, Ontario: Wilfrid Laurier University Press.
- 1986: *Conflict and Compromise in Multilingual Societies: Belgium*. Waterloo, Ontario: Wilfrid Laurier University Press.
- 1997: *Conflict and Compromise in Multilingual Societies: Finland*. Waterloo, Ontario: Wilfrid Laurier University Press.
- Milroy, L. A. 2001: "Social Networks", in *Concise Encyclopedia of Sociolinguistics*. Rajend Mesthrie arg. Amsterdam: Elsevier

- Mokoroa, Justo "Ibar" 1936: *Genio y Lengua*. Tolosa: Mokoroa anaiak
- Weinreich, U. 1953: *Languages in contact. Findings and problems*. New York: The Linguistic Circle of New York.
- Zalbide, Mikel 1991: "Hasi-masiak: eskola-giroko hizkuntza-erabilera eragiten duten faktoreen lehen azalpen-saioa". In Artola, I., Basterretxea, B., Berasategi, J. M., Olaziregi, I., Sierra, J. eta Zalbide, M., *Eskola Hiztun Bila* (17-35). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- 2001: "Fishman-en HINBE edo RLS. Donostia, graduondoko HIZNET ikastaroaren baitako materiala, orain *erabili.com*-en ere eskuragai.
- 2002: "Ahuldutako hizkuntza indarberritzea: teoriak zer dio?", in *Ikastolen IX. Jardunaldi Pedagogikoak. Donostia*.
- 2008 (inprimatzeko): *Euskararen Legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa*. Bilbo: Euskaltzaindia, 2007ko Jagon-jardunaldiak.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saibururordetza
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA
CONSEJO ASESOR DEL EUSKERA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

ISBN 978-84-457-2781-2



9 788445 727812

Salneurria: 10 €

“XXI. MENDE HASIERAKO HIZKUNTZA POLITIKAREN OINARRIAK” BATZORDE-ATAL BEREZIKO KIDEEN EKARPENAK

